

Lehen eta Orain bilduma

1. *Esaera goikoaz behera irauliak.*
Herri-literaturan errefrau-jorran.
Adolfo Arejita. 2024.

Lehen eta Orain:

Bilduma honen helburua, Euskaltzaindiak, ikerketa- eta sustapen-arloetatik landa, sortzen dituen literatura- eta saiakera-lanak argitaratzea da. Zabalkunde orokorreko lanez ari gara, irakurleak modu errazean irakurriko dituenak. Esfortzu handirik gabe euskararen gainean zerbait irakatsiko diotenak, hizkuntzaren edertasuna eta erabilera praktikoa sustatuko dutenak.

Lehen eta Orain, bilduma zaharberritua dela esan genezake, Euskaltzaindiak 1950eko hamarkadan sorturiko Len eta Orain bilduma baita berorren aurrekaria. Orduan lau lan baino ez ziren atera; hots, *Olerkiak* (1957) Felipe Arrese Beitiak idatzia, *Testamentu Berriko kondaira edo historia* (1957) Franzisko Ignazio de Lardizabalek, *Leturia-ren egunkari ezkutua* (1957) Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik*, eta *Ipuin barreka* (1959) Aita Felix Bilbaok. Bildumaren bigarren aldi hau, lehengoari jarraipen ugaria emateko xedez etorria da.

Babeslea



Laguntzaileak



ESAERA GOIKOAZ BEHERA IRAULIAK

Herri-literaturan errefrau-jorran

1

LEHEN eta ORAIN 1



Adolfo Arejita Oñarte-Etxebarria

Bilbon (Bizkaia) jaio zen, 1953ko irailaren 7an. Derioko Seminarioan ikasle zela euskal hizkuntzara zaletu eta gaztetxotatik gure hizkuntza lantzen hasi zen. Ondoren, Deustuko Unibertsitatean egin zituen goi-ikasketak (Filologia Erromanikoa). Euskal irratigintzan jardun zuen gaztetan Bilbo Herri Irratian (FM), eta gerora ere aldizka eta tarteka landu izan du kazetaritza-jarduna eta -generoa. Deustuko Unibertsitateko irakasle izan zen 1980. urtetik hasi eta erretiroa hartu arte, Euskal Filologia adarrean. Euskal Filologian doktoretza lortu zuen, Juan Antonio Mogel bizkaitar idazle klasikoaren lanaren tesia aurkeztuta. Unibertsitateatik at ere, irakasle-lanean jardun izan du beste erakunde batzuetan: UPV/EHU, IVAP-EAEEen eta berariaz eta luzaz Labayru Fundazioaren euskaldunentzako udako zein neguko euskara eskoletan. Labayru Fundazioan eginiko ibilbide oparo horretan, kargu asko izan ditu: zuzendari izan da urteetan, eta erakundearen Artekaritzako buru, egun. Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1983an eta euskaltzain oso 2004an. Akademiaren EHHA (*Euskararen Herri Hizkeren Atlas*) egitasmoaren zuzendari izan da 2005. urtean hasi eta bukatu den arte. Gaur egun Euskaltzaindiaren idazkaria da, 2020ko urritik hona. Oro har, euskararen gramatika, lexikografia, herri-literatura, testu literario zahar eta modernoan edizioak eta euskararen estilo ona kazetaritzan izan dira arduraz eta gogoz landu dituen lan-ildo nagusiak. Hainbat argitalpen ditugu horren lekuko.

Adolfo Arejita

ESAERA GOIKOAZ BEHERA IRAULIAK

Herri-literaturan errefrau-jorran



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Lehen eta Orain

(Bigarren aldia)

1

Adolfo Arejita

ESAERA GOIKOAZ BEHERA IRAULIAK

Herri-literaturan errefrau-jorran

EUSKALTZAINDIA

Bilbo

2024

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la Biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la Langue Basque:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:
www.euskaltzaindia.eus/azkue



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Hizkuntza-orrazketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoeekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoko edo mekanikoko, fotokimikoko, magnetikoko, elektrooptikoko, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© Adolfo Arejita

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Barrualdearen diseinua: Idoia Tolosa

Gainazala: Idoia Tolosa

Inprimatzea: Tecnigraf

ISBN: 978-84-129458-4-3

Lege-gordailua: BI 1601-2024

Azkueren ohoretan eta Unamunoren *Paz en la guerra*
eleberri-sarrerako hitzokin bat eginez:

"Esto no es una novela, es un pueblo"

AURKIBIDEA

| | |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| Hitzaurrea. <i>Jabier Kalzakorta</i> | 11 |
| Aurkezpena. <i>Adolfo Arejita</i> | 17 |
| Esaera edo errefrauen gai-zerrenda (alfabetikoki) | |
| 1. Adiskidea eta laguna. <i>Adiskidea zaharrik, kontua berririk</i> | 21 |
| 2. Aharrausia. <i>Aharrausi luzea, logurea edo gosea</i> | 26 |
| 3. Aita-emeak eta ama-alabak. <i>Aita eta seme tabernan dagoz, ama eta alaba jokoan</i> | 29 |
| 4. Alaba bakarra. <i>Alaba bakarrak surtako hautsa be berea</i> | 32 |
| 5. Alferra. <i>Alperra beti nekean</i> | 36 |
| 6. Ama eta alaba. <i>Zelangoa baista amea, halangoa ohi da alabea</i> | 39 |
| 7. Amurraina eta antxumea. <i>Amurraina amutik eta antxumea larrutik</i> | 43 |
| 8. Artea eta sagar-arbola. <i>Arteak ez du emango sagarrik</i> | 46 |
| 9. Aurre-atzeak. <i>Aurreak erakusten dau atzea zelan ibili</i> | 49 |
| 10. Auzoa eta senidea. <i>Urruneko senidea baino, auzoa hobe</i> | 51 |
| 11. Bakearen balioa. <i>Bakeak be asko balio dau</i> | 54 |
| 12. Begiak hodeitu. <i>Inori esateko «hodeitua», norberak izan behar dau «eguzki klarua»</i> | 58 |
| 13. Beirazko teilatua. <i>Beira teilatua badezu, auzoari harrika ez degiozu</i> | 61 |
| 14. Belar ihartua. <i>Ez dan bedarra berez igartzen da</i> | 64 |
| 15. Berba ederren korapiloa. <i>Berbok eder ahoan, korapiloa golkoan</i> | 67 |
| 16. Berbatik berbara. <i>Berbeak berbea dakar</i> | 70 |

| | |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 17. Berandu hobe. <i>Bapez baino, berandu hoba!</i> | 73 |
| 18. Berezkoa izan edo izan ez. <i>Buruak berez ez dakarrena, Salamancak ez du opesten</i> | 78 |
| 19. Bila ibili. <i>Bila dabilenak, idoroko du</i> | 81 |
| 20. Bilbao eta birao. <i>Bilbao, han bere dongeak birao</i> | 84 |
| 21. Bizkaitarra eta arabarra. <i>Bizkaitarra, jan eta hotz; arabarra, jan eta poz</i> | 89 |
| 22. Burugina eta lagungina. <i>Burugin ona, lagugin txarra</i> | 92 |
| 23. Buztan lastozkoa. <i>Buztana lastozkoa duana, suaren beldur</i> | 96 |
| 24. Dabilen harria. <i>Dabilen harriari ez zaio goroldiorik lotzen</i> | 100 |
| 25. Dagoenean... <i>Dagoanean dagoantxo, ene-enetxo!</i> | 103 |
| 26. Dena gura izatea. <i>Dana gura dauenak, guztia galdu dau</i> | 106 |
| 27. Diruak txakurra dantzan. <i>Diruak txakurrei be dantzan eragiten deutse</i> | 108 |
| 28. Domuru Santuru. <i>Andrak andra handi, Domu Santuruetan dira agiri</i> | 112 |
| 29. Elurra mendian. <i>Denporeak agertuko dau edurra mendian</i> | 114 |
| 30. Egina eta egingoa. <i>Eginak eginbakoari itxaron</i> | 116 |
| 31. Egun-argiz ardia ezagutu. <i>Egun-argitan dira ardiak ezagutzen</i> | 119 |
| 32. Egur sugina. <i>Egur eskarmentadua, sugin ona</i> | 122 |
| 33. Ekina. <i>Ekina baragarria da!</i> | 125 |
| 34. Endorea, entzulea. <i>Zeegik ezer, endorea, entzun artean bestea</i> | 129 |
| 35. Errota, bolua, eihera. <i>Errota on da dabileno, ez geldirik dagoeno</i> | 132 |
| 36. Esatetik ematera. <i>Esana bat eta emona bi; emonagaz konformau hadi!</i> | 135 |
| 37. Euria eta leia. <i>Euriaren gaineko leia, euriaren deia</i> | 138 |
| 38. Ezina eta ekina. <i>Ezina, ekinez egina</i> | 141 |
| 39. Garen artean... <i>Garean artean, gaitzezan bizi</i> | 145 |
| 40. Garia eta artoa. <i>Guzurrak eta barreak ez dau balio, artoak eta gariak baino</i> | 148 |
| 41. Gatza eta zentzua. <i>Gatza gatzontzian eta zentzuna auzoan</i> | 153 |
| 42. Gaztea eta zaharra. <i>Gazteak baleki, zaharrak balegi</i> | 157 |
| 43. Gezurra atarian. <i>Gezurra nesan Getarian; ni etxean eta hura atarian</i> | 161 |
| 44. Gosea eta ezkurra. <i>Urde goseak, ezkur amets</i> | 165 |
| 45. Hartu eta eman. <i>Hartzen jakiteko, ematen ikasi</i> | 169 |
| 46. Hildakoari salda beroa. <i>Hil eta gero, salda bero</i> | 172 |

| | |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 47. Ikusi eta ikasi. <i>Asko ikusi dauenak, asko ikasi daroa</i> | 175 |
| 48. Intxaur urruna. <i>Urrungo intxaurra burua laso, jarrekin ez ekidan herrikoa laso</i> | 179 |
| 49. Iraila edo buruila. <i>San Gil, iratzea ebakitzea zil</i> | 183 |
| 50. Isatsa edo buztana. <i>Bati isatsa kendu eta besteari erantsi</i> | 186 |
| 51. Jana eta lana. <i>Jan eta lan</i> | 189 |
| 52. Jantxakurra. <i>Jantxakurrarena egin: ez jan, ez jaten itxi</i> | 191 |
| 53. Kandelario. <i>Kandelario-lario, hatxari ura dario</i> | 193 |
| 54. Katua eta buztana. <i>Gure katuak buztana luze; norbera legez besteak uste</i> | 196 |
| 55. Kukua. <i>Kukuen kantatzean, euri eta eguzki</i> | 199 |
| 56. Lapikotxea eta lapikotoa. <i>Abadearen lapikotxea, txikina baina gozoa;</i> <i>ikazkinaren lapikotoa, handia baina harroa</i> | 204 |
| 57. Laratza. <i>Ettxeko laratzak eta larazpeak ezagutzen du pertsona</i> | 208 |
| 58. Maiatza. <i>Urdaiak maiatz luzeak eroango deuskuz</i> | 211 |
| 59. Marabedia eta idia. <i>Marabedian idia; baina, nork dauka marabedia?</i> | 214 |
| 60. Medikua eta barberuak. <i>Besterentzat mediku, norberetzat barberu ere ez</i> | 217 |
| 61. Morroia eta ugazaba. <i>Morroiak hanka bat bustitzeko errekan, ugazabak hanka</i> <i>biak busti behar</i> | 221 |
| 62. Mozkorra. <i>Mozkorra, beti egarriak</i> | 226 |
| 63. Neurriaz neurtu. <i>Zuk neurtzen duzun neurri beraz neurtuko zara</i> | 230 |
| 64. Odolkiak edo odolosteak. <i>Odolkiak ordainetan</i> | 234 |
| 65. Ofizio gehiegi. <i>Hamalau ofizio, hamabortz miseria</i> | 238 |
| 66. Ogia eta hagina. <i>Ogi gogorriari, hagin zorrotza</i> | 241 |
| 67. On bila. <i>On bila, on bila, bonbila!</i> | 243 |
| 68. Onua edo kontseilua. <i>Onurik ez dau inork beretzat, eta bai besterentzat</i> | 245 |
| 69. Orpoa eta arantza. <i>Ez dago etxerik, orpoan arantza barik</i> | 248 |
| 70. Otsaila edo zezeila. <i>Otsailean aldiz eguzkitan, aldiz sutantzean</i> | 251 |
| 71. Otsa. <i>Otsa non aipa, han gerta!</i> | 254 |
| 72. Pitxerraz iturrira. <i>Beti iturrira dabilen pitxerra, behin edo behin hautsi egiten da</i> | 257 |
| 73. Pobrearen arrazoia. <i>Pobrearen arrazoia eta urruneko basoko egur igarra,</i> <i>bardinak</i> | 261 |
| 74. Pupua eta mantarra. <i>Lauzuriren pupua eta laumararen mantarra</i> | 267 |

| | |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 75. Sabela, ura eta sua. <i>Sabelak, urak eta suak emoten jaken guztia eroaten dabe</i> | 271 |
| 76. Sagua eta katua. <i>Hobe saguaren burua izan, katuaren buztana baino</i> | 274 |
| 77. San Bizenti. <i>San Bizenti hotza, neguaren bihotza</i> | 277 |
| 78. San Estebantxe. <i>Gabon bon-bon, Natibitate ase eta bete, San Estebantxe bestetan lantxe</i> | 280 |
| 79. San Jurgi eta San Markos. <i>San Jurgi, artoak ereiteko goizegi; San Markos, artoak ereinda balegoz</i> | 283 |
| 80. San Martin. <i>San Martin, negua aurretik edo atzetik</i> | 286 |
| 81. Seinak ezkaratzean. <i>Seinak dantzuana ezkaratzean, esan daroa atartean</i> | 290 |
| 82. Suari putz. <i>Bakoitzak bere suari putz</i> | 294 |
| 83. Txahal bila. <i>Txahala lepoan eta txahalaren bila!</i> | 297 |
| 84. Udaberria. <i>Udabarria, odol barria</i> | 299 |
| 85. Ugazaba bi. <i>Bi ugazabako etxea, kaltea</i> | 302 |
| 86. Urari presa. <i>Joandako urari ezin presarik egin leio</i> | 304 |
| 87. Urdaia eta sagua. <i>Urdaia saguaren atzetik</i> | 307 |
| 88. Urria. <i>Urria, hilabete ezitia, ihiztarien loria</i> | 310 |
| 89. Urteberri. <i>Urtebarri, itsuak be igarri</i> | 314 |
| 90. Usoa eta otsoa. <i>Kanpoan uso, etxean otso</i> | 316 |
| 91. Zahagiak. <i>San Migel, zaragiak aurretik edo atzetik</i> | 319 |
| 92. Zahagiko ardoa. <i>Norbere zaragiko ardaoaz be horditu leiteke</i> | 322 |
| 93. Zahia eta irina. <i>Zahietan zioği, urunetan ero</i> | 326 |
| 94. Zakutoa eta kordela. <i>Zelango zakutoa, halango kordela</i> | 329 |
| 95. Zemendian garia. <i>Zemendian erein garia, idien apatxartera be!</i> | 333 |
| 96. Zeru seguruak. <i>Han zerua eta hemen zerua, ez da gauza segurua</i> | 337 |
| 97. Zirola eta ohola. <i>Haur ola, zirola!</i> | 340 |
| 98. Zoroak bizi. <i>Bakotxa bere zoroak bizi dau</i> | 343 |
| 99. Zorria eta txerria. <i>Bertzeren buruko zorria dakusa eta ez bere lepoko txerria</i> | 346 |
| 100. Zuloa eta larakoa. <i>Zulo bakotxari, larakoa</i> | 352 |
| Bibliografia | 355 |
| Laburdurak | 367 |

HITZAURREA

Esaera goikoaz behera irauliak liburu honetan, ehun errefrau hartzen dira berbagai eta azterkizun. Ehun esaera horiek oinarri dira era bateko eta besteko iruzkinak egiteko. Lan honen egilea den Adolfo Arejita euskal ikertzaileak gogoeta egin du, errefrauoi hamaikatxo azalpen zein hausnarketa erantsiz. Eta errefrau bat iruzkinduz gero, otarretxoan dauden gerezien antzera, bat hartuz gero beste batzuk hari lotuak agertu ohi dira. Ehun erranairu horiek oinarri harturik, bada, Euskal Herrian hamaseigarren mende bukaerako lehen bildumetatik hasi —1596ko *Refranes y sentencias* eta Esteban Garibaikoaren bilketetatik— eta oraintsura arteko errefrautegietako aleak aztertu ditu egileak.

Lan paremiografikoak errefrau-bildumak dira: bilketa-lanak huts-hutsik. Euskaraz inprimatu dugun horietako lehena da lehentxoago aipatu dugun 1596koa. Hona hemen liburuaren izenburu osoa: *Refranes y sentencias comunes en bascuence, declaradas en romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas*. Liburu horretan euskarazko errefrau-zerrenda bat eskaintzen da, aldamenean erdarazko itzulpena duela.

Lan paremiologikoez, osteraz, lan paremiografikoez elikaturik, era bietako azterketak eskaintzen dituzte. Julio Urkijok RIEV aldizkarian

argitaratu zituen errefrau-lanak, esaterako, paremiologikoak ziren, lehenagoko bilketetan oinarrituz azterketa bat ekartzen zutelako. J. Urkijok azterketa horietan, euskarazko errefrau bakoitzaren beste hizkuntza bakoitzeko ordainak ezartzen zituen. Zenbait kasutan euskarazko errefrauaren esangura ere zehazten zuen adiera bereko edo antzeko beste kide batzuk —hizkuntza arrotzetakoak edo inoiz are euskarazkoak ere— opetsiz.

A. Arejitak «errefrau» hitza darabil liburu honi izenburua emateko. «Errefrau» hitzak baditu beste ahozko aldaera batzuk ere: *errefran*, *errepran*, *errefin*, *errepin*. Euskaraz modu eskotara deritzo kontzeptu horri: «esaera (zaharra)», «esakera (zaharra)», «esalegea», «erran komuna» (Axularrek erabili ohi zuen bezala), «atsotitza» (Oihenartek asmatua, «neurtitza» eta «ilartitza» bezalaxe), «erran zaharra», «erranairua» eta abar. Lehenago dokumentatutako hitza, 1596. urteko «supita» dugu: «Anbiolaco supitac, eguiac» // *Refranes del tiempo pasado, verdades* (RS 32). Honen kidea da, Markinan entzuna dudana «esakerak izakerak izaten dira» baieztapen hura ere. Guk sarreratxo honetan «paremia» hitza erabiliko dugu, hitz nazioartekoa delako. Era berean, «paremiologoa» erabiliko dugu, nahiz eta euskaraz Azkuek sortutako «neurtizlaria» ere badaukagun.

Horregatik bada, *Esaera goikoaz behera irauliak* liburua lan paremiologikoa da batez ere. Sorta honek ehun errefrau oinarritzat harturik euskarari dituzten kideak arakatu ditu. Azterketa, ordea, ez da errefraueta bakarrik mugatu. Erramoldeak eta euskal idazle klasikoen testuak ere —garai eta euskalki diferenteetakoak— ikertu ditu. Eta aurkezten dugun lan honen ekarririk handiena paremiologikoa bada ere, guztiz kontuan hartzekoa da, berorren ekarri paremiografikoa ere. Liburu-egileak jaso dituen esaerak —batez ere Bizkaikoak—, irakurleak orri hauetan baino ez ditu irakurriko. Errefrau-erramoldeetatik harago, egileak hitzak berak ere gogoetagai ditu. Hala, euskal klasikoen testuetan ez ezik, umetatik ikasitako euskarari zein urteetan zehar

handik eta hemendik entzundako berbetan murgildu da. Era horretara hainbat ñabardura eman ditu hitzen gainean.

Hizkuntza bateko hainbat paremiak hizkuntza bereko kulturarekin lotura zuzena dute. Are gehiago, ezin dira askotan paremiak ondo ulertu herriaren beraren kultura ulertu gabe. Liburu honetan, zenbat-gura adibide aurkituko ditu irakurleak horietarikoak.

Adibide bat jarriko dut. 46. erreferuari, *Hildakoari salda beroa* izenburua dakarrenari, «Gu hil eta gero be astoak errotara joango dira» esaera ezaguna erantsi dio egileak, Azkueren erdal azalpenaz horniturik: *NADIE ES IMPRESCINDIBLE PARA LA MARCHA DEL MUNDO*. Esaera hau neure herrian ere, Markinan, askotxotan entzun dut. Pertsona bat hil ondoren munduak ez du inolako zirkinik egiten, ez du den gutxieneko aldaketarik nozitzen: munduak betiko bere jira-bueltarekin jarraitu ohi du, milaka urtetan lehenago bezalaxe.

Esaera hori gordin bezain krudela da. Eta bere krudeltasunean guztiz egia ez dela ondoriozta dezake batek baino gehiagok... Hildakoa maite zutenen kontzientzian mundua aldatu egiten delako haren heriotzaren ondoren, eta sentiera berezi bati ematen dio bide. Zergatik esan ohi da, beraz, atsotitz hori? Garai bateko bizierarekin du zerikusia. Errotara nagusia eta astoa joan ohi ziren zakutoak gari-artoz beterik. Errotan gari-artoak irindu ondoren, astoa zein asto-jabea errotatik itzuli ohi ziren. Astoak, bidea ikasi ondoren, ez zuen nagusiaren laguntzaren premiarik izaten eta errotarako joan-etorria bakarrik egiten zuen inolako laguntzarik gabe. Pablo Pedro Astarloak (1752-1806) bildu zuen paremia hau: «Ilda zorruak errotara» (38). Paremia honek badu bere mamian Iparraldean Jean Pierre Duvoisin (1810-1890) kapitainak batu zuen beste batekin lotura: «Guillen, bihar hillen, etzi ihortziren, etzi damu ahantziren» (49). Duvoisinekin honelaxe interpretatu zuen paremia: *L'oubli nous suit à peine disparus*.

Eta pausa nadin amaitzeko, paremia batzuen koplak-izaeran ere. Lan honetan, Azkueren *Euskalariaren yakintzatik* (EY) hartutako paremia bat berez koplak dela dio egileak: «Aita ta seme tabernan dagoz, ama ta alaba jokoan. / Haren etxean ezta faltako erroa zaharra kakoan» (EY 1233). Hau da:

Aita ta seme tabernan dagoz,
ama ta alaba jokoan.
Haren etxean ezta faltako
erroa zaharra kakoan.

Modu berean, koplak bat da bilduma honetara ekarritako hurrengo hau ere: «Ehun errealekin arren anega gariak, edan barik ez dira egongo errementariak» (EY 718). Esaera zahar horrek garai bateko olagizon-errementarien edatun-ospea adierazten du. Errementariak zein olagizonak, sutegi ondoan egun osoa lanean jardun ondoren, egariak itota egoten omen ziren. Erranairu hori koplak zahar bat da bere jatorrian:

Ehun errealekin arren
anega gariak,
edan barik ez dira egongo
errementariak.

Eta esaera horren aldaera da Azkuek dakarren beste hau ere: «Alperrik egingo jok ehun errealekin gariak, ardoa edango jok errementariak; prakak zaharrak eta begiak gorriak». Azkuek paremiatzat jotzen zuen horretan bi koplak loturik daude:

Alperrik egingo jok
ehun errealekin gariak,
ardoa edango jok
errementariak.

[Olagizonak eta
errementariak,
praka(txu) zaharrak eta
begiak gorriak.

Bi kopla hauek kopla-kantariak bata bestearen ondoren kantatu ohi zituen. Nahiz gaur egun olagizonik ez izan, garai bateko olagizon-errementariak Euskal Herri zaharrea herri gehienetako ofizialak ziren.

Théophile Gautier idazle frantsesak *Voyage en Espagne* bidaia-liburuan, Frantziatik barrena Espainiara etorri zenean, zaldi-karroza batean Euskal Herria zeharkatu zuen. Oihartzuna iritsi baino lehen, Gipuzkoako basoetan barrena, ume-eskaleek —neskato-mutikoek— bide-bazterretatik basamarrubiak ziri batean sarturik jaurtitzen zizkieten karrozako jaun-bidaiariei. Dirua edo limosna eskatzeko modu dotorea zen. Zirian sartutako baso-zelaietako basamarrubiak baino jateko gozoagorik!

Bilduma honetako ehun paremiok ere zirian sartutako basamarrubiak bezalakoak dira. Basamarrubiak gainerako marrubiak baino txikiagoak izan arren zapoetsuagoak, jakera gozoagokoak izan ohi dira. Hizkuntza bateko paremiok ere, beren txikian, jan ondoren ere halako zapo gozo bat utzi ohi digute.

Jabier Kalzakorta

AURKEZPENA

Saio-generoko lan bat duzu aurrean, irakurle adiskidea. Saio-lana ere literatura da azken batean, gogoeta eta hausnarketa gehiago, irudimenezko sorkuntza baino gehiago, baina literatura, finean.

Herri-literaturaren arlo zabalak barru hartzen duen atsotitzen saila hartu dugu barrutizat oraingoan. Ahozko literaturatik idatzira ekarriak, mintzotik lumara erakarriak.

Hautu hau eginaren arrazoa sinplea da; azalpen handi barik argi daiteke. Entzuteko idatziak izan dira ehuneko sorta honetan dituzun guztiak. Irrati bidez garandu ditut Bizkaia Irratian, *Euskara hobetzen* deritzan tartean behin banan, astean bat azken lau urteotan (2020-2023), hasieran mehatzago eta gerora sarriago, asteroko maiztasunaz.

Bizkaia Irratiko euskara-hobetze tarterako hautatuak eta azalduak izateak baditu bere baldintza eta mugak ere. Berbaz esateko onduak izan dira lehenengo idazketan, eta bizkaieraz. Entzule hurrekoak begipean direla atondu izan ditut; asti-urri nenbilela eta denboraren agindura sarrien. Baldintza-mugak aipatu ditugula eta, eremu mugatuagoari eman diogula behintasuna esan behar dugu, lehenik. Sartaldeko herri-jakintzaren edukiei, batez ere. Hala bada, Bizkai eta Gipuzkoako

edukietara albora-karga dagoela berehala ohartuko da irakurlea, baina Nafarroako eta Iparraldekoak ere ahal den ginoan aintzat hartu izan dira.

Hitz bakarreko edo hitz biko goiburua du ezaugarritzat errefracuetariko bakoitzak. Bilabide errazaren lehian. Ahaleginez, kontzeptu diferenteen adierazle diren hitzak hautatu dira ehuneko sorta horretan, baina beti ere muga batzuen barruan. Asteroko jardunaren epe-estutasunak gidatu du hein batean gai eta kontzeptuen hautaketa. Eskuraerrazen nituenetara jo dut ezinbestean behin baino usuago.

Errefrau bakoitzaren ardatzera erakarri ditut eraz idoro ditudan aldaerak edo hurreko formulak; ez gure corpus sakabanatuetan diren guztiak, baizik eta inguratzen eroso eduki ditudanak. Hau ez baita ikerkuntza-lana; lehen bildutakoa, edo neuk zuzenean bildu ahal izan dudana, birlandu, elaboratu eta gizarteratzeko saio-generoko ahalegin bat baino. Euskarazale eta euskara-maite diren irakurleak erakartzeko gogoz ehoriko saio anitza, edonon eta edonoiz, dena osoan barik, tarteka eta atalka irakur daitekeen liburua, haria galdu barik lantzean bat irakurrita gozamen-puntua eman nahi lukeen obratxoa.

Errefrauen ardatzean, inguruko argibideak ere bildu ditut, eraz datozela ikusi dudanean. Batzuk, eurok muinean duten mezuaren gorabeheran; gune duten gaiari ertz batetik edo bestetik oratzen dioten gogoeta edo hausnarrak. Baina maizago, hizkuntzari berari doazkionak: euskal hizkuntzaren hobekuntzarako mesedegarri diratekeenak, edo lexikografiaren edo gramatikaren, edo estilo-hobekuntzaren aldetik eginak. Bizi guztian irakasle izan den batengandik ezin espero besterik... Bidenabar, errefracuotako hitz, esapide edo mezuok literatura landuan izan dituzten oihartzun batzuk ere biltzera jo dut, egoki letozkeela neritzanean.

Errefraugintzaren emaria, beste hizkuntzetan ez ezik, geurean ere ugaria, oparoa eta dibertsitatez jantzia izateak abantailatxoa eskaintzen zidala oharturik nengoen, era bateko edo besteko azalpen eta argibideak

eskaintzeko malgutasuna ematen zidatela, hain zuzen. Jostailu aiutua begitandu zait, joko-emangarria eta aldi berean jostagarria. Hala iritzi diot, eta gustura jardun dut asteroko eginbide horretan.

Gorago esan bezala, irrati-jardunak markatu du errefrau-emari honen erritmoa eta ordena. Buruan erabili ahala hautatu ditut eta lehen zirriborro arin bat idatzi, berbaz labur jardun ahal izateko. Eta ondorik, idatzizko taxuan borobildu lehen hasikin hura.

Lehenik entzuteko jasean onduak izateari, irrati-entzuleen hizkuntza-sena gomutan dela egin izanari zor zaio, duen ahozkotasan-usain hori. Bigarren orraztuan egokitu edo hobendu dira irakurlearen gustura, alegiazko gustura agian. Geure iritzien mende beti ere.

Batzuetan uneari edo uneko gertaeren bati ondo datorkion mezuaren adierazle delako hautatu da errefrau bat. Beste batzuetan, eguneroko bizimoduan gertatzen diren gorabeherak, edota euren aurrean gogora etorritako harako esakuntza izan da zioa. Eta baita sarri, irakurraldi patxadatsuetan hitz, esapide edo ideia bategi jo eta horrixek heldu.

Aitor dut, entzule fin euskarazaleen ekarriak ere guztiz aberasgarri gerta zaizkidala. Zein izan dudan berriemaile edo lekukoa, dagokion puntuan beren-beregi aipatu izan dut, hutsak edo ahanzturak aparte.

Bilduma honen egitura dela eta, ehuneko horretan ez beza espero irakurleak hezurdura semantiko biribilik, ez bakarrik, ez artezik. Bizitzari eta norbere gogoari berez darion etorria da gehiago.

Berrito ohartuko dut, saio-generoko lana dela hau, eta ez ikerketa. Ez dago filologia-ikerketek eskatzen duten metodologiaren gerrietara es-tuturik. Eralki diren errefrauen bertsio eta aldaerak ere ez dira, eta ez dute zertan izan, bertsiorik zaharrenak ez lehenak, ez hoberentzat dau-denak, ez bakarrak. Helburua ez dut izan, ez datatzea, ez bertsiorik zahar

edo fidagarriena zenetz, ez antzekokorik. Asmorik behinena, transmisioa eta ezagutzen ematea izan da. Duguna eta batzen erraz izan dudana irakurleari ezagutaraztea, lehenago entzuleekin egin dudana eran.

Zitatu ditugun euskal literatura txatalen aipuak gaurko idatzarauetara hurbildu ditugu ahaleginez, nahiz klasiko zaharrak izan, nahiz klasiko modernoak, eta berdin ahozkoen transkripzioak. <H> grafia xx. mende hasieratik honunzkoetan txertatu dugu, Hegoaldeko idatziak izanik ere. Baina xix. mende barrenera artekoetan ez gara horretaraino ausartu.

Gabon-gereziez ere ordaindu ezingo dudana zorra aitortu nahi diet, obra honen behin-behineko idazketa irakurri eta oharrez hornitzeko borondatea erakutsi eta pazientzia hartu dutenei.

Lehenik, Xabier Boveda, irakasle, ikertzaile eta Euskaltzaindiaren Ahozko Euskararen Thesaurus (AET) ikerketa-ildoan kalitate-begirale dudana lankideari, geldiro eta oharrez, neurez gaineko lehen orraztua egin izanagatik.

Jabier Kalzakorta ikertzaileari hurrengo, edozenbat errefracu eta esamolderen emaile berori izan dudalako, eta liburu hau bere hitzaurrez aberasteko ohorea eskaini didalako.

Hirugarrenez, aingeru jagole izan dudana Nagore Etxebarria Euskaltzaindiaren Hizbea zerbitzuko teknikariari, gure testu idatzia artezten, orrazten eta aberasten egin dituen zazpi ahaleginengatik eskerrik onenaz.

Euskaltzaindia, Euskararen Akademia, ez nuke ahantzi nahi, saio hau argitaratzeko borondatea eta erabakia hartu duelako, eta are gehiago oraindik: Lehen eta Orain bilduma zaharberrituaren bigarren aldi honi arnasa-leiho berria irekitzeko aukera eman didalako.

Adolfo Arejita

Pazko egunez, 2024ko martxoaren 31n

1

ADISKIDEA ETA LAGUNA

Adiskidea zaharrik, kontua berririk

Oihenart zuberotarraren *Proverbes/Atsotitzak* bilduman ageri den errefrau zaharraren hitzak dira goiko horiek, baina bertsio berriagoetan ere emari ugari oparoa ezagutu du esakuntza horrek, *adiskideen* eta *adiskidetasunaren* gaineko beste batzuek bezala.

Adiskide izatearen giza ezaugarri hori ondo ezaguna da, hitz beronekin edo *lagun* delakoarekin onduriko errefrau askotarikoetan, eta berdin herri-jakintza arlo hedatsuaren beste emaitza batzuetan ere.

J.A. Moglek, *Peru Abarka* berba-jardunen seigarren kapitulu edo jardunean, zerrendatu zizkigun, Joanis «prantzes» euskaldunaren ahoz, *adiskideen* gaineko bost bat errefrau, era batera edo bestera Oihenarten *Atsotitzak* bilduma iturri zutenak. Eta funtsean, errefrau-generoak, euskarazko herri-sorkuntza horrek, eskaintzen dituen birtute eta irakatsi mesedegarriei, kristau dotrinaren harietan ondo josten diren horiei, indar egiteko.

Goiko errefrau horren esana, adiskide *zaharra*, beti-betikoa, abonatzera dator. *Kontua berririk* dioen horretan diru gorabeherez ari dela esan daiteke: inorekin zorrik ez izateaz, diru-kontuetan garbirik eta kito

egoteaz. Beste hitz batzuekin, mezu beraren iragarle dugu honako hau ere: «Kontuak garbi eta adiskide zahar» (EZBB 1826).

Edozelan ere, batera zein bestera, aldaera diferenteen pean emaritsu gertatu den esaera dugu. Irudi diferenteen bidez eginik ageri zaigu konparantza. *Ardoarekiko* berdintzaren bidez jartzen da estimutan adiskidea maiz: zenbat eta zaharragoa izan, hainbat eta hobea delako sinestea. «Adixkidea eta arnoa, zaharrago eta hobe» (EZBB 32), diosku Iparraldeko honek. «Adiskidea eta ardoa, zenbat eta zaharrago hobe» (*Garate* 168), berriro, beste batek. Edabearekiko alderaketa hori urrunago eroanik, jan-edan gozo eta estimazio handikoaz berdintzen da beste batzuetan. Hala, *urdaia*, *gazta* eta *ardaoa* balantzan ipinirik: «Urdaia, gazta ta ardoa urtekoa, adixkidea urtetakoa» (*EuskAtsot* 13011). Domingo Agirre idazlea dugu horietarikoa, belaunez belaun ikasiriko esaeratzat opatu diguna: «Nere aita zanak esan ohi zuan: “Urdaia eta ardoa urtekoa; adiskidea urteetakoa”» (*Garoa*).

Adiskide onak *urri* eta *bakanak* omen dira. Sineste hori ere maiz loratzen den mezua dugu genero honetan. Hurrengo hauek lekuko: «Adixkideak aiseago konda ditazke ardiak baino» (EZBB 33); «Lagun on asko ez dago gaizki, adiskide gutxi batzuk askoz hobe» (EZBB 1860).

Eta beste zein irudiz kidetarik ageri zaigu adiskidetasuna edo adiskide onaren izaera euskal errefracuetan? Hara bat edo batzuk, gutxi badira ere:

Adiskidea eta *etsaia* aurkez erakusten dizkigute batzuek. Hara Nafarroako honen esana: «Adiskidetako hobea da etsaitako baino». Ohar hau erantsi zion D. Intza biltzaileak: «Ona da bai, baino zorrotza, zorrotzegia» (NEZ 186). Azkuek bere hiztegian jasorik dakarren bat: «Hobe duk aza-zopa adiskideareki, ezin ez oilo-salda onerizten ez haianareki» (DVEF). *Oneritzi*, gaur ahaztutxe dugun aditz zaharra, «maite izan» ezagunagoaren adierakidea.

Nolako *adiskideak edo lagunak* dituen batek, norbera ere halakoxea bihurtzen delako mezuak ere hots egiten du. D. Intzaren bilduman: «Esan zak norekin habilen, eta esango diat nor haizen». Beste aldaera honekin ere demaiguna: «Nolako lagun ta adiskideak dituzun, halakoa izango zu ere» (NEZ 738).

Saldu-erosietan, merkatu-tratuan eta ordaintze kontuan ere aipatzen da adiskidea, balio iraunkorraren seinale. Eremu horretakoa dugu, hain zuzen, goiburuko Oihenartek dakarrena. Baina badira ildo bereko gehiago ere. Hala dio batek: «Adiskide zaharra ez da saltzeko» (*Garate* 161). Antz-antzekoa dugu D. Intzak bilduriko beste hau: «Jornal pagatua, adiskide zahar» (NEZ 1067). Argibide zorrotza erantsi dio aita Damasok honi: «Pagatu duena geroz adiskide gelditzen».

Adiskide *zaharra* eta adiskide *berria* aurrez aurre atsotitz baten baino gehiagotan ageri zaizkigu. RS bilduman ageri den bat dugu lekukotasunik zaharrenetarikoa honezaz: «Adiskide barriagaiti zarra ukatu balidi, edo len edo gero kalta artu leidi» // SI POR EL NUEVO AMIGO EL VIEJO SE NEGASE, O ANTES O DESPUES TOMARÍA DAÑO (RS 510). Eta Arnauld Oihenartek dakarren beste hau ere aurreko horren kide-kidekoa dugu: “Adiskide zaharra berriagatik eztutzala” (*ProvBasq* 540). *Eztutzala*, aginterazko adizki trinko zaharra; gaurko eran esanda: ‘ez dezaala utz, ez ezak utz’. Oraintsuagoko hizkeran ere batu izan da errefrau bera: «Adiskide berriagatik ez utz zaharra» (*Garate* 152); beste aldaera hur-hurreko hau ere duena: «Adiskide berri egiteko prisarik ez, are gutiago zaharren uzteko» (*Garate* 151).

Adiskide *handien* abantailen mintzo zaigu, Lesakako ostatu batean idatzirik zegoenetik D. Intzak apuntatu izan zuena: «Adiskide haundiakin, orduak lasa» (NEZ 1674).

Ez pobre, ez aberats izatea ere notatzen da adiskidetzako izatearen ezaugarri onenentzat, gutxi batzuetan. Bilduma zaharreko honetan,

esaterako: «Jopua ta adiskidea, ez txiro ez aberats» // EL CRIADO Y EL AMIGO, NI POBRE NI RICO (RS 435).

Ibildaunen, mundurik mundu ohi dabiltzanen ezaugarritzat jotzen da, adiskiderik batere ez, edo bakan izatea: «Bidez bide dabiltzanak, ostatu asko ta *adiskide gitxi*» (OE).

Etxeberri Sarakoaren abertentzia, itxura hutsezko adiskideen aurrean erreparo izateko: «Hainak dira, ene *adiskide itxurazko* batzuek ene hutsei jazartzeko mihiak sufle eta arin tuztenak» (ES 196).

Literatura klasikotik, S. Mendiburu oiartzuarraren bat hautatu dut, sasiadiskideen gorabeheran idatzi zuen ohar hau dela eta: «Jateko ta edateko ta gauzak artzeko, guziak *aide ta adiskide*, baina nekerako ta ari lagunzeko ezagun ere ez» (*Mendiburu*).

Akabukoz, *adiskide* eta *lagun* izatearen arteko antz eta diferentziak aipa ditzadan zeharka. *Adiskidea* eta *laguna* esanguraz elkarren hur-hurrekoak dira, eta hizkera batzuetan *lagun* izenak estali dio bere lekua, edo esanahi-eremuaren zati on bat, *adiskide* izenari. *Adiskide*, edo erabili ez, edo urri erabilia den lekuetan, *lagun* izenaren esangura-eremuan nasaitu da, gaztelaniaz amigo denaren esanahirik gehiena bereganatu arte. Eta lagun-izatearen kualitatean graduz goratzeko modu nagusia adjektiboz indartzea izan ohi da sarri: *lagun ona*, *lagun handia*, *lagun-laguna*.

Neure txikitako berbetaz dihardut, kasurako. *Adiskide* apenas erabiltzen genuen, nahiz ulergarri eta ezaguna izan hitza bera. Izen horren aditz eratorria, *adiskidetu* (*aixkidetu*) bai sartzen zen gure berba-errepertorioan, ordea. Baina bat beste batekin *adiskidetzeko*, lehenago *haserreturik* egon behar zuen: *haserre direnak adiskidetzen dira*, eta lehen lagun izanak, gero ere lagun, haserretzen ez badira, behintzat.

Baina oro har, tradizioz eta hizkeraz, *laguna* askoz zabalago eta orokorragoa dugu *adiskide* baino. Izen elkartuetan dugu horren frogarik garbiena. Era askotako *lagunak* dira, baina *adiskideak* *adiskide* dira. *Berbalaguna*, *bidelaguna*, *bizilaguna*, *dantza-laguna*, *eskola-laguna*, *etxe-laguna*, *gazte-lagunak*, *neska-* zein *mutil-laguna*, *gerra-* zein *soldadu-lagunak*, *joko-lagunak*, *ohelaguna...*, agortu ezinako zerrenda luzea kordatzten duten *lagunak* ditugu. Esangurarik zabalenean darabilgun *lagun* izenaren sinonimorik hurbilena agian, *kide* edo *ide* dugu, edota *kideko*, edo *ideko* Bizkaiko euskaraz.

Lagun izenaren inguruan ehoak diren esaerak ere ugariak dira. Baita *on* eta *txar* adjektiboez lagundurik doazenean ere: «Lagun tzarrekin bil dadina, egin ohi da hekiekin bardina» utzi zigun finkaturik Harrietek bere hiztegian. Eta badira *lagun* hitza adiera orokor neutroan darabiltenak ere. Oihenarten hau, kasurako: «Lagun elhatari, bideko zamari» (*ProvBasq* 291). Baina ez gara luzatuko oraingoz horretan.

2

AHARRAUSIA

Aharrausi luzea, logurea edo gosea

Aharrausia euskara osoan ezaguna den hitza dugu, baina bazterrik bazter aldaera ugarietan mamitu dena: *aharroisia*, *arroisia*, *arrausina*, *arrosina*, *agorrosina*, *errausina*, *errosina* eta beste. Gizakiok, guztiok, ahoa zabalduz egiten dugun fenomeno fisikoa izanik, ahoaren mugiera bera bezain zaharra eta orokorra da hitza ere, *aho* > *aha-* lehen osagaitzat duena.


Errefrau-generora etorrita, euskaraz ditugun aldaerak ardatz berekoak dira, eta erdal hizkuntzetan direnen hur-hurrekoak. *Aharrausia* ez da zestako pilotak atzeko beheko ertzean egiten dituen txak bat, labur edo luzexeago dirauen giza fenomeno baina. Hargatik, adjektiboz lagundurik ageri ohi da *aharrausia*. *Aharrausi luzea* dugu Hegoaldean ezagunena, baina *aharrausi usua*, behin eta berriro egitea adierazten duena dugu, ostera, lekukotzarik zaharrena ezagutzen zaiona.

Behin eta berriro egite hori, *aharrausi eta aharrausi* jardute hori da arrazoi nagusia, aharrausiaren izaera iraungarri edo luzagarri hori aditzera emateko, *-ka* atzizkiaz josirik erabiltzearena: *aharrausika dago*, *aharrausika dabil*, edota birritako aldiz egitearena: *aharrausi eta aharrausi dabil*. Baina adjektibo barik ere, soil-soilik darabilgula

ere, ezaguna dugu erretrauetan. Azkuek birritan bildu zuen honela gutxienez: «*Aharrosia*, loa edo gosea» eta «*Arrausia*, loa edo gosea» (EY 964). Landerretzek orobat behe-nafarreraz: «*Aharrosia*, loa edo gosia» (*Landerretxe*).

Batera zein bestera, *loa eta gosea* edo *loa edo gosea* izatearen seinale ohi da maizenik. Seinale, iragarle edo *mezua*. Hirugarren hori dugu, *lo-mezua*, A. Oihenartek bere bilduman ageri duen iragarpen-hitza, *lo* soilaren orde: «*Aharrausi* usua, gosea edo *lo-mezua*» (*ProvBasq* 11).

Logale esaten zaio euskararen ekialdean «logurari», Ipar eta Hego. Hala dio D. Intzak baturiko aldaerak: «*Arrausi* luzea, *logale* edo gosea» (NEZ 1118).



Erdal hizkuntzetan, eta gaztelanian bertan, kide ezagunak ditu atsotitz honek. Esangura berberaren adierazgarri dugu gaztelaniazko zahar hau ere: BOSTEZO LUENGO, O HAMBRE O SUEÑO. Denboran hurragokoa dugu beste hau: BOCA QUE SE ABRE, O QUIERE DORMIR O ESTÁ MUERTA DE SUEÑO. Hirugarren batek, «goseak hilik» dagoenaren egoerara garamatza: BOCA QUE BOSTEZA, ESTÓMAGO QUE HAMBREA. Eta berbaz sarri entzun dugun laugarren honek, aharrausiaren beste arrazoi batera zuzentzen gaitu, «amoremina» ere kordan sartzera: BOSTEZO LARGO, HAMBRE, SUEÑO, O FALTA DE DUEÑO.

Aharrausia ahoa zabal-zabal eginaz egiazten den eta gizakiok, ahoa itxirik baino menderatu ezin dugun berezko jita denez gero, eta batak besteari kutsatzen ere erraza, hala gogorarazten zaigu errefrau baten hitzen harilean: «Aharrausia agorik ago, katamixarra pagorik pago», Azkuek dakarren gisan. Ideia berau gogoratzera dator Eibarren Toribio Etxebarriak bildu zuen beste hau ere: «*Batan arrausiñak bestieri guria ekartzen detsa: 'Bataren aharrausiak besteari gurea ekartzen deutsa'*».

Aharrausia gogaitaren adierazgarritzat ere ezaguna da. Zerbaiten edo norbaiten adigarritasuna, interesa, galtzen denean, nolabait adierazi behar eta, *aharrausi bidez* aditzen ematea berezkoa dugu. Eibarren jasoa du, hurrean, T. Etxebarriak, ezkontza-egunean batek izan ei zuen jarrera: «*Ezkontzerakuan be arrausin ein ei eban: 'Ezkontzerakoan be aharrausi egin ei eban'*» (*LexicEibar*).

Azkenik, *aharrausia* alferkeriaren ispilu ere izan ohi da euskal jendearentzat. «*Arrosia merke du horrek*» (EY 254), esaten dute Baigorriin.

3

AITA-SEMEAK ETA AMA-ALABAK

Aita eta seme tabernan dagoz, ama eta alaba jokoan

Oraintsuan kantu bidez ezagunago bihurtu den errefrau-bertsioan *aita-semeak* eta *ama-alabak* dira aipatzen direnak. Mikel Zaratek onduriko koplengainean, «*Aita-semeak tabernan dagoz, / ama-alabak jokoan*», Oskorri taldeak musikaratu eta gizarteratu zuen hartan.

Baina Azkuek bildurikoetan *aita ta seme* eta *ama ta alaba* juntadura-egituraz azaltzen zaizkigu. Batean: «*Aita ta seme tabernan dagoz, ama ta alaba jokoan. / Haren etxean ezta faltako erroa zaharra kakoan*»; eta bestean: «*Aita ta seme tabernan dagoz, ama ta alaba jokoan; / ostera bere egongo ditun abarka zaharrak kakoan*» (EY 1233).

Aita eta seme tabernan eta ama eta alaba jokoan daudela esateko modu honek berriagoa dirudi Mogelek *Peru Abarkan* darabilen era baino: «*Aita-semeak edanda dagoz, / ama-alabak jokoan; / ostera bere egongo dira / soinoko zaarrak kakoan*».

Egitura zaharragoa dateke *aita-semeak* juntadurazko elkarketa, *aita eta seme* juntagailuzkoa baino. Soinekoak izendatzeko eran ere diferentzia garbia dago. Gure klasikoaren *soineko zarrak* mende bi geroago *erroa*

zarra edo *abarka zarrak* bihurtu dira. Batzuek eta besteok hordirik daudela esateko moduan ere alde nabaria dago: *edanda dagoz* dio Mogelen «kantoreak» eta *tabernan dagoz* oraintsuagoko bertsioek.

Aita-seme sintagma horri pluralez eusten dio beti ere gure klasikoak beste pasarte honetan ere: «*Aita-seme batzuk* joan dira sabaira; aita katu andiaz, ta semea bere bai zerbaitakoan».

Nolanahi ere, juntadura-tipo zahar horrek gaurdaino iraun du bizi eta sendo, eta era berezi batez senitarte eremuko izen-kidetasunak egiteko. Gurasoen behezagoko mailan *seme-alabak* daude, euren artean *neba-arrebak* edo *anai-arrebak* direla ohi deritzegunak. Seme-alabok, ezkontzaz elkartzen diren neska-mutilak, *suin-errainak* dira haientzat, eta haiek *aita-amaginarrebak* gazteentzat. Bide beretik *aitita-amamak* edo *aitona-amonak*, *osaba-izekoak* edo *osaba-izebak*, eta senitarte inguruko beste izen-pare gehiago.

Etxeko andrezkoak jokoan jardutea bera ere portakizun dongetzat epaitzen du esakuntza horrek. «Jokoa» adjektibo mota diferenteekin lotua da: *etxekalte* izatearekin, *etxea galdu* edo *etxea hondatzearekin*, etxearen hondamendiarekin azken finean. Nikolas Alzola *Bitañoren* bilduman errefrau bik jotzen dute egoera galgarri honetara: «Jokuen-jokuen, *etxie galdu*» (*Bitaño* 173); eta horren berdin-berdina: «Jokuen-jokuen, *d'etxie galdu*» (*Bitaño* 248). Nafarroako beste honek ere bide beretik jotzen du: «Nere burue motel ez egiteagatik, *soildue atera naiz*». Biltzailearen argibidea: «Jokuan-edo amorrik ez eman nahi, eta diru guzia galdu egin dut» (NEZ 478).

Peru Abarkan, bentako aita-semeen bertsoketa hori dela eta, ohartzekoa da errefrau bezala finkatu aurretik «ardo-kantak» ohi deritzegunen herri-kanta edo herri-koplategi bat dagokeela horren atzean. Koplategi hori ez da, ziurrenik, Mogelek idatzi zuen bertsio luze guztia. Edozelan ere, «ardo-kanta» motako koplak sorten sarrera gisa errepikatzen den

kopla-eredua dirudi, kopla finkoa. Mikel Zaratek ere sarrera-kopla horri eutsi zion askoz oraintsuagoko aldietan, herri-sundako kantukoplen sorta ontzea otu zitzaionean.

Aldaera gehiago ere baditu errefrau moduko honek. Eredu mistokoa dirudi G. Garatek jasorik dakarren honek: «Aita-semiak tabernan dagoz, ama ta alaba jokuan, erropa zarra ezta faltako aren etxeke kakuan» (*Garate* 394).

Eta edukiz urrun ez dabilen, baina lan-jarduna linagintzaz lotzen duen beste bitxi hau ere aipatzeke ezin utz litekeena da: «Gizona tabernan, andrea jokuan, berriz ere egongo dituk linaiak zokoan eta praka zaharrak kakoan» (EZBB 1351).

Nafarroako errefrauetan *ttuntun* adjektiboaz epaitzen dira halako familietako guztiak «Aita ttuntun, ama ttuntun, ttuntun dun ere alaba. Oro ttuntun izaiteko, ttuntun behar du senarra» (*Garate* 1234).

4

ALABA BAKARRA

Alaba bakarrak surtako hautsa be berea

Alaba bakarra dugu errefrau honen ardatza, etxearekin, suetearekin, «fogerarekin» lotura duena. Berez hitz elkartuak dira *seme bakarra* eta *alaba bakarra*, nahiz marra barik eta banandurik idazten ditugun. «Alaba» barik, «seme bakarra» ere berdin izan zitekeen enuntziatu horretan, baina gure etxe-tradizioaren pentsaeraz gurasoen alabarekiko lotura estuagoa izan da eta halaxe ohi da gaur ere gure etxe-barruetan. *Bakarra* izateak, batean zein bestean, konnotazio bereziak izan ditu beti, errefraueta behin onerako, behin txarrerako islatu izan den errealitatea da.

Esakuntzen sail horri begiratu bat egitea asko da ohar gaitzen, alde txarrak nabarmen ageriago azaleratzen direla, alde onak baino. Ezin ukatu, alabaina, alde mesedegarriak ere izan dituela nonbait alaba bakarra izatezko egoerak, goiburuko horretan iragartzen den bezala: «Alaba bakarrak *surtako hautsa be berea*». Ez da sarri entzuten den horietakoa, baina halaxe berba-ekarrian, erdi olgetan erdi benetan, aurrera bota zidan behinola Meñakako ikasle batek. Lehenagoko baserri-giroan errotua begitantzen zait horren mezua. Gurasoek etxaguntza jaregin gogo dioten etxeko alaba bakar gaztearen birtuteak edo emendioak goratzeko asmatua dirudi, hain zuzen ere ingurumarian

izan litzakeen «merkatarien» aurrean, edo neskatila horri albora letozkiokkeen mutil gazte interesatuen aurrean abonatzeko. Antz-antzeko aldaera dakar G. Garatek ere bere bilduman: «Alaba bakarrak *surteko hautsa* be berarentzat» (*Garate* 457). «Berea duela» esatean, sueteko suaren jabe dela aditzera eman nahi da. Eta «berarentzat dela» esatean, suete eta inguru osoaren jabe etorkizunean bera izango dela.

Surtako hautsa berea duelakoak etxaguntzaren jabetasuna, Kardaberazek aipatzen duen *etxagunitea* izatea iragartzera dator. Eta aldi berean, *surtako hautsa* etxe-barru horren epelaren iragarle ere bada, eta azkenik, etxe inguruko baratze-ortuak ongarritzen dituen errautsaren jabe izatea ere bai.

Hala ere, ume bakar izatea ez da asko bizimodu benturatsua izateko. Ondasunekin batera, haziera onekoa izatea ere zor du *alaba bakar* delako horrek. Aita Zabalaren bildumako errefrauak dioenez: «Ongi hazia dan *alaba-bakarrak*, arto-bero usaia zeramak» (EEZZ 2375).

Seme bakarra gutxiagotan aipatzen da, eta batzuetan ‘mizkin, burugin, dena gurako’, fabore guztien beharreko laguntzat, aipatu ere. Gaztelaniaz esan ohi den bezala: HIJO ÚNICO, TODO CUIDADO ES POCO (Manuel Reguero del Oxinalde, informatzailea).

Bat baino gehiago direnean seme-alabak, orduan komediak! Kasu berezia ohi da, semea eta alaba dituztenean gurasoen noraezeko ebatzi beharra. Sustrai sakonak dituen sinestea bada gure tradizioko gizartean, gurasoen gogoia, *alaba etxerako* hobestekoa ohi dela, eta, halabeharrez, *semea* kanporako. Ama zahar baten esanean: «Zu etxerako [alabari] eta zu nogaz-gura [semeari]» (Xabier Kintana, informatzailea).

Gogoangarria dugu, nolana ere, xvi. mende akabuko esakuntza batek oinordetza gisa ematen duen aholkua: «Oasun ezein baino ohea, *zarzaroko alabea*» // MEJOR QUE CUALQUIER BIEN, PARA LA VEJEZ LA HIJA (RS 531).

Baina ezin aipatu gabe utz ditzakegu, egiari zor zaiona aitortu behar bazaio behintzat, etxeko *ume bakar* izatearen inguruan errefrauetan jalgi diren alde txarreko esan eta iritziak ere.

Indar handikoa da, *alaba bakarra* gurasoen *negarra* puntutzat harturik jositako errefraua, euskaldunon ezpainetan zabal ibili dena: «*Haritz bakarra* ta alaba bakarra, ugazaba ta amaren *negarra*» (EY 1267). Izan ere, naturako elementuak aipatzen dira irudi gisa, goiko horretan eta bestetan, alaba bakarraren desabantailak agerian jartzeko. *Haritz bakarraren* irudia deigarria da: «*Aretx bakarra* ta alaba bakarra ugazaba ta amaren *negarra*» (OE). Izan ere haritzek hariztia egiten dutenean eta baso-gunea osatu, bestelako edertasuna hartzen du izadiak. Esanguraz eta irudiz kide-kidea dugu beste hau ere: «*Zuhaitz bakarra[k]* ta alaba bakarra[k], / izan ohi dute *adur kaldarra*» (*Aierbe*), gaztelaniaz mala suerte. Bide beretik doa Nafarroako beste honen mezua ere, gurasoen zahartzaroa gogoan dela dioena: «Etxeak alaba bakarra, amak zahartzian *estimazio txarra*» (NEZ 1582).

Puntua jagonez ehoa da beste hau ere, baina *bakarra* adjektiboaren oihartzun-hitza *gerra* duela: «Alaba bakarra, etxean *gerra*» (*Garate* 451).

Gaztaina bakarrarena ere, gaztaina-arbolarena, ezaguna da irudi gisa. Baten esanean: «Alaba bakarra eta *gaztaina bakarra galdu* egiten ei dira» (EZBB 80). Eta beste batenean: «Alaba bakarra eta gaztaina bakarra, *gaizki hazi*» (*Garate* 456).

Gizonezkoen nagusitasunaren azpian garatutako emakumeekiko garai bateko iruditeria zakarragora goaz hurrengo esaeretan, eta kasurako, *deabruarekin* berdintzeraino daramate ertz-ertzera alaba bakarraren zoria errefrau batzuek. Hala: «Alaba bakarra, *debroy bakarra*» (NEZ 2419).

Eta are gordin zorrotzagoak dira *bapezarekin* edo *deusezarekin* erkatzen dutenak. Bizkaiko honek dio: «Alaba bakarra ta *bapez*, bardin» (*Garate* 452), eta ekialdeko beste honek: «Alaba bakarra baino, *deus* ez hobe» (*Garate* 455).

Ezin ahantz daiteke, seme-alaben haziera txarraren ispilu gisa hartu dela alaba bakarraren irudia. Era-erara datoz A. Kardaberazen hitzok: «Dama bat bere erara, Jainkoaren bildur gabe azi ta bizi zan, seguru ere *alaba bakarra*, ta *ala gaizki oitua*» (*Ejertzioak* II).

5

ALFERRA

Alperra beti nekean

Errefrau batzuetan pertsona-modu bi aipatzen dira batera: *alferra* eta *mozkorra*. Giza izaera biok guztiz oparoak errefracugintzan nolana ere, biak baitira gizakion nabarmentasun jakin baten adierazle zorrotzak. Guk, hala ere, banan aipatuko ditugu, bakoitzari tenk eginda ere, haribilari tira eta tira eginda agortu ezin besteko emaria ageri baitute. Hala bada, *alferraren* izaeraren kordari helduko diogu lehenengo.

Aitzakia beti gogoan eta ahoan, lanean kolpe sorrik ez jotzeko. *Nekea* aitzakiatuko du batzuetan: *Alperra beti nekean*, goiko esaerak dioen bezala, edo beste egitura batez esanda: «Alperra, beti *nekatua*» (*Garate* 9761). Edonola ere, sekula gorputzaldi onik ez lanari oratzeko. *Bizkarrezurra* aitzakia hartuko du beste batzuetan: «Hezur nausiko mina du alperrak» (*Garate* 540). *Eguraldi txarra*, edo euria dela-eta ere izaten da lanari atzea emateko arrazoia: «Zelaian lanien ari dan alperrari erorten zaio aurreneko euri-tanta» (*Garate* 551) dio esaera batek, eta «Kopetan euriak jotzen dunean alperraren seinalea» (*Garate* 8516a), beste batek.

Zuhurtasuna da alferraren dohai handietarikoa, hainbat esakuntzak darakustenez. Ezertan hasi baino lehen birritan pentsatu zer egin eta

zer ez, beti ere ahaleginik txikienaz etekinik handiena ateratzeko. Herri-berbetan esan ohi denez: *burua kantsatu* edo *askatu* lehenengo, zotzik mugitzen hasi aurretik. «Alperra buruko ileak nekatzen» (*Garate* 10045), esakuntza baten arabera. Gotzon Garatek hitzaldi batean esan zigun bezala, Errezilgo gizon bati ikasita: alferrak aizkora-kolpe bakarraz erdibitzen duela egur-mukurra ere, bi edo hiru kolpe huts edo bete ematen alferreko ahaleginik egin behar ez izateko.

Alferraren eta *fin diharduenaren* arteko aldea agerian uztera datoz errefrauak beste batzuetan. Esate-modu adierazkorrez eta berba-jario ederrekoen batzuetan: «Alperrak ein bier dauenik ez, biergiñek ein bier eztauenik ez» (*Garate* 585). Esatea bezala: ‘Alferrak ez du egin behar duelakorik, eta beharginak ez du egin behar ez duelakorik’. *Egin behar duenik (eduki) ez eta egin behar ez duenik (eduki) ez* aditz-egitura biak dira esakuntza horretan, ezezka emanda bitzuok eta kontrajarririk ipinita.

Alferraren adierazgarri diferenteak, seinale bereziak aditzen ematera datoz beste batzuk. Buru-estalkia ohi da batzuetan: «Alperrari txapelien be igerri» (*Garate* 615).

Nekazaritza-giroko irudiak beren-beregi dira ugariak *alferra* markatzeko. Soro eta landen egoera ohi da agergarririk ezagunena: «Alferrak izango du gosea ta soroa zalga txarrez betea» (*Garate* 593). Soroa, alorra, zalkez edo *zalgaz* (‘belar txarrez’) betea dagoela egotea alferkeriaren irudi da, Mogelek darabilen irudi bera, hartan ere, etxe eta ingurua abandonuaren seinale, zeregin guztiak alferrez bertan behera uztearen igargarri: «Gura leukie jakin, baina neke бага, atxurlari alperrak legez, zeinen soloa dagoan laarrez, mugitaz, azkiz, garduz, *zalgaz*, zoragariz beterik» (*PAb*).

Baina etorkizun ilun zorigaiztokoaren aitzin pauso ere izan daiteke alferkeria. Irakaspen-ondorio horretara zuzentzen dira esaera batzuk: «Alperra izatea ezta bapere hobe, nobere faltan bere izan leite pobre»

(*Garate* 574). Maiatzeko hilaren, maiatz luzearen irudipean ere, aurre zuriak oste beltza izaten duelako mezua ere iragartzen da. Izadia argi eta eder, baina lurraren emariak urri oraindik ere: «Maiatza neskatxa ederra ei zan, baina alperra; ta goseak eta hotzak hil zeuen» (*Garate* 9222) esaten zaigu behin, eta: «Maiatzean alperrak jarlekua erre behar izan zeuen» (*Garate* 9238), beste behin.

Etxearen *hondamenaren* eragile nagusitzat, alferrarekin hordia jo ohi dira maiz esaeretan. Mezua zuzen eta gordin ematen da batzuetan: «Gizon alperra ta mozkorra, etxeko hondamena» (*Garate* 5738). Eta antzera hurrengo honetan ere: «Gizon alper eta hordia, bere eta besteen hondagarria» (*Garate* 10835). Eta horrelaxe beste gehiagotan ere, kualitate gaitzerizle biok uztarrian ageri dira esaera berean: alfer eta mozkor izatea.

1832. urtean, Bilbon *Santiagoren Elexa Nausijan* kantatu zen *Gaboneko kantia* plegu inprimatuan, Bizenta Mogelek *Peru alper handiari* eskaini zion koplak ezaguna izan bekigu alferren adu txarraren gomutagarri: «Ai Peru!, Peru zara / zu beti alperra; / sarri izango dozu / alkondara zarra; / belauna agirijan / prakien zulotik, / adurra ta mokuak / okotz ingurutik».

6

AMA ETA ALABA

Zelangoa baista amea, halangoa ohi da alabea

Refranes y sentencias euskal errefrau-bilduma inprimaturik zaharrenean datzan esaera dugu honako hau (RS 35), esanguraz gardena eta aratza. Gaztelaniaz, euskaraz den baino errazago ulertzen da: CUAL SUELE SER LA MADRE, TAL SUELE SER LA HIJA. Gaurko hiztun batek, hizkera hori duenak, errazago esan zukeen euskaraz: *Zelangoa dan ama, halangoa izaten da alabea.*

Gramatika-ikasbidetzat ere alagalako esaera. Batetik, perpaus konposatuetan aipatzen diren egitura banatzaile edo banakariaren eredu garbiaren erakusle delako: *zelangoa... halangoa...* ('nolakoa... halakoa...') esaldi buru bana dituela. Bestetik, menderakuntza markatzen duen *baist-* aurrizki zaharra, gaur egungo *bait-* ezagunaren sartalde-aldaera agerian duelako. Eta hirugarrenik, *ama* izen mugatua, sartalde-hizkera zaharrean *amea* zena, ama biologikoa izendatzeko banaka erabilirik baino ez dakusaguna idatzi zaharretan, daukagulako atalburuko errefrau horretan ere. Lazarraga poeta arabarra dugu xvi. mende horretan bertan noiz edo behin horrela darabilena: «Badanik bere / *amea* baleu ain onradu, / onrada eta / bere semeaz konzertadu, / oi ta, zeinari / semeak leion otorgadu, / eska lekion / mesedea ta konfirmadu» (*Lazarraga*).

Ama biologikoa aipatu dugu beren-beregi, zeren *Ama* zerukoa, kristauon fedekoa, hura bai; hura sarriago izendaturik ageri da dotrina eta idatzi zaharretan *amea* era mugatuaz. Arabako Lautadatik irten gabe, Gasteiztik hur dagoen Betolaza herritxoko apaizaren «gatzelania-euskara» kristau-ikasbide edo dotrina labur eta bana-banako hartan, birritan deitzen zaio Andre Mariari horrela. Behin: «Santa Maria, Jaungoikoaren *Amea*»; eta beste behin: «Salve Regina, miserikordiazko *Amea*, bizitzea eta dulzura» (*Betolaza*). Eta goi-lautadatik Kantauriar isurialdera jaisten bagara, are beranduago dugu izendatze berbera. Antzuolako dotrina ezagun zaharrenean, Amilletarenean: «Semea jaio eta *amea* birjina geratu» (*Amilleta*), kontatzen da. Eta Durangon, 1737an, Urkizu elizgizonaren errezueta, «Bekatari tris-teen *amea*» (*Urkizu*) deituaz ospatzen da. Eta oraintsuagora gatozela, XVIII. mende horretan bertan, Pedro Ignazio Barrutia Arrasateko eskribauaren gabon-antzerkian, aingeruaren iragarpena hitz hauekin egiten da: «Zerureanik dakart enbajadea, / zeu zarala izango Jaunaren *amea*» (*Acto*).

Bihur gaitezen errefrauaren mezu-muinera.

Unibertsala, edonongoa dela sinets daiteke mezu hau. Latin zaharrea ere ezaguna dugu, *ama-alaben* izen berekin: SICUT MATER, ITA ET FILIA EIUS (*Garate* 3083). Ingelesezt: LIKE MOTHER, LIKE DAUGHTER; frantsesezt: TELLE MÈRE, TELLE FILLE; alemanez: WIE DIE MUTTER, SO DIE TOCHTER; eta beste zein ere hizkuntzatan antzera.

Eta euskaraz ere, halabeharrik, giza biologia bitarte dela, hizkera guztietan hedatua den mezua. Iparraldean era bat baino gehiago ageri dira ama-alaben antzekotasunaren adierazgarriak: «Nolako ama, halako alaba» dugu ezagunena, baina baita Hiribarrenek dakarren erara ere: «Nolako baita ama, alaba halako» (*Eskaldunak*). Azkuek Bizkaian familia osoago hartzen zuen egitura bikoitzaz bildu zuen, ama-alabak batetik eta aita-semeak bestetik «kera», «eite» edo «irudi» bereko

izatearena: «Zelako ama, halako alaba; zelako aita, halako semea» (EY 1487).

Berbeta xehegoz ere, Mendatako seme zen aita nuenari entzunda nago, gaztetan ezagutu berri nuen neskatilea bat gustukoa izango ote nuen, aholku emateko: «*Neskatilea zelakoa dan jakiteko, amari begitu behar jako*».

Ohartzekoak dira ildo berari jarraiki, harako kopla ezagunaren hitzak: «Aita-semeak edanda dagoz, / ama-alabak jokoan; / oster bere egongo dira / soineko zaharrak kakoan». Odol berekoak, esan gura da, jit edo mendu berekoak bata eta bestea. Herri-hizkeran esaten den bezala: «Semeak *aitatara emon* dau»; «Alabak *amatara emon* dau».

Lanbide, afizio-zaletasun eta joerak dira sarri, kidetasun hori sendotzera datozenak edo hala dela erakusten dutenak. *Kantaria* eta *dantzaria* aipatzen dira behin edo behin: «Ama kantaria, ta alaba dantzaria» (NEZ 1576). *Hitzontzi* eta *putzontzi* hitzekin joko eginez ere bai: «Ama hitzontzi, alaba putzontzi» (*Garate* 675).

Ama-alaben arteko kidetasun horretan ezkontza ere hurbil ibiltzen da... *Dotearen* kontua pisu handikoa beti ere. Eskarmentu txarretik asko ikasia eta harrezkero askojakina zen ama batek, hauxe aholkatu omen zion ezkontaurrean alabari: «Hire burue goberna zan; gizonak dotea ere janen din». Esakuntza hau Nafarroan bildu zuen D. Intzak gehigarri hau erantsi zion, ama horren jokabidea etikaren «kontrakotzat» zegoelakoan: «Ama gaizto batek bere alabari ezkontzekoan esana. A zer erakutsi ona!» (NEZ 751).

Baina, nahi den neskatilarekin ezkontzabidea errazteko, haren amari ondo esatea dela estrategiarik zuhurrena, pentsaera hori ere sakon sarturik dago gure tradizio-gizartean. Eta hori berrestera dator honako erre-frau hau ere: «Amarekin adiskidetu eta alabarekin ezkondu» (*Garate* 467).

Amaiera emateko ama-alaben inguruko jardun honi, ondo polita eta ironia gordina dariona da harako kopla ezaguna, alaba norekin ezkondu, alabaren ibilerak zazpi begirekin jagotea gomendatzen duela: «Mendi altuen edurre, / bota surtera egurre; / alaba galantan ('galantaren') amak / mutil zantarren bildurre» (*KoplZah*).

7

AMURRAIA ETA ANTXUMEA

Amurraia amutik eta antxumea larrutik

Gai ezagun eta birraipatua dugu, gizakion jokaera edo izate-moduak epaitzeko, abere, arrain edo beste bizidunen baten joeren irudietara jotzea, are gehiago herri-literaturan, eta errefrauak legezko genero txikietan.

Isasti kronikagileak bere bilduma laburrean jasorik dakarrena hautatu dugu atal honen goiburutzat; historiagile honek euskaraz eta gaztelaniaz darabilena: «Amuarraia amutik eta antzumea larrutik»
// LA TRUCHA DEL ANZUELO Y EL CABRITO DEL PELLEJO (*Isasti* 6).

Arrainaren irudia gaztelaniaz ere ugaria da, gizakumeoi hitzetik oratzen zaigula ondoen aditzera emateko erabiltzen denaren antzekoa:
POR LA BOCA MUERE EL PEZ.

Euskaraz badira arrainen irudipean mezu berau, edo bertsua, adierazten duten esakuntzak, eta eurotan *amua* da langai nagusia, arrainaren erakarle eta galgarri. Ekialdeko zahar baten hitzek diote:

«Amu eskarniatiak arraina ahoti» (*ProvBasq* 241). Eta bigarren baten esanean, «eskarniati», «burlati» edo *trufatizat* jotzen dena ez da amua, arraina bera baizen: «Arrain trufatia, amiak atzemaiten» (*Garate* 1202).

Amuarrainaren irudia lur barrukoa da gehiago, itsasaldekoa baino. Lur gozoko, lur eztiko arraina dugu, ez itsaso zabalekoa. Lur barruko gizarteetan, jendearen gogoan, arrainaren irudi orokor bihurtu izan da amurraina, arrainaren prototipo, nolabait esateko. Hori darakuste behinik behin gure atsotitzek. Horregatik beragatik errefrau berberak ditugu maiz *arrain* izenarekin eta beste horrekin ere. «*Arrain handiak* txikia jan» esaten den antzera, berdintsu esan izan da, D. Intzak jaso zuen bezala: «*Amorra* haundiak, txikia jan egiten du» (*EsZah* II).

Bide batez gogora dezagun amurraina aipu duen beste errefrau askotxo ere badela. Hala Mogelek bere hautuan bildurik dakarren ezagun hau: «Amuarrainak begi bi, sei ezkailluk amabi» (*PAb*). Edo arrain mota horren igerirako trebezia erakusten duen abilidade-konparazio hau: «Hori duk amorraiei igerika erakutsi nahia» (*NEZ* 2076).

Antxumearen, edo *ahumearen* irudia bakanago ageri zaigu mezu honen adierazgarriako. Antxumea ezagunago dugu bestelako mezu-adierazle diren errefrau batzuetan. Bizkai sartaldean entzuten da oraindik ere, Azkuek aspaldi bilduriko hau edo honen kidekoren bat: «*Ahume* agobigunak ama biren esneak edaten dauz» (*EY* 56). Beronen oinean datzan mezua are ohargarriagoa, biltzaileak berak demaigun itzulpen-bertsioaren bidez: CABRITO DE 'BOCA BLANDA' BEBE LECHE DE DOS MADRES. ES DECIR, PERSONA DE DULCE CONVERSACIÓN CONSIGUE MUCHOS FAVORES.

Baina beste egitura bateko mezuen iragaile ere gertatzen da antxumea. Hala: «Ahuntzaren umea, antxumea» (*Garate* 349), beste ganadu-, patari- edo piztia-izenekin ere azaltzen dena: «Luki-kume, azeri» // EL HIJO DEL RAPOSO, ZORRO (*RS* 64). Antxume bakarraren negar zolia haur bakartien irudi gisa harturik, adierazkizun garbia dute beste biok

ere: «Antxume bakarti, tegian negarti» (EZBB I 35), eta hari berekoa den beste hau ere: «Antxumeak antxumetara, haurrak haurretara» (*Garate* 920).

Konparantza zuzenagoa dugu, eta gaurko hiztunontzat ezagunago eta hurragoko egiten dena, *gizona idiarekin* alderatzen duen hura. Azkuek dakarren eran: «Gizonari berbatik eta idiari adarretik» (EY 1404), askoz antzinagokoak diren beste hauen oinordeko gaztea: «Idia adarretik, gizona hitzetik atzematen da», idatzi zuen S. Pouvreaux xvii. mendean, eta dazaugun aldaerarik zaharrena agian RS bildumak dakarkiguna: «Idia adarrerean ta gizona itzerean» // AL BUEY DEL CUERNO Y AL HOMBRE DE LA PALABRA (RS 378).

8

ARTEA ETA SAGAR-ARBOLA

Arteak ez du emango sagarririk

Ezinezkoa dena eskatzea alferreko kontua dela ohartzera datorren errefracua. Edo beste era batera esanda, ez duenari eta eduki ezin duenari eskatzea, eman ezin duenari edo emateko modurik ez duenari, zer edo hura eskatzea ahalegin antzua dela.

Gaztelaniaz, arbolen eta arbola-fruituen konparantzaz ehoa den esakuntza honek sona eta hots handia bereganatu du aspaldi-aspalditik. Aldaerarik ohikoena: NO PIDAS PERAS AL OLMO. Bigarren era osoago bat ere badu, ez hain ezaguna; bi esaldiz taxutua, eta arbolak eta pertsonak uztarturik eskaintzen dituen; gizakiontzat irakatsi handikoa, nolanahi ere: PEDIR AL HOMBRE VERAS, ES PEDIR AL OLMO PERAS (*Garate* 4968).

Euskaraz ere badira zuhaitzen irudi beraz baliatzen diren esakuntzak, mezu hori bera, irakatsi berbera, edo horren hurrekoa aditzera emateko. Ikus ditzagun zeintzuk.

Batek *artea* eta *sagar-arbola* josten ditu esaldi berean: *arteak* ezin omen du *sagarrik* eman. Bizenta Mogel emakume idazlea dugu, Juan Antonio apaiz idazle sonatuaren loba, *Ipui onak* (1804) alegi-bildumaren sarreran honako pasartea idatziz utzi ziguna: «Okerrik badakuste ipui oetan, egotzi nere gainera!..., berdin "arteak ez du emango sagarrik"». Justo Mokoroaren gaztelaniazko bertsioan: PUESTO QUE ES INÚTIL PEDIR PERAS AL OLMO... Herri-hizkeratik hartua zuketen Mogeldarrek, Bizenta gazteak baino ziurrago beraren osaba Juan Antoniok, esakuntza hau. Iturri berorretakoa dirudi Antonio Zabalak Auspoa bilduman jasorik dakarren antz-antzeko beste honek: «Arteak ez du ematen sagarrik; ezkurak baizik»; gaztelaniaz: NO HAY QUE PEDIR PERAS AL OLMO (*Aizkolariak*).



Badugu beste esamodu bat, *laparra* eta *udarea* iruditzat harturik ondua. Hauxe dio: «Hori laparretik udarea biltzea liteke...». J. Mokoroak bere lokuzioen biltegirako Zubietako nafar hizkeratik jaso zuen, gaztelaniazko ordain berarekin: PEDIR PERAS AL OLMO, eta beste honekin: PEDIR UN IMPOSIBLE (*Argia*, Teodoro Arburua). *Laparra*, Nafarroaren sartaldean entzuten den hitz hori, Iparraldean *laharra* eta sartaldean *sasia* deritzonaren esangura berekoa da. Sasiak «masustak» eman ditzake, baina *udarerik* edo *madaririk* ez.

Paulo Zamarripa idazle sondikarrak, bere umore oneko jario oparoaz, *artoa* eta *madariak* konparagarritzat hartuta, mezu bera isuri zigun. Honetara dio: «Hori?... *Artoari madariak eskatutea* da, ia-ia» (*Ibaizabal* aldizkaria, Paulo Zamarripa). Hori ere J. Mokoroak bere biltegirako hautatua. Argibide bera erantsi zion gaztelaniaz: CASI COMO PEDIR PERAS AL OLMO; PEDIR UN IMPOSIBLE.

J.A. Irazusta idazleak bere elabarrietariko batean dio: «Sagardotegi batean garbitasuna sartzea *txekorrari dantzan erakustea bezin zaila* da» (*Joanixio*). Gerraurreko sagardotegien ezaugarri jakina zen, nonbait, zikintasuna.

Eta amaiera gisa, *Labayru hiztegiak* bere «Fraseologia» alderdian batu dituen beste esamolde batzuk dakartzagu hona, ideia beraren erakusgarri direlakoan. Batean *haltza* (gaztelaniaz ALISO) arbolaren irudipean: «Haltzari ezin zaio fruiturik eskatu». Eta beste konparagarri batzuk ere badira, osterantzeko irudiez baliaturik umotuak. Hala: «Umeari gelditi egoteko eta zaharrari arin ibilteko (eskatzea)». Edo: «Arrantzuan larrera joan» dioena. Edo: «Eguerdian ilargi bila ibili». Eta azkenik: «Txerri-larruz jake ona egin».

9

AURRE-ATZEAK*Aurreak erakusten dau atzea zelan ibili*

Hur-hurreko dudan idazle batek, Laura Uruburu emazteak, publikatu duen euskarazko nobela batean, atal biak esaera honen osagai bana-rekin titulatu ditu: *Aurreak erakusten du* deritzo lehenengo zatiari, eta *Atzea zelan ibili*, bigarrenari. Nobelaren izenburua: *Katigatu ninduzun librea nintzena*.

Baina atzekoz aurrerako ordenaz ere entzuten da: «Atzeak erakusten dau aurrea zelan ibili». Urdaibai aldean bitzuk entzun izan ditut, behin batera, behin bestera. Ekialderantz *dantzatu* aditzaz entzun eta erabili izan da gehiago. Azkuek ere bildua duen erara: «*Aurreko dantzariak* erakusten dio ondokoari nola egin». Soka-dantzaren irudiaz onduriko errefrau gardena: *aurresku* doan dantzariak markatzen du bidea eta pauso-erritmoak artezten, eta hurrengo guztiak, *atesku* doanera ginokoak, haren urratsari darraizkio.

Dantzarien dantzako irudi bizi honek, eta lerroz lerro joatearen logikak berak, *aurreak atzea* sekuentzia eskatzen duela esan daiteke. Azkuek bildu zituen atsotitzek, behinik behin, ordena horixe darakuste: «Aurreak erakutsiko dau atzea zelan erabili» (EY 1997).

Giza harremanen gorabeheretan ohikoa den irudi-errefraua... Erakutsia, hauxe izan daiteke: besteak, edo besteek, norberarekin zer portakizun daukan, edo daukaten, behin hori ikusi eta ikasiz gero, norberak ere halaxe jokatu behar duelakoa.

Gaztelaniaz, esanguraz guztiz hurbila duen aditz-lokuzio ezaguna dugu: *MEDIR CON EL MISMO RASERO*. Edo euskaraz: «Neurtzen duzun neurriaz neurtuko zara». (Ikus gure lanaren zerrendako 63. esaera: «Zuk neurtzen duzun neurri beraz neurtuko zara»).

Sartaldeko hizkeretan honela esaten da batez ere: «Aurreak erakusten dau atzea zelan ibili» (edo: «... zelan erabili»). Azkuek, goian aipatu den *dantzariaren* irudiaz ez ezik, beste era bitara ere eskaini digu atsotitza, batean *erabili* eta bestean *dantzatu* direla aditzak: «Aurreak erakutsiko dau atzea zelan *erabili*». Eta: «Aurreak erakutsiko du atzeak nola *dantzatu*» (EY 1997).

Nafarroa aldean bildua da D. Intzak dakarren hau: «Aurreak, atzeak nola dantzatu erakusten du» (NEZ 792). Honako azalpena erantsi dio: «Irakasleak, ez hitzez bakarrik, berak aurretik eginez erakutsi behar du. Zuk egin didazuna egiten dizut».

Elkarren osagarri dira, nolnahi ere, aurrea eta atzea, atze-aurreak. Konplementariedade horretan bien arteko kontrastea eta diferentzia da nabarmen, honako errefrau hauetan bezala, Bizkaiko euskara zaharrean bata: «Aurrera aditze eztana, atzera dago» // *QUIEN NO MIRA ADELANTE, ATRÁS ESTÁ* (RS 423); eta nafarra, bestea: «Festak aurrea ederrago du, atzea bainon» (EZBB 117).

Aurrea eta atzea elkarri dautsaz azken finean. Azkuek ederki dioen bezala: «Lurreko gei guztiak alde bi daukez: aurrea eta atzea, kanpoa eta barrua, ganea ta azpia» (*BehinB*).

10

AUZOA ETA SENIDEA*Urruneko senidea baino, auzoa hobe*

Esakuntza hau sarri esaten zuen, Kortezubin bizi zen gure osaba Bernardok. Behin honelaxe batu nion esaera: «Urruneko *parientie* baino, auzoa hoba dala». Eta beste behin: «Auzokoa, urruneko *parientie* baino hobie» (Bernardo Arejita, informatzailea).

Errefrau ezaguna gaur egungo hiztunen artean, eta bildumetan ondo lekukotua, berariaz sartaldeko hizkeretan. Han-hemengo bertsioak ere antz-antzekoak.

Garaterenean, honelaxe dator: «Urrineko senidea baino, auzo ona hobeto» (*Garate* 13133). Eta Aita Zabalarenean: «Urruneko senidia baino, auzo ona hoba da» (EZBB 2875). Gipuzkoa aldean baturiko batek, hurrekotzat *adiskidea* aipatzen digu, *auzoa* barik. Baina urrunekoa edo urrunekotzat jotzen dena, bi-bietan, *senidea* edo *parientea*. Hala dio: «Adiskidea, urrutiko senidea baino hurbilago» (*Garate* 170).

Azkuek, bere bildumarako errefrau beronen aldaera diferenteak bildu zituen, bi edo hiru eratarata gutxienez. Derion jasorikotzat dakarrenak honela dio: «Senide urrinekoa baino, auzo hurkoa hoba» —seguruenik Paulo Zamarripak, hiztegi eta herri-jakintza gaietan

hurreko laguntzaile izan zuenak bidali izango zion, Txorierrin berau izan baitzuen informazio-iturri nagusia—. Bigarren era honetara ere badakar: «Senide urrina baino auzo hurra hobe» (EY 2793). Seinalagarria, azken esaera-aldaera bitxi horretan, *urrinekoa* eta *urrina* adjektibo kategoriaz ageri direla *senide* izenaren atzean. Iparraldeko aldaera bat ere badugu, sintaxi berbera jagoten duena; baina *ahaide* izena esanez, eta ez *senide*: «Ahaide urrunekoa baino, auzo huna hobe» (Garate 246).

Oin-oinean, *auzoa* eta *senide* edo *ahaide* direnak ipintzen dira aurrez aurre, baina mezua bat eta bera dugu guztietan: hobe dela hurreko auzoarekin ondo konpondu eta harreman ona izan, norbere askazikoa den baina urrun bizi denaren ametsean bizi baino; urrunekoagan esperantza ez uste handiegirik ez dela ezarri behar. Auzokoa edo lagun hurkoa, behar orduan edo premia denean laguntzaile seguruagoa dela ziur egon gaitzkeela, urrunetan bizi den ahaidearen aldean. (Ikus gure lanaren zerrendako 48. esaera: «Urrungo intxaurra burua laso, jarrekin ez ekidan herrikoa laso»).

Iparraldeko errefrau batek *kusia*, ‘lehengusua’, darabil ahotan, urruneko senidearen ordezkot gisa: «*Auzoarekin* hobe da untsa izaitea, ezen ez *kusiarekin*» (Garate 1689).

Hara zelako kalifikatzaileak ageri diren errefrauotan *auzo* edo *auzoko* dugun hori izendatzeko:

— Auzo *ona* maiz: «Auzo hon dienak, begi (‘egin beza’) lo hon» (Garate 1677); «Aizo (‘auzo’) hon dienak, goiz hon» (Garate 1678); «Auzo ona, adiskide ona» (Garate 1679).

— Auzo *hurra*: «Auzo hurra hobe, pariente urrutikoa baino» (Garate 1680). Bide batez gogoratu, *hurra* eta *urrutikoa* izenaren ondoko adjektibo posizioan, gaur egun mehatz entzuna eta erabilia den

sintaxia gorde dutela atsotitzok, sintaxi zaharraren gordailu gertatu direna, gaur egungo hizkuntza biziaren joera bestelakoa izanik ere, izenaren aurrean adnominal gisa agertzekoa.

— Auzoarekin beti *adiskide* izan behar dela, eta *ez atzez egon*, behin eta berriro buruan iltzatu nahi zaigun aholkua da. Eta aldi berean edo bide batez, urruneko senidearekin haserre edo arerioturik egoteak ez diola hainbeste leba. Hala bada: «Auzoko bi lenbiziko itxikin ('etxeekin') biño ('baino'), parientekin haserre hobe» (*Garate* 1695).

11

BAKEAREN BALIOA

Bakeak be asko balio dau

Oñatiko jaun batek aipatu zidan berba-ekarrian esaera hau ez aspaldi. Ama zuenak berari sarri gogorarazten omen zion.

Bake hitzaren sustraia latinean dugu: *PACE*(M). Euskaraz, *bake* da era arautuaren aldamenean, ondo hedaturik dugu erdialdean *pake* aldaera, eta ezaguna dugu, eremu mugatuagoan, *fake* ere; Nafarroa aldean.

Arana Goirik, *gentza* hitza bultzatu zuen *bake* izenaren latin-sunda uxatu guran, bere aldiko garbizaletasunaren uhainek gainez zetoze-larik. Hitz-berri hori xx. mendearen lehen erdiko idazle garbizaleek erabili izan dute, zorioneko *gentza*, gerora lilura berezirik irabazi ez duen neologismoa. Hala ere, berorren arrastoa bizirik dugu oraindik, *Gentzane* izeneko emakumeetan, gaztelaniaz *PAZ* edo *MARÍA PAZ* izenen lekua hartzera etorri den pertsona-izena. Aldiz, *Bake* edo *Bakene* izenak ez dira gauza izan erdarazko *Paz* horri lekua kentzeko. Gutxi edo asko, Arana Goiriren *Deun-ixendegi euzkotarra* liburuxkoko *Gentzane* horrek bereganatu du euskaldun askoren txera ona.

Bake izena, edozelan ere, emaritsua gertatu da, bai eratorrien sorkuntzan, eta bai hitz elkartu eta esapideen garakuntzan. Adjektibo

ezagunak dira: *baketsu*, *bakeoso*, *bakeor*, *bakezale* edo *bakegin* berbak lakoak. Zer esanik ez *baketu* aditza. Adizlagun edo adberbio batzuetan ere badu oihartzuna: *bakearren*, *baketan* edo *bakez*, kasurako. Nork ez du entzun inoizkoren batean: “*Bakean* dagoenari *bakean* utzi”, edo *baketan utzi*? Paulo Zamarripa idazle eta gramatikariaren barre-burlazko esaldi bat datorkit hari-harira: «Esan behar deusat neure gizonari, *bakearren*, ez dagiala aitatu be egin gerrako bakerik, gerrea amaitu artean...» (*Zaparradak*).

Bake izenaren hari horri tenk eginez, aditz-multzo ezagunak ere baditugu. Hara zein aditzekin ageri duen *bake* izenak erakarmen-xarma, edo orain maiz deritzagun bezala, *filing* berezia.

Bakea egin eta *bakeak egin* dugu ezagunenetarikoa-edo, singularrez zein pluralez, eta bigarren hori, *bakeak egin*, are ugariagoa. Esaterako: «Hase-rreru arin egin zarete. Ordua duzue *bakeak egin* eta atzera adiskidetzeko».

Bakea fundatu aditz-lokuzioa ere sarri entzuna dut, berariaz Urdaibai inguru horretan, berez liskarti edo zital antzekoa denagatik esaten, ironia-tanta batez: «Hamen (‘hara hemen’) dator *bakea fundau* ebana!».

Beste aditz batzuekin ere maiz darabilgun izena dugu: *bakea galarazi* edo *bakea galdu*, esaterako, bakealdia eten dela iragartzeko.

Amaiera gisa, dakartzadan gogora gure idazleen testigantza adiutu batzuk:

— *Bakea hautsi*. Toribio Etxebarriak Eibarko berbetan jasoa: «Bakea hausten dabenak, galduko dau gerrea, gerrarik bada» (*LexicEibar*).

— *Bakea ipini*, gure hizkera zaharretik datorren aditz multzoa. Kapanaga mañariarraren dotrinan dator: «—Nortzuk dira *bakeosoak*? —*Bakea ifinten* dabenak euren personetan» (*Kapanaga*).

Gatozen errefrau-generoko emaitzetara akabukoz. Horietan ere mordotxoia dira *bakearen* ardatzean bilbatuak. Hala:

— *Bakea erosteaz* dihardu Isasti historiagileak dakarren atsotitz zahar batek: «*Fakea ezta diruz erosia*» (*Isasti* 35). Gaurko hitzun askok ere, mezu berau ematen badaki, beste hitz batzuekin bada ere: «Bakea diruagaz be ezta *pagetan* ('pagatzen')» aipatu zidan oraintsu Juan Manuel Etxebarria irakasleak, Zeberion sarriro halaxe entzun izan zuela eta. *Erosi* eta *pagatu*, bakeagazko merkataritza-tratuan.

— *Bakea* eta *gerra* aurkez agertzen dituztenak dira agian ugarie-nak, mutur bion arteko tirabiran ikuspegia batetik bestera dezente aldatzen dela ere. Batzuetan, itxuren eta barru-sentipenen kontra-jarpena ageri da: «Danak *ahotan bakea*, baina *bihotzean gerrea*» dakar Toribio Etxebarriak (*LexicEibar*). Duvoisin idazleak idatzia da: «Nik Jaunaren *bakera deithu*, eta zuk *gerlara jo*» (*LibEd*). Eta Gazteluzar poeta berdingabearen hitzak dira: «Gure *gerlak ixil* daude, / bertzeak dire altxatzen; / zeru-lurrek *bake dute*, / ifernua da kexatzen» (*Gazteluzar*).

— *Bakea inoren lepotik, besteren bizkar* jadestea aipatzen dutenak ere badira. Ildo horretakoa da Oihenartek bildu zuen harako hura, alegien mundutik ekarria: «Otsoak eta horak ahuntzaren haragiaz *bake*» (*ProvBasq* 388).

— *Bakea konformitateaz* josten dutenak ere ez dira falta. Oihenart berak dakarren honek islatzen duen aburua: «Hobe da bakeareki arraultzia, ezi ez aharrareki bilarrauzia ('txahala')» (*ProvBasq* 243).

— *Bakea* eta *legea* ere elkarren kide bihurtzen dira, Domingo Egiaren xvii. mendeko kantu-poema batean: «On lizate *bakea*, legerik baliz» (*DEgiko*).

Eta amai dezagun Zeberio eta Arratian jaso dugun *bakez etorri* harrera-giroko eta txera oneko esapideaz. Norbait, kanpokoren bat, etxera agertzen denean, ohiz edo normalean azaltzen ez denen bat, eta etxekoak, ea nobedade txarren bat ote dakarren beldurrez edo susmo txarrez, ateetan galde egitea bisitariari: «*Bakez zatoz?*» (Juan Manuel Etxebarria, Zeberio). Edo geroari begira, *bakez izateak* zenbateraino baldintza lezakeen dena akordarazten diguna: «Bihar egingo da behar hori, *bakez bagara...*».

12

BEGIAK HODEITU

Inori esateko «hodeitua», norberak izan behar dau «eguzki klarua»

Arteagan (Urdaibaiko *Artian*) baturiko errefraua da. Segundo Oararteta gernikarrak aspalditxo bideratu zidan atsotitz hau. Berbaz berba: «Inori esateko *hedoitua* ('hodeitua'), norberak izan behar dau *eguzki klarua*». Poesia-karga handiko errefraua: begi *hodeituak* izatea batetik, eta *eguzki klarua* izatea bestetik.

Hedoia, bizkaieraren parte batean eta Iparraldean nagusi den aldaera, euskara arautuan *hodeia* deritzanari esaten zaio. Bizkai alderdian berariaz, 'laino altua, altuko lainoa' adieraz. Hitz beraren aldaerak dira funtsean. Hala ere, hiztun askok esanguraz bereiztu egiten dituzte *hedoia* eta *hodeia*. Hala, *hodeia dagoela* edo *hodeiak jo duela* diogunean sartaldeko hizkeran, 'trumoia dela', edo 'trumoiak jo duela' esaten ari gara. Mari Anbotokoren pertsonifikatzea ere bada *hodeia*. Baina hiztun berberak, zeru-goienean dauden laino zurixkei *hedoiak* esaten diete. Hala bada, enbor beretik garatu diren aldaera bi izanik *hedoia* eta *hodeia*, esangura banarekin bizikide dira Bizkaiko hainbat lekutako berbaeran.

Hedoia edo *hodeia*, zerualdeari ere esaten zaio, goi-zerua garbi dagoenean. «Eztago *hodei honen azpian* hori baino gizon alperragorik!»

(*ManVascf*), idatzi zuen behinola Paulo Zamarripa idazle sondikarrak, bere *Manual del vascófilo* urregorritzkoan.

Edozelan ere, goiburuko esakuntza horri egokiro ekantzen zaion esangura; berdin dio *hedoia* zein *hodeia* erabili, ‘begietako lausoa, geuna edo gandua’ da; begiak *lainotuta* izatea, azken batean.

Hodeitu (*hedoitu*) aditz eratorriak maiztasun eta erabilgune laburra-goak ditu, oinean dagoen izenak baino, jakina. Beti ere, idatziz baino hitzez maiztasun eta indar handiagokoa. Eguraldiarekiko eremua du funtsean. Harrietek bere hiztegian jaso du: «*Hedoitu behar du*». Edo G. Garatek Goierri aldean, «Egualdi *oreatua* (‘hodeitua’) da, dago» (*Erdarakadak*).

Baina goiko errefrau horretan, *hodeitu* aditz adjektibatuak bitariko adiera du, *lauso* hitzak duen antzera: begiak lausotuta, geunduta edota ganduz dituzula esateko, *hedoituak* dio. Eta norberak aurrean duenari *hedoitua* esatea, ‘itsututa bezala’ dagoela, edo burua sorturik edo gogorturik legez duela esatea da.

Jarraibide edo etsenplu tipoko errefraua da: inori edo besteri begiak *hedoiturik*, lausoturik dituela edo aurrekoa argi ikusten ez duela arpegira egozteko, norberak eduki behar dituela begiak argirik eta garbirik: *eguzki klarua* izan behar duela, alegia.

Hodei-eguzkien arteko kontraste zorrotza irudi berberekin ageri zaigu, Azkuek bilduriko esapide honetan ere: «Lehen *hodeiatuak* gengozan, orain *eguzkitu* gara» (EY 330); lehen elkarrekin haserre geundela eta orain adiskidetu garelara aditzen emateko.

Errefrauaren formulazioa, Bibliak dakarren esaera bera dugu oinarrian (Mateo 7, 3-5; Lukas 6, 41), inguruko hizkuntza nagusi guztietan ere era batera edo bestera bizirik dirauena.

Euskaraz ere aldaera diferenteak ezagutzen zaizkion errefraua da. Batzuetan *bildarra* aipatzen da: «Inonean begiko *bildarra* be ikusi, ta norberenean *hagea* be ez» ageri da behin (Garate 2092). Beste batzuetan *bekarra*: «Noberen begiko *bekarra* baino, besteena ikusten da hobeto» (Garate 2275). Baita *zakarra* ere: «Besteren begian *zakarra* ikusi, geurien *habie* ere ezin». Begiko mota, pizta edo zatarrri bat irudikatzen hiru berba polit: *bildarra*, *bekarra*, *zakarra*.

Eta beste egitura eta irudi diferenteko, baina esangura bertuko diren batzuekin zarratuko dugu puntu hau. «Bestea juzgatzen errexago dek, norbera portatzen baino», dio batek (Garate 8203). Hurrengo honek: «Hire *leihotik* begira zak lehenik barrena» (Garate 8992). Eta azkenez: «Norbere atzeko *jiboa* ikusi behar da, besteenari begiratu baino arinago» (Libe Agirre, informatzailea), Libe Agirre kazetariak Meñakako berbetatik erakarria.

Edozein kasutan ere, Gautegiz-Arteagan bilduriko errefrauaren formulatze-tankera horrek originala dirudi, eta bakan baino ez da aurkituko berorren eredu berekorik euskal errefrautegietan.

13

BEIRAZKO TEILATUA

Beira teilatua badezu, auzoari harrika ez degiozu

Larramendik bere hiztegi hirueledunean (DT) dakarren errefracua, beste bilduma gehiagotan ere oihartzun izan duena (EZBB 518). Errefrau zaharra dugu euskaraz ere zinez, erdal hizkuntzetan ez ezik. Izan ere, daraman mezua unibertsala dugu, edonongo-edonoizkoa eta noranahiko-noiznahikoa.

Gaztelaniaz aski ezaguna dugu harako dioena: EL QUE TIENE EL TEJADO DE VIDRIO, NO TIRE PIEDRAS AL DE SU VECINO. Eta aspalditiko tradizioa duena. Cervantesen *Kixote Mantxako* maisu-lanean bada pasarte bat, Berrondoren bertsioz honelaxe emana: «Kontu, zorakeria dala / harrikarako harriak hartzea, / kristalezkoa duanean / nork bere teillatua» (*Kixote*).

Oraintsuagokoak ditugu beste bertsio batzuk. Hala J. Elizalde *Zerbitzari* idazleak bere esaera-bilduman jaso duen hurrengo hau: «Bere etxea berinez daukanak, ez beza harririk aurtik bertzerenerat» (*Zerbitzari*).

Norbere ahuleziez ondo ohartu gabe, nork bere makaluneak zeintzuk diren igarri barik, edota hainbat txarrago, jakinaren gainean ez ikusi edo entzungor eginik, beste bati edo batzuei akats bera musuetara egotzi, edo kalteren bat egitea. Horiexen abisu ematera dator errefracua.

Beira, berina edo *bidrioaren* irudia Iparraldeko tradizioko literaturan ageriago ematen zaigu Hegoaldekoan baino. Izan ere, mezua beti bat izanagatik, beste irudi batzuez ere azaleratu zaigu beira errefracitegiari. Bat, hurbil-hurbila, *lastozko buztana* konparantza-irudi duena. (Ikus gure lanaren zerrendako 23. esaera: «Buztana lastozkoa duana, suaren beldur»).

Baina kristalaren irudira mugaturik gaudela atal honetan, hara nolako kristala, zer ezaugarriak ageri zaigun beira atsotitzetan:

— *Harrika ez egiteko aginduaz* abertitzera datoz batzuk-batzuk. Zaharrenetarikoa Oihenartek bere bilduman dakarrena: «Ber'etxea beirez dadukanak estalirik, ezpeza aurtik bertzerenera harririk»



(*ProvBasq* 92). Oraintsuagokoa dugu, eta hizkeraz hurbilagoa, mezu beronen iragaile den hau: «Beirazko teilatua duenak, auzoari harrika ez egin» (*Garate* 2271).

— *Zorakeriatzat* epaitzen dute errefrau batzuek inoren teilatua harrika ibiltzea: «Erokeria, nork bere teilatuari harrika egitea» (*Garate* 4156).

— *Ardoaren kolorea beirazko ontzian* zein den iruditzen darabil beste honek: «Ardoari ez begiratu gorriya dirudinean, bere kolorea beirazko edontzian distiatzen dagoanean. CUM SPLENDUERIT IN VITRO COLOR EIUS» (*Pradere*).

— *Beira* edo *kristalaren* irudia zein beste baliotarako erabili izan da? Andre Mariaren *birjinitatea* erakusgarritzat ere kristau-tradizioko dotrina eta saioretan behin eta berriro aipatzen da *bidrio* edo *biderioa*. Hara testigantza ezagun batzuen memoria: «*Bidrieratik* iragoten dana legez eguzkia ausi bagarik bidrioa» (*Zubia*); «*Bidrioa* autsi bage, iguzkia sartzen eta atratzen da aposentuan: alaxe, Ama Birjina *bidrio kristalino* eta Kristo iguzki berdaderoa: orra nola konzebitu eta jaio zen» (*Elizalde*); «Etxola onetan jaio zan Jesus Ama birjinagandik, argia *bidriotik* irteten dan eran» (*Ubillos*).

— *Hauskortasunaren* irudi ere bada, P.A. Añibarroren pasarte honek darakusenez: «Ara ze argal mea dan *biderioa*, bada alanbere *iraute andikoa* da, austeko pelligruetatik ondo gordetan bada» (LS).

Amai dezadan *ontzi kristalezkoaren* irudia darabilen dantza-kopla batekin, irudi horren ardatzean onduriko errefrauen gogoeta dena. Kopla honen bertsiorik ugarienak Jabier Kalzakorta irakasleak bilduak ditu bere *Dantza-kopla zaharrak* (2007) bilduma ederrean. Eurotariko baten esana da: «Itxasoan doianean / *ontzia kristalezkoa*, / zeinbateg esango ete dau: / Birjiña Begoñakoa!» (*KoplZah*).

14

BELAR IHARTUA

Ez dan bedarra berez igartzen da

Irudi horrekin hain ezaguna ez den esaera dugu *belarra ihartzearen* inguruko hau, nahiz mezua unibertsa izan. *Labayru hiztegiak* ere jasorik dakarren erretra. Beste esangura batez ere adieraz daiteke, esanez, den moduan burua agertzen duenaren esanari fedea eman behar zaiola, eta ez itxura, planta edo sasijarrerei.

Seber Altube hizkuntzalaria izan genuen, neuk dakidala, herri-esakuntza hau erakusten lehenen antzekoa: «Ez dan bedarra berez igartzen da». G. Garatek aditz-partizipio soilaz dakar: «Eztan bedarra, berez igertu» (*Garate* 2293).

Arratia aldean oraindik ere mihinetik ezpainetara ekarri ohi den esaera, erak edo abaguneak hala agintzen duenean, benetakoa eta sasikoa elkarrengandik bereizteko. Bertako berbaeran: «Eztan bedarra berez igertan da», era landu hurrekoan honexetara berridatzirik: *Ez dan bedarra berez igartzen da*. Beste inguru batzuetan nekezago entzun daitekeen erretra, hala ere.

Hiru hitzen inguruan josia den esaera dugu berau: *eztana* ('ez dena'), *bedarra* ('belarra') eta *igartu* ('ihartu'). Batez ere lurgintzan, eta

zeharbidez abelzaintzan, sakon erroturik dagoen esaera, edoze-lan ere.

Naturari berez legez atxikirik dagoen prozesua da *belarra ihartzea*. Zer da *ihartzen* dena? Ezetasuna galtzen duen elementua, urik ezaz edo lehorraren poderioz. Lurretik ernetzen den jenero oroz esan daiteke *ihartzen* dela: belarrez, landarez, arbolaz... *Sikatu* edo *lehortu* baina izendapen espezifikoagoa dugu landare, lore edo arbola *ihartu dela* esatea; naturaren esparru semantiko horretan darabilgu zehazki. *Arbolak* ihartzea maiz gertatzen da —haritza, pagoa, pinua...—, batez ere landare-haziak badira, edo erpe sakonik ez dutelako, edo ezgaraian sartu izan direlako, edo behin gora egiten hasita ere, basapiztiek edo ganaduek eginiko kalteengatik, edo ezetasun ezagatik oro har... *Fruta-arboletan* ere, ihartzeraino heldu ez arren, euren *frutua* da batzuetan ihartzen dena: *pikua*, *sagarra* edo *okarana*. Ortuko jeneroetan orobat, *barazki-ortuarietan*, edozertariko *orriak* ihartzea maiz jazotzen den tamalgarria da. Eta ganadua duenarentzat are larriagoa dena, *belardiak*, *belar-landak* gorri-gorri gertatzea sikatearen erruz. Eta behin negura ezkerro, estuak eta larriak, sabaia belar onduz beterik ez balego... Egurra ere *ihartu* egiten da. Horretatik dator esatea, basoko egur iharra sugai ona delakoa. Baina alde txarra ere badu, agi denez, esaera zahar baten kontutik: «Bi gauza (omen) dira ederrak, batere balio ez dutenak: mendian *egur igarra* eta pobrearen arrazoa» (OE).

Baina landaretzaren eremutik beste izaki batzuetara ere igaro da *ihartze* prozesua. Artoak labasuak eginda ihartzen ziren lehenagoko denboretan, eta *arto igarra* zen, *labartoa*, errotara igarotzen zena, handik bueltan, *mendeari* tokatzen zitzaiona bertan itxita, irina etxeratzeko.

Gaur egun garagardoetara ere igaro da *ihartze* prozesu hori. *Garagardo iharra* ardandegian eskatzen duena, garagardo *iluna* eskatzen ari da. Zorigaitz larriagoak dira beste *ihartze* batzuk, ordea. Besoa *ihartu* zaion hura elbarri gertatzen baita.

Eta zer esaten ari da, *eztan bedarra* ('ez den belarra') dioen hori? *Berez ez dena*, berezkoa ez duena, benetakoa ez dena; antzak eman arren, itxura guztiak agertu gorabehera, alfer-alferrik ari dela bere jario edo ekinean. Aurrerago-atzerago behera datorkeela; lehen edo gero igarriko zaiola, antzemango diotela ingurukoek, erakutsi guran dabilen hori «zuria» dela eta ez egiazkoa.

Berez izateak *berezkoa* izatea dakar berekin, eta *berez ez denak* kanpoederren itxurekin du zerikusi handiagoa, berezko izatearekin baino. Horretara dator, bada, errefrau honen esana: «Berez ez dana, ez da izaten» (*Garate* 2416). Eta ez dago intentzioz urrun azkenengo honen esana ere: «Bedar txarra, berez urtetan» (*Garate* 2287).

15

BERBA EDERREN KORAPILOA

Berbok eder ahoan, korapiloa golkoan

xviii. mende erdiruntz idatzi izan zen *Acto para la Nochebuena* antzerki-lanean erantsi zuen Pedro Ignazio Barrutia Arrasateko eskribauak — Aramaioko semea bera—, *Mari Gabon* andrearen ahoan herri-esakuntza zoragarrizko hau: «Berbok eder ahoan, orapiloa kolkoan, / leen legez egongo enaiz zure ukaondoan».

Mezuaren muina: kanpoeder agertu arren plaza aurrean edo gizartean, itxura gozagarriok gorabehera, barruan gorde ohi dela nahigabea, samina edo beltz koloreko den guztia. Barruko egoera lazgarriaren adierazle dira, bai *orapiloa*, bai *kolkoan* berbak. Gaztelaniaz esan ohi dena: LA PROCESIÓN VA POR DENTRO. *Korapiloa*, nahas-mahas den hari-multzo edo marapilo nahasiaren irudi. Eta *kolkoan*, norbere barne-muinetan, kanporatu ezinik, gorderik dagoen nahigabea.

Gabriel Aresti bilbotar poeta handiak, antzerki-lan horren eta beste batzuen argitalpena prestatu zuen aspaldi, eta Auspoa bilduman argitara atera. Eliz eta dotrina-usainik ez zerion herri-gizartearen

sentipenak eta jalgipenak zekuskian islaturik gabon-ikuskizun horretan. Eder bezain sakon iritzi zitzaion Arestiri esakuntza hau; hainbestean ezen, honelaxe berretsi zuen 1961ean bere idatzietariko batean: «Hitz ederrak ahoan, korapiloa golkoan, zuk bezala hitz egiten duenak» (*Tobera*).

Denboran atzerago joz gero, J.J.M. Arakistain Itziaroko semeak Larramendiri, bere hiztegi hirukoitzaren osagarriko bidali zion glosario luzean dakarren batekin topo egin dugu: «Errosarioa eskuan, ta deabrua kolkoan», gaztelaniaz honako argibidea demaiola: [SE DICE] DEL QUE DISIMULA LA VIRTUD (*SuplementosDL*).

D. Intzak Nafarroako Larraunen bilduriko beste batek, itxuraz hurbil den arren, bestelako mezua du gorderik: «Baztandarrak hitzek eder, baino opil-llekolkoan», argibide honekin osatua: «Hitz ederren ondotik besterik egin» (NEZ 348). *Opilak* ez du zerikusirik, jakina, kolko barruko (*k*)*orapiloaz*.

Kolkoa gordelekua da, barrukoa, kanporatzen ez dena, isilpekoa. Irudi horrekin ondua da «norbere kolkorako» esapide ezaguna (*neure kolkorako*, *zeure kolkorako* eta abar). Horren harira, honako esakune hau eman ohi da aholku modura: «Lehenengo begiratu / bakoitzak bere kolkoan» (*BetiB*). Kolkoan *opila* gorderik duena osasuntsuago dago ziurki, saminaren *korapiloa* barrunbean sakaturik ezkutatu behar duena baino.

Gure idazleek ere sarritan jo izan dute kolkoaren irudia, gizakion kanpo-barruen kontrakotasunaren adierazgarri. Maizenik kaltezko edo galgarri diren gauzak ohi dira kolkoan ostentzen direnak. Eusebio Azkuerenean *beldurra* datza kolko barruan: «Beren jaubeak eukan / kolkoan bildurra, / noiz ezagutuko zan / astoan guzurra» (PB). Agirre Asteasukok, *bengantza gogoa* du mintzogai: «Topatuko dituzu beste asko, *bengantzaren txingarra kolkoan* duela bizi diranak» (*Era-kusaldiak* III). Haserrea eta txar egin nahia islatzen du, Lardizabalen

Testamentu Zarreco eta Berrico condairak dakarren Bibliako pasarte honek: «Beste semeak, beren *gaiztakeria kolkoan* zeukatela, loseintxan joan zitzaiozkan, lasatzera» (*Lardizabal*). *Piztiak* aipatzen dizkigu Domingo Agirrek bere lehenbiziko eleberrian: «Piztiak dabilz auzoan, / ta kanpokoak gitxi dirala, / piztiak *zeure kolkoan!*» (AL). *Haserre*a dakarkigu berbara Salvatore Mitxelena idazle frantziskotarrak poesia-atal honetan: «Birau ta lerdea ahoan, / amorrusua kolkoan» (*Arantzazu*).

Korapiloa kolkoan esatean, gure idazle batzuek darabilten atsekabearen ideia bera da ageri zaiguna. Erkiagaren hitzez: «Geure *kolkoan ditugun atsekabeak* oihuz, hitz ozenez, aldarriz ta eiagoraz adierazo daikeguzan» (*Arranegi*).

Sekretuaren ideia da, ordea, bertso taxuz onduriko ahapaldi honetan adierazten zaiguna: «Gauz asko izaten dira / *gizonen kolkoan*, / jakin behar ez diranak / behin ere auzoan» (*JanEd II*).

Jakin beharra, disimuluz estalian gordetzen ere zail den *jakin-min larria* ere bai inoiz, Felix Bilbao idazle frantziskotarraren honetan, kasurako: «Anastasik jakin-nahi handi bat erabilan kolkoan» (*IpuinB*).

Orapiloa, era arautuan «korapiloa» deritzaguna aditzera emateko beste hitz batzuk ere baditugu. Eta G. Aresti beraren poema bat arlora ekarrita, harako esaera «Eztaukat lehengo dudetako *mataza*, / *askaturik* baitago *korapilotxo* hau» (*MaldanB*) dioena.

Amaitzeko, zer egin korapiloaz. Ondoen doakion aditza *askatu* dugu. Bai berbaz, bai idatziz, euskaraz sarri ere sarri uztarturik ageri den izen-aditz katea. Hitz egite kontuan pitean-pitean aipatzen da *orapiloa*, *askatu* aditz horrekin lagundurik. Jokin Zaitegi idazleak *Platoneneko atarian* itzulpen-obran hara zelan dioen: «Haren *hitzaldi-mataza* dana txoriburu, ta hariltzen baduzu, arra betean *bost korapilo*». Eta korapiloa askatze aldera: «Mingainean *korapilorik bage* mintzatu ohi zan» (*Platon*).

16

BERBATIK BERBARA

Berbeak berbea dakar

Ez hain aspaldi suertatu zitzaidan, lagun zaharren arteko bazkari batean esakune hau entzutea. Eta erara datorkidala ohartu naiz, hitz, mintzo eta berben gainean jardun labur baterako.

Lehenagorik ere bildua nuen neure corpustxoan errefrau hau. Sartaldeko hizkeran guztiz ezaguna, bestalde. Ibarrangeluko berbetaren gainean Domingo Zuluaga abade jaun eta euskarazale fina izan zenaren apunteetatik jasorik neukan berbaz berba errefrau berau: «Berbiek berbie dakar» (*IbarrangKant*), hau da, «berbak berba dakar», edo «hitzak hitza dakar» esatea legez.

Labayru hiztegiak ere batua du, eta era bitara, gaztelaniaz berorren irakatsia zein den (irakatsietariko bat behintzat) argiro darakusela: «*Berbeak berbea dakar*: TRAS LA PALABRA, EL COMPROMISO».

Bigarren errefrau bat ere badakar, aurrekoaren kide hurbila: «*Berbea, berba*». Etxeita nobelagilearen lumaz ere jasorik ikusi dugun esakuntza: «*Berbea berba*, ta eskatu dozuna ordainduaz, amaitu dira gure hartu-emonak» (*Josetxo*). Bigarren horretan, *berba* izen horren oinean datzan adiera, *berba emonaz*, hitzemanaz, loturik dago. Ezen,

gerta daiteke, lehenengo *berbea agindu* egitea nori edo hari, eta gero, *berba emonaz* damaturik, berba hori *jatea* hitz-emaile horrek. Izan ere, *berba*, ingurune horretan ‘agindua’, ‘promesa’ da. Adiera-oin horren harian eraikiak dira honako esakuneok ere: *berbea zor* eta *agindua zor*. Diogun honi datzekala, eraz datorkigu, Frai Bartolome idazleak behinola idatziriko pasarte bat: «*Bere berbearen jaube* ez dala dinogu, orrelakoagaiti: *ez agindu* baino ez eukala» (*Ikasikizunak I*).

Adiera horrexetakoak dira baita, *berbea bete* egin behar delakoa, eta *berbearen balioa*: hau da, urliaren *berbak balio duenetz* ala *balio ez duenetz*. Norbaiten berba balioz merkea izatea aditzera emateko, sarri esan ohi da: «Haren berbeak ez dau txakur handi bat balio».

Ildo bereko aditz-lokuzioak dira *berbea emon*, eta kontrakoa, antonimoa dena, *berbea jan* edo *berbatik urten*. P.A. Añibarrok idatzia da, kasurako: «Maiteak, deitu fede biaz Jesusi, *emonik dauko berbea*, entzungo gaituzala» (LS).

Adiera horretakoa dugu baita, lehenagoko gizartean hamaikatxo bider ahotan erabili ohi den zorioneko *ezkontza-berbea*. Batzuetan, lagun-geidearen zorigaiztoan, berba hori ez zen betetzen; beti edo ia beti, mutil-lagunaren aldetik. Frai Bartolomek ondo zorrotz astintzen du *ez-berba* edo *berba-hauste* horren auzia: «Aintzaz artuta dagozan legeen kalte bagarik, emon ezkerro *ezkontzako berbea*, zorra da ta zor andia da. Bada, *kobru emon* bear jako berbeari» (*Ikasikizunak III*). *Kobru eman*, emandako hitza bete beharra aditzera emateko. Idazle berorrek, beste behin dio: «*Ezkontzako berbea* emon ezkerro lagunari, Eleizearen ta errege jaunen lege artuak ontzat emoten daben moduan, *berbati urteten* dabena ta garbatuten jakona juezez ekarri legiala ezkondutera» (*Ikasikizunak III*).

Baina *berba* hitzaren oinarritzko adiera nagusia hitz egiteari loturik dago; ‘jarduna’, ‘autua’ adierazteko darabilgu nagusiki. Eta goiburuko

esakune hori, *berbeak berbea dakar* delakoa, gaztelaniazko UN TEMA EVOCA OTRO delakoaren ordaina dugu, Otxoluaren idatzi batean irakurri dugun legez: «*Berbeak berbea dakar*, eta ipuinak ipuina».

Badugu euskaraz, *azkenengo berbea* eta *lehenengo berbea* kontrajartzen dituen lokuzio adiutu bat ere, Urdaibai aldean askotxotan entzun izan dudana: «*Azkenengo berbea lehenengo!*». Berbaera gordin azarria darabilenaren jokabidea desegokitzat epaitzeko esan ohi dena.

Beste mezu batzuetara zuzenduak diren esakuntzak ere badira, *berba* izenaren goruan ehoak. Horietariko batek *berba onak* ditu aipu. Eta mezu zuzena: horietan ez dugula zer fida abertitzea, berariaz: «*Berbak onak*, baiñe artue ('artoa') maletan» jaso genuen aspaldi Iurretan (Miren Bikandi, informatzailea).

Amaiera gisa, *berba gitxi*, edo *hitz gutxi*, egitearen onurak gogorarazten dizkigun aholku bat ekarriko dut, adineko pertsona zaharrarentzako gomendio modura formulatua, Gautegiz-Arteagan entzuna: «Etzie ('etxea') ondo joateko, zaharrak ein bihar dabela: *berba gitxi*, jan gitxi ta bihar ('beharra', 'lana') asko» (Segundo Oararteta, informatzailea). Hau da: hitz gutxi, jan gutxi eta lan asko!

17

BERANDU HOBE

Bapez baino, berandu hoba!

Zeozertarako berandu izango delako aitzakiaz ezer ez egiteko alperdo baten erabakiari aurre egitera datorren esakuntza: «Bapez baino, berandu hoba!» (hau da, «batere ez baino, berandu hobe»).

Edozein hizkuntza eta kulturatan idoro daitekeen esakuntza, ziurrenik.

Zertarako edo hartarako *berandu izatea* edo *ez izatea* da errefrau honen eta beste hainbaten giltza-mezua. Guztiok noiz egingo zain gauden egitasmo bat, denbora igaro eta igaro, eta sekula ailegatzen ez... Baina halakoren batean, uste-ustekabeen amestutako helburua betetzen! Horren harira ohi datozkigu burura horrelako esakuntzak: «Inoiz ez izatea baino hobe noizbait izatea, edo berandu izatea!».

Aparteko balioa duen ondasun edo bitxi ederren baten jabe egin gura dugunean, ez dago besterik itxaron baino. Guren dugun hori zuzendu edo eskuratu nahi bada, egoarria eta patxada hartu, harik eta denboraren buruan irriki dugun hura norberegianatu arte.

Gaztelaniaz ere formulazio ezaguna duen esaldia: **MÁS VALE TARDE QUE NUNCA**. Baina *zertarako* den berandu, ondoko helburu-esaldi

menderatuak ebatzi ohi du, eta horretan aldaera ugariagoak izan ohi dira batetik bestera. Batzuetan, «onerako, onuragarri izatea», itxarroteak «emendioa ekartzea». Baina beste aukera batzuk ere loratu ohi dira bigarren horretan, mezu osagarri hori diferente edo askotariko bihurtzen dela. Batzuetan ohi da, damutzeko. Beste batzuetan, ikasteko. Edo helburu mesedeginago batez: on egiteko.

Gaztelaniazkoari garraizkiola, baiezka formulaturik ere sarri esan ohi da euskaraz ere: hobe dela berandu, sekula ez baino. Eta beste bat ere, dioena: balio handikoa denaren zain egon beharra izaten dela; gaztelaniaz ere horrexetara: LO BUENO SE HACE ESPERAR.

Euskal hizkera batzuetan *belua* edo *beranta* ager daitezke *beranduaren* tokian, eta ezereza, *ezdeusa*, *hutsa*, *eza*, *fitsik* ez edo *pikorrik ez*, sartaldeko *ezebeza* edo *bapezaren* lekuan.

Berandu ibiltze hori ez da eragozgarri, ez traba bihurtzen, emaitza on bat jadesteko. Horixe aditzen ematera dator hurrengo hau: «*Berandu*, baina seguru» (*Garate* 2359). Egin beharreko hori itsumustuan eta arrapaladan kitutzen zazpi ahalegin egin baino, hobe dela epea eta patxada harturik burutzea, *arin eta ondo* antzina haserretu zirela akordura ekarriz. Bermea eta ziurtasunaren erakusgarria dela horrela jokatzeari.

Errefrau horretan *berandua* eta *bapeza* dira agerien kontrajartzen diren kontzeptuak. *Bapeza beranduarekin* kontrajartzen du, ostera, atalburuan ipini dugun hurrengo honek: «Bapez baino, berandu hoba!» (*Garate* 1908).

Mezu eta ingurune diferente anitzetan egokitzen den errefraua. Banaka batzuk garanduko ditugu hemen.

Hitzordua ipini eta «ordurako» izentatutako lekuan ez egotea dela-eta eman ohi den kontsolamenduzko erantzuna izan ohi da batzuetan:

«Berandu etortzea hobe, behin ere ez etortzea baino» (*Garate* 2360).

Denbora edo *aldia* berbagai delarik, *sekula* ez eta *berandu* denbora-egiturak azaltzen dira batzuetan aurrez aurre: «*Sekulan* ez baino, *berandu* hobe» (*Garate* 12010). Eta beronen kide garbia den beste hau, *inoiz* ez ezeztapen-formulaz: «*Inoiz* ez izatea baino, *berandu* izatea hobe» (*Garate* 7283).

Etortzea, *ailegatzea* dela kontua, nahiz *berandu ailegatu*. Baten esana: «Berandu etortzea hobe, behin ere ez etortzea baino» (*Garate* 2360). Eta *joan-etorrien* ertz biak harturik: «Berandu joan ezker, berandu etorri» (*Garate* 2361).

Ereintza autugai duen lurgintzako zereginak direla eta, baten esana: «Berandu ereitea geixau ('gehiago') da, bapez ereitea baino» (*Garate* 4054).

Lurgintza dela eta, lurrak *uzta ona ematea* edo *uzta* oparoa biltzea aipatzen da beste batzuetan. Hala: «Urte jaibala baino, belua obago», gaztelaniaz ordaintzat dakarrena: MEJOR ES EL AÑO TARDÍO QUE EL INFRUCTUOSO (RS 321). *Jaibal* hitz ilun zaharrak 'fruitugabea' adierazi nahi omen du.

Astitsu ibiltzea edo gauzak asti handiz eta epe onez egiteari ematen zaio balioa beste batzuetan: «Beti ordu ('astia') duena, beti berant heltu dena» (EY 2136).

Ikasiaren eta *ez ikasiaren* arteko aldea agerian jartzeko, eta gizakiontzat beti dela garai ona ikaste-jardunean saiatzeko, hori adieraztera datoz beste esaera batzuk, *sekula* ez / *berandu* aurkaritzaren bidez: «*Ikasteko*, *sekula* ezta *berandu*» (*Garate* 7149).

Pertsonen jokabidea «onbideratzea» bilatzen duen atsotitzak ere badira; *ongin izan* edo *txargin ez izan* aipura dakartenak: «*Ondo* eiteko ez

da sekula berandu» (*Garate* 10707) dio batek, eta beste batek: «Sekula ez da berandu, *bide txarra* uzteko» (*Garate* 12006).

Goiko mezu horren esparrutik landa ere sarri jazotzen da errefracuetan *goiz-beranduen* kontrajarpena, beti edo gehienetan mezu baikor edo ongile baten aldera. *Goiz jaikitzeari* eta *lanaren emaitzari* atxikia egon ohi da mezua batzuetan: «Goiz oilandak berandu erruten» (*Garate* 10425), dio batek. «Goiz etzin ('etzan'), *berandu* jeiki, *beranduago* lanera..., berriz ere ez faltako ogi txikia maiera» (OE), bildu zuen Justo Mokoroak bere lokuzio-hiztegian.

Gure dotrina-idazle eta sermoigile klasikoek ere maiz jo izan dute *goiz* eta *berandu* kontzeptuen arteko dikotomia horretara, irakatsi onik zabaldu nahian. Pedro Antonio Añibarro fraide idazleak, Areatzako semea bera, zorrotz astindu zuen alperkeria, Axularren «*geroko gero*» leloaren bidetik: «*Belu* etxunik, *belu* jagi, ta *gox* geiena emongo dogula ezer egin bago» (LS). Eta bide beretik Juan Jose Mogel apaiz eta idazle markinarrak honako pasarte honetan: «*Gaueko beluak* ekarriko dau *goix berandua*» (*Eskolia*).

Irakatsi handikoa dugu, Juan Antonio Mogel berdingabeak, Iparraldeko errefracu zahar batean oinarri harturik —«Usoak joan, sariak heda» delako hartan hain zuzen—, nola bideratzen duen kristau-dotrinaren gurpidera esaera horren adierazkizuna: «—Zer esan gura dau orrek? —*Ez dala beluaren zain* egon bear, gauzaren bat egiteko» (*PAb*). Bestela esanda: beranduak *kaltea* besterik ez dakarrela.

Dena dela, *beranduan* egiten den guztia norbere edo osasunaren kalteko ez dela zertan izan aditzera ematera dator beste esakuntza ezagun hau, gaurko mediku askok ere gomendatuko luketena: «Goiz jagia, goiz gose; belu jagia loz ase» (EY 1709), Azkuek dakarren eran; edo «Goiz yekia, goiz gose; berandu yekia, loz ase» (NEZ 1752), Damaso Intzak Nafarroako Bortzirietan bildu zuen jasean.

Berandua, edo *geroa*, *alperraren leloa* delakoa salatzen digu Oihenarten bildumako batek ere: «Geroa, alferraren leloa» (*ProvBasq* 189). Axularrek *Gero* tratatuan dakarrenaren kide-kidea: «*Gero* dionak *bego* dio».

Eta amaitutzat jotzeko, *goiz-beranduak* elkarren aurrez aurre jartzen dituen harako hura erants diezaiozun: «Goiza ezta berantaren behar» (EY 2444).

18

BEREZKOA IZAN EDO IZAN EZ

*Buruak berez ez dakarrena,
Salamancak ez du opesten*

Mezua garbia da: *berezkoa* behar duela gizakiak, norbait edo zerbait izango bada. *Berezkoaren* jabe ez denak, jakituriaz ondo hornitua egoteko, eskola hutsa ez duela asko; *berezkoa* ezinbestekoa, nahitaezkoa duela. Ez dagoen lekutik ezin dela ezer atera.

«Berezkoa eduki» edo «berezkoa izan» aditz-lokuzioa da euskal idazleen idatzietan ere sarri aipu den giltza-esakunea. Halaxe dio Domingo Agirrek: «*Berezko argia* eban Mañasik gauza danak errez ikasteko» (*Kresala*). Antzera darabil Iturzaeta sermoi-idazleak: «Errazoe izatezkoa edo *berezkoa da* Jaungoikoak emoten deuskun *argitasun bat*, zuzenera barruan dagozan gauzak ezagututeko» (*Iturzaeta*). Eta oraintsuagora etorrita, Etxaide batek: «*Berezko zitun adimen argitasuna* eta edozertarako ikusmen zolia» (JJ). Halatsu E. Erkiagak ere: «Errukiz ikusten eban maisuak, mutikoaren zabarkeria, *berezko dohaia* aitorren jabe izanik» (*Arranegi*). Edo I. Oleak: «Gizonak badu Jaunak emanik / *berezko azkartasuna*» (*GoierLor*).

Bihur gaitezen errefrauaren mamira. Gaztelaniaz askoz ezagunagoa da euskaraz baino, oro har, bai hitz-irudien morfologiaz, bai mezuaren edukiz: LO QUE NATURA NO DA, SALAMANCA NO PRESTA. Bigarren batek ere *Salamanca* izendatzen du, unibertsitate-hiri historikoa, *astoa jakitun* bihurtzeko han ikasten egon izana asko ez delakotzat. Eta hirugarren batek ere *Salamanca* dela eta, astoaren edo osteango patariren baten irudiaz jokatzten du: *patari joan* dena *asto bihurtzen* dela esateko. Latin zaharrean dute erromantzezko bertsoiek oinarri ziuerra. Latinez are ezagunagoa zatekeen, kultura-transmisio hizkuntza zen aldian: QUOD NATURA NON DAT, SALMANTICA NON PRAESTAT.

Euskaraz badu gorago aipatu den gaztelaniazko hirugarren horrek erdi-ordain bat, *asto-mandoen* abere-irudi berarekin josia: «*Asto joan* eta *mando etorri*». Hala darabil J. Zaitetik *Platonen* itzulpenean: «Akademiarra asto joan eta mando etorri egiten zutenak ere baziran» (*Platon*).

«Adimen argia», edo «buru argia» izatearen kontzeptuaren adierazgarritzat beste era gehiago ere garatu dira euskaraz, hitzez edo idatziz. «Buru argia edukitzea» adierazten da batzuetan, izen-kategoriaz. Baina adjektibo modura ere bai beste batzuetan, nor edo hura *buru argikoa* izatea ardatz dela: urlia *buruargia* dela edo *buruargi* dagoela esanez. Azkueren berbaz: «Mirarizko gauzea dirudi 87 urteko agura hain arazopetua, hain sendo ta *buruargi egotea*» (*Euskalzale* aldizkaria, R.M.^a Azkue). Gregorio Muxikaren idatziz ere bai, honexetara: «Zuk gizon azkar, *buruargi*, pizkorren izena daramazu» (*Amezketarra*). Halaber Jokin Zaitegirenean: «Bakan-bakanetan, ordea, arkitu ahal izan ditugu bihotz beroko gizakume *buruargiak*» (*Platon*). Hirugarren egitura bat, *buru argikoa* (izan) adnominala: «Oso *buru argikoa* da artzai-mutilla» (*Kixote*). «Han nabarmentzen ziran aguro / *buru argiko* gizonak» (*Basarri*).

Gatzaren irudipean ere sarri adierazi izan da *buru argia* edukitzea. *Buruan gatza edukitzea*, 'sustrai', 'zuzterra', 'juizioa' izatea aditzera emateko. Nolanahi ere, *gatzaren* irudia maizago ageri da ezezkako

esaldietan: *gatzik ez edukitzea*. Kirikiñoren lumaz: «*Gatzik bape ez daukozula!*» (*Euzkadi* egunkaria, Kirikiño). Eta herri-berbetan ugari samar, hizkera batzuetan behintzat. Neuk entzunikoak dira hurrengo hauek: «*Zuk daukazu gatza!*» eta «*Harek dauko gatza, esan dituan berbak ahotik aterateko!*» (Teresa Totorikaguena, informatzailea).

Esaera ezagun bat ere bada ezezkako juntaduran: «*Ez gatz ez berakatz*». Edo berbeta barruan dela, honetara: «*Horrek ez dauka ez gatzik, ez berakatzik!*».

Adin izena ere batzuetan adiera horrekin erabili izan da, ezagun eta hedatuago zaigun 'edade' adieraz ez ezik. Izan ere, *adin ona* eta *adimena* are ezagunagoak dira 'entelegu' adiera nagusian. Baina ez da ahazturik uztekoa Mogelenean errazto irakurtzen den *adina galdu* lokuzioa, 'burua edo zentzua galdu' esangurakoa. Hala dio behin: «... errukarria da, ta ez biraogarria, gizon *adina galduten* dabena» (*PAb*). Agirre Asteasukok ere, ildo berean, *adin zoroa* aipatzen du, 'buru arina' aditzera emateko: «*Gerta liteke adin zoroarekin irristatzea utsegiteren batean*» (*Erakusaldiak* III).

19

BILA IBILI*Bila dabilenak, idoroko du*

Hizkuntzarik diferenteenetan ere mezu unibertsala. Alemanez: **WER SUCHT, DER FINDET**. Gaztelaniaz: **QUIEN BUSCA, ENCUENTRA**. Euskarazkoa, geuk egokitua da.

Aditz-egitura biren joscura dugu esaldian; pertsona birena: *bila dabilena* batetik, eta *topatzen, aurkitzen, idorotzen* edo *kausitzen duena* bestetik.

Bilatu aditzak ertz bi ditu esangura aldetik. Euskaldunik gehienok ondo bereizten ditugu *bilatzea* eta *aurkitzea*, baina esanguren neutralizatzea dela eta, *bilatzearen* eta *aurkitzearen* balioa bat dira erdialdeko hiztun askorentzat: «Aitzaki bila dabilenak, beti *bilatzen*» (*Garate* 415). Esakuntza horretan erro berekoak dira *bila ibili* aditz-multzoa eta *bilatu* aditza: *bila* dute biek oina, baina adieraz ondo bereizten dira bata eta bestea elkarrengandik.

Irudi eta egitura diferenteen bidez adierazirik azaltzen zaigu mezu hori. Batzuk-batzuk garanduko ditugu hurrengorik hurrengo:

— *Geldirik* egonda ez dela behar dena aurkitzen ohartzera dator bat: «Zakurrak geldirik ez du aurkitzen hezurrik» (*Garate* 13698).

– *Bila dabilenak* jadesten duela aurkitu beharrekoa, Debagoieneko honek: «Hasi hari (hadi) bila, eta ikusiko dok zenbat eta zertzuk agerketan (‘agertzen’) jaken» (*Garate* 2616). Eta *saiatu* aditza bitarte dela, mezu bera dakar hurrengo honek ere: «Saiatzen danak, bilatzen du» (EZBB 2540).

– *Zoriona* ez dator berez, *bila ibilita* baino: «Zorionaren bila jun bihar da; zoritxarra deitu barik etorten da» (*Garate* 14182).

– *Bila ibiltea*, astirik alferrik galdu barik, zaharrenetariko beste honen esanean: «Galdu zeegik (‘ez egik’) aldia ta idoro daik naia» // No PIERDAS LA SAZÓN Y HALLARÁS EL DESEO (RS 336).

– *Bizimodu ona* aurkitzeko bidea *uraren ibiliaz* irudikatzen digu batek: «Urari segitu eta bizimodu ona aurkitu» (*Garate* 13009).

– *Galtzearen erraza* eta *aurkitzearen gaitza* kontrajartzen ditu hurrengo honek: «Galdu errez, idoro gaitz» (EZBB 1224).

– Zeren edo haren bila dabilena *gogoz eta astitsu* lehiatzen dela diosku beste batek: «Bisita luzea, zerbaiten bila» (*Garate* 2652).

– Saleroste-gorabeheretan, eroslea-saltzaileen arteko ikuspegi elkarren aurkakoak nabarmentzen dira beste honetan: «Eroslea paillu (‘fallo’) bila» (*Garate* 4172).

– *Ona* bilatu behar delako lehia eta afana adieraztera datorren errefrau dugu hauxe: «Onaren hoa bila ta txarrari makila» (*Garate* 10667).

– *Zer jana* denean bila ibiltzearen arrazoia, hegazti harraparien irudi bidez emana zaigu hementxe: «Non abere hila, putrek haren bila» (*Garate* 99).

— *Senar-emazte* edo *bizilagun* harremanean hutsunea hornitzearen premia adieraztera dator esakuntza hauxe: «Senarra atzo du hila, hasi da beste baten bila» (*Garate* 12042). Eta ezkontza bitarteko izatea dela eta: «Nun nor topatuko, zenbait beti ezkontzeko» (EZBB 2268).

— *Bila ibiltze* horretan, urrunekoa baino hurrekoa hobe delako aholkua: «Ez joan kanpora, zeure sukaldean daukazunaren bila» (*Garate* 12284).

— *Ostatu bila* ibiltzea gaitzat hartuta: «Aterpea nun topatu, ijitoak han ostatu» (*Garate* 10959).

— *Zorte bila* ibiltzea dela eta: «Suerte bila ezta fan (‘joan’) behar, suertea bera etortzen da» (*Garate* 14285).

— Eta azkenez, *galdu denaren bila* ibiltzearen inguruko aholkua: «Galdu dan tokira joan behar da bila» (*Garate* 5276).

20

BILBAO ETA BIRAO

Bilbao, han bere dongeak birao

Asko dira euskaraz ere, beste hizkuntzetan ez ezik, herri- edo leku-izenak hartzen dituztenak erretrauen ardatza. Gutxi batzuk, laudoriozkoak, baina gehienak, txarreste ezaugarriren baten adierazle direnak. Eta ia beti, errima-puntua jagonez onduak. Horietarikoa dugu, *Bilbao* eta *birao* izenekin josiriko hau ere.

E. Garibai kronikariak XVI. mendean, euskararentzat aldi goiztiarra den horretan, birritan-edo darabil Bilboren izena, *Bilbaorena* aldi hartan, herri-esakuntza batez izendatzeko Bilboko *uriaren* ('hiriaren') eta hango jendearen izaera, moduren batean.

Hitez hitz dio, gaztelaniazko sarrera argibide honekin batera: PORQUE BILBAO, SIENDO UNO DE LOS MEJORES PUEBLOS DE LA TIERRA BASCONGADA, TAMPOCO FALTAN EN ÉL TRABAJOS A LOS MALOS, COMO DONDE QUIERE, DICEN: [...] *Bilbao, an bere dongeak birao*. Eta jarraian lexiko-gogoeta hau egiten digu: AL MALDITO LLAMAN *madarikatua*, Y DE AQUÍ SE DERIVA *madarikatutasuna* POR LA MALDICIÓN, A LA CUAL LLAMAN ASÍ BIEN *birao*, QUE SIGNIFICA 'MALDICIÓN RIGUROSA', DICHA A VOCES POR EL AGRAVIADO (*Garibai B 56*).

Errefrau hori dugu froga garden-gardenetarik bat, *Bilbao* ere euskal

izena dela, inguruko hiztunok *Bilbo* bihurtua dugun izen beraren era klasiko tradiziozkoa. XIX. mende aurreratuan ere, *Bilboon* idazten zen maiz, /ō/ luze batekin, irarkolen egoitza han zegoela aditzera emateko. Baina ez da ahaztu behar, Bizkaiko hiriburutik urrunagoko euskaldun askorentzat gaur egun ere *Bilbao* dela hiriaren izena, eta *Bilbaora joan* direla edo *Bilbaon egon* direla esaten dute.

Birao dugu *Bilbaoren* izen errima-laguna. Tradizio sendoko izena, gaur zaharkitu samar badugu ere. Gaur entzunagoak dira hiztunen artean *madarikazio*, *maldizio* eta halakoak. Baina gure klasikoetan *birao* eta *ainen* sarri erabiliak dira, berariaz dotrina-giroko idatzietan. P.A. Añibarrok bere glosarioan honako bereizkuntza egin zuen izen bion artean: «*Biraoa* se llama a la maldición grave, y *aiñena* a las invocaciones leves» (*VocBasc*).

Jakingarriak dira *birao* izenaren sinonimoen lerrotze batzuk ere. M. Zabalaren hau, kasurako: «... orregaitik ikusten dira familia osoak, zeintzuetan eztagoan *biraoa*, *ainena*, *agirakea*, *deadarra* eta *aserrakuntza* baxen» (*IrunSerm*).

Baina *birao* hitzaren sinonimorik hurbilena *arao* dugu. Hona hemen, J.A. Mogelen esaldi ezagun bat adierazgarri indartsuena dena: «Eta euskerea bearren daben orduan, *biraoa ta araoa* legez dagoz esanaz, “Arren sekula jaio ez balitz euskerea!”» (*PAb*).

Baina beste herri- edo hiri-izen ezagunak ere mordoa dira, iritzi gaitzesgarrien emaille. Iritzi gaitzesgarria darien errefracuak, hiri- edo herri-izenak ardatz diren errefracuegian, hauexek dira baten batzuk: *Albia*, *Bergara*, *Mungia*, *Urretxu*, *Markina*, *Ondarroa*, *Motriku*...

Azkuek bildu zituen bere *Euskalerraren yakintza* obraren III. aleko bilduman, atze-partean, 1495. zenbakitik aurrera, edozenbat atsotitz, leku-izenetan oinarrituak. Ugariak dira, oso; hor bildu direnez gainera

beste hainbat dira lekuan-lekuan, euskararen ekialdeko bazterretatik hasi eta sartalderainoko ertzetara. Euskal Herriko barruko herri, auzo edo lekuez ostean, inguruetako eta erbesteko izenak izendatzen dituztenak ere ez dira gutxi. Baina guk, hemen, hurreko gutxi batzuetara mugatuko dugu geure jarduna.

Bilbotik irten barik, Abandoko elizate zaharrea badugu *Albia* leku-izena, errefracu barruan irain-ematezko mezu baten transmititzaile dena; edo irangarri bat: «Albia, lapur duztien ('guztien') habia». Batzuetan jazotzen da, leku-izenaren amaiera hori beste leku batena denean ere, mezu berbera leku hari egoztea. Gaur egungoak dira *Mungia* eta *Bedia* aipatzen dituzten besteok ere: «*Mungia*, lapur duztien ('guztien') habia» batetik; eta bestetik zeanuriztar bati entzuniko hau: «*Kolazino ta Bedie*, lapur guztien egie» (Jesus A. Etxezarraga, informatzailea).

Bergarako hiriaren izenarekin errima eginez, baina mezu susmagarriaz seinalatzen duen atsotitz zahar bat ere ezaguna dugu: «*Bergara*, zinatu eta *igara*». Esan nahi baita, bertan geratu ere egin barik, aitaren egin eta aurrera egitea, igaratea aholkatzen dela. Arrazoia, kronikari berak, Garibaik, ematen digu: «PORQUE EN BERGARA, UNO DE LOS BUENOS PUEBLOS DE LA TIERRA BASCONGADA, SUCEDE ENTRE LOS VECINOS HABER DE ORDINARIO MUCHOS PLEITOS, DICEN: *Bergara*, zeñaatu eta *igara*» (Garibai A 57).

Deba eta *Mendaro* ahotan hartzen dituen beste errefracu bat bada, Bergarako horrek dioen bera dioena, baina hizkera gaurkotuagoz: «*Deba ta Mendaro*, heldu ta *igaro*» (EY 1542).

Bakio herri-izena ere antzeko mezu gaitzerizlearen eroale dugu: «*Bakio*, *aparta hakio*, ahal bahakio». Ideia bera oinean: bertan gelditurik egin gabe, albotik igaro eta aurrera egitea dela onena. Eranskin txiki bat darauntsa ondoren, Azkueren bertsioan: «... lapa-saldea oridxo ('olio')».

Elantxobeko herria ere gure errefrautegian sartu da destainazko bidetik, jende pobrearen herrizat jota: «*Elantxobe, milla pobre*», dio labur eta soil esakuntzak.

Markina Bizkaiko hiri ezaguna ere esaera baten baino gehiagotan ageri zaigu. Irain gordina, handik urrun gabeko herritar batzuek ahopez esaten dutena: «*Markina, lapur jakina*». Baina askoz zaharragoa, gauza handi eta txikiak konparatzeko, Burgos eta Markina alderatzen dituena. Hitzez hitz dio E. Garibaik: «CUANDO ALGUNOS POR POCO CONOCIMIENTO DE LAS COSAS QUE PLATICAN QUIEREN IGUALAR UNA COSA PEQUEÑA CON OTRA GRANDE DE MUCHA DESIGUALDAD, DICEN: *Bardin Burgos eta Markina*» (Garibai A 49).

Larrea, Arabako herritxoa ere handi-txikien konparagarritzat ageri da esakune barruan Toledorekin alderatuta, beti ere euskaldun hiriak txiki apalak direlako ustea aurretik dela, Gaztelako hiri nagusien aldean. Garibai berarena dugu hau ere: «A LOS QUE LAS COSAS PEQUEÑAS QUIEREN HACER GRANDES SIN LA DEBIDA CONSIDERACIÓN DE LO QUE HABLAN, DICEN POR IRONÍA: *Larrea Burgos baño obea, Toledoren idea* (‘kidea’, ‘parekoa’)» (Garibai A 50).

Ondarroa eta *Motriku*, Mogelek XIX. mende hasiera horretan idatziz ezarri zuen bere berba-jardunetako errefrau-zerrendan, era honetara: «*Ondarroa ta Motriku, idiak idia arkitu*» (PAb). Idisko bi beti elkarrekin *burruka* (‘borroka’) edo *murruka* dihardutenak.

Urretxuko herriaz ere iritzi nardagarria demaigu Garibai kronikari berak: «*Urretxu, beti gerrea darraizu*» (Garibai A 33). Urretxuren izena, exenplugarri gisa baliatu izan da, borroka, auska edo *pelleka* antzu etengabeetan ziharduten auzo- edo albo-herrien eskarmentugarri erabiltzen zela argituz. Berbaz berba dioena, hauxe: «POR LOS PUEBLOS QUE ANDAN EN DIFERENCIAS Y CONTIENDAS CON SUS VECINOS, DICEN: *Villareal de Urretxu, beti gerrea darraizu...*». Aipatzekoa da, *darraizu* adizki zaharraren presentzia, harrezkero Hegoaldeko tradizioan, adizki trinko modura

eta *zer-nori* argumentu-egitura horrekin aldendu sarmar duguna. *Darraizu* dioena, ‘zure atzetik dabil’ esaten ari da, beraz.

Zerrenda berez amaigabe honi zelanbait kito egiteko, *Oiz* mendira joko dut, aldi berean gure aita zenaren Mendatako herria ere ohoratzen dudala. Oizko mendia harrotasunaz konparatzen duten esaera bi badira, geure osaba izan genuen Bernardo Arejitari ikasi nizkionak aspaldi baten. Aitita izan genuen Zeberianori sarri entzunak eurok. Izan ere, Zarrabenta alde horretatik aurrez aurre ikusten baita Oizko mendia, eguraldi on eta txar. Batak dio: «*Oixko* trumoie ta gixon harroa, zarata asko ta bihar (‘behar’, ‘lan’) gitxi» (Bernardo Arejita, informatzailea). Eta lekuko beronek emaniko bigarren batek dio: «*Oixko* trumoiek zarata handidxe, baia euri gitxi» (Bernardo Arejita, informatzailea). Eztegu baten kontura ekarri zuen berbara esakuntza hori: sekulako handikeriak, jende ospetsu edo entzute handikoa, gonbidatuak auto dotoretan etorriak, baserri-etxe eder batean eztegu-bazkaria..., baina, antza denez, jaten gutxi eman!

21

BIZKAITARRA ETA ARABARRA

Bizkaitarra, jan eta hotz; arabarra, jan eta poz

Errefrau-multzo berezia eta murrizta osatzen dute euskaldunak lurralde-izenaz izendatuak gertatzen diren horiek: *arabarrak, bizkaitarrak, giputz* edo *gipuzkoarrak* eta *nafarrak*, Hegoaldeko herritarren gorabeheran, eta *lapurtar, zuberotar* eta *baxenabartarrak*, Iparraldekoiei buruz.

Euskararen mendebaldeko herritarrak hartuko ditugu mintzagai oraingo honetan, errefrauen bidez ageri direnak.

Jatearen, janariaren inguruan bilbatua dugu goiko horretakoa. *Arabar-bizkaitarrak* ordena horrexetan ageri zaizkigu behin baino sarriago: «Arabarra, jan ta poz; bizkaitarra, jan ta hotz» (EY 134), Azkuek dakarren eran. Edo: «Arabarra, jan ta berotu; bizkaitarra, jan ta hotzitu», G. Garateren bilduman (*Garate* 1010).

Bizkaitarra, jan ostean *hotz* egoten delakoa hitz lauzko berbeta arruntean ere sarri entzun izan dugu. Lekeitioko jendeari entzunda

ikasi nuen aspaldi esaera hori, baina ez errefrau finko gisa, sineskera edo uste modura baino.

Badanik ere, jan osteko *hotz egotea* edo *pozik sentitzea* mezu positibotzat jo daitezke, orbain txarrik gabekoak. Zein den egia eta zein ez, besterik da, baina objektibotasun-ikuspegi ahalegina dario esaera edo sineskera horri. Umore-kontua, kontizu, arabar-bizkaitarren arteko diferentzia.

Mezu gaitzerizleak maizago azaltzen dira batak besteagatik iritzia ematen diren esaeretan.

Bada esaera bat, dioena: «Bizkaitarrak ta naparrak, setatiak ta zakarrak» (*Garate* 2760). Uste izatekoa da, erdian hartzen duten Gipuzkoako lurraldetik jalkia dela horren mezua. Jenio txarrekoak, aurki, ertz batekoak eta bestekoak.

Ezaguna da, bestetik, Eibar-Ermua inguru horretan lehen esaten zen esaera hau: «Giputzen hitza, zurezko giltza». Ezagun da errefrau horretan, *giputz* eta *gipuzkoar* ez direla bat izan paraje horretako euskaldunentzat. *Giputz* edo *gipuztar* izatea *giputz* mintzo den lurraldeko biztanleari egotzi zaion jatorri-kalifikatiboa izan da. Oñatiar batentzat *giputzak* Aztiriatik harunzkoak izan dira, tradizioz behintzat. *Probintzia* eta *probintzianu* izenpean ere identifikatu izan dira lurralde osoko biztanleak.

Arabar-nafarren artean ere izan dira horietariko tirabira eta gorabeherak. 1601ean, Nafarroako Bakaikoako herriko idatzi batean euskaraz honela dirautso nafarrak, auzitan aurrez izan duen arabarrari: «Gezurra diozu, *arabar billau tatxatuorrek*» (*ReinEusk*).

Ikuspegi baikorrak ere badira lurralde diferenteko jendearen artean. Etxeberri Sarakoak, lapurtarra bera, baina osagile-lanean Azkoitian

bizi izan zenak, hara zer dioen bizkaitarrez bere izkribuetariko batean: «[Bizkaitarrak dira] *alegerak edo umore onetakoak*» (ES 110).

Erdibidekotzat jo dezakegu, nafar esaera batek gipuzkoarrez ematen duen epai hau: «Probintzikoak apostu egin baino lehen ateratzen du izerdia» (NEZ 80). D. Intzak iritzi hau gehitu zion gaztelaniaz: «DISCURRIR O SACAR LAS CUENTAS ANTES DE DECIDIRSE A APOSTAR».

Atal honi akabera emateko, arabar-bizkaitarretara bihur gaitezen.

Burlazar eta destainaz josiak dira *-ar*, *-arra* atzizkiaz puntua jagonik ondu diren batzuk, eta berdin dira aplikagarri beste edozein herri-, auzo- edo lurralde-izeni dagozkiola. Edozelan ere tradizioz jasoak ditugu hurrengo hauek.

Arabarrak dituzte mintzagai honako hauek: «*Arabarra* tirri-tarra, hik uzkarra, nik *sagarra*» (EY 135). Gaitzesgarria da, bizkaitarren baten ezpainetan esana den beste honen ziria ere: «*Bapara* ('banaka'), joan hadi gura ba dok *Arabara!*» (EY 1528).

Eta janaria ardatz dela onduak dira jolas modura esaniko hauek, Azkuek aspaldi bilduak: «Hiru ta hiru sei, hiru bederatzi, hamar hemeretzi ta bat hoge: *tozino ta bizkaino* hirurogei». Beste era batera esanda: «Hiru ta hiru sei, hiru bederatzi, hamar hemeretzi ta bat hoge: *talo ta bizkaino* hirurogei» (EY 195).

22

BURUGINA ETA LAGUNGINA

Burugin ona, lagungin txarra

Adjektibo-hitz biak gardenak eta ezagunak diren arren, *burugin* eta *lagungin* hitzen esangura garbiak gaur egungo euskaldun askorentzat ez dira hain ezagunak. Izan ere, *buru* eta *lagun* hitzek erantsita duten *-gin* atzizki horrek ez du zerikusi artezik zeozer *egin*, *gauzatu*, *fabrikatu* edo horien antzekoekin. Zerikusi estuagoa du *zale* hitzaren esangura-inguruarekin.

Izan ere, *burugina* dena ‘bere buruzalea’ da eta *lagungina* dena ‘lagunzalea, lagunak egite zalea’ da. Errima-puntuaren indar bizigarriaz ehoriko esakuntza bikaina dugu beraz. Aditzera eman nahi duen mezua kontrajarpenaren efektu indartsuaz erakutsi nahi duena da: *burugina* vs *lagungina* batetik, *ona* vs *txarra* bestetik. Antonimoen zibu-zabuan kulunka dabilen errefraua.

P.A. Añibarro arratiar idazleak bere errefrau-bilduman jasorik dakarren esakuntza bide-erakuslea, Bizkaiko herriren batean ziurrenik, bere mi-siolari-ibileretan ikasia agian. Hitzez hitz dio: «Burugin ona, lagungin txarra» (*MisE*).

Beranduagokoa da seguruenik, Zarauzko frantziskotarren kolegio-komentuan fraide-lagun izan zuen Mateo Zabala idazle berdingabeak, euskaraz ondu zuen alegi batean, *Asto nekeak amaitua ta ila, ta zaldi biozgorra* izenburutzat duen hartan, hitz neurtuzko bertso batean txertatu zuen harako hau:

Astaemeak pisu geiegi / eroian bizkar ganean, / ta albaintinkaka joian bideti / arnasa ezin betean, / emen gelditu, / gero igitu, / txarto batean bestean. / Beragaz joian zalditoari / dirautsa onez ta lotsaz: / “Ai zaldi laztan, lagun zamari! / Il bear joat pisuaz; / jaukaat larregi; / ezin naiegik / nik onen zama astunagaz. / Arren ta arren, zaldi maitea, / euk izan nizaz erruki! / Arindu egidak ene kargea, / eutsirik euk atal bati. / Egiten beustak, / emongo deuat / eskerrik asko, o zaldi!”. / Zaldi musturrak, purrustutzarrak / eginik, ai! ta entzun ez! *Burugin onak, lagungin txarrak* / dirautsa orri destaiñez: “Asto ta asto!, / gaisto ta gaisto! / Irea beti; besterik ez! / Gogora joan gura enduken / pisutxu iski bategaz! / Bestek eztanda ta... baiegiken / ez deuna deus bestenagaz. / Ez jonat ezer! / Egin emen ler, / il adin or nekeagaz! (*Fab*)

«Zalditoak», zaldi kankailuak, asto nekatuari laguntasunik ez emanaz, ondo erakutsi zuen *burugin ona* zela batetik, eta horrexegatik beragatik *lagungin txarra*.

Oraintsuago Azkuek bere bilduman (EY 2164) birritako aldiz ageri du, behin singularrez, behin pluralez: «Burugin ona, lagungin txarra» batean eta, «Burugin onak lagungin txarrak» hurrengoan. Eta osterago, Justo M.^a Mokoroak bere *Ortik eta emendik* lokuzio-bilduma mardulean berriz Azkueren bigarren hori, pluralez, mezuak hartzen dituen guztiak multzo aniztun gisa aipatuz: «Burugin onak, lagungin txarrak» (OE).

Burugin adjektiboa hedadura laburrekoa da, berorren adierazkizuna orokorra izan arren. Artibai eta Deba ibarretan entzun daiteke beste

edozein parajetan baino errazago, adin bateko jendearen ahoz, behintzat. Gizakion ezaugarri horren lekukotasun aparta dugu Frai Bartolomerenean. Bere buru zale direnen kasua, Seneka filosofo greziarraren emaztearen irudipean zertzelatzen digu: «Entzun, bada, Senekari zer jazo jakon. Ak gizonak eukan emaztea zitala, miin gaistokoa, *burugina* ta agindu-naikoa» (*Ikasikizunak* III).

Beste behin, kolpe sorrik ematen ez duten harrapatariak salatzeke darabil: «Egia esateko, penagarria da, noberak nekez bere izerdiagaz irabazita edo eginda, Jaungoikoz daukan gauzea alper batek, *burugin* batek edo kodizioso batek artu ta eroatea» (*Ikasikizunak* II).

Era-erara datorkio idazle honi *burugin* epitetoa, beste gaitzesgarri batzuen batera, emakume-modu batzuei egozteko, gizonezko askoren orduko pentsaeran etxearen deskalabruaren arrazoi izan zitekeena: «Emazte barritsua, zitala, temosea, alperra, *burugina*, ardurabagea» (*Ikasikizunak* III).

Gizonezko maltzur maliziatien izaera dela-eta ere ageri den ezaugarria dugu: «Tours deritzen dan Frantziako uri haundi ederrean, gizon bat zan oso asmotsua eta *burugina*» (*Ibiltarixanak*).

Lagungin izaera ere taxu bertsukoa dugu formaz, guztiz kontrakoa esanahiz, baina: lagun hurkoaren alde jokutzen duena da lagungina, besteei laguntzekoa, hitz batez. Adjektibo hau ere eremu mugatukoa da erabileraz. *Lagungin* izatearen adieretariko bat, dudatzeke, Mateo Zabala idazlearen sermoi-pasarte baten sinonimo eta guzti darabilena dugu. Neskatala ezkongaien profil onaren ezaugarrien artean *behargina* eta *lagungin ona* aipatzen dizkigu: familia aurrera ateratzeko zereginetan fina, laguntasuna ematen dakiena, hain zuzen. Hitzokin dio: «Itanduten deutsu ezkondu gura daben batek, ea ain lekutako neskatillea ona bada, modu onekoa, egillea eta beargina (*lagungin ona*)» (*IrunSerm*).

Nolanahi ere, era guztiz mugatuan erabili izan den adjektiboa, *lagungina*, baina sartaldeko hizkeretan ondo sustraitua egon dena. Hala izan ez balitz, ez zen erabili izango errefracu esanguratsu horren ezaugarri finko modura: «Burugin ona, *lagugin* txarra».

23

BUZTAN LASTOZKOA

Buztana lastozkoa duana, suaren bildur

Buztanaren edo *isatsaren* irudia mintzagai hartzen duten errefrauak anitzak eta ugariak dira, bai euskaraz, bai beste hizkuntzetan. Askotza horretatik, bati hartuko diogu ertza, euskaraz tradizio zaharra duen bati.

xvi. mende hondarreko RS bilduman bi dira, baten faltan, *buztanaren* irudia darabiltenak. Biak elebidun modura emanak. «Lastozko buztana dauenak, atzera begira» // QUIEN TIENE RABO DE PAJA, HACIA ATRÁS MIRA (RS 202), dio batak. Eta «Amukozko buztana dauenak, suen bildur» // QUIEN TIENE COLA DE ESTOPA, AL FUEGO TEME (RS 324), besteak.

Mezu beronen adierazle diren anitz esakuntzetan aipatzen da *buztana*, baina materia, gaia, ez da beti bera. *Refranes y sentencias* honetan ere *lastozkoa* batean, *amukozkoa* bestean. Ondoriotzat jotzen direnak ere ez datoz bat: *atzera begira* batean eta *suen* ('suaren') *bildur* bestean.

Hurrengo mendean Lope Isastikoren bilduma laburragoan ere hitz berberekin aipatzen da errefrau, hemen ere elebidun eran: «Buztana lastozkoa duana, suaren bildur» // LA COLA DE PAJA QUIEN TIENE, DEL FUEGO TEME (*Isasti* 18). Hauxe da goiburuan jarritakoa.

Ohartzekoa da gramatika bikoiztasuna ere, mezu beraren isla izanagatik, [iz. + -zko + iz.] ordena, adnominala lehen eta izen nagusia bigarren, ageri du RSk bietan. Isastirenean, ordea, subjektu-predikatu sintagmen hurrenkeran ematen zaigu: *buztana lastozkoa* (du). Gogoan hartzekoa da, halaber, sintagma bereko izen-adjektibo segidarik azaldu ez izana, goiko buruan ipini dugun «buztan lastozkoa» tipikorik, sintaxi hau ere zaharra dugun arren.

Azkuek bataren eta bestearrenak biltzen ditu bere bilduma nagusian (EY 1022 eta EY 2165): «Buztana lastozkoa duena, suaren bildur», eta gure *Refranes y sentencias* zaharrak dakarrenaren hur-hurrekoa, «Lastozko buztana daukana, suaren bildur».



Era gordinxeagoan, gauza bera esateko, beste batek ipurdia aipatzen digu buztanaren orde: «Lastozko ipurdidunak, erretzeko beldur» (*Garate* 8907).

Gaztelaniaz, Espainian ez ezik, ia Ameriketa osoan ere, lokuzio modura irau du gehiago errefrac honen hondarrak: TENER RABO DE PAJA (esamodu arrunta, edo COLA DE PAJA, esamolde jasoagoa). Baina errefrac-egituraz ere, osorik, ezaguna dugu, bigarren osagaiak aldaera eta irudi diferenteak dituela. Bat aipatzeko, Hego Amerikan entzuna den hauxe: QUIEN TIENE RABO DE PAJA, NO SE ARRIMA A LA CANDELA.

Eta euskaraz ere, errefrac modura ez denean ere, irau du mezuak hitz lauzko berbetan. Hala, Nils Holmer euskaralari suediarrek Gernika, Bermeo eta alderetan lehengo mendearen erditsuan batu zituen berbazko testuetan esaera-formula bitxi hau eman zigun: «Bildurra daukozu, *galtzuzko buztana* daukozulako».

Suaren bildur izatearen irudia ez da mira egitekoa, lastoa, amukoa, galtzua edo ahotza dagoen lekuan. Gure baserri-etxeetan, barruan, gorde izan dira gehienetan belar onduak, *bedar sikuak*, eta sabaian, lastategian, ahoztegian, negu osoa igarotzeko gordetzen zen belar edo ira hori suak hartzea izan zitekeen gure antzinako nekazari-gizartean etxearen eta etxekoen hondamendia. Irudi horri finko loturik daude errefracok: «*Sabaia lastoz* dabena, subaren ('suaren') bildur» (EZBB 2532).

Buztana aipu duten errefracuen balio-aniztasuna aipatu dugu arestian, eta aniztasun horretatik bi-hiru apur hautatu ditugu, osagarri gisa:

— «Asto batari buztana ken, bertzeari ezar» dioen Iparraldeko errefrac-bertsioak senide hurbilak ditu hizkera guztietan. Bizkaiko euskaraz ere aldaera ugariak ditugu: «Asto batari buztana kendu, besteari ipini», dio batek. «Asto bateri buztana kendu ta beste bateri

sartu» (*Euzkadi* egunkaria, E. Bustintza) eran aurkeztu zigun Errose Bustintzak. Gipuzkera-eremukoa dugu hurrengo hau: «Asto bati isatsa ('buztana') kendu ta besteari jarri» (OE), jaso zuen Justo M. Mokoroak.

Gaztelaniaz mezu beraren adierazle den esakuntza da hori, Azkuek ere gogorarazia: DESNUDAR UN SANTO PARA VESTIR OTRO, baina honetan ere ekonomia eta ondasunen etekinari zuzenduta, PROVECHO NULO txistandu zuen Azkuek. Mezua beteago aparatzen du J. Mokoroak, zorren kitatze kontua aipatzen duelarik: «Zor bat beste batez estali. TAPAR UNA DEUDA, CONTRAYENDO OTRA» (OE).

— Zabal dabilena da beste honen mezua, Iparraldeko hizkeran Hiriart-Urruti kazetariak era honetara dakarrena: «Bertzen buztanaz uli haizatzaile» (*MintzAurp*); eta J. Elizalde *Zerbitzari* idazleak bere bilduman jasorik dakarrena: «Bertzeren buztanaz uliak khentzea» (*Zerbitzari*).

— Eta A. Iturriagak bere *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado* obran dakarren hirugarren honek, guztiz ezaguna dugun «buztana hankapean sartzea» gogora ekartzen digu, hau da, burumakurrik joan beharra ezinbestean eta derrigor, besterik uste zenaren kontra: «... badijoakio (txakurra nagusiari), guztia beldurturik, belarriak behean, burua makur eta *buztana hankapean...*» (*Iturriaga*).

24

DABILEN HARRIA

Dabilen harriari ez zaio goroldiorik lotzen

Errefrau honen zabaltzailerik ezagunena Axular klasiko handia dugu, *Gero* obran alferkeriaren kontrako irudi gisa, beste esakuntza batzuekin batera lerratu zuen herri-esaera honi eskerrak. Paragrafo osoak halaxe dio:

*Dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen. Ur irakinean eztu uliak pausatzen. Ardurako arropari etzaika zerrenik ('zedenik') egiten. Zuhaitz bethakorra, eztu nehork ebakitzen. Baiña alferra, fauna, hutsa, bere sasoiñean jasaiten eztuena, zertako da? [...] Halakoak zertako tratatuko du lurra? (*Gero*)*

Sustrai zaharreko errefraua dugu hura, eta euskararen tradizio-eremuan edonongoa, esateko moduan. *Refranes y sentencias* bildumakoa dugu lekukotasunik zaharrena, egitura bikoizduna izateaz gainera: «*Arri ebilokiak oroldirik ez, erle uzatuak abaarik ez*» // NO TIENE MOHO LA PIEDRA MOVEDIZA, NI HACE PANAL LA AVEJA ESPANTADIZA (RS 5). Oihenartena dugu hurrengoa: «*Harri erabilik eztu biltzen oroldirik*» (*ProvBasq* 211).

Ez da inola ere, ez gaur egun zabal dabilen, ez aldaera ugari duen atsotitza. *Dabilen harriaren* irudia ibaian barrena uraren indarraz, han

zirkin eta hemen zarkin, ertzak leuntzen eta inguru osoa biribiltzen doan harriarena dugu, harri leun edo *ugarri* bihurtu ohi den horrena. Ez goroldiok ez beste ezerk estalduko, ez itsustuko ez duen eta erluzean dagoen harriaren irudia dugu Axularrek jaso digun esaerarena.

Goroldioa, uretan egonik ere, geldirik dagoen harriari itsasten zaio, egonean dagoen harriari, esan nahi da.

Badira beste esakuntza gehiago ere, *harria* eta *goroldioa* josirik ehundu direnak. Gehienak, hala ere, goikoaren gisa berekoak: «*Harri erabiliak* ez ditu bilduko *oroldiak*» dio batek, Oihenartenaren oso antzekoa. Eta beste batek: «*Harri erabiliak* ez du *goroldiorik* izaten» (*Garate* 6389).

Baina bada, hizkeraz bitxia eta irudiz bizia den bat, erakargarriago gertatzen dena; *amildu* eta *gorolditu* aditzen hariaz josia: «Amiltzean harria ez da gorolditzen». *Dabilen* harriarena baino bortitzagoa da *amiltzen* den harriaren mugiera. Giza bizimoduan ere, gorabehera eta arazoak, pitinka-pitinka ez baina, oldarrean sorbaldaratzen direnen antzean... Eta bestetik, harria *goroldiotu*, hiztegieta nekez idoroko dugun gertaera-aditza dugu. Baina ugaria dugu, berriz, *goroldio* hitza, edo horren aldaki askoak.

Baina *goroldioa* gelditasunaren irudi dugu, ohiz, eta *goroldioak biltzea* geldotasunarena; horretatik, era figuratua, *alferkeria*, *nagitasuna*. Nafar hizkeran Garatek bildu zuen konparagarri hau lekuko dugu: «Hori *goroldioa baino motelago* da» (*Erdarakadak*), alferra baino alferragoa denaren konparagarritzat.

Baina goroldioaren esangura propioan ere, adiera zuzenean, lotaro gozatsua egonlekua ere bada goroldioa; *etzanleku naturala*, etzanda egoteko leku eskertsua, baldin hezerik ez bada. Eibarko berbetan batu zigun Toribio Etxebarriak harako esaldi esanguratsu hau: «Mendiria jua, eta *orolgi bigunian etzinda* luze-luze, orduak emoten nituan»

(*LexicEibar*). Gregorio Arruek ere bide bertsutik: «*Oroldizko* [...] *etzauntzaren gainera*» (*Genoveva*). Eta Lizardik ere darabilen irudia da: «*Goldiozko ogean etzin*» (IL).

Habia egiteko gairik estimatuena ohi dute txori-amek ere goroldioa: «Egazitxoak, goroldiozko bere *kabi biguinean*» (*Euskal-Erria* aldizkaria) aipatzen da, esate baterako, *Euskal-Erria* aldizkarian 1884. urtean. Orobat Mendaro Txirristakaren bertso-atal honetan: «*Kabiyatxo polita / odoldizkua*» (*MendTx*).

25

DAGOENEAN...

Dagoanean dagoantxo, ene-enetxo!

«Dagoena» eta «dagoentxo» aditz jokatu menderatuak, esakuntza barruan, *ondasunak* edukitzeaz darabiltzagu sarritan, «eduki» aditzaren adizki erlatiboak ere maiz ageri diren antzera: «Urtebarri kari-kari, *daukonak ez daukonari*». Ondasunok urriak eta neurtuak izan ohi dira jende zehearentzat, eta hala ageri da esakuntzotan ere.

«Dagoen» edo «dagoentxo» horrekin konformatu beharra aditzera ematen zaigu eurotan. Eztasunean apur, pitin, altsi horri balioa eman eta ahal den onurarik handiena atera.

Dagoenean dagoentxo, bi hitzeko esaldi labur horri eztitasuna eta gozotasuna dario esateko moduan berean ere. Izan ere, badira irudi gordinagoak, hor-hemen erabiliak. Markina ondoko Iturretan, bertako hurreko euskarazale fina den Jabier Kalzakorta ikertzaileak bilduriko hau, kasurako: «*Besterik ezien, zapue zotzien*».

Bizkai aldean bilduriko antzeko era bat: «Dauenien dauentxue, ene-enetxue». Hizkeran bertan ere edertasuna eta hitzetan samurtasuna darion errefraua. Aditz erlatibo neutroa, *dagoena* duguna, *dagoentxo* bihurtu dute hiztunek, pitin bat adierazkorrago eginez, «dagoen» edo

«daukagun» hori neurri laburrekoa dela gogora ekartzeko: ‘apurra’, ‘gutxia’ dela daukaguntxo hori.

Adierazkortasun sakona darakus «ene» pertsona-posesibo zaharrak ere, are gehiago errepika-egituraz erabilirik, *ene-enea*, eta are *-txo* atzizki txiki-garria gehiturik: *enetxoa*. Etxekoei, berariaz etxeko txikiei, seme-alaba adin samurrekoei zuzendu ohi zaien berba errukiorra. Bide batez gogora dezagun, *enetxoa*, eta errepika-egituraz *ene-enetxoa*, formula zaharra dugula euskaraz. Haur txiki bati zuzendurik bezala irakurri diogu Agustín Kardaberaz idazle ziur eta artezari XVIII. mendearen erditsuan, erlijio-gai barruan izanik ere: «*Enetxoa*, au zer da? Atoz ona, nere aurra» (*Ejerzizioak* III).

Nafar hizkeretan ere badugu esakune beronen aldaera zoragarritzko bat, kasu honetan emazteak senarrari zuzendua. Orixe idazlearen hitzetan: «Baina, *danean dantxoa*, *nere gizontxoa*, gure aita zanak esan oi zuna» (*KArreb*).

Gure tradizio-gizartean, baserria dela, portuko herriak direla, dena beharreko egoera larrian bizi izan da jendea, ondasun eta etxerako bizigarri ondo neurtuekin. Horretara datoz gure esakuntzetan sarri loratzen diren «dagoena», «dagoentxoa», «dagoenean» edota «daukanak ez daukanari» ereduko adizki menderatuak. Ohiko esaera da: «*Dagoenean*, *dagoena*».

Edozelan ere, mezu guztiz hurrekoaren isla dira Azkuerenean idoro ditzakegun hurrengo esaera biok ere. Batak dio: «*Dirauen artean* faltarik ez» (EY 2194); eta hurrengoak: «*Dagoan artean* faltarik ez» (EY 2195). Eta ez da zer aipatu, gabon-aldiaz loturik sarri entzun izan dugun beste hau ere: «*Dagoanean* bon-bon, ez *dagoanean* egon»; zubereraz ere erabilia: «*Badenin* “bunbu”, *eztenin* “tuntu”».

D. Intzak Nafarroan bilduriko honek ere errota berari eragiten dio: «*Degun* gutxi, *degun* beti» (*EsZah* II), Baraibarren jaso. Hizkera

zaharraren azterren garbiak ditugu berorretan, «degun» adizkiaren bidez. Desira-agindua, geure buruari zuzendua, darakuste «degun» adizki biok; gaur egun, hiztunik gehienok «izan dezagun» edo «euki daigun» konposatu perifrastikoez bikoiztuko genituzkeen aditz aoristoak. Hizkera-egituraz berriagoa dugu, aldiz, Aita Zabalak bere bilduman dakarren aurrekoaren kide hau: «Gutxi bada ere, *izan dezagun beti*» (EZBB 372).

Aditz jokatu erlatibo mugatzaile bati *-txo* txikigarria erantsi izana, *dagoentxo*, urri ageri zaigu euskal izkribuetan, baina hitzez askoz biziagoa eta erabiliagoa izan da, idatziek ageri duten baino. Eta lekukotasun idatzi bakanon artean, badugu bat, 1770. urte inguruan Juan Bautista Gamiz Sabandoko (Araba) semeak idatziriko esaldi honetan txertatua: «Berze aldeko *dabilzentxoak* kantatzeko tonuarekin» (*Gamiz*). Eta oraintsuagora hurbilduta, Azkuek bere eleberri ezagun batean dakarrena ere aipatzekoa dateke: «Nornahik zapaltzekoa naizen honek, nere haustasunean *ahal nuentxo*a egiten nuen» (*AGald*).

26

DENA GURA IZATEA

Dana gura dauenak, guztia galdu dau

Herri-ipuinetan bada istorio gisako bat, eskribauaren eta itsuaren arteko pasadizoa kontatzen duena. Eskribau dirugose lukurreru bati itsuak zelan ziria sartzen dion kantuz, labur esatera dator errefrau taxuko koplatxo hori.

Dimako Bargondia auzoko kontalari ona eta koplakantari hobearen genuen Patxi Bilbao zenari entzuna diogu behinola batean, ipuin-kontaeraren amaieran kantatu zuen koplak hau: «Dana gure dauenak / guztie galdu dau (bis). / Itsuek eskribaue / ondo engainau dau. / Dana gure dauenak / guztie galdu dau» (Patxi Bilbao, informatzailea).

Ipuin giroaz at ere, esakuntza bakun modura ere entzuna eta errefrau-bildumetan barreiatuak dabilen esaera dugu, bestalde.

Sartaldeko hizkeraren ezaugarri garbiak ditu errefrau honek, berariaz «dana gura dauenak» lehen osagai horrek. Azkue folklorezale saiatuak aldaera bat baino gehiago utzi dizkigu bildurik: «Guztia gura izatea, guztia galdutea» (EY 2470); edo: «Guztia nahi dabenak guztia galtzen dau» (EY 2471).

Iparralde eta ekialdeko erranairuetan ere izan du oihartzuna mezu unibertsal honek. Azkuek berak jasoak dugu: «*Guzia nahi, guzia gal*» (EY 2471). Baina osterago baturiko beste batzuetan ere mezuak hitz-egitura bertsuaz dirau. D. Intzak Ikaztegieta bildu zuen eran: «*Dana nahi, ta guzia galdu* egiten» (*EsZah* II), argigarri gisa erantsi hau eginik: «gehiegikeriak». Bide berekoak ditugu erdialdeko besteok ere: «Nahi duenak ahal du, *nahi ez duenak guzia galdu*» (EZBB 2170), eta «Guztia nahi dunak, *guztiya galdu*» (*Garate* 6188).

Guztia galtzearen ildoari jarraiki, gure literaturan ere ez dira falta lelo horren errepikak. Hala F. Arrese Beitiaren honetan: «Ai ene, *dana galdu* zenduan!» (*AmaE*). F. Etxebarria dimoztarrak bere bertso-atal batean, *bildurrean* darabil, *beharrean* espero zitekeen lekuan: «Poztasun gitxi bihotzean da / *dana galdu bildurrean*» (*NGaran*).

Eta erlijio-girora jaurt eginik, J. Ignazio Aranek idatzia da honako esaldia: «Inpernukoaren haize-boladak, erne baino ere lehen, ereinda zeukaten *hazia dana* lehortu ta *galdu zuen*» (*Sign*).

Eta amaitu hurren, dakargun hona aspaldiko aldizkari-ale bateko pasarte bat, gaurko irakurleok baino aspaldixokoek hobeki gogoango dutena: «Zorigabekoak gu! Gure lehenbiziko gurasoak *dana galdu* ziguten pekatu eginaz» (*Zeruko Argia* aldizkaria).

27

DIRUAK TXAKURRA DANTZAN

Diruak txakurrei be dantzan eragiten deutse

Euskaldunon artean sarri entzun dugun esaera da, *diruak txakurrei be dantzan eragiten deutse*. Etxean txikitatik entzuna dudana esaera. Gaztelania trebes antzekoan ere entzun izan diot Ondarroako seme eta euskaldun on bati: «DINERO, PERRO BAILAR».

Ez da erraza txakur bati dantzan eragitea, baina sariaren pentzudan egoten da nekerik astunenak hartzea edo abilidadarik zailenak erakutsi beharra. Hala gertatzen da, diru-truke txakurraren irudipean dantzan egin beharraz ere.

Gure tradizio idatzian badugu XVIII. mendearen erdialdean esakuntza honen lekukotasun esanguratsu bat, Pedro Ignazio Barrutia Aramaioko seme eta Mondragoeko eskribau izan zenaren lumakoa. *Acto para la Nochebuena* izeneko gabon-antzerkian, Gracioso izeneko pertsonaiak dio: «Diruak ez ataratzeari eztok egungo leloa./ Ene bolsea arina beti, urrin neuganik dirua. / Nik neuk ere dirua baneu, ederra neuke mosua». Eta Ministro pertsonaiaren erantzuna: «Txakurrak eurak egiten dabe danza diruagaiti» (*Acto*).

Baina, harrigarria dirudien arren, euskal errefrau-bildumetan oihartzun laburra izan du txakurren dantza eta dirua elkartzen dituen honek. Mokoroaren bilduman: «Diruagatik txakurrak dantza» (OE); gaztelaniazko bertsioz: «POR (EL) DINERO BAILA EL PERRO», Joakin Aldabe bati jaso, hurrean. G. Garateren *Atsotitzak* bilduman bi behintzat idoro ditugu. Bat gipuzkeraz: «Diruak txakurrari ere dantzan eragitzazi» (*Garate* 3103). Bestea bizkaieraz: «Diruek txakurrei be dantzan eragiten (ei) deutso» (*Garate* 13588). Diruak, diru-goseak edo diru-zaletasunak indar handia duela erakusteko irudi argigarria: zein nekeza den animalia edo piztia bati dantzan eragitea —eta lehenengo horretan irakastearen nekeza—, harexen bestekoa diruaren indarra.



Badugu euskaraz zenbakiak eta batuketak irakasteko jolas-errezitatu bat, Azkuek baturik dakarrena, eta txakurren dantzaren irudiaz josia dena. Hauxe dio: «Hiru ta hiru sei, ta hiru bederatzi; Oletako txakurrari dantza erakutsi» (EY 1586).

Txakurrak dantza egite hori gosez kideturik ageri zaigu errefrau batzuetan. Bi hautatu ditugu, elkarren antz-antzekoak direnak, eta Bizkai aldekoak edo handik hurrekoak bixeak: «Txakur gosie, dantzari; oilo gosie, kantari» (*Garate* 13535), dio bata; eta «Txakurra gosiek dagonean dantzari, oilua kantari» (*Garate* 13660), besteak.

Bakanago entzuna da *artzaren* dantzarena, baina ezaguna hala ere: «Erakutsi ezkerro, artzak dantza» (*Garate* 6447).

Dantza egitea edo *dantzan egitea*, oro har, gizakion agerpen soziala dugu: gizatalde baten pozaren, alegera sentitzearen eta bere izate-nortasunaren erakusle izan ohi da dantza. Eztegu-giroan dantza egitean dugu ispilu aproposa, nahiz Elizak maiz dantza egitea bekaturako labainarritzat susmopean eduki izan duen: «Ezteietan egiten diren herots, sonu, *danza*, alageranzia eta sobera ian-edatiak» (*Belapeire*), aipatzen du Belapeirek 1696. urteko bere katixima laburrean.

Eta dantza bezalako giza agerpen bat animaliei egoztea, alegien munduari dagokio, eta alegietatik esakuntza finkoetara irristatu da.

Etxe-animailietan, *sagu-katuen harremanetara* ere iritsi da dantzaren irudia. «Gaturik ez den etxean, saguak dantzan», dio errefrau batek (*Garate* 8409). Eta: «Gatua soinulari, sagua dantzari» (*Garate* 8385), beste batek. Esan nahi baita, *festa-giroan*. Izan ere, dantza berariaz jai, festa eta ospakizun-giroaz lotua da, bai gurean, baina baita inguru zabaleko gizarte enparatuetan ere.

Eta *txakurren dantzatik katuen dantzara* etorririk, jostagarria bezain bitxia da Deba ibarreko herriak izendatzen dituen errezitatu bat, G. Garatek bere atsotitz-bilduman jasorik dakarrena: «Plaentxin zapuak zikin; Maltzaan ('Maltzagan') *katuak dantzan*; Elgoibarren astoak goen ('goien') eta barren; txakur zaharrak Eibarren, itxurak ein arren; Bergaran xaguak ganbaran; Deban oiloak txixa ein zeban; Mendaron azarixak giro on» (*Garate* 11329).

Dantzaren irudia, akabukoz, bizidun ez diren izakietara ere hedatu da. Hala, donianeetako egun-argiari loturik *eguzkiaren dantza* aipatzen duen esaera: «Eguzkiak sanjuanetan dantza» (*Garate* 3622).

28

DOMURU SANTURU

*Andrak andra handi,
Domu Santuruetan dira agiri*

Domuru Santuru, edo *Domu Santuru*, kristau-liturgiako ospakizun-egun ezagunari, euskararen luze-zabalean izen diferenteak eman izan zaizkio. Goiko izen berorren era laburragoa, *Domu Santu*, sartaldean, *Santu Guzien Eguna* Gipuzkoa-Nafarroetan, *Omiasaindu* Iparraldean, *Domine Saindu* Baztan inguru horretan, eta *Domesantoro* Zuberoan. Ezagunenetariakoak aipatze aldera. Beti ere aniztasuna nabarmen izendapenetan.

Hilen eguna zelebratze horrek berekin dakar biziok bizi garela zelebratzea ere, etxe askotan senide edo etxeartekoen, ahal dela guztien, elkartze-egun bihurturik.

Txerri-hiltzeak ere azaro inguru horretan gertatzen direnez, giro horretara ondo ekandua da Jabier Kalzakorta ikertzaileak Markinan bildu digun dantza-kopla hau: «*Domu Santuru*-manturu, / txarri haundi bat hil dogu; / buztana ez bestea jan dogu, / bera lapikoan daukogu» (Jabier Kalzakorta, informatzailea).

Errefrauk ere badira, egun honekiko zerikusia dutenak.

Ezagunenak-edo dira *andre handi* edo *anderauren* ('andre guren') diren edo burua hartakotzat dutenen aipamena azaro hasierako egun honekin uztartzen dutenak. Azkuek dakartza bi: «*Andrak andra handi*, Domu Santuruetan dira agiri» (EY 1261); eta «Domu Santuruetan *andrak andra handi*, Asentsioko letainetan guztiak agiri» (EY 1676). Errefrau berak, *kandelarioak* edota *sanmigelak* aipaturik ere entzuten dira.

Eguraldiarekikoak dira beste batzuk. Elurra berbagai dela batzuetan; Nafarroa aldean ezaguna den hau bezala: «Santu Guzietan, elurra mendietan» (EZBB 2635), gaztelaniaz ere antzera dioena: *TODOS LOS SANTOS, NIEVE EN LOS ALTOS*.

Eguraldiaren iragarpena edo igarkizuna dute aipu beste batzuek: «Santu Guztien bezperetan dabilen haizea, urte guztian ere, lautatik hirutan behintzat, hura bera ibiliko da» (EZBB 2636).

Aldi horretan eguraldi ona bada, negurako uzta-batze lanak egiteko sasoia dela gogorarazten digu beste errefrau batek: «Santu Guztien Egunetik eguerrietara haize ta euri gutxi, lekak ganbarara» (EY 113).

Elizaren, eta Domuru Santuru inguruko elizkizunen hotsa, batez ere lehenagokoena, ekartzen digute beste batzuek burura: «*Domuru Santurutan*, arima pielak ('fielak') kandela argitan» (EZBB 739).

Hildakoen aipamena ere egiten da batzuetan, berariaz *hazila* hildakoen bidez. Hala: «Hazilean oroit hilez eta heien kontseiluez» (EZBB 406) eta «Hazileko otoitzak, hiler buruz bihotzak» (EZBB 407).

Eta azkenengo bat, jostatze-usainekoa: «Santu Guztietan, *Dominu Santuru-tururu*» (EZBB 2634).

29

ELURRA MENDIAN

Denporeak agertuko dau edurra mendian

Orain estalian dagoena ere denboraz jakitera heltzen dela izan daiteke horren mezu bat. Orain uste dugun hori, baina ziur ez dakiguna, denboraren ibilian hala izango delako aurreikuspena. Denborari tiraka denak hartzen du bere neurria; denbora bihurtzen da neurriaren testigu, denaren edo ez denaren neurri. Historiagileek esaten duten bezala, denbora-tarte bat igarotzea ezinbestekoa da, edozein gertaeraren ikuspegi objektiboa izateko.

Gaztelaniaz ere entzuna da gurearen mezuari eusten dion hauxe: EL TIEMPO ES PARTE DE LA VERDAD Y A RELUCIR LO SACARÁ.

Baina, errefrau honen hotsik ez oihartzunik apenas dugu gure errefrautegietan. Eta eremuz ere gune laburrekoa izatearen antz osoa dauka: Arratia eta Nerbioi ibarretan entzuten da, egin daitekeen apurra.

Elurra mendian agertzearen irudia, zurtasunaren edo gardentasunaren ispilua dugu, ziurrenik gure arteko behealdeetan beste kolore batez ikusi izan arren. Elurra zuria da eta zuri egiten du behea, lurra, behearen gainean pausatzen doan heinean. Zuritu, orbangabetu egiten du lurrazala.

Errefrautegian, *elurraz* ari diren gehienak eguraldiari buruzkoak dira, eta ez gutxi etorkizuneko eguraldiaren edo etorkizuneko janariaren iragarle direnak.

Badira, hala ere, elurra irudi gisa darabiltenak. Koloreen kontrasteaz jostatzen den hura bereziki, zuri-beltzen arteko kontrastea: «*Elurra, zuria delarik, beltza da*» (EY 163) dioen hura, eta Bizkai aldean ere inoiz entzun izan dudana: «*Edurre, zurie dala esaten da baie, baltza be bada, gero!*».

Badira, elurraren irudia neska-mutil gazteen harreman-giroaz kidetzen duten esaerak, dantza-kopla direnak berariaz. Ezaguna eta sarritan entzuna da, harako dantza-koplan kantatzen den hura: «Mendi altuen *edurre*. / Bota surtera *egurre*. / Neska galanten amak / mutil zantarren *bildurre*». Edota beste ikuspegi batetik eta gordinkeria-puntu batez kantatzen duena: «Izotz handia, *elur gura*; neskatxa ederra, dantza gura; neskatxa zakarra, mutil gura» (EY 1220).

Jende-modu zitala denaren konparagarri ere aipatzen da elurra: «*Elurretan jaio ta izotzetan bataiatue*» (NEZ 807).

Noiz nolakoa ohi den elurra gogorarazten digun esaera honekin bururatuko dugu jarduna: «*Elurra* nolakoa den: izotzillekoa ('ilbeltzekoa'), *burnie*; otsaillekoa, *altzairue*; martxokoa, *harrie*; apirillekoa, *lurre*; maiatzekoa, *gazure*» (NEZ 1888).

30

EGINA ETA EGINGOA

Eginak eginbakoari itxaron

Egin beharrekotzat edo egitekotzat dugun zerbait burutzeko, itxaronean egon barik, lehenbailehen egitea tokatzen dela aholkatzera datorren esakuntza. Bada, egin beharreko hori eginez gero, lasai egoteko eran eta baldintzetan izango garela.

Formulazio-modu horrekin bakan entzuna den esaera, eta eremuz ere mugatua, dirudi; berariaz Arratia eta Nerbioi aldeko herrietan dirauela indarrean pentsa daiteke. Guk Zeberioko seme den Juan Manuel Etxebarria irakasleari batu diogu: «Inek inbakoari etxon», bertako berbetan, hau da, «Eginak eginbakoari itxaron» (Juan Manuel Etxebarria, informatzailea).

Gaztelaniaz ere esakuneak dira, esanguraz guztiz bat etorri izan ez arren, hurreko mezua darabiltenak: LA OCASIÓN, LA PINTAN CALVA; edo: OBRAS SON AMORES, QUE NO BUENAS RAZONES.

Hala baserri-lanetan, gurasoak seme edo alabari zereginen bat agindu eta hau bere betebeharrean atzeratu ez dadin, aho-mihira sarri datorren esaera. Edo, esate baterako, etxe batean argindar-sarea eraberritzen ari denak, bere eginbehar hori bertan behera utzi eta beste zereginen

bati oratzen badio, etxe horren ugazabak arin bai arin esan diezaioke argi-konpontzaile horri, zorrotz eta lehor: «Ez, ez; hori itxi hurrengo baterako, eta heldu lehengo arloari!». Baina alboko lagunak erantzun diezaioke: «Egin daiala, gizona! *Eginak eginbakoari itxaroten* jeutsak (‘ziok’) eta!».

Oraintsu arteko baserri-zeregin baten adigarria har dezagun, belar sikuak egitearena, barbarako. Belarrak ebakita, landan lehortzen zabaldu eta, geroago garreanean belarrari buelta eman ez eman zalantzetan hasi, eguraldiak kanbioa ekarriko ote duen beldurrez, eta etxekoren batek ebatzi hau ematea: «Bueltea emon deiogun. *Eginak eginbakoari itxaroten* badakik eta!».

Esakuntza horrek badu gaztelaniaz ezagunagoa den beste formula bat: «Ez utzi *biharko*, gaur *egin ahal dena*» (hau da: NO DEJES PARA MAÑANA LO QUE PUEDES HACER HOY). Formula horrek, *eginda* dagoenari eta *egiteko uzten denari* beste ikuspegi batetik oratzen dio, agindu-iritzi zorrotzago batetik.

Atzera euskarara gatozelarik, buruko horren esangura hurrekoa dutenak hainbat dira: *lan egina* eta *ez egina* edo *eginkizun* dagoena, edo *egiten hasita* bai baina, *amaitzeko dagoena* aurrez aurre jartzen dituztenak.

— *Egina* eta *ez egina* aurkez jartzen ditu hurrengo honek: «*Eginetik* zerbait, *ez eginetik* ezer ez» (EZBB 782).

— Guztiz ezaguna dugu beste bat, *egina* eta *egiten hasi izana* berbagai dituen, eta formulak berak «urregorri» dirudiena: «Hasiak *egina dirudi*; *eginak urregorri*». Egiten hasi izanaren alde mesedegina batetik, eta egin edo burutu izana urregorriaz irudikatzea, hurrengo. *Urregorriaren* irudiaz jokatzeko du, *egina* eta *eginbako*a aurkakotzen dituen beste nafar errefrau honek ere: «*Egina, urre huts*; loa, makarre (‘pizta’, ‘bekarra’) huts» (EZBB 780).

— *Egina* eta *erdi egina* aurrez aurre ageri dira batzuetan. Batek dio: «*Hasiak erdi egina dirudi*; baina “*dirudi*” nork ase?» (EY 1968). *Irudi egitea* ez da aski; bete egin behar da. Ildo berekoa da beste hau ere: «*Lan erdi bururatu, erdi egina*» (EZBB 1879). Nolanahi ere, *erdia*, *erdikina* beti ere.

— *Ondo eginaren* balioa aupatzera datoz beste batzuk: «*Ongi egin bat* ez da sekulan galdua» (EZBB 2376). *Ondo egina* ez dela alperrikoa izaten; geroan ere hor dirauela.

— *Egin ahalak* egin eta lanak sekula amaitzen ez. Hori da beste errefrau batzuen mezua: «*Eginahalak egin*, beti gelditzen da zer egin» (EZBB 776).

— *Ezina* eta *egina* kontrajartzen dutenak ere ez dira falta. Larramendiren EL IMPOSIBLE VENCIDO esakuntza ezaguna, Orixek «*ezina*, *egina*» esaera laburraz euskaratu eta euskaldundu zuen. Eta ildo bertsukoa dugu ondoko herri-esakuntza hau ere: «*Ustez ezina zana*, *bultza ta bultza egin da dana*» (EZBB 2917).

— *Lan egitea* eta *jana* ditugu beste batzuetan kidegurik azaltzen zaizkigunak: «*Egin zazu lana ta izain* (‘izanen’) *duzu jana*» (OE).

— *Esanetik eginera*, agindutik hitza betetzera dagoen aldea aipatzen duten esakuntzak ere zaharrak dira. «*Erranak eder*, *eginak lander*», dio Zalgizeko errefrau zahar batek (*Saug* 173).

Eta azken burukotzat, *egitekoak*, *eginkizunak*, nola egin, ondo edo txarto egin, aipatzera datozenetarik bat hautu dugu, berean zahar eta gazteak aurkez jartzen direla: «*Gazteak ez jakinez*, zaharrak ezinez, *egitekoak* doaz gaizki eginez» (EY 1695).

31

EGUN-ARGIZ ARDIA EZAGUTU

Egun-argitan dira ardiak ezagutzen

Esakuntza hau bertsozara eraman zuen Balendin Enbeita Muxika-Areatzako bertsolariak, era honetara: «Egun-argitan dira / ardiak ezagutzen, / gabaz danak bardinak / jakuz iduritzen» (*Napur*). *Nere apurrak* izenburupean argitara zuen bertso-sortan bildu zuen berau.

Egun-argitan edo gau ilunean, ez munduak ez mundukoek dute itxura bera, guztiz alderantzizkoa baizik.

Badira errefrauak, gaua eta gauekoak aipu dituztenak. Gaztelaniaz guztiz ezaguna da, *katuaren* irudiaz eta *gauaren* iluntasunaz joko egiten duen harako hura: gauez katu guztiak direla nabarrak dioena.

Euskarara bihurturik, bada gure sineste zaharretan ere, herri-mitologian esaera bat, *gaua* eta *eguna*, *iluna* eta *argia* banakatu eta aldebanatzen dituen: «*Gaua gauekoentzat* eta *eguna egunekoentzat*». Eguna gizakiona dateke, egunezkoak gizakiok gara. Baina gaua «beste partekoena» da, «parte txarrekoen» mende dago, izen diferenteen itxurapean:

jentil, lamina, prakagorri edo direnak direlako izaki beldurgarriak. Esaera honekin zerikusia duten esaundak hainbat lekutan bildu izan dira. Ataunen eta Berastegin batu izan dira, neska gazte jostun edo gorularien zori tristea gogorazten diguten kontaerak; abertentzia modura gauaren arrisku gorria akordura dakarkigutenak.

Gau-egunen, argi-ilunen guztizko aldea aurrez jartzera datozen erretrauek mordo osatzen dute. Ezagunenetariko batek dio: «*Gaueko beharra* ('lana'), *egunez agiri*». Bertsio-aldaera ugariak dituen esakuntza, edozelan ere.

Azkuek bildu zituen horietariko batzuk. Joskintzaz diharduen hau, esaterako: «Ilunbeko jostea, argitako lotsa» (EY 2524). Ugazabandreak edo etxeko alaba gazteak, finarren jardun, loari ordu gozoak kenduta, joste-jardun neketsuan, harako «O Pello, Pello!, logale nauk eta,



jinen niza oherat?» errepika-koplan gogorazten zaigun antzera, eta batzuetan tamalez ahaleginak oker edo ustel irteten duela.

Bada bigarren bat, esangura orokorragoa duena, eta hauxe dioena: «Ilhunpeko lana egun-argiz ageri» (EY 2525).

Gaueko lana, tradizioko gizartean, era askotara uler daiteke: beharra edo lana izan daiteke batzuetan, baina *olga* edo *jostaketa* ere beste batzuetan, artazuritze eta beste zereginen aitzakiaz... Halakoxeetan gerta zitekeen neskabila gazteren bat seindun gertatzea ere, agian ustekabeen. Eta halakoetan ere, esakuntza hori eri-erikoa gerta zitekeen mihin zorrotz gordinaz erabiltzeko: «Gaueko beharra, egunez agiri».

Lapurretak ere «*gauezko lan*» bezala ageri zaizkigu maiz, atsotitz eta herri-kontaeretan. Herri- edo leku-izen ezagunak ere badira, lapurreten gerizan. Ataun eta Zegama dira aldaera batzuetan ageri diren leku-izenak: «Ataunen ta Zegaman, egunez ikusi eta gauaz eraman» (*Garate* 1538). Zaldibia eta Zegama beste batzuetan: «Zaldibin eta Zegaman, egunez ikusi eta gauez eraman» (*Garate* 13767). Bi-bietan *Zegama* ezinbesteko bihurtu den herri-izena, *eraman* aditzarekin puntua gordeko bada.

Lan mota batzuei loturik ere azaltzen dira *gau-egunak*, berriaz *gau laburra* eta *egun luzea* aditzera emateko: lo gutxi eta ordu luzeak lan-nekeetan. Horrelatsu adieraztera datoz honako biak: «Ostatuko sehiak gau laburrak, egun luzeak» (*Garate* 10963), dio bata; eta «Txilogako ('txiribogako', 'ostatuko') mirabeak gau txaburra ta egun luzeak» // LA SIRVIENTA DEL MESÓN LAS NOCHES CORTAS Y LOS DÍAS LARGOS (RS 487), bigarren zaharragoak.

32

EGUR SUGINA

Egur eskarmentadua, sugin ona

Juan Manuel Etxebarria irakasleari entzun izan diot oraintsurengo, aspalditik ezaguna nuen esakuntza hau. Zeberiko herri-ondaretik jasoriko bertsioa, hurrean. Lehenagotik, Arratian Arantzazu herriko seme bati, Jon Etxebarria jaunari, aspalditxo entzuna nion errefrau bera. Berbaz: «Egur eskarmentadue, sugin ona» (Juan Manuel Etxebarria, informatzailea).

Ez da leku askotan entzuten, egurra dela eta, *sugin ona* dala. *Sugarri ona* dela entzunagoa eta zabalagoa da euskaldunon artean. Baina hara non, Galdakaoko Erletxeta auzoan ere entzun diogu Rosa Maria Basterretxea andreari *sugin* hitza ezpainetaratzen. Irrati-saio batean bera hori entzun ostean, esan ei zion andre horrek Gorane Intxaurrega alabari (eta Labayru Fundazioko teknikaria): «Juan Manuelek aitatu dauen hori geuk be esaten dogu eta! *Urrineko egur igerra sugin ona dala esaten deure*» (Rosa Maria Basterretxea, informatzailea). Aldaera honek ez dio ezer, egur horrek zertarikoa izan behar duen; ez dio ezer *eskarmentatua* izatearen gorabeheran. Egur horren nondikoa aipatzen du: *urrineko egur igarra*.

Badira ehun urte inguru, errefrau berau argitaratu zela, *sugin* ordez

sugarri izena aipaturik: «Egur eskarmentadue, *sugarri ona*» (V-arr)» (AEF), beronen ordain modukotzat beste gaztelaniazko bat ondoan zuela: «EL ESCARMENTADO BIEN CONOCE EL VADO». Arratian baturikotzat argitaratu zen orduan ere. Ezagun da, beraz, Hego Uribe inguru horretantxe izan duela bizi-giroa errefrau honek.

Hizkeraren aldetik bada diferentzia ohargarri bat aldaeron artean. Bigarren horrek ez dio *sugin ona* delakorik, ezpada *sugarri ona* dela. Egur iharra su egiteko ona den itaunduko balitzaigu, gutariko gehienok erantzungo genuke, *sugarri ona* dela esanez. Baina Arratia-Nerbioi ibarretan behinik behin, *sugin ona* dela ere gorde da. Bitxitasun zoragarria.

Gaztelaniazko goiko bertsio horrek argi darakus errefrau honen esanahia: *Uretan eskarmentaturik dagoenak ondo ezagutzen duela ibaiaren ibia*. Uretan estukurak igarota dagoenak ondotxo dakiela, erreka onik zeharkatu ahal izateko ibia non dagoen. Gaztelaniazko formulei tenk eginez, badugu beste bat ere, ur irakinetan sartzearen eskarmentu txarra gogorarazten duena.

Eskarmentatua izateak zer esan nahi duen? Juan Jose Mogel idazleak, *Baseerritaar nequezaleentzaco escolia* liburuan, 1816. urte inguru horretan, *guraso eskarmentaduak* aipatu zituen. Eta *eskarmentadua* izateak, edo *eskarmentu handia* edukitzeak ez du zerikusi handirik kasu honetan, ‘esperientzia handiaren jabe’ izateaz. Ez hori bakarrik behintzat. Hori baino gehiago da. *Eskarmentatua* denaren bizi-egoera, *eskarmentu latzak* hartu izan dituenarena dela esango genuke; «esperientzia» soila baino urrunago doan kualitatea.

Zeozerekin eskarmentaturik dagoena ez da atzera horretara bihurtzen: eskarmentuak «esperientzia txarra» suposatzen du, gain-zama negatiboa du. *Eskarmentu* horrek, atzera zulo horretan ez erortzeko irakatsi eta ondorioak ateratzera zuzentzen gaitu. Gaztelaniaz ere duen adiera berbera.

Xabier M.^a Munibek bere antzerki ezagunean (1764) idatzia da: «Direnak munduan / orditzeko usuan, / *eskarmenta bitez* / Txantontxoren buruan» (*BorrBurl*).

Oraintsuagoko literaturara etorrira, erraz on egin daitezke esangura honen erabilerak: «Len *eskarmenaturik* / juan zan moroa» (*Afrika*); «Aterikan gehiago / ez dute irikiko, / *eskarmenatu* dira / orainguan pijo» (*XenpBerts*); «Betiko gelditu naiz / *eskarmenatuba*» (*Udarregi*); «Nik dirua eskuban dala emango dizut beia, len ere *eskarmenatua nago* ni bederatziurrenian emanta» (*Baratzan*); «Zenbait persona beinguarekin / *eskarmenatzen* ezta» (EJB); «Dituzten sosak galdu artian / *eskarmenatu* ez tira» (*Txirrita I*); «Oraindaiñokuan ez gera izandu / *eskarmenatzen* errezak» (*MendTx*).

Egurra dela-eta ere hainbat esakune dira, zeharbidez gogoratzekoak. Besteak beste *urruneko egur igarraren* ingurukoak. Bada bat guztiz polita, Balentin Enbeita bertsolariak bertsoz darabilena: «Aitan lepora *egurrak bota*» (*NApur*), norbere ardurak gurasoari sorbaldara egozte, alegia.

Eta *egurra* mintzagai hartuta, Mitxelena aspaldi markaturiko ohar hau datorkit gogora, *egurra* eta *zura* bat ez direla bereizi nahirik: «Orobat, hemen nahastea zaharragoa eta barreiatuagoa bada ere, *egurra* ez da *zura*» (MEIG VI).

33

EKINA*Ekina baragarria da!*

Ortulau ofizioan sartu berri bati irakurri nion sareetan aspaldi ez dela. Tomate-landare eder bat sartu ei zuen terrazako lorontzi zabal batean, hormaren arrimura, epel-epeletan eta euri-haizeen erauntsietatik ezkutuan gorde zedin, eta hara non erne zitzaion tomate-garautxo bat, nik *potintxo*a esaten ikasi nuen horietarikoa, landare zorioneko hartatik. Eta albiste pozgarri hori, argazki eta guzti, eta pozak harturik, sareko lagunekin partekatzea eman zion buruak, etxean entzuniko argibidetxo hau ezarri ziolarik: «Ekine baragarrie da!».

Giltzarri diren hitz bi josirik dituen esaera da: *ekina* izena eta *baragarria* adjektiboa.

Ekinarena euskaldunok barru-barruan daramagun joera da. Tematiak omen gara, *temosoak*, lagun on baten esanean, baina ez ketoak edo geldoak horratio, besoak auma eginda dauzkagula egotekoak.

Baragarri adjektiboa ezaguna da sartaldeko euskaldunen artean berariaz, eta ohiz kanpoko esan gura du, arraro edo bitxi den norbait edo zerbaiti buruz ari garela. Pertsona berezi samar bategatik esatea: *Gizon baragarriagorik ez dot sekula ikusi!* Edo norbaiten

esanak edo eginak direla eta: «Hain dira *baragarriak gizon horregaitik dinaustazuzanak ze...*» (*Zaparradak*).

Baina nolana ere, *baragarri* hitza ezagun edo hurreko egiten zaigun askorentzat are bakan eta bitxiago egiten zaigu, goiko esaera horren ingurunean berdindurik ikustea: *ekina* = *baragarria*. Baina hizkera batzuetan bigarren adiera hori ere badauka. Uribeko merindadearen hegoaldeko hizkeretan bai behintzat. Zerbait eskuratzen edo zuzentzen ‘nekeza, estua, larria, penatsua’ dela adierazten du; negu gorrian tomate-garautxoaren errikerik ikustea...

Esaera hori bera osoagorik ere batu dugu inguru horretan, Zeberion hartan ere, *ekina* eta *ezina* sokatiran direla konparagarri gisa: «*Ekina baragarria da; ezina baragarriagoa*» (Juan Manuel Etxebarria, informatzailea).

Bigarren adiera hori, baina, entzunagoa da adberbio gisa. Zabal entzuna den beste esaera batek argiro on egiten duen eran: «Ezkundu arte larri; gero, *baragarri*».

Bide batez gehi dezagun, *ekina* beste adjektibo batzuek lagundurik maizago dakusagula, hala nola *oker*, *txar*, *gogor* eta gehiago: *ekina okerra*; *ekina txarra*; *ekina gogorra...*, ondo ezagunak, behintzat.

Ekin aditz-kategoriako hitza dugu oinean, baina goiko esaerotan izen kategoriara ekarririk daukagu. Eta beronen esangura, bat eta bera: zeregin edo arloren batean ‘eten barik, gelditzeke’ jardutea. Hain malgu eta emankorra dugu *ekin* hitza ezen, adjektibo kategoriara ere hedatu da, aurreko biez gainera.

Eta aditz den heinean, adizki-forma trinkoak gorde izana da aditz zahar honen merituetariko bat. *Zeri nakio(n)* formula barruan izozturik dantzugu oraindik ere Uribe aldean, ipar eta hego, eta lehenago

erdi alderago ere bai, Azkue jaunari jaramoten badiogu. Hara berak dakarkiguna: «“Hementxe naukazu, zeri *nakio*” (V-ger)».

Baina agintera-balioko adizki modura bildurik ere badakarkigu Azkuek *ekin* aditza: *dakiola* adizkia, Tolosa aldean jatorrikotzat: «“*Dakiola*” (G-to)», ‘ekin diezaiola lanean’ esanguraz.

Denboran atzera egiten badugu, ostera, maizago idoroko ditugu *ekin* aditzaren adizkiak, ia beti aginteraren eremuan: *hakio*, *zakioz*, *gakiozan* eredukoak. Mogel markinarraren esaldia bere berba-jardunetan: «*Gakiozan* aurrera!», gaur egun «segi dezagun aurrera» esango genukeenaren baliokidea. *Ekin* adizkiaren adizki trinko batez esanda dago hor gaur gaztelaniaren kalkoa erabilirik, *jarrai dezagun aurrera* bazterrik bazter ikusten denaren orde.

Gure errefrau dokumentaturik zaharretan ere ez dira falta adizki trinkoak. Hara Esteban Garibairen idatzietan ageri den bat: «Adin onari *akio*» (*Garibai* A 8). Edo *Refranes y sentencias*en azaltzen den beste hau: «Ar ezak maiatzean auz balzaren ezneren, ta *akio* beti betsegien ezneren» // RECIBE EN MAYO LECHE DE LA CABRA NEGRA, Y SIEMPRE CONTINUA DE LA LECHE QUE TIENE CRÍA DE DOS AÑOS (RS 411).

Ekina izen modura oraintsuagokoa dugu erabileraz, eta hitzezko jardunean hedatuagoa, idatzizko tradizioan baino. Sarri entzuten da, edo zereginen baten kontura, edo eguraldiaren gorabeheran, edo etenik ez duten jarduerak direla eta. Urretxindorra bertsolariak denboralearen luzaro iraun beharraz bertso hau ondu zuen orain dela mende bat eta gehiago: «*Eten bako ekina* / dago egun ta gau. / Galduak gara holan / jarraituten badau» (*Urretxindorra*).

Goiburuko errefrauaren esanera bihurtzen bagara, aipa ditzagun baliokide edo hurreko diren besteok:

— *Ekin* aditza birritan erabiltzea, errepikatzea, da beronen mezua eraginkortasun seguruaz uztartzeko. *Azeriaren oilo-harrapatzea* iruditzat harturik ondua da: «*Ekin, ekin*, azeri zaharrak oiloak harrapeu» (*Garate* 3690); eta *itoginak harria* zulatzearen irudiaz berdintzen du ekina hurrengo honek: «Ituginek, *ekin ta ekin* harria zulotu» (*Garate* 7520).

— Era orokorragoan mezu bera demaigute besteok ere: «*Ekin ta ekin*, laxter izan zuan berekin» (*Garate* 3691), dio batak; eta «*Ekinaren indarra ekinaz* neurtzen da» (*Garate* 3694), sententziatzen du besteak.

— Belearn irudiaz baliatzen den beste bat ere bada, hura dabilen lekuan dena argi eta garbi geratzen dela gogorarazten diguna: «*Ekin*, belea egoneko lekuen baino geao ('gehiago') egongo da ta» (*Garate* 3688).

— *Ekin* eta *egin* aditzen hitz-jokoaz baliatzen diren esakuntzak ere bat baino gehiago dira. Etorkizunaren bermea iragartzera datoz oro har: «*Ekinak* erdia *egina*» (*Garate* 3693).

— Eta aurreko biei *ezina* gehiturik josten dira hurrengo honetan: «*Ezina, ekina, egina*» (*Garate* 4890), Larramendiren harako gramatikako lehen liburuaren azpizenburu modura ezarri zuenaren gogoangarri: EL IMPOSIBLE VENCIDO.

— Etorkizun segurtatua *urregorriaz* irudikatzen datorren beste hau ere ezaguna eta gaur egun ere indarrean dagoena dugu: «*Ekinek eine* ('egina') dirudi, *einek* ('eginak') *urregorrie*» (*Garate* 3697).

Amari dezagun *ekinaren* inguruko jardun hau, J.A. Mogelen esaldi bat biziberrituz: «Begi itxi-edegi bateko ikustea geiago da ikasteko, berba luzeen jarduna ta *ekina* baino» (*PAb*).

34

ENDOREA, ENTZULEA*Zeegik ezer, endorea, entzun artean bestea*

xvi. mende amaierako *Refranes y sentencias* bildumako atsotitzetarikoa dugu berau: «Zegik ezer hendorea, entzun artean bestea» (RS 73). Gaurko hitzunontzat ulertzen zailago diren bi hitz berekin dituen: *zegik* eta *hendorea*.

Ze- aurrizki hori, ez ezeztapen-markaren aldaera zaharra dugu, aoristoko aditz jokatuekin —aginteran eta subjuntibozko men-derakuntzetan— erabili izan dena. Zaharra etorkiz, baina oraindino ere sartalderengo bizkaieran bizirik dirauena, ezeztapenaren barruan adiera espezifikoko batekin bada ere, gaztelaniazko *NO SEA QUE* [+ SUBJ.] balioaz. Hona hemen, *Labayru hiztegiak* dakarren adibide bat: «Gordeizu katilu hori, hausi *zedaizun*»; hau da, ‘hauts ez dezazun’.

Goiko errefrau horretan, beraz, *ze<e>gik*: ‘ez egik’, ‘ez ezak egin’.

Endore, gaurko hitzunok ez darabilgun eta nekez dazaugun hitz zaharra dugu, aginpidea duen administrazio-kargu baten izendatzaile, ‘alkate, gobernadore’ edo hurreko adierakoa. Gaztelania zaharretik —*TENEDOR* hitzetik— gure euskara zaharrak oinordetzaz beretzakotu zuena. Euskara idatzi zaharrean berau delakoan gaude izen honen lekukotasun bakarra.

Obra inprimatu honen argazkia eta edukia xx. mendearen hasiera inguruan ezagutu eta jakitera eman zenean, aldi horretako idazleak ere hasi ziren *endore* izenari bizi berria emateko berpizte ahaleginean, «alkate» mailegu-usainekoa zokoratzeko lehian, baina ohartu gabe mailegu-izen zahar eta ezezagun bat hautatu zutela oharkabea, «alkate» mailegu-hitz ezagunagoaren ordaintzat.

Entzun aditzaren argumentu-egitura ere aditasunez ikertu beharrekoa da. Sartaldeko euskaldunek «nori entzun» (*'besteei entzun'*) gehiago darabilten aldi honetan, ohartzekoa da aditz horren argumentu zaharra, errefrauan ageri dena, «nor/zer entzun» (*'besteak entzun'*) egiturakoa dela.

Baina errefrauan datzan mezuari bagagozkio, zabal dabilen aburu unibertsa dugu: *Besteak entzun, besteena entzun, norberak erabaki bat hartu* orduko. Mezuaren lehen osagaia da ardatza: *besteak entzutea*. Baina bigarren alderdia, ondorioa edo osteko erabakia hartzearen adierazle dena, aldatu egiten da batetik bestera.

Goiburuko mezuaren kide-kidekoak ditugu batzuk, besteena adi eta zuhur entzun eta gero berba egin behar dela gogorarazten dutenak. Mordo ugaria hornitzen dute aburu honen bideko esakuntzek. Iparraldeko erran zoragarritzko baten hitzak: «Biz gizon guzia *entzutera lehiati*, berankor mintzatzera» (*Garate* 9718). Denboraren sekuentziaz banatzen du esankizuna, *lehenengo vs hurrengo* adberbioen erdibanatze bidez: «Entzun *lehenengo*, hitz egin *hurrengo*» (*Garate* 4003). Eta konparatze-egituraz ehoa dugu hurrengo hau: «Hitz egitea baino, *hobe entzutea*» (*Garate* 6869).

Baina kontrako jarrerak ere gertatzen dira ondorio legez. Koplak zaharrak dioten bezala: «Ez kasurik egin...», *zu zeureaz aurrera*. Hainbat errefrau kordatu daitezke mezu horren harian. Batek dio: «Uste guztiak entzun eta *segi zeurearekin*» (*Garate* 13304). Bigarren batek,

hutsaren hurrengo darabil ondorio gisa: «Norbera inor ez eta *bestiai entzun ez*, dana bapez» (*Garate* 10204). Hirugarren honek, ez entzun egitearen gortasunera zuzentzen gaitu: «*Entzule txarra*, entzun gor» (*Garate* 3997). Eta laugarren batek, itsutasuna dakar ondoriotzat, era gordinean: «Entzun ta gor, ikusi ta itsu» (*Garate* 4000).

Hirugarren ondorio-jarrera bat ere bada: entzunak entzun ondoren, onen-onena mutu geratzea dela gomendatzen duena. Aditz-partizipioen kateaketa bidez ondua da hurrengo hau: «Zuhurrak *entzun*, *ikusi eta isildu*» (*Garate* 14377). Egitura bertsuaz mamitua dugu beste hau ere: «Ikasteko, *ixildu ta entzun*» (*Garate* 7148). Eta bada hirugarren bat, laratzaren, *laratzuaren*, irudiaz baliaturik hurrengo mezu hau igortzen diguna: «Laratzuek *dana entzun eta beti ixilik*» (*Garate* 8853). Hari bertsuaz ehoa da gaztelaniazko ezagun bat ere, *isilik dagoenak amore ematen du* adieraztera datorrena, eta euskaraz ere hurreko ordaina duena: «Entzun eta isil, baiezko borobil» (*Garate* 4001).

Eta azkentzeko, etxeko eta kanpokoan esanak norbere adimenean ondo iragazi eta bitzuk balioz ondo bereizten irakastera datorrenik ere bada: «Kanpokoa entzuten dozu geixau (‘gehiago’), etxekoa baiño» (*Garate* 8303).

35

ERROTA, BOLUA, EIHERA

Errota on da dabileno, ez geldirik dagoeno

Azkuek bere bilduman (EY 2315) hala dakar, *bolu* zaharrari *errota* deritzala. Esakuntza horren idazkerak argi darakus Iparraldeko, eta ekialdeko, hizkeren azterrena, darabiltzan adizki bien eratik: *dabileno* eta *dagoeno*, biak *-no* denbora-menderagailuaz markatuak. Gaurko gure sisteman, hegoaldekoan berariaz, *dabilen artean* eta *dagoen artean* lirateke ohikoak, «bitartean» postposizioaz ere adierazten dena.

Errefrau honen testigantzarik zaharrena Oihenarten lumatik dugu. Haren bertsioan *eihera* deritza gure gaurko «errotari», elkarren sinonimo garbiak. Gainerakoan hitz berberak darabiltza: «*Eihera* hon da dabileno, eta ez geldirik dagoeno» (*ProvBasq* 128).

Izenari bagagozkio, hegoaldekoontzat gaur egun ezagun-hedatuena den *errota* izenak, *eihera* Iparreko kideaz ostean, baditu beste izendapen batzuk ere, gaur urrunduxe edo lausotu bezala sentitzen ditugunak ohiko hizkeran. Horietarik dugu *bolua*, onomastikaren alorrean iraunkortu dena, baina ez euskal hiztunon berbeta bizian. Leku-izenetara etorrita, Bilboko *Bolueta* auzoaren izena dugu lekuko gardena. Aldaera zaharragoak ere badira, hala ere. *Bolibar* herri-izenaren ostendian *Bolin-ibar* zahar osoagoa dugu; gaurko esanguraz,

‘erroten ibarra’. *Bolinaga* deitura-izenak ere *bolu* horren aldaera zaharrago batera gibelarazten gaitu: **bolinu* euskal era zaharrera, latinezko «*molinum*» ezagunaren mailegu gardenera garamatza.

Bolu izenak, onomastikaz at ere, izen ohiko gisa bizirik zirauen XVI. mendean oraindik, harako errefracuari jaramoten badiogu behintzat: «Urrutirean *bolura* dator ura» (RS 147). Aditzera emateko, atze luzea duela, urrunean dituela erroak, aurretiko sendoak dituela, bada, orain gertatzen ari den zerbaitek.

Dakartzagun gomutara bide batez, *errota*, *eihera* eta *boluen* inguruko osterantzeko errefracu batzuk.

Errota, ibili ez ibili, *dabilen ez dabilen* auzia dela eta, berbara datozenak dira ondoko hauek:

— Zaharra dugu, Azkuek ere bildurik dakarren honako hau: «*Errota* onari *bihia* (‘garaua’)» (EY 2316); eta hainbat lehenago Isastik ere bere bildumatxoan jaso zuena: «*Errota* onari *bia*» // AL MOLINO BUENO, LA MOLIENDA (*Isasti* 33). Errota onari irauli franko garaua, hark ehoko du eta.

— «*Eihera berriak* irina xuri» (EY 2251), dio beste batek. Emaizta hobe eman ohi duela gazte edo berri den edozerk —errota, kasu honetan—, zahartua denak baino.

— Ezagunagoak dira Azkuek lerroz lerro dakartzan batzuk. Batetik, Iparraldeko iturrikoak: «*Balitzako eiherak* eztizu ogirik eraiten (‘ereiten’)» eta «*Balizkako* iharak ez du irinik egiten». Eta horiekin batera, Hegoaldeko besteok: «*Balizko erroteak* urunik ez» bizkaieraz, eta «*Balizko errotak* irinik ez» gipuzkeraz (EY 2054). Beste behin ere, erdialdeko hizkeran: «*Bale(g)oko errotan* irinik ez, haginak amostu (‘kamustu’) beldurrik ez» (EZBB 438).

— Errefrau ezaguna eta oraindik ere hiztunen gogo-mihinetan bizirik dagoena da harako «Gu hil eta gero be, eroango dirala *zorroak errotara*» gogorarazten diguna, nahiz honezkero, irina ehotzeko errotak aldenuxeak diren. Kantuak dioen bezala: «Errota zahar maitea, uraren ertzean, uraren ertzean ta, basati beltzean». Errefrau beronek, gipuzkera-eremuan, beste aldaera hau du: «Gu hildakoan ere, *astoak* joango dira *errotara*, artorik baldin bada» (EZBB 1418). Esan nahi balitz bezala, gurekin ez dela mundua amaitzen; gero ere jira eta buelta egingo du munduak, edo lodiak aurrera...

Amaitzeko, hain entzunak ez diren besteok akordura ekarriko ditugu. Izan ere, esangura sakona dute gorderik, *errota* eta *ura* errefrau berean josten dituzten honako hauek: «*Urik ezean* alperrik errota, ikusiaz gero edozein profeta» (EZBB 2844). Eta: «*Ur joanak* ez du errotarik erabiltzen» (EZBB 2848).

36

ESATETIK EMATERA

*Esana bat eta emona bi;
emonagaz konformau hadi!*

Gaztelaniaz bada esakuntza ezagun bat, esanetik eginera alde makala ez dagoela gogorazten diguna. Mezua ez da guztiz bat, goiko euskarazkoak eta gaztelaniazko horrek ematen duten mezua. Agintzen denetik ematen denera dagoen aldea ageri du lehenengoak, euskarazkoak, eta esanetik eginera dagoena, bigarrenak. Baina funtsean ildo paraleloan doaz biak ere.

Euskarazkoaren mezua garbia da: premian dagoenari, edo eskari bat egin dizunari, berba ederrekin laguntasuna opatu edo agintzea askoz errazago dela, emandako berba gozo hori betetzea baino. Mesedea, laguntasuna, *agintzetik betetzera* alde handia egon ohi dela, alegia.

Mezu berorrenzat esamodu eta adierazpide diferenteak eta askotarikoak direla euskaraz, zer esan ez da. Batzuk-batzuk gogora ekarriko ditugu.

Badugu era bat, aldaera diferenteduna. Baina inguruon sarrien entzun dudana hauxe da: «Esana bat, emona bi; emonagaz konformau hadi».

Justo Mokoroak bere lokuzio-biltegira honako aldaera irauli zuen *Euzkadi* egunkaritik: «Agindua bat; emona bi...: *hartuagaz* egon hadi!» (OE).

Azkue gure biltzaile oparoak aldaera bat baino gehiago dakartza EYn, baina badu esapide polit bat, berba pare bana aurrez aurre lotzen dituena. Batetik *esana* eta *egina*, eta bestetik *erraz* eta *garratz*. Hala dio: «Esana erraz, eta egina garratz» (*Txirristadak*).

Ekin gudu aurreko asterokoan, Errizale goitizendun batek honela idatzi zuen: «*Esana* ta *izana* gauza bi dira». Esatea legez, bat ez direla, ez direla gauza bera.

Domingo Agirre idazle joriak, honelaxe formulatu zuen eleberri-pasarte batean: «—“Eskerliña”, “eskerliña”... Ori, mutill, ehun errealekoa dek Oñatin. —Baina libra esaten zaio... —Ai, enetxoa! *Esatetik izatera bide handia* zio...!» (*Garoa*). Batetik bestera dagoen alde nabarmena irudikatzeke, *bide handia* dagoela dio.

Harean beranduxeago, Kirikiño kazetariak, Ebaristo Bustintza mañariarrak, *alde handia* dagoelako leloaz errepikatzen digu ideia berbera: «Esanak eta eginak dauken alde handia!» (*Euzkadi* egunkaria, Kirikiño).

Mezu beronen edo guztiz hurrekoaren eroale dira, esapide-egituraz aldatuta, bilduma batzuetan ematen direnak. Horietarikoak dira: «*Asko esan, gutxi egin*» (*Garate* 3373). Edo: «Esan asko eta egin gutxi» (*Garate* 4347). Eta era hornituagoan: «Gutxi esan, asko egin, zuhurraren atsegin» (*Garate* 4374).

Gogora dezagun bide batez, *esan* eta *egin*, elkarren aurka barik, bata bestearen atzean, zuzenbide berean ilbandurik ere sarri ageri zaizkigula, elkarri lagun eginda. Hala da esaera: «Esan eta egin!»

(*Garate* 4352), gaur egungo euskal hiztunok ere ezpainetan zoli eta zorrotz ohi darabilgun esakune indartsua. Beste egitura batez ere mailukatzen da ideia bera: «Esanak *bidea egiten* du» (*Garate* 4398).

Eta amaiera gisa, *egin* eta *esan*, biak ezezka direla ehoriko aholku-esakuntza: «Jendeak jakin ez dezan, *ez egin* ta *ez esan*» (*Garate* 7809).

37

EURIA ETA LEIA

Euriaren gaineko leia, euriaren deia

Eguraldia dela-eta diren errefrau ugarien artean hauxe dugu bat. *Leia* esaten da, berau bildu den inguruan, Bizkaiko Txorierrin, erdialderago *izotza* eta ekialderantz *lantzurda*, *a(i)ntzigar*, *karroin* bezalako izenak hartzen dituen eguraldi-fenomenoari. Aldaera hau bildu den Erandion, bertako berbaeran, horrelaxe ahoskatzen da: «Eurin ganeko leie, eurin deie» (Pedro Aurrekoetxea, informatzailea).

Negu-eguraldiari gehiago dagokion esakunea da, beste urtaro batzuei baino.

Errefrau hau euskaraz aspaldi zaharretik lekukotua dugu, beste hitz batzuekin bada ere: «Loitzaen ganeko leia, euria» // HELADA SOBRE HIELO, LLUVIA (RS 44). *Loitza* dioen lekuan gaur egun *basatza*, *lokatza*, *lupetza* edo horrelakoren bat erabiliko genuke errazago. Errefrau zahar honek *euria* aipatzen du ondoriotzat, eta ez goiko horretan aipatzen den *euriaren deia*.


Seinalagarria da, hizkeraren aldetik esakuntza zahar baina bizirik dirauen honetan *gane*, *gaineko* atze-izenaren denbora adierazle balioa, ‘gero, ostean, ondoren’ adierakoa. Gaur egun idatziz bakan

dakusaguna, eta hiztun onen ahotan ez bada, entzun ere mehatz egiten dena.

Lohitza, basa edo lokatzaren adieraz, antzinako izena dugu. Gaur egun *lohi* hitza adjektibo edo adberbio kategoriaz darabilgu gehiago, 'zikin' esanguraz. Leku-izenetan izozturik geratu zaigu *lohi* izena aldi horretan: *Loiola*, *Loitzaga*, *Loidi*, *Loizate* bezalakoetan.

Baina, zahartasuna gorabehera, gaur egun bizirik irautea da, euskal gizartean izan den transmisio sendoa da beronen osasunaren ezaugarri pozgarria. Zein den bizirik iraun izanaren arrazoia? Besteak beste, nekazari-gizarteak hurretik bizi izan dituelako natura-fenomenoak, eta are gehiago, eguraldi-gorabehera eta lurraren uzta on edo txarrari dagozkionak.

Mokoroaren lokuzio-bilduman, Txorierriko bertsioaren antz-antzean bildurik dator, igaro den mendearen gudu aurreko urteetan-edo, eta hizkera berberaren ezaugarriekin: «Euriin ganeko leie, euriin deie» (OE).



Euskaltzaindiaren *Euskararen herri hizkeren atlasa* (EHHA) lanean, *lei* mota bi bereizten dira herri batzuetan: *lei zuria* eta *lei beltza*. Hala, Dimako herrian, kasurako. Lekukoaren hitzak hauexek dira: «*Lei zurie* dok bat, zuri ikusten dana kanpoan; da ('eta') *lei baltza* dok, hori zuritasunori eztok ikusten, beia (d)ok kristela, bardin». Otxandioko beste informatzaile baten esanak dira: «*Lei baltza* da ikusten eztana, da dana gogortu. *Lei zurie* da ikusten dana».

Goiko errefrau horretan esaten dena *lei zuriaz* ari dela esan daiteke.

Gogora dezagun amaiera gisa, esakuntza honen lorratz gehiegirik ez dugula gure errefrau-bildumetan. Horrexegatik beragatik du, besteak beste, berebiziko interesa errefrau honek.

38

EZINA ETA EKINA*Ezina, ekinez egina*

Manuel Larramendi euskara-eragile sutsoak azpizenburu hau ipini zion bere *Arte de la lengua bascongada* (1733) gramatika-obra: EL IMPOSIBLE VENCIDO.

Bat baino gehiago saiatu izan dira harrezkero, horri euskarazko ordain ziur bezain indartsu batez ituan jo nahirik, baina guztien artean eza-gunen bihurtu dena, Orixek ekarri zuen hura da: «Ezina, egina». Agian, hirugarren hitz batez horniturik, esankizuna osoago adieraz zitekeen: «Ezina, ekinez egina». *Ezinari* goia hartzeko, *ekina* erdian ipini behar.

Gaztelaniazko formula horrek, dena den, herri-hizkeran ere badu euskaraz sustraiko espresabidea. Harako hura: «Ezina, ekina, egina» (*Garate* 4890).

Ustez edo itxura batez ezina dirudiena, ahaleginaren puruz bururatzea adierazten duten errefracuak, bat baino gehiago dira herri-jakintzan. Bada bat, *ustez ezin dena* eta *ahaleginez egitea* aurrez aurre ipintzen dituen: «Ustez ezina, saiatus egina» (*Garate* 4887). Bigarren batek, *bultza eta bultza* gehitzen dio egikuntza burutzeko ahaleginari: «Ustez egin ezin zena, bultza ta bultza egin da dena» (*Garate* 13316).

«Ezina, egina» adierazteko beste irudi bizi bat, *deabrua eta emaztekoa* protagonistatzat dituen harako hura dugu: deabruak ezin duen hura, emaztekiak egiten ahal duela baiesten du Iparraldeko atsotitz batek: «Debruak ezin egina, emaztekiak egiten» (*Garate* 2925).

Ezina ardatz duten erretrauetan, atzerabiderik ez duela segurtatzen duenik ere bada: *ezinak legerik ez izatea*, hain zuzen. Axular idazleak hizketa labur batean dakarkigu *Geron* honako hau: «—Eztut zertaz paga.... —Baldin ezpaduzu, *ezinak eztu legerik*» (*Gero*).

Ezina, edo *ezinkizun* dena, izatera, *izankizun* bihurtzera zuzentzen dira beste atsotitz eta literatura-pasarte batzuk. Tradizioko testuetan, aipagarri da Gregorio Arrueren harako baieztapen hura: «Gizonaren berezko indarra *ezinkizun zaiena*, graziarekin *izankizun egiten* da» (*BARGIA*). Edo Haranederrek *Testament Berriaren* bertsioan dakarren beste hau: «Gizonentzat *ezinkizun direnak*, Jainkoarentzat *egikizun dirade*» (*Haraneder*). Eta hurragora etorrira, Kirikiño kazetariak *Ibaizabal* aldizkarian idatzi zuen honako hau ere aipatzekoa da, *ezin dena* eta *ahal dena* aurrez aurre jartzen dituela: «Ezina dan legez, ahal izana balitz...» (*Ibaizabal* aldizkaria, Kirikiño).

Ezin dena ezin delako mezuaren iragarle dugu Frai Bartolomeren pasarte hau: «*Ezin danean ez dago eginkizunik*» (*Ikasikizunak* III). Mezu bera berrestera datoz erretrau batzuk; hau da, ez dagoenetik edo ez dagoen lekutik ezin dela zer edo hura atera esatera. *Irin* eta *opilaren* irudiaz baliatzen da bat: «Eztagon irinarekin ezin opilik egin» (*Garate* 10813). *Erregearen* eta *errementarien* ofizio-karguak ardatz harturik ere mezu bera ematen zaigu nafar erretrau batean: «Ez den lekutik, erregek errementaririk ez» (NEZ 1556). Herri-berbetan esan ohi den legez: ez dagoen lekutik ezin atera liteke.

Gaztelaniaz ezaguna da beste esakuntza bat ere, *kanpaien* eta *kanpai-hotzen* irudiaz mezu beraren iragarle dena: kanpairik eduki

ezik, ezin kanpai-hotsik eragin.

Kontrako mezuaren adierazle direnak ere, ezinik ez dagoelakoa adierazten duten atsotitz eta literatura-pasarte batzuk ere badira, ordea. Hala Testamentu Zaharrean, Lardizabalen bertsioan, hala esaten digu idazle zaldibiarrak: «Ene aita, zuretzat *ezinik ez da*» (*Lardizabal*). Eta ideia berorren erakusle dugu hurrengo beste hau ere: «Nahi duenak ahal du, nahi ez duenak guzia galdu. Nahi bada, *egin ezinik etzegok*» (*Garate* 9938).

Ezin handiagoak ere garaitu izan direla gogoraraztera dator Kardaberaz klasikoa bere *Cristauaren vicitzan*: «Ezin datekela diozu (ori egitea); baina begira ondo, nola *ezin andiagoak*, eta gaitzak egunoro garaitzen edo benzitzen diran, itza eman dalako» (*KristBiz*).

Ezina harria baino gogorragoa delako konparantza ere zaharra dugu euskaraz. Mañariko izengoitidun Errose Bustintza mañariarrak gogora dakarkigun herri-esaera: «*Ezina harria baino gogorragoa dala* esaten eban gure aititak...» (*Argia*, Errose Bustintza). Eta aspaldiagoko errefrau batek ere horren antzeko hitzez irudi berbera: «*Eziegina, arria baino gogorrago*; arriari mailluaz ere baledeko» (*Isasti* 26). «Edeki» edo «edegi» partizipioaren adizki trinko zaharra dugu «baledeko» hori, 'kendu', 'idoki' esanguraz.

Ezinari zirri eta zirri *ekiteaz* dihardu Kirikiñok artikulu batean: «Hamaika zoro bajabilk *ezineko gauzeari zirri ta zirri...*! Guztia barriketa hutsa!» (*Ibaizabal* aldizkaria, Kirikiño). Justo Mokoroaren interpretazioz, 'ezinari gehiago egin guran'.

Haitzean behorraren bila ibiltzea iruditatz hartuta ere mezu honen itua jo nahi izan du gure idazle mañariarrak: «Eurak *direan legez hartu* behar dira gauzak; ta ez *ibili hatxean behorraren bila...*» (*Ibaizabal* aldizkaria, Kirikiño). Mokoroaren argibidez, gauzak diren bezala onartu behar

dirrela, ezin dena menderatu beharrean tematu barik.

Derrigorrezko arrazoiren bat bitarte zela, *ezina ailegatzea* markatzen duen pasarte bat argitaratu zen gudu aurrean *Euzkadi* egunkarian: «Hemen izan behar eban honek aspaldi, baina oingoan *ezina heldu jako*; ta hurrengo urte bi-edo igazi arte itxon ('itxaron') behar...» (*Euzkadi* egunkaria).

Ahal dena eta nahi dena bereizi beharraz ari zaigu hurrengo hauetan: «*Ahal dena* mundu huntan, eta ez nahi dena» (OE). Eta denarekin den hori baino ezin dela jadetsi, eta ez gehiago, baiesten zaigu beste honen bidez: «*Danagaz dana baino ezin egin leike*» (OE).

Eta akabu gisa, aholku-errefrau bat. Berbarik ez ei da eman behar, ezin den arloan: «*Ezindako berbarik ez emon!*» (*Euzkadi* egunkaria). Hau ere *Euzkadi* egunkariaren euskal orritik batua.

39

GAREN ARTEAN...*Garean artean, gaitexan bizi*

Arratiako euskara oneko hiztun bati entzundako esaera sententzia modukoa, duda handirik gabe aurretikoetatik entzuna eta buruan josia.

Darabiltzan hitzek eta euren ordenak argiro darakuste esan horren zahar-usaina. *Garean artean* denbora-menderakuntzako *garean* aditz trinkoak bere esanahi propioa du hor, gizakion *existentziaz* lotura estua duena. Berehala dakarzkigu gogora *garean* adizki honek beste errefrau zahar batean azaltzen diren besteok: «*Garean*, *gareana* legez», nahiz euren esanahiak guztiz alde banatakoak izan. Armarrri batean zizelkaturik ageri diren hitz esangura sakonekoak, Mitxelenak, *Textos arcaicos vascosen*, aspaldi aipatuak.

Garean artean egituraren azpian «gu bagara» adierazpena dugu, «gu bagarela, gu bizirik gaudela» nolabait irmoki adieraztea. Edozelan ere, herri-hizkeran maiz entzuten dira: *ni naizen artean*, edo *gu garen denboran* moduko espresioak, edota, *ni naizen* edo *gu garen bitartean* erako formula-esaerak.

Sarriago entzun daitezke ezezka emandako egiturak, *existentzia* vs *ez existentzia* bitartean zibi-zabuan darabiltenak. Makinatxo bat bider

entzunak gara familiako ama zaharraren ahoz esaten: «Ni ez nazan denporan zer izan behar ete dau zuekaz!». Edo aita familiakoaren ezpainetatik jalkitzen: «Gu ez garanean zeuek erabagi beharko dozue zer egin, baina ni nazan bitartean neuk esango dot gureetan zer egin». *Izatea* ‘existentzia’ adierazle den bezala, *ez izatea*, ‘joanda’ edo ‘hilik’ egotearen adierazgarri da.

Bigarren osagaia, *gaitezan bizi* aginduzko aditz konposatuaz osatua dugu. Aditz horren ohargarriena, osagai bien atzekoz aurrerako ordena bitxi hori dugu. Dudarik gabe, zahar-eitea darion ordena, agintezko adizkia aurrean dela.

Baina bestalde, *gaitezan bizi* aditz-egitura horrek badu aldaera zaharrago bat, *garean bizi* eredukoa. Hala, Erdi Aro beranduko euskal jauntxo eta leinuen arteko borroka bortitz odolgiroen ispilu gardena dugun esaera batek dio: «*Daigu<n> Go<r>liz auzi, ta garean<n> bakez bizi*» (RS 334). «Garean bizi» aditz-egitura horrek ere atzekoz aurrerako ordena jagoten du, laguntzailea aurretik eta partizipioa ondoren.

Eta *garean* adizkiaren balio aoristoa ere aipagarri dugu, bestalde, Lazarragaren poesia ahapaldi honetan ezagun den bezala: «Jaunak dabela / oi asko geraziarik, / *bizi garean* / guztiok rekojidurik» (*Lazarraga*), gaur egun ‘bizi gaitezan’ genukeenaren balio berekoa.

Daigun auzi, auzi egin aditz-multzoa dugu. Eta *garean bakez bizi*, beraz, ‘bakean bizi gaitezen’ adierakoa. Beste esakuntza zahar bat ere adizki berorrekin josia dugu: «Aita-asabaoi etxi, ta *garean<n>* gu on beti» // DEJEMOS A PADRES Y ABUELOS, Y SEAMOS NOSOTROS SIEMPRE BUENOS. (RS 125). «Garean on» esamodu zahar hori, ‘onak izan gaitezan’ esangurakoa dugu.

Goian aipatua dugun esakuntza zindo hori, «*Garean, garean legez*» (*Garibai A 23*) hori, Garibaik bere errefrau-sortan dakarren hori, euskal

identitatearen adierazgarri iraungarri modura zaindu beharrekotzat jotzen dugu.

Eta amaiera gisa, Azkuek batu zuen beste hau erantsiko diogu jardunari: «*Geu garen artean, gure, mundua*» (EY 2429). Hau da: bizi garen artean, geurea dugu mundua.

40

GARIA ETA ARTOA

*Guzurrak eta barreak ez dau balio,
artok eta garik baino*

Erandio Goikoan baturiko esaera dugu hau, umetan mutikoez elkarri esaten zioten horietakoa. Pedro Aurrekotxea deritzan herri horretako seme den eta euskara onaren jabe denak azalpen hau eman zidan: «Gauzea da ze, pertsona hau nahiko fanfarroia dala, eta holakoetan zera esaten genduan: “Guzurrek eta barrek ez dau balio, artok eta garik baino”».

Artoa, orain darabilguna, Ameriketatik ekarria da, eta lehenago hemen genuen arto antzeko buru txatxarreko hari *artatxea* deritza sartaldeko hizkera batzuetan. *Artoa* izen zaharra dugu euskaraz, baina beronek adierazten duen ortuaria, India-Ameriketatik etorria, gerora *artatxea*, *artatxikia* edo *artaxehea* deitu izan zaionari dagokio. Geroko izendapenak dirudite egitura elkartuak edo eratorriaz garatu diren horiek. Biziki interesgarria *artatxe* izena da, *-txe* atzizki txikigarriaz euskal lexikoan berregokitu dena. Azkue iritzi horretakoa zen: «ANTES DE QUE SE IMPORTARA DE ULTRAMAR ESTE CEREAL, DEBIÓ DE USARSE LA PALABRA *arto* PARA DESIGNAR EL MIJO, QUE HOY DECIMOS ‘MAÍZ PEQUEÑO’, *artatxe*, *artatxiki*, *artoxehe*. LA PALABRA EXTRAÑA ‘MAÍZ’ AÚN EXISTE EN ALGUNOS DERIVADOS, COMO *mailasto*, *maizatxuriketa*» (DVEF). *Euskalzale* aldizkarian honako azalpena

demaigu, *artatxea* dela eta: «*Artatxea* edo *artatxikia* (erderazko MIJO) marti-gariaz batera ereiten dabe Araban: udabarrian» (*Euskalzaletze* aldizkaria, R.M.^a Azkue).

Artoak, artaburu eder ugaridun horrek, estimazio handia izan du janari gisa, berariaz Kantauriar isurialdean, garitarako lurak ez diren isurialde horretan. Artazuriketa jardun eroapentsuaren ondoren, labasuak egin, labartoa garandu, zorroetan errota edo bolura eraman, irin xehea jadetsi ahal izateko, eta urte osorako zer jan franko edukitzeko.

Artoaren izenak euskal izendapenetan bakarrik ezagutu duen garapena sinestezina da, *arto* > *arta*- bihurreratik bertatik hasita. Horretatik kontuak atera, zenbaterainoko garrantziak izan duen artoak euskal gizartean, nekazari-munduan batez ere, janaritze kontuan.

Euskal hizkuntzan ere *gari* izenak sustrai zaharra eta eraldakuntza ugaria erakutsi ditu. Ohartu besterik ez dago, zenbat hitz eratorri garatu ditugun *gari* > *gal*- bihurreraren bidez.

Gariaren langintzan ezagunagoak dira batzuk beste batzuk baino. Gutxi ezagunak direnen artean, honako hauek aipa daitezke. *Galautsa* eta *galzahia* gariaren azala edo gariaren azalaz egiten den zahia izendatzeko. *Galazia*, gariaren hazia izendatzeko. *Galbelarra*, *galbedarra* Bizkaiko euskaraz, gari-landarea izendatzeko. *Galereitea*, gariaren ereintzaren jarduerari esaten zaio. *Galkokoa*, gariaren gaitza eragiten duen kokoaren adierazgarri. *Galondoa*, garia ebaki ondoren behean geratzen den galtzu-trukutzak dira. Edo *galorratza*, gari-landareak izaten duen birloratzeari iriztekoa. Lehen aipatutako *galbelarra*, gutxi ezaguna da. Baina, pasarte zoragarria utzi zigun idatzirik Mogel maisuak *Peru Abarka* berba-jardunetan, *galbedarra* dela eta: «Gari solo batetik atera bear dira zalga, olo, zoragari eta bedar dongak, ezipabere azpiratu, zapaldu eta itoko dabe *galbedar* garbia».

Gal- oindun hitz ezagunagoak ditugu, aldiz, *galburua* eta *galirina*, edo *galuruna* bizkaieraz, janaritzean izan duten eta gaur egun duten balio nagusiagatik.

Galburua zenbat eta joriagoa den, eta galgarauz ugariagoa, hainbat estimazio handiagoa. Juan Bautista Eguzkitzaren hitzez esanda: «Galgarau askodun galburua» (*Lorilla*). Herri-kantuetan ere ondo ezagun egin den hitza da: «*Galburutxo* bat topatu neban *galdenporea* zanean», Azkuek Markinan baturiko koplá barruan (CPV).

Juan Jose Mogelen pasarte batek darakus argiro artoaz eta gariatz eginiko irinen artean dagoen aldea. Saltzeko orduan jenero txarra onarekin nahastatzea bekatu larrizat salatzeke, hara zer dioen: «Txarra ontzat emon, ardaoari ura bota, *galurunari arto-uruna*, edo onelakorik egin badozu, salduteko» (*Egunoroko*).

Artoa eta *garia*, esakune bat baino gehiagotan ageri dira biak batera. Formularik ezagunena, beharbada, Doniane egun bezperako suetan esanedo kantatzen den errezitatuán duguna izan daiteke. Ibarrangeluko aldaera baten arabera: «Erre sorgintxuak, / ondo erre, / *arto-garitxuak* / *ondo gorde*» (*IbarrangKant*).

Arto-gariak luzaro irauten duten ortuari-laboreak dira, gure tradizio-gizartearen behin-behineko eta oinarritzko janariak. Eta hori dela kausa, euron oihartzunik ez da faltako gure esakuntza eta errezitatuétan.

Urte hasierako neska-mutikoen eske-kantu eta kopletan ere maiz aipatuak dira artoa eta garia, beste fruitu siku batzuekin batera. Errezitatu horietan «daukonak eztaukonari emotea» sarri aipatzen da. Eta halaxe izaten zen lehen, eta eske-sarien, kanta-sarien artean izendatzen direnak dira: *artoa eta garia*, *intxaurrak*, *urrak*, *gaztainak*, *txarri-belarri* eta beste. Neurri-ontzia bera ere eransten zaio galgaruari: *katilu bete gari* aipatzen da saritzat: «Urte barri, barri, txarri-belarri,

daukanak ez daukanari *katilutxu bete gari*» (EY 651). *Imilauna* ere bai beste batzuetan: «Urte barri, barri, txarri-belarri, *imilaun* ('lakaria', 'ale-neurri zaharra') *arto ta gari*» (EY 651). Etxeko ganbara-kaxak artoz eta gariz ondo beterik edukitzea zen negu luzean goserik igaro beharrik ez izateko berme segurua. «Elur-melur, ez diat hire beldur, txabolan badiat naiko *arto ta egur*» (NEZ 218), dio D. Intzak bilduriko errezitatu batek.

Etxeko *arto-gariak agortu* izanaren edota ezaren aldarri larria egiten du, Durangaldean Bitaño izurtzarrak aspaldi baturiko esakuntza batek ere: «Artuek eta garidxeek aspaldidixen jan ei zien Bartolon etxien» (*Bitaño*).

Errefrau ezaguna dugu, Iparraldeko bertsioz, *ezkurra* aipatzen duen bat, A. Oihenart zuberotarrak bildurik dakarrena: «Urde goseak, ezkur amets» (*ProvBasq* 456). Baina errefrau hori bera, Bizkaiko aldaeretan, *ogiaren* eta *artoaren* inguruan bilbatzen da: «Txakur goseak, *ogia* ames» (*PAb*) bildu zuen behinola J.A. Mogelek. Baina mende bat osterago, xx. mende hasiera horretan Azkuek, eta askoz oraintsuago baturiko aldaeretan, *artoa* ageri da aipaturik atsotitz berean: «Txakur gosiek, *artue* ames» bildu zuen orain dela aspaldi J. Kalzakorta herri-literatura ikertzaile zorrotzak.

Artoa eta *garia* ez ziren balio bereko lehenago ere, orain ez ezik. Estimazio handiagoa zuen, eta garestiagoa zen *garia*, *artoa* baino: artaleak baino, txiki eta finagoak ohi dira gari-aleak. Arto-garien balioan dagoen aldearen adigarri zuhurra da *errotarien* kontura errefrau batek dioena. Bi eratara dakar Azkuek: «Zalea dok errotaria, artoaren orde z emoteko garia» eta «Zoroa dek errotaria artoaren truk emateko garia!» (EY 267). Nafarroako Baraibarren bildu zuen D. Intzak, elkarrizketa modura onduriko hau: «—Zer orazio egiten dezue? Aitagurean eguneroko *ogie* eskatzen dugu, jauna, baiña *artoa* ematen digue» (NEZ 674). *Ogia* gariari esaten zaio euskararen ekialdean.

Prezioen igoera autu delarik ere behin baino sarriago aipatzen da garia esakuntzetan. Horietako batzuek *garia eta ardoa* dute aipu: «Alperrik egingo jok ehun erreal *gariak*, ardoa edango jok errementariak, prakak zaharrak eta begiak gorriak» (EY 1898) dio ironia darion batek. Eta: «Ehun erreal egin arren *anega gariak*, edan barik ez dira egongo errementariak» (EY 718), lanbide latza duten *errementariak* mintzagai dituen beste batek.

Eguraldiaz kideturik diren eta garia aipatzen duten errefraciak ere ezagunak ditugu: «Edur-urte, *gari-urte*» (EY 1136), gaztelaniaz ere ordain ezaguna duena.

Erandio aldetik abiatu garenez gero, «guzurrak eta barreak ez dau balio, artoak eta gariak baino» esanez, Txorierri alde horretara itzul gaitezten, artoa eta garia arrazoi direla. Eta gogora ditzagun ibar zabal horretako herri-izenak eta bertako lugintza oroimenera dakarkiguten esakuntza ezagunak. Aldaera baten esanean: «Asua ta Erandio, Sondika ta Loiu, *arto erein ta gari gitxi koiu*» (EY 1514). Eta bigarren batenean: «Asua ta Erandio, Sondika ta Loiu, ahaleginak egin arren, *arto gitxi koiu*» (EY 1514).

Bitxia dugu, *arto-garien pertsonifikazio* bidez, alegiaren genero taxuan onduriko elkarrizketa begitandu hau ere: «Gariak esan eban: “Ni lako bedarrik ezta”. Artoak erantzun eutsan: “Ni nazan lekuan goserik ezta”» (EY 2409).

Garia Arabako goi-lautadatik zetorren Bizkai-Gipuzkoetako hainbat ibar eta herritara lehenago ere. Eta horren harian sortua da, Arratia aldean ezaguna den esaera bat, norbaiten hitza badaezpadakotzat jotzeko erabiltzen dena: «Horren esanagaz ez joan Biturire gariten» (Aitor Olivares, informatzailea). *Arabako garia* konparagarritzat hartuta.

41

GATZA ETA ZENTZUA*Gatza gatzontzian eta zentzuna auzoan*

Gatza eta *zentzua*, bizkaieraz *zentzuna*, elkarrekin kordaturik azaltzen zaizkigu hainbat atsotitzetan, goiko horretan bezala. Gatzak badu herri-tradizioan adimenduaz batzen duen lokarri sendo bat, errefracuetan eta beste herri-sineste batzuetan ere.

Adimen arinekoa, zentzu urrikoa denagatik esana da, irudi gisa erabiliriko esakuntza, goiko horretakoa: *Gatza gatzontzian*, «gauza bakoitzak bere lekuan» egon behar duela esatea da; baina bigarren partea da mezua desorekatzen duena: *zentzuak* ere bere lekua behar du, eta buruan gorde beharreko zentzua *auzoan* balego, deslekuan dagoke, bere lekuaz kanpora.

Gatzak eta *gatzontziak*, gaztelaniaz bezala euskaraz ere, ‘*umorea, piperra*’ edukitzea du hurrengo irudizko adiera bat. Baina edozelan ere, euskaraz adiera zaharra du *gatzak*, ‘*sustraia, fundamentua*’ edukitzearena: *gatza* edukitzea. Euskararen tradizio zaharrean zein bizian dugu adiera honen lorratzik asko.

Zenbat bider entzun ote dugu hauetarikoak esaten?: «Zuk daukazu gatza, zuk!» Edo Muxikako bati entzuniko hau: «Esan dituan berbak

agotik aterateko, harek dauko gatzala!», halako ironia pitin batez beti ere, harridura-tankerako esaldi baten barruan. Nork ez du inoiz entzun *gatz* eta *berakatz* hitzak josten dituan lokuzio hau?: «Horrek ez dauko ez gatzik ez berakatzik!».

Pertsonaren sustraia eta zentzua adieraztetik, *indar fisikoa* adieraztera ere sartu da. Markinan zestazko pilota-jokoaren gorabeheran, urlia jokalarik duen indar edo adorea berbara ekartzeko, hurreko hitzun bati entzundako esaera dugu hau: «*Harek eukan gatz eskuetan!*».

Gatzaren gorabeheran bada esapide bitxi bat, tradizioan ere sendo sustraiturik dagoena: *gatzaren ardura hartu*. Berariaz bizimoduari era hartu, bizimoduaren erantzukizuna norbere gain hartzea aditzera emateko baliatzen da. Lokuzio horrezaz ehoriko errefrauak badira, bizitzaren ziklo-aldatzearen bide-erakusle gisa, gatzetasunetik heldutasunera, ezkongai egotetik ezkondua izatera eta familiaren ardura hartzera dagoen zubia igarotzea adierazteko: «gatzaren ardura hartu».

Azkuek bere bilduman, bi esaera jaso zituen mezu honen adierazle direnak. Bata: «Hartu dagizunean *gatzaren ardura*, akordako jatzu gazte-denpora» dio sartalde hizkerako batek; eta «Hartzen dezunean *gatzaren ardura*, etzera olgatuko, maitea neurea» (EY 1271), erdialdeko beste batek.

«Eduki» aditzaz ere lotzen da *gatzaren ardura*, «hartu» aditzaz ez ezik, eta baiezkia baino sarrigo agian ezezka: *gatzaren ardurarik eduki ez*. Baina, azken batean goikoaren mezu berbera adierazteko balio duena. Galdakaoko Erletxetan baturikoa hauxe: «Horrek ez deko gatzen ardurerik» (Rosa Maria Basterretxea, informatzailea).

Onomastikan ere gorde da *gatzaren* eta *zentzuaren* arteko kidetasuna. *Gatzaga* herri-izenean dugu eredu bikain bat. Azkuek jatorrik dakarren hurrengo honetan *Gatzaga* eta *Mariña* leku-izenak ditugu loturik:

«*Gatzagan* da zentzuna; *Mariñen* Marin, hankak arin» (EY 1570). «*Mariñe*», auzo baten izena dugu. «*Gatzaga*» herri-izenari berbaz «*Gatzá*» deritza. Eta Abadiñon bertako lekuko bati batua da, gatzaren harira datorren esaera hau: «*Gatza Gatzán*, seiñe (‘seina’) Motrikun». Koherentzia sendoaren adierazgarri: gauza bakoitza bere lekuan topatu behar dela aditzera emateko, eta ez okerreko lekuan.

Gatza hartzea, bataiatzeaz kidegurik ere badugu gure tradizioan. Iurretako herri-jakintzaren lekuko on baten esanak dira honako hauek: «Gure sasoiari eta aurrerakoetan, danok kristinauak ginanean, bataiatuak —bataiatzerakoan orio-gatzurak erabilten ziran, eta dira—, bada, urlia edo bestea “buruarina”, “zentzunbakoa” bazan —edo bada—, honeetariko esakerak erabili izan dira: “Horrek etxekok kulparik, hori bautizau eban abadeak baiño. *Gatza botatie ahaztu jakuan edo gitxitxogaz igurtzi jautsan*”» (Anton Mari Aldekoaotalora, informatzailea). Eta gaur egun ere normala ei da, hurrean, hauetarikoak esatea: «Hori, hainbaten, bautizau barik jagok, igarri-igarrian jaukok».

Gatz isuriaren irudia errefrau-bilduma zaharretatik dugu ezagun. Hara bat: «*Gatz esuroa* galduro batu doa» (RS 353). Behera isuri eta sakabanatzen den gatza batzen zail izaten dela, hain zehea eta birrina delako. Eta horren bidez adierazi nahi dena, txarto edo gaizki egindako lana zuzentzen neke eta gaitz izan ohi dela, zinez.

Oihenart zuberotarrak ere xvii. mendeko bere atsotitz-bilduman gatza aipatu zuen. Hara nola: «Batzuren gatzontzian ere harrak sortzen dira» (*ProvBasq* 72). Inondik eta ezertara ere zentzurik hartu ezin...

Gatza urtu egiten da, jakina. Ideia horrekikoa da, *gatzezko oinak* eta *uretara lixiba egitera* joatearen irudiak darabiltzan errefrau zahar bat, Iparraldekoa. Oinak edo oinazpiak gatzezkoak dituena ez dedila *lixiba*, *poiata* (edo *puxeta*), edo *gobada* egitera joan; horra aholkua. Hitzez hitz dio: «Etztoela latsara, gatzez duena oinzolara (sic)» (*ProvBasq* 166).

Norbera ahul, makal edo erren dabilen partetik ez besteri ziri egin, ez dedin atzera norbere kaltetan bihurtu.

«Bakoitzak bere *eltzeari gatza*» (OE) ezartzeaz mintzo da beste euskal errefrau bat; beste modu batera esanda, «bakoitzak bere suari putz» egiteaz, edo gaztelaniaz, egur-txingarra norbere arrainkiaren ondora hurbiltzeaz mintzo dena.

Baina *eltzeari gatza egitearen* irudi hau berau erabili izan da baita, nork bere bizitzari ertza hartu edo hartzen hastea irudikatzeko. Bizimodua bere aldetik egiten oraindino hasi barik dauden gazteengatik esan ohi da: «Ez dire beren *eltzeari gatza* botatzen hasi». D. Intzak erantsi batez argibidetu zuen errefrau hau: «Ez dire beren sakeleko diruz bizi» (NEZ 399).

Aipa daiteke halaber *gatzaren irudia*, pertsona bat *haserre biziz sutan* jarri dela erakusteko. Nafarroa aldean aspaldi entzuna da: «Gatza suen bezala, irakiten jarri da. Su ta gar jarri da» (NEZ 2032).

Amai dezagun gatzaren inguruko jardurio hau, esapide polit eder bat hona ekarririk: *gatza loratu*. Aspaldi zaharretik datorren lokuzioa, baina oraindik ere zenbait lekutan bizirik dirauena. Zer esateko erabiltzen den *gatza loratzearen* irudia? Ezinezkoa den zerbait gertatzea edo gauzatzea irudikatzeko. Hala entzuten dira batzuetan honelako berbakizunak: «Nik hari barrero berba egin orduko, *gatza loratuko da!*»; edo: «Nik zuri barrero ezer kontau orduko, *gatza loratuko da!*» (Jabier Kalzakorta, informatzailea). Markinan Jabier Kalzakorta irakasleak baturiko esae-rak ditugu biak ere. Baina ildo beretik, sustrai zaharrekoak ditugu, ostera, xvi. mendeko errefrau honen hitzak: «*Gatza lora ditean artean*, beste gauza lekuske» (RS 145). Sekula ikusiko ez den gauza bat, gatza ere sekula loratuko ez den bezalaxe. Horra adibide on bat, tradizio zaharrak gaurko euskal hiztunetan oraindik erakusten duen iraunkortsunarena.

42

GAZTEA ETA ZAHARRA*Gazteak baleki, zaharrak balegi*

Gaztezaroa eta zahartzaroa aurrez aurre ageri dira gure errefrautegian ere, beste literatura-genero batzuetan bezala. Gaztetasuna eta zahartzea, zein bere birtute eta makaltasunekin, alde on eta txarrekin.

Gaztearen jakineza, bizitzako ikasirik eza batetik, eta zaharraren ezina, ahalik eza, adone-kemenen gabezia dira kontrajarririk dakuskigunak batzuetan. Horietakoa dugu, Markinaldean, Milloi-Berriatuan, esaten den eran: «Gaztiek baleki, ta zaharrak bale(g)i» (Jabier Kalzakorta, informatzailea).

Ekialdeko hizkeretan, bai Iparraldean, bai Nafarroan, badu kide-kideko ordaina, bigarren aditza aldaturik: «Gazteak baleki, zaharrak baleza». Azkueren bertsioz: «Baleki gazteak, baleza zaharrak» (EY 2047), gerorago D. Intzak antz-antzean bildu zuena: «Balaki gazteak, baleza zarrak» (NEZ 2125).

Zahar-gazteen kontrajartze horretan, indarraren eta ahalik ezaren leloa dugu behin eta berriro: gaztearen indartsu eta ahalguztidun izatea eta zaharraren makur, sor eta dorpe izatea josten dituen, irudiztat *gatzelua* eta *gamelua* hartuta. Durangaldean, Abadiñon

entzuna da hurrengo hau: «Gaztie gaztelu eta zaharra ganbelu» (Jose Luis Lizundia, informatzailea). Azkuek mende bat lehenago era bitara bildu zuen horixe bera, subjektu biak pluralez direla: «Gazteak gaztelu ta zaharrak ganbelu» (EY 1696); eta bigarren partean, *maskelua* iruditzat duela ere bai: «Gazteak gaztelu, zaharrak maskelu» (EY 1696).

Era zuzenagoz ematen digu *nahi izatearen* eta *ahal izatearen* arteko aldea hurrengo honek: «Gazteak nahi duena, zaharrak ahal duena» (*Garate* 5529).

Bilduma zaharrenetarik hasi eta gerokoetaraino hainbat dira *zahar-gazteen aldea* eta diferentzia markatzera eta zorrotz bereiztera datozen errefracuak; batzuen eta besteen kualitate on eta txar, alde on eta gaizto, beti guztiz diferentezko modura garantzen dituztenak batzuetan eta besteetan. Horietariko batzuk ohi dira:

— *Pertsonen izaeraz* doa bitzuen arteko gorabehera batzuetan: gazteen poztasuna eta zaharren haserrebera- eta irritu-izaera. Hala dio antzinako honek: «*Txakur zarra irrigau, gazteori alberdau*» // EL PERRO VIEJO DESABRIDO GRUÑIDOR Y ESE JOVEN REGOCIJADO (RS 482). Axular ere bide beretik dabil, jende zaharrari buruz dioenean: «*Presuna zaharra hotzberatzen, minberatzen, idurikortzen, haserrekortzen da*» (*Gero*).

— *Gazteen ezjakintasuna* eta zaharren jakituria beste batzuetan. Maiz aipatua da gaztezaroko buruarintasuna, gorago aipatu den jakin ezaren edo ezjakinaren ildo berean, beste batzuek sendotzen dutena. Hala: «*Gizon gazteen gogoa, ekosaria lasoa ('lakoa', 'bezalakoa')*» (RS 413).

Edo *gazteen bururik eza*, burubakotasuna eta *zaharren ahalik eza*, ezintasuna. Ideia horixe azaleratzen digu Azkuek dakarren honek ere: jakineza gaztearen buruan, ezina zaharrenean. Bertso-tankeran formulatua edo loratua dugu: «Gazteak ez jakinez, zaharrak ezinez,

egitekoak doaz gaizki eginez» (EY 1695). Bizkaiko esakuntza batek modu zuzenagoz dio gauza bera: «Gazteak bururik ez, zaharrak indarririk ez» (*Garate* 5521). Eta Iparraldeko erregistroz: «Gazteak ezjakinez, zaharrak ezinez, doazi oro deseginez» (*Garate* 5524).

— *Amodioa eta amoremina* dira sarritan adin bien arteko aldearen erakusle nagusiak: «Amoratzea gazteentzat loratzea, zaharrentzat xoratzea» (*Garate* 767), dio batek.

Horren harikoa dugu, *nor norekin ezkondu* epaitzera datozen beste batzuk ere: gazteen arteko ezkontza, edo zaharren artekoa, eta batez ere zahar-gazteen artekoa. Baten sententziak hauexek dira: «Gaztea gaztearekin ezkontza, botza ('poza'); gaztea zaharrarekin ezkontza, hotza; zaharra zaharrarekin ezkontza, moldegaitza» (*Garate* 5512). Bertso-tankeran ondua den beste hau ere zahar-gazteen ezkontzak astintzera dator: «Zaharra senarra, gaztea emaztea, haserrerik gabe ez da joango astea» (*Garate* 120333). Ironia-ukitua biziago ageri du zahar-gazteen arteko ezkontza desorekatuak direla eta, honako honek: «Zaharra ezkondu neskatxarekin, ez da faltako mutil gazterik» (*Garate* 13397).

— *Lana eta atsedena* ohi dira batzuetan gazte eta zaharren aldearen adierazle. Irudi diferenteak ohi dira adierazgarritzat. Bat: «Gazteak solora, zarrak sutondora» (*Garate* 5531). Bigarren bat: «Gaztea lanera, zaharra atsedenera» (*Garate* 5513). Guztiz ezaguna dugu ura iturritik etxera igarotzeaz mintzo den beste bat ere, zahar-gazteak konparatzeko: «Gazteak galbahean be ure, zarrak galdaran be ez» (*Garate* 5525).

Gaztetan lan egitea izan ohi da zahartzarorako aseguru berme nagusia, errefrau zahar honek dioenez: «Gaztaro alferrak dakarke zahartze landerra» (*ProvBasq* 185). Oraintsuago, era gaurkotuagoz mezu bera diosku beste honek: «Gaztean alfer, zaharrean lander» (*Garate* 5536).

– Beste iritzi baten iragarle ditugu, gazteak zaharrek eginiko *lan neketsuaren lepotik bizitzeko grina* salatzen dutenak. Zaharrenetariko baten esana da: «Zarrak sagastia ibini ('ipini', 'jarri'), gazteak irazi» (RS 177).

– *Belaunaldien joan-etorriaz* mintzo direnak ere badira: gazteen etorreraz eta zaharren joateaz. Bizitzaren eta heriotzaren etengabeko eta halabeharreko mugimendua. Baten esanean: «Gaztea loak ekarri, zaharra loak eraman» (*Garate* 5515). Bizkaiko berbaeraz esanda: «Gaztea oiek ('oheak') ekarri ta zarra oiek eruen ('eroan')» (*Garate* 5516). Heriotzaren oroimena, dena den, sarri dago presente, zahar zein gazte izan: «Gazteak ordu segurorik ez, ta zarrak eskapurik ez» (*Garate* 5530); «Zaharrak eskaporik ez, ta gazteak segurantzik ez» (*Garate* 13418).

– Irudia, *kanpo-itxura* dugu batzuetan zahar-gazteen diferentziaren ardatz. Eder-itsusien aldea ageri du batek: «Ispilua gazteen kontsolagarria eta zaharren desonragarria» (*Garate* 7458). Eta landareen irudipean, berebat hurrengo honek: «Haritxak axala ametzak bezala, gazteak ez du balio zaharrak bezala» (*Garate* 6369).

– *Gazteen alegera* izan nahia *zaharren atsedean* beharraz aurkaritzan jartzen duenik ere bada. Hala, kasurako: «Zaharra kamantzan ('artzainen ohea'; 'txabola', 'borda'), gaztea dantzan» (*Garate* 13403).

– *Zaharrak lehenaren oroimenetara* eta ohituretara jo ohi duela gehiago, eta *gazteak*, aldiz, *etorkizuneko amets* eta irrikietara beti. Hori aditzen ematera datoz esakuntza batzuk. Baten esana: «Zaharrek, atzo, atzo, atzo! Gazteek, etzi, etzi, etzi!» (*Garate* 13440). Beste hitz batzuekin: «Zaharra iraganak hiltzen, gaztea gerokoak pizten» (*Garate* 13401). Era bertsuan: «Iragana, zaharraren odola; gerokoa, gaztearen axola» (*Garate* 13384).

43

GEZURRA ATARIAN

*Gezurra nesan Getarian;
ni etxean eta hura atarian*

Lope Isastiko historialariak bere errefrau-elebidunen zerrendan, goian datorren eran dakar, bere zahartasun ezaugarri eta guzti (*Isasti* 44). Lehenaren zahar-ezaugarri ageriena, *nesan* adizki trinkoa dugu, bere laburrean gaur egun ‘esan nuen’ aditz-egitura bikoiztu eta luzeagoan adierazten duen balio beraren adierazle.

Gipuzkoako Goierri aldean antz-antzera bizi da gaur egun ere. Hara Zerainen baturiko aldaera: «Gezurra esan nun Getarin; ni baino lehen zan atarin» (Marian Arrizabalaga, informatzailea).

Bizi luzea eta iraupena ezagutu ditu, batez ere erdialdeko hiztunen artean, errefrau honek, aldaera diferenteen bidez. Azkuek bere bilduman hainbat horietariko batu zituen. Batzuk berdinak edo berdintsuak, eta hizkera bitakoak gutxienez. Bizkaierazko baten esana: «Guzurra esan neban atarian, ni baino lehenago zan Getarian» (EY 1578). Gipuzkeraz askoz ugariagoa dirudi, berariaz *Getaria* herri-izena aipatzen dutenak. Goierri inguruko hizkeran bildu zuen Azkuek aldaera hauxe: «Gezur bat esan non (‘nuen’) Getarin, ni baino lehenago zan atarin» (EY 1572). Garateren bildumako batek, herri-izenik izendatu gabe, *etxea*

eta *kalea* aipatzen ditu orokorki: «Gezurra esan nuen etxean, ni baino lehenago kalean» (*Garate* 5663).

Azkuek badakar beste bat, Isastik dakarrenaren egiturakoa, baina adizkia desitxuraturik edo mozorroturik duena: «Gezurra nenzan Getarian; ni etxean, bera atarian» (EY 1572). *Nenzan* adizki bitxi hori *nesan* ezagunagoaren ordainez dagoela ziurta daiteke, eta ez dela **ezan* aditz aoristoaren jokoarena.

Badugu bestalde, «Getaria» herri-izenaren lekuan, *mendia* leku-izen generikoa darabilenik ere, bigarren partean *herria* kide duela. Azkuek EY bilduman dakarren honen kasua: «Guzurra esan neban mendian, ni baino lehenago zan herrian» (EY 1578).

Gezurraren hariari tenk eginez, gizakion joera gaitzetsi horren inguruan diren errefrau, esapide eta sineste batzuk ere biltzera jo dugu bide batez, eta eurotariko gutxi batzuk zabalduko ditugu:

Guzurra *arin harrapatu* ohi dela dioskute batzuek. Guztiz zaharra, baina aldi berean gaur-gaurkoa dugu harako «*Guzurrak* buztana labur» (RS 59) dioena. (Ikus gure lanaren zerrendako 23. esaera: «Buztana lastozkoa duana, suaren beldur»). Gezurra dela eta, gaztelaniaz ere konparagarri zelebrea egin ohi da koxoaren edo errenaren artean, baina euskaraz ere kide hurbila duena. Azkuek Zaraitzun bildua dugu hau: «Gezurra aisago harrapatzeko, ezi ez maingua».

Gezurrak *bide luzerik ez* duelakoa aditzera emateko, egur iharraz konparatzen duenik ere bada: «Guzurraren indarra, biztu orduko igarra» (*Garate* 5687). Eta gezurraren bidez erraz *aberasteko tentazioa* dutenen kontra abertentzia egiten duenen bat ere entzuna dugu: «Egia esateko, eztaukat lotsarik; eztost ('ez dit') bete sekula guzurrak poltsarik» (*Garate* 3313).

Gezurra, *zenbat eta urrunago*, handiago bihurtzen delako iritzia maiz eta zabal errepikatzen den topikoa dugu, inguruko erromantzeetan bezalaxe. Borobil eta soil dio bertsio batek: «Urrunago, guzurrak handiago» (EY 2850). Eta era bihurriagoz beste honek: «Urruneko berbia, guzurra ta ziria» (*Garate* 13140).

Gerrateak ere gezur-habia pozoitsu gertatu dira historian zehar: urrunetik urrunekoa kontaktzen denean, gezurbide eta gezurmendi bihurtzen ei da. Errefrauetan josirik lotu da gizartean aspaldi zaharretik datorren sineste hori: gerra eta gezurra elkarri datxezkiola gehienez. Soil eta labur ebazten du errefrauk: «Guda-urte, *guzur-urte*» (EY 1712).

Gezurra hutsaren hurrengo delakoa erakusteko, *ametsarekin* berdintzen digu Tartas zuberotarrak esaldi honetan: «Ametsa eta gezurra biak bat dira» (*Onsa*).

Gezurtiaren grina, gezurrik esan gabe bizi ezina ei da, ardoa edan gabe egon ezin den mozkorraren antzera. Irudi bizikorrez adierazten digu hurrengo honek: «Guzurra haginak baino aurrerago» (*Garate* 5657). Eta ildo berean: «Guzur baten atzean beste lau doaz» (*Garate* 5644).

Gezurtiari bere gezurra erraz igartzen zaiolako leloa ere maiz aipatu izan da. Nafar errefrau honek dioenez: «Betik guzur erraiten dionak ez du ñor ere engainatan» (EY 2138).

Gezurra eta egia aurrez aurre lerrokatzen dira errefrau batzuetan, bata lotsagarri eta bestea bide-erakusgarri agertu gurarik: «Egi motz bat hoba, guzur luze bat baino» (*Garate* 3321), dio batek. Eta «Guzurak ez daukela egirik, ta egijek be ez guzurrik» (*Garate* 5679), bigarren honek.

Sineskera ezagunak ere badira gezurraren inguruan, eta bat behintzat ondo ezaguna gure herri-giroan, batez ere umeei ohartarazteko nagusi edo gurasoek ahotan hartu izan dutena, gezurra esateak ekar lezakeen

kaltea: «Gezurra esan ezkerro, bekatxoa (‘begi-txindorra’, ‘betorra’) urtetzen da» (*Garate* 5662).

Esapideetara jotzen badugu, esapide lauen artean aipagarri dira honako ezagun batzuk. *Gezur biribila* dugu horietariko bat: «Ori *guzur biribilla* da» (*GizartAuz*). *Gezur anporra* (‘enborra’), beste bat: «*Guzur anporra*, SE DICE EN EIBAR PARA SIGNIFICAR UNA MENTIRA GRANDE. *Anporra* ELÍPTICAMENTE SIGNIFICA LO MISMO. “Aren guzur anporrak sinistuko dittuanik...”» (*LexicEibar*). *Gezur gozoak* eta *zurikeriak* ere bai: «*Txurikerietan ta gezur goxoak* esaten» (*Garoa*).

Gezurrarekin erraz uztartzen den adizki trinkoa dugu *dariola* (edo *zeriola*, iraganeko era) adberbiala eta *gezurra* *gezuraren ganean* esapidea ere bai. Gezuraren ugaria eta *jarioa* irudikatzeko erabiltzen dira, berariaz hizkera bizian: «*Guzurra dariola* dabilenari, ez sinistu ezer!»; edo: «*Guzurra guzuraren ganean* horrena, besterik ez». Eta Lardizabalen hitzez: «Jakob, badirudi, gezurretan zebilela [...], *gezurra zeriola*» (*Lardizabal*).

44

GOSEA ETA EZKURRA*Urde goseak, ezkur amets*

Eztasunean bizi denak, zer jan, zer jantzi, zerez hornitu, guztiaren premia gorrian denak, falta duen horrekin, ez daukantxo horrekin besterik ez du amets egiten. Hori aditzen ematera dator, funtsean, goiko errefrau.

Errefrau honen aldaerarik zaharrena, beharbada, Oihenartek dakarrena dateke: «Urde goseak, ezkur amets» (*ProvBasq* 456). *Urde gosea* egitura hori izenez eta adjektiboz osatua da; *gose* adjektiboa dugu hor, ‘gositya’ adierakoa. Ez da, beraz, Hegoaldeko hiztunek ohituago dauden izen-elkarkuntza, ‘urdearen gosea’, baizik eta: ‘gose den urdea, urde goseztoa’.

Urde izena, txerriari esateko, izen zaharra da zinez, Iparraldeko hizkeretan oraindik ere bizirik dirauena. Euskal hizkerarik gehienetan *txerri* —edo *txarri* bizkaieraz—, *zerri* edo *xerri* hitzek kendu diote lekua.

Izendapen-aldaera hori dela eta, askoz sarriago ageri da harrezkero goiburuko errefrau hori *xerri* edo *txerri* izenekin. Eta Iparraldean bertan berebat. Oxobi bertsozileak hara zelan darabilen: «Bethi *xerri goseak* ezkurretan amets» (*Ox*).

J.V. Etxegarai idazleak ere bertsoz darabil errefrau berau, XIX. mendean Karlos erregeak, karlistaldi-gudua biztu eta bizitu zuenaren arrazoi zitalak agerian ipintzeko. Espainiako erregetzaren jabe egiteko zuen grina eta lehia txerri-goseaz berdindu zuen: «*Ezkurrean ametsa / du txerri goseak, / eta beti Madrillen / Karlos erregeak*» (*Festara*).

Lizardi idazleak ere, gerraurrean argitaratzekoa zen hiztegi baten zain egon beharrari luze iritzita, baina itxaropen-intzirrikatu bat bazuela erakusteko, errefrau honezaz baliatu zen: «*Dalako hiztegi hori ez ote degun arloteok txerri goseak ezkurra baino ametsago*» (IL). Eta aldikide zuen Orixek ere bere poema-liburu nagusian berdintsu darabil: «*Urde goseek, ezkurra amets, duk esana*» (*Euskaldunak*).

Gerraostean Mitxelenak ere, Pio Barojaren *Zalacaín 'el Aventurero'* eleberriaren euskarazko bertsioaren kronikatxoa idazterakoan berriro darabil: «*Zalakain ausarta ez da noski Baroja beldurtia, baina bai Baroja goseak amets duen amets-ezkurra*» (MIH).



Mirande idazleak ere badakar: «Ongi da! Jainkoak benedika ta begira ditzala / bihar arteo beren oheetan / lo-zurrungan eta —*nahiz ez goseak*— / *ezkur-amets bat* dutela» (*Orhoituz*).

Denboran aitzinagora jota, Añibarro idazle arratiarrak ere konparantza iruditzat darabil txerriaren hau, dioela: «[Txarriak] jaten dau aretx ganetik botetan dituezan *ezkurak*, baiña eztau burua jasoten ikusteko nok ezarten deutsezan» (*MisE*).

Ohartzekoa da, bestetik, Bizkaiko tradizioan, *urde* edo *txerriaren* ordez, *txakurra* aipatzen dela gehiago. Hala darabil Mogelek berak XIX. mende hasieran bertan: «Txakur goseak, ogia ames» (*PAb*). Aldaera honetan *txakurra* da animalia eta *ogia* jakia. Eta esakuntza horrekin lotu-loturik dago gure herri-berbetan hain sarri darabilgun *txakur-amesak* izen plurala.

Beste adiera batekoa dugu *ezkurra* mintzagai duen eguraldi-atsotitz bat: «Elur-urte, *ezkur-urte*» (EZBB 93) dioena.

Ezkurra, basarbolen fruitua, errefrau ezagun zaharrenetarik ageri den euskal hitza dugu. Baina, gerora goitu den basarbolen edo haritzen fruituaren ‘kuzkurra’ esanguraz barik, ‘arbola’ edo ‘arbola-zura’ esangura orokorragoaz. Adiera hori dauka, hain zuzen, honako atsotitzotan. Bat: «Zozpolak (‘ezpalak’) dirudi bere egurra, ta egurrak bere *ezkurra*» // LA ASTILLA PARECE A LA LEÑA, Y LA LEÑA AL ÁRBOL (RS 483). Bi: «*Ezkur* berereango ziya» // DEL MISMO ÁRBOL LA CUÑA (RS 182). Hiru: «Iauxi din *ezkurra* oroen su egur» // EL ÁRBOL QUE CAE DE TODOS LEÑA DE FUEGO (RS 198). Eta lau: «Belorita *ezkur* ona, eskeki asko baleuko» // EL ROLLO BUEN FRUTAL, SI TUVIESE MUCHOS COLGAJOS (RS 197).

Alegi eta beste genero batzuetan ere sarri aipatzen dira elkarrekin *ezkurra*, *gosea* eta *urde* edo *basurdea*. Hala Mateo Zabalak bere alegietariko batean: «Ez dok *arte-ezkur*, ta lur-arbietan / zegaz ire gosea ase ugari?» (*Fab*).

Azkonarra ere aipatzen da inoiz *ezkur amets* diren piztien artean: «Azkonarra basuan / aritz-ekurretan» (*MendTx*).

Baita *arratoia* ere behin edo behin: «*Ezkur-urthe* denian bortian bizi dira [garratoinak], eta hango alha bekhandu zeinian, tropaka jausten dira» (*Gazteen Almanaka* aldizkaria).

Urde izen zahar honek, Iparraldekoetan ez ezik, sartaldeko berbetetan ere bizirik iraun du, baina «lauoinekoa» edo «belarluzea» izendatzeko barik, adjektibo figuratibo bezala, gizakioi buruzko kualitate deitoragarriaren balioaz. *Urdeori!* esanez norbait madarikatzeko, edo *Urdangea!*, andrezko bati zuzendua, irainka.

Animalia-izen legez, *basurde* izen elkartuaren barruan gorde dugu *urde* izena: *baso-urdea* > *basurdea*. Baita *izurde* izen barruan ere. Eta gizaki-lanbidea izendatzeko ere bai: *urdezaina*.

Eta hitz eratorri batzuetan orobat. Hala: *urdaia* deritzagu txerriki-jenero ezagunari; *urdantzakia*, ‘urdai-ontzakia’; *urdekia*, ‘txerrikia’, ‘txerri-okela’; *urdandegia*, ‘txerritokia’; *urdekeria*, ‘txerrikeria’; *urdetu*, ‘txerritu’, eta beste gehiagotan.

Toponimian ere ezagunak ditugu: *Urdanibia* (Errenteriatik Irunera), *Urdangarin* (deitura-izena), *Urdazubi* (Nafarroako muga-herriaren izena).

45

HARTU ETA EMAN*Hartzen jakiteko, ematen ikasi*

Euskarazko errefrau-bilduma ezagun zaharrenean ageri den atsotitzak, XVI. mende akaberako bilduman ageri denaren arabera, honela dio: «Dakianak emaiten dakike harzaiten» (RS 187). Itxura edo taxu zaharreko aditz-izenak izan arren (*hartzaiten* eta *emaiten*), aditu ezinik ez dute: *eman* > *emaite*, *hartu* > *hartzaitte*. Eta berorretan ageri dan *dakike* adizki trinko zaharra, geroaldi esangurakoa da: ‘jakingo du’.

Esakuntza beronen askoz oraintsuagoko bertsio baten ordena, *hartzen* eta *ematen*, berbera izan arren, esanahia bestelakoa dutela dirudi: «Jakiteko hartzen, ikas emaiten» (*Garate* 7808). Gaur egun hiztunoi ere burura berez datorkigun ordena eta esanahia. Hartu eta emanaren ordena logikoak hala behar lukeela dirudi: lehenengo eman, gero hartu.

Hartze eta ematearen arteko tenkada horren inguruan, iritzi eta aburu diferenteak eralki izan dira errefrau bidez. Labur-zurrean, hara batzuk:

— Hartzeko, edo hartu ahal izateko, ematen jakin behar ei da. Zabalduen dagoen iritzia seguruenik. Era desberdinetara formulatu ohi da, hala ere. Baten esanean: «Emon ezik, ezta hartzen» (*Garate* 3879). Aipatu bilduma zahar horretako beste hau ere mezu bertsuaren iragarle da:

«Adikatzen da emaillea eta ez arzaillea» (RS 277). Esan nahi baita, eman eta eman ibili beharra nekagarri eta kantsagarri bihurtzen dela emaillearentzat, baina ez, aldiz, hartzekodun gertatzen denarentzat. Giza harreman luzarokoak ere *hartu eta emanaren arteko orekan* irauten dutela, baina «hartu» hutsaren, «eman» gabeko hartuaren egoera hauskorra dela aipatzen da atsotitz batzuetan. Horretara dator Pedro Mari Etxezarraga informatzaileak Zeanurin baturiko esakuntza bat: «Hartu, urtebete; hartu eta emon, ehun urte» (Pedro Mari Etxezarraga, informatzailea).

— *Gutxi eman eta asko hartzearen lehia* izan ohi da beste mezu ohikoetarikoa. Beste era batez esanda, eman edo eskaini dena baino gehiago hartzeko txutxuan egotea. Hainbatxo dira errealitate gordin lazgarri hau salatzeraz datozen esakuntzak.

Bertsio batzuetan *bat* eta *bi* zenbakien bidez neurtzen da eman eta hartuaren arteko desberdintza. Modu soilean formulaturik: «Bat eman eta bi hartu» (*Garate* 1985). Era hornituagoan esakuntza bera, epai zorrotz batez zamaturik: «Bat eman, ta bi hartu? Gure etxin ('etxean') ez berriz sartu!» (*Garate* 1986). Bada Bizkai parteko aldaera bat, *bi* zenbatzailearen eta *dirudi* adizkiaz errima eginez, poesia-usain beteagoa jadetsi duena: «Emona bat, hartua bi; emonak galdu dirudi» (*Garate* 3900). Eta arotziako lanabesak irudi direla, mezu beronen adierazgarrirako honako beste hau ere badugu: «Iltzea eman eta mailua hartu» (*Garate* 3887).

— «Hartuan dagoena» *harturenaren* zain dagoke, baina halabeharrez «emanean dagoena», zordun dena, kezkatuago eta batzuetan larrituago egon ohi da, errefrau batzuen esanean: «Emotekoa baino, hartzeko dauena hobeto dau ('dago')» (*Garate* 3913).

Hartzeko beti prest, hartu eta hartu bai, baina *emateko konturik ez* daukana lotsa gorrian ipintzera datoz beste atsotitz batzuk. Baten esana: «Hartu bai ta eman ez, ezin diteke lege onez» (*Garate* 6430).

Emateak ordaina dakarrela berekin gogorarazten zaigu beste batzuetan. Era askotara formulaturik, nahiz mezua bat eta bera izan. Harturenean dagoenarekiko zorra: «Hartuak, emana zor» (*Garate* 6444). Edo: «Ematen duenak ordaina ikusi nahi» (EY 2274). Edo: «Hobe da hartzeko txarra, emateko ona baino» (*Garate* 6925).

— Ikuspegi morala datza hurrengo honen azpian. *Emailearen eskuzabala* eta *hartzailearen bete beharra* gogora ekartzen digu berean. Ematen dena ahaztea hobe ote den, baina hartzen dena akorduan gorde beharra dagoela ohartarazten zaigu. Ekialdeko aldaera eder baten hitzak: «Eman oroitu gabe eta har ahantzi gabe» (*Garate* 3882). Eta Bibliaren gomutara garamatzan Hegoaldean ezagunago beste honen esana: «Ezkerreko eskuak eztu jakin behar eskubikoak zer ematen duen» (*Garate* 4896).

Eta akabera moduan, esankizun ezagun baten mezua: norberari ematen zaion horri ez zaiola aitzakiarik ipini behar, ez mutur-astintzerik erakutsi. *Jera ona egin* behar zaiola: «Nahiz gari, nahiz galtzu, emana bada, ixilik hartu» (*Garate* 5347). Gaztelaniaz, ez laborearen irudiaz, baizik eta zaldiarenaz ezagunago bihurtu da, dioelarik zaldi oparituari ez zaiola ortzetara begiratu behar.

46

HILDAKOARI SALDA BEROA

Hil eta gero, salda bero

Gaztelaniaz hots handiagoa duen errefrau ezagun bat bada, herri-erregistroan zein goi-hizkeran maiz ahotara ekartzen dena, asto hilari buztanera garagarra ezartzea aipatzen duena. Asto hilaren irudia, nolana ere, nekazari gizartekoa dugu, eta garagarra jaten ematearena orobat. Astoaren buztanaren aipamena ere baserri-giroko tradizio-gizartearen ispilu da. Baina irudi zaharrok ez diote indarrik batere kentzen errefrauari. Gizarte modernoan eta hiztun kaletarren artean ere bala-bala dabil, ez astorik hurrean ezagutu, ez garagarra zer den ez dakiten «kalekumeen» artean ere.

Hizkuntzarik askotan dira, gehienetan esango nuke, *hil osteko on* edo *mesede eginak* alferrekoak direlako mezua iragartzen dutenak, era batera edo bestera. Latinez badugu, ulertzen guztiz erraz den bat: *POST BELLUM AUXILIUM* (*Garate* 2471). Eta bigarren batek ere, era bihurriagoz, ideia berari indar egiten dio: *UTILE NON EST CONSILIUM POST FACTA DARI, QUOD OPORTUIT ANTE* (*Garate* 3317). Aholku, mesede edo on egina, hil ostean egitea alferrekoa dela, alegia; behar denean egin behar dela; sasoiz eta garaiz.

Euskaraz astoaren irudirik nekez darabilgu errefrauetan; gizakiarena askoz gehiago: hiltzen den hori pertsona bat denekoa. Eta on eginarean

mesedetzat opatzen zaiona, behin *salda beroa*, behin *oilo-salda*, edo baita ere, hirugarren batek iragartzen duen *medikua atetara*.

Gaixorik dagoenari *salda beroa* ematea, edo seinia egin duen emazteari *oilo-salda* opatzea, tradizioko sendabide naturalak izan dira gure herri-gizartean, hamaikatxo aldiz entzun izan ditugunak. Bizirik dagoenari opatzen zaio edozelan ere salda beroa, ez behin hilda dagoenari. Errefrau-aldaerarik ezagunena, goiko hori dugu: «Hil ta gero, *salda bero*» (*Garate* 6729). Ironiaz beteriko irudia, burlazar esaten dena. Azkuek bere bilduman beste era honetara dakar: «Hil eta, salda beharrik ez» (EY 2510). Eta hirugarren bat ere, aurrekoon kidea: «Hil eta gero, *oilo-salda*» (*Garate* 11623).

Hil ondoko erremedioen alferrekoa gogoratzera datoz errefrauok. Beste hitz batzuekin, hara D. Intzak nolako azalpenak erantsi zizkion goiko errefrau horri argibide gisa: «Gaxoa hilda ondoren apaizari dei egitea bezela».

Mediku, *osagile* edo *barberua* hil osteko egoeraz parekatzen duten errefrauak askotxo dira, ia beti mezu beronen ildoan atonduak. Batek, ironia-puntu batez dio: «Hil eta gero, *medikua atetara*» (*Garate* 6734). Bigarren batek: «“Ekilikua!” hil ta ostean ekarri medikua» (*Garate* 9560). Eta hurrengo honek epaia are gordinago ematen du: «Hil ezkerro ezta medikurik biher (‘behar’)» (*Garate* 6735).

Salda ardatz duten esakuntza gehiago ere badira, beste ideia edo kontzeptu batzuekin loturik. Hala, batek *ezkontzaz* kidetzen du: «Saldea eta ezkontzea berotan». Gauza bakoitza bere sasoian egin behar dela azpimarratzeko.

Bigarren batek ere atentzioa eman digu, eta *bero* egon beharreko salda *hotzik* ateratzearen zentzungabea salatzen du: «Salda hotza ta ardo beroa, gauza eroa» (*Garate* 11618).

Hil ondoko egoerarekiko gogoeta azkentzeko, errefrautegian isurtzen diren pentsakizun ugarien artetik hiru nabarmenduko ditugu.

Azkuek behinola gogorarazi zigun bezala, gu *hil eta gero ere munduak bere bidea* egingo duela, edo herri-berbetan esan ohi den bezala, «munduak ez dau faltako», edo antzeko iritziak ematen dituztenak ditugu. *Astoa* eta *errota* iruditzat harturik onduriko hau dugu ezagunenetakoa: «Gu hil ta gero be, astoak errotara joango dira». Azkue gure folklorezale handiak *Ibaizabal* aldizkarian honela argiratu zuen beronen esangura: NADIE ES IMPRESCINDIBLE PARA LA MARCHA DEL MUNDO. (Ikus gure lanaren zerrendako 35. esaera: «Errota on da dabileno, ez geldirik dagoeno»).

Bigarren gogoeta bat, harako Landuccioren Gasteiz eta inguruetako euskal hitzen glosario zaharrak amaieran duen epitafioan sendotu nahi den gogoeta: «Iltean hil nintzan, eta aztu nintzan» (*Landuccio*), hori bera berritzen duten errefrauena. *Hilen eta biziaren arteko kontrastea* indar biziagoz irudikatzen dute hautatu ditugun hiru hauek. Bat: «Hila lurpera, biziak mahaira» (EY 2513). Bi: «Hila lurpera, gosea baratzer» (EY 2514). Eta hiru: «Hila hobira, bizia zarera» (EY 2515).

Eta hirugarren gogoeta, *heriotzarekin amaitzen direla zorigaitz*, izurri, hondamendi eta kalteak, gogoraztera datorrena. Gaztelaniaz txakurraren eta izurriaren irudiaz jokatzeko duen errefrau ezagunak ordain bat baino gehiago ditu euskaraz, baina zeharo bestelako irudien bidez mezua berresten dutenak. Hona bat: «Zuloa itxi ezker, haizerik ez» (*AprVas*), Joakin Dorronsorok bildua.

47

IKUSI ETA IKASI*Asko ikusi dauenak, asko ikasi daroa*

Gaurko eran, «Asko ikusi duenak, asko ikasi ohi du» esango genukeena. Esakuntza hau aditz biren inguruan ehoa da: *ikusi* eta *ikasi*. Euskal tradizioan ere, beste hizkuntza eta kultura batzuetan bezala, hertsiki loturik ageri dira maiz aditzok: ikusi izan dugun hori ei delako gure ikaskuntzaren zimendu. Begiz dakusaguna, adi egonik arduraz eta arretaz geuganatzen dugun hori, da gure ikasbidearen zutarri.

Mogel idazleak *Peru Abarka* obra barruan elkarrizketa-giroan txertatu duen esakuntza ezaguna dugu goikoa. Hizkeraren aldetik, bitxi eta bakan egiten zaizkigun aditz birekin josia: *dakus* aditz trinkoa eta *daroa* laguntzaile ohiturazkoa.

Zein ingurunetan darabilen idazleak? Maisu Juan barberuaren ahoz, barberuak medikuen pare, berdin edo hein bereko direlako argudioa sendotzeko. Hala dio barberu kaletarrak:

«Zuk ez dakizu zer dan barberu izatea. Lengo barberu txarrak ibili oi zirean desonretan euren ofizio onraua; batuten zirean tabernetan eta nonnai; gitxi estudiau, eta gero, il edo bizi, errezeta bat egin, botikako asko artu eragin, erremienta txarrak

euki eta, barriketa batzuk nekezaleai esanda, trago galantak ezarrita, mediku jakitun batek baino fama geiago euki eroen. Baina gaur medikuen pare gara. Asko aurreratu da zirujian. Ni egon naz Madrilgo ospitalean urte bian. Asko ikusi dot; eta *asko dakusanak asko ikasi daroa*» (PAb).

Hori guztiori argudiatzen du Maisu Juan barberuak, itxuraz «euskaldun txar» modura aurkezten zaigunak, baina Mogel idazlearen luma zorrotz eta joriaren etorri oparoa bere ezpainetatik ohartzeko dariona.

Esanguraz hurbil-hurbila dugu, hizkeraz guztiz bestelakoa izan arren, Oihenart zuberotarrak bere atsotitzen artean dakarren bat. *On eta gaitzen berri jakin* darabil batetik, eta *anitz herri inguratu* bestetik. Dio: «Anhiz daki on eta gaitzen berri, inguratu dituenak anhitz herri» (*ProvBasq* 485). «Anitz herri inguratu», herri askotan barna ibiltze ohartuak egin dituen batengatik dihardu; haren esperientziaren irakatsia balioesteko.



Badugu bilbotar idazle euskaldun berdingabe bat, Mateo Zabala idazle sermolari frantziskotarra, eztaietara doazenak oro har bekatari handiak direlako argudioa indartzeko dioena: «Gizon jakitun batek, *asko ikusi ta asko entzun ebanak*, esan eroian eze, bera pozik legokeala, ezteguetara doazan bakotxaganik diabruak ogeina pekatu mortal baino aterako ezpaleu» (*IrunSerm*). Jakituria handiko gizona, munduan barrena ibiliak ibili eginda asko ikusi eta asko entzun izan duen hori dela guri erakustera dator idazlea.

Denboran honantzago etorrira, Domingo Agirre idazleak ere berriz joko du esakuntza honen ardatzera, *asko ikustea zerbait jakitearekin* kidetzen duela. Honetara dio: «Etzan Joanes jakituri handikoa, baina bai *asko ikusia*, ta *asko ikusi duan gizonak beti daki zerbait*» (*Garoa*).

Mezu hori bera adieraztera datozen beste hainbat errefrau ere dira, *ikusi* eta *ikasi* aditzekin jostura eginez, gaurdaino iraun dutenak herri-jakintzaren oroimenean: «Asko ikusia, asko ikasia» (*Garate* 1379), dio batek labur, *ikustea* eta *ikastea* gradu berean doazela gorantz iragartzeko. «Ikusiago, ikasiago» (*Garate* 7182), diosku beste batek, konparatze-egitura paraleloez ehorik: zenbat eta gehiago ikusi, hainbat eta gehiago ikasi. Eta badira beste batzuk, era leun soilagoz diotenak: «Ikusia, ikasia» (*Garate* 7181) dio batek; eta «Zer ikusi, ha ikasi» (*Garate* 7179), beste batek.

Baina aipa ditzagun, bestetik, kontrako mezuen iragarle diren esakuntzak ere, *ez ikusi*, *ez ikasi* ezezkako aditzen ondorioez mintzo direnak. Ezezkako kate honetan ere, *ez ikustea ez ikastearekin* estu loturik dugu, baiezkakoetan bezala. Txikitan sarri entzun dudana esaera batek, ahuntz-erदारान-edo, hauxe dio: «EDUCACIÓN DE 'BASERRI': *ez ikusi, ez ikasi*». Baina ez da zertan baserria aipatu ondorio horretara heltzeko. Iparraldekoa dugun beste honek, norbere inguru hurbiletik jalki ez direnen jakituria urria salatzen digu. Hala: «*Guti ikusi, guti ikasi*» (*Garate* 6168).

Berebiziko ondoen datozkit harira, behinola, *oilalurra* izenaren esangura argitu nahirik, Bitoriano Gandiaga idazleak Arantzazuko bibliotekan kontatu zizkidan pasadizotxo bi. Lehenengoa, Oñatin andre zahar bati entzun ei zion berak esaten: «Guk geure *oilalurretik* ez dogu idxe ('ia') urten»; Gipuzkoatik, hurtasun horretatik urrunago sekula irten gabea zela aditzera emateko. Eta bigarrena, Arratzu-Mendata inguru horretako beste pasadizo bat; baserri ezagun bateko andre edadeko batek berari kontatua. Australian zituen senide hurrekoek gomita egin omen zioten hara eurak bisitatzera joan zedin, baina berak ezetz. Eta erabakia hartu orduan egin zuen gogoeta, hurrean: «Guk geure *oilalurretik* sekula urten ez dogunok zer egingo dogu Australiara joanda, ba?». Aurreko mendearen azken urteetan izan zen *oilalurraren* gaineko gorabeheren berriketalditxo hau.

Eta *ikusi-ikasien* autualdi honi akabera emateko, dakartzagun hona, esperientziak ematen duela jakituria abertitzera datozen esakuntza pare bat; bi-biak jakituria *deabru* zaharrarekin kidetzen dutenak, labur bezain zorrotz: «Deabrua adintsu, horregatik jakintsu» (*Garate* 2928), dio batak; eta «Diabruak, zarra dalako daki asko» (*Garate* 2934), besteak.

Nolanahi ere, kordel honetatik gehiago agintzen ez dugu segituko, ez dedin luzeegitu...

48

INTXAUR URRUNA

*Urrungo intxaurra burua laso,
jarrekin ez ekidan herrikoa laso*

Goiko hori errefrau honen lekukotzarik zaharrentzat jo daiteke, idatziz heldu zaizkigunetarik. xvi. mendearen akaberako aldaera honek hala dio: «Urrungo *intxaurra burua laso*, jarrekin ez ekida<n> *errikoa laso*» (RS 344). Hau da: «Urruneko intxaurra burua lakoa (handia, esan nahi da), baina ez neban topau herrikoa lakorik». Perifراسi baten bidez adierazi nahi bagenu: urrunekoa eder ikusten da, harik eta norbera bertaratu arte, baina behin hurretik ikusi edo ezagutuz gero, hurrekoa baino hoberik ez dagoela ziurtzat jotzeko.

Badira *urruneko intxaurra* aipatzen duten esakuntza batzuk, zenbakiekin jokatzen dutenak: *zenbat intxaur* diren, urrunetik edo hurretik begiratuta. Aldaera bat baino gehiago, banangoak, dira.

Arratian lekutu den bat *lau* eta *hamalau* zenbakiekin jostatzen da, etorki bereko zenbakion artean puntua jagonez: «Urruneko intxurrak hamalau, bertara joan ta lau» . Badugu beste aldaera bat, *bost* eta *hamabost* zenbakiekin jokia egiten duena, intxaurrek elkar jotzean egiten duten *hotsaren* irudia tartean hartuta: «Intxurrak bost, hotsak hamabost» (EY 2531).

F. Arrese Beitia olerkari otxandioarrak ere irudi berau darabil, bere bertsogintza ugarian garandu ohi duen horietariko bitxi batean: «Urrineko intxaurrak hots andiak daukez, / bertara heldu eta benturaz baperez» (*AmaE*).

Azkuek era diferenteetara baturik eskaini digu. Bat: «Urruneko intxaurrak begia laso, etxatan ('ez jatan') jaurri ('egokitu') hurrekoa laso» (EY 1113). Bigarren bat: «Asaoko ('asagoko', 'urruneko') intxaurrak lau laso, etzan sortu hurrekoa laso» (EY 1964). *Laso* atze-hitz modal zaharra, tradizio idatzian ere bakan ageri dena, baina *laso*, *lase* aldaerapean hitzez oraindik ere sartalde-hizkera batzuetan indarrean dagoena, gorde izan da errefracu modernoetariko batzuetan; 'legetxe', 'bezalaxe' ezagunagoen senide zaharra.

Badira beste batzuk ere, *urruneko intxaurraren* irudipean konparagarri zoragarriak eskaintzen dituztenak, baina mezu beraren gordailu. Batak dio: «Urruneko intxurre beti handixe eta etzekoa ('etxekoa') txikixe» (*Garate* 13.142). Eta besteak: «Urrineko intxaurrek die garaun bikotxak ('garau bikoak')» (*Garate* 13.144).

Emeterio Arrese idazle tolosarrak ere bertso batean urruneko intxaurraren irudia darabil: «Urruti dauden gauz haiek beti intxaur alien modura, / bakan izanik hartzen ohi dute pilla galantan itxura» (*NereB*).

Dakartzagun gogora bide batez, neska-mutikoeak (lehenagoan mutikoak sarriago), etxerik etxe kantatu izan dituzten eske-kopletan, negualdi gorrian, eskatzen zituzten *intxaurrak*, *hurra* edo *gaztainak*... Adibide adiutua dugu Bediako hiztunengandik batutako hurrengo hau: «*Titirentañe*, / *Marimontañe*, / intxurtxu bi / ta hiru gaztaiñe».

Urruneko hori zer izan daiteke, intxaurrez ostean, gure errefracutegian mezu berarentzat? Bestelako motiboak ere azaltzen dira, iruditzat erabilirik.

Egur iharra, edo *egur igarra* bizkaieraz, entzun nion aspaldi, Bernardo Arejita neure osaba Mendatako semeari, adinean gora zihoala. Hark, *egur igarra pobrearen arrazoiagaz* berdintzen zuen esakuntza barruan: «Pobrien errozoie ta urruneko basoko egur igerra, bardinek» (Bernardo Arejita, informatzailea).

Lapikoa, *eltzea*, *tupina* edo *dupina* —eta *topina* bizkaieraz—, *edarra*, hau da, janari-edarientzako ontzi motaren bat aipatzen dutenak ere ezagunak dira. *Eltzea* aipatzen du erdialdeko batek: «Urrutiko eltzea urrez, hurbildu eta lurrez». *Dupina* darabil Iparraldeko hurrengo honek: «Urruneko dupina urrez, ondora orduko lurrez» (*Garate* 13141). Eta Bizkai aldekoa den beste batek *edarra* aipatzen du, gaur bakan entzuna den ontzi-izena: «Urruneko edarra baino, etxondoko eskasa hobie» (*Garate* 3233), *eder* eta *edar* hitzen sinonimiaz joko eginez.

Eltzea eta *eliza luzea* konparagarritzat harturik, eta izen bien hoskidetasunai hobaria aterata, irudimenean urrunago doan baten esana: «Urruneko eltzeak, eliza bezain luzeak» (*Garate* 3765).

Urruneko *parientea*, *senidea*, *ahaidea* edo *haurridea* izendatzen dizkigute beste esakuntza batzuek, eta *hurreean* bizi den *auzoarekin* berdindu. «Urruneko senidia baino, auzo ona hoba da» (EZBB 14), dio Aita Zabalaren bildumako batek. «Haurride urrunekoa baino, hobe auzo ona» (*Garate* 6561), dio ekialdeko beste batek; eta «Ahaide urrunekoa baino, auzo huna hobe» (*Garate* 246), hirugarren batek. (Ikus gure lanaren zerrendako 10. esaera: «Urruneko senidea baino, auzoa hobe»).

Urruneko *neskea*, *andrea* aipatzen dutenak ere ez dira falta. *Anderauren* izen zaharra, ‘andere goren, andere handia’ iruditzat hautaturik, Iparraldeko erretrauetako batek dio: «Urruneko neskak, andrauren hots» (*ProvBasq* 473, *Saug* 188). Eta sartaldean ere badu berorren kide-kideko atsotitz bat, mezua askoz zuzenago emanez: «Urruneko andrie baiño, hurreekoa hoba» (*Garate* 863).

Amaiera gisa, *eztegua* edo *eztaia*, ezkontza-ospakuntza iruditzat harturik onduriko honako hau dakargun azalera: «Urruneko eztaiak urrez, heldu ta lurrez» (*Garate* 5001).

49

IRAILA EDO BURUILA*San Gil, iratzea ebakitzea zil*

San Gil egunaz abiatzen da iraila, Nafarroako errefracu batek dioen bezala.

Irail izenak ira-ebateetara garamatza. Ira-ebakitzea irailarekin hasten dela gogoratzen. Udaldiko uzta-batze eta lurgintza zikloaren akaberan, basora irak ebaki, azpigarria pilatu eta etxeratu, negurako ganaduak ukuiluan azpiak ondo eginda eduki ditzan, azpigarri-metak franko etxe inguruan. Gero, behi, txahal eta idiei azpiak atera ostean, simaurra izan dadin, hurrengo udaberrian sats-piloetatik soro eta alorretara zabaltzeko, hurrengo uzta onaren esperantzan. Nafarroako errefracu batzuk dira mezu hau gardenen darakustenak. Batek dio: «San Gil, *iretzia ebakitzea zil* ('zilegi', 'libre')» (NEZ 1916).

Errefracu hau jasoaz batera, azalpen luzea eskaintzen digu D. Intza biltzaileak, beste errefracu batzuetan soilago ematen duen argibidea, nolabait Azkuek bildu zuenean emandako iturri-informazioekiko zalantza erakutsiz: «San Gil irailaren ('buruilaren') lehenengo egunean da. Ez dakit esaera hori Ultzamarako ongi datorren. Han beranduxeago hasten zen iratze-ebakitzea; hilaren 21a (San Mateo eguna) zen hortarako egun jakina. Egun hortan, goizean goiz, argitu gabe, joaten

ziren larrera, zein bere iratze-saila ebakitzen hastera, ez lehenago. Esaera hau ez ote da Baztangoa? Azkuek hala dakar».

Hilaren izenaz dihardugula, edozelan ere *iraila* ez da zabal dabilen izena urtearen bederatzigarren hil horrentzat. *Urri* izenak, edo *urri lelenkoa* ('urri lehenengoa') izenak estaltzen du hizkera batzuetan izen horren eremua. *Agorra* esaten zaio Gipuzkoarik gehienez, eta ekialdean, Nafarroan eta Iparraldean, *buruila* da nagusi. Agustin Kardaberaz idazle hernaniarrak ederki kateatzen ditu hil-izenok sinonimiaren legean: «Urteko illen erdiak izen bana, besteak biña, ta iruna dute (...) 9. *Burulla, Iraila, Agorra*» (EBO).

Agorra, geroago *agorrila* ere deitu izan zaiona, hil-izen bezala atzeraka joan da halabeharrez, hitz horrek izen zein adjektibo bezala beste esanahi oinarritzokoago bat duelako, lehorraren eta sikatearen inguruan. Graziano Anduagak bertsoz ezarri zuen bezala: «*Agorra agor* etorri zaigu, / garaillari haize txarrak, / desegindurik arbiak eta / alpapa ta birbelarrak» (*EgunTx*).

Hil horretan zelebratzen da Santikurutze eguna; «Santa Kruz Agorrekoa», Iztuetak izendatzen duen gisan, eta «Santa Kurutz Buruilekoa», aintzinago, eta Andre Mariaren eguna, «Andra Maria Irailgo», Bizkai aldean ohi deritzan gisan.

Ez dira asko *irail*, *agor* edo *buruil* hila ardatz duten erretratuak; hilaren izena aipatzen dutenak behinik behin. Bat edo batzuk badira, hala ere.

Buruil izena aipu dutenak Iparraldekoan ditugu ia beti, Nafarroa Beherekoak, zehazkiago. *Buruil* hil-izena ere hangoxea dugu-eta batez ere. Uda-aren buruan gaude nolabait, artoak ere orduantxe dira burutzen, *buruilean*.

Eta erretratuotariko batzuk berariaz aipatzen dute *udatearen burutzea*; edo zehazkiago, *udatearen eta negutearen igarobidea* dela gogorarazten

digute. J.M. Satrustegik Baigorriin jasoriko batek dio: «Buruila udaren buztana, ta neguaren hastapena» (CEEN). Eta beste hitz batzuez, iragarpen bera hurrengo honek ere: «Buruilak uda ez hiltzen, baina neguaz oroitzen» (EZBB 74).

Eguraldia dute gogoan beste batzuek. Hala, irail edo buruileko eguraldia maiatzekoaz berdintzera dator hurrengo hau: «Buruila, larrazkeneko maiatza», hau da, udazkeneko maiatza.

Eta iraileko euriaren mesedegarritasuna beren-beregi aipatzen zaigu batzuetan, berariaz mahastiei, ardantzei dakarkioten mesedeagatik. «Buruilaren uri goxoak barririk betetzen», dio ardanlurretako atsotitz batek. Antz-antzeko mezua bigarren honek ere: «Buruileko uriek mahastia ontzen». Eta taxu berekoa dugu hirugarren hau ere: «Buruil hasteko uria, mahastiaren edaria».

Gau-egunen iraupenaz mintzo da Nafarroako beste erretra bat: «Marxoaren erdin, gau ta egun berdin; irailaren erdian ere bai» (NEZ 1248).

Irailaren akabera Jaundone Mikelen egunaz ailegatzeko delako gomutatzen digu azkenengo honek: «Buruilaren ondarra, Jondone Mikele» (OE). Herri-kantu batek era honetan apaindu duen atsotitza dugu hori: «Buruilaren ondarra, Jondoni Mikele; / maitia, ikustera heldu naiz ni ere».

50

ISATSA EDO BUZTANA

Bati isatsa kendu eta besteari erantsi

Batari kendu behar izatea beste bat hornitu behar izateko, irudi diferenteen bidez hizkuntza askotako errefrau eta esamoduetan argitara ematen den mezua dugu. Azken finean ez dago aurrerakuntzarik, ez hobekuntzarik, ez gehikuntzarik. Leku batetik kendu, hutsunez ikusten den beste batera eramateko.

Gaztelaniaz ere ohiko esakuntza bat bada, mezu beraren eroale, baina *santuaren* irudia eta *janzte-eranztea* elkartzen dituena: santu bat erantzi beste bat janzteko.

Isatsaz edo buztanaz jostatzen da goiko errefraua, *kendu* eta *erantsi* aditzen kontrako balioez lagundurik.

Mezuz hurrekoa dugu Mogel idazleak idatzirik utzi zigun honako hau: «Inorenaz janzten dana, bildur da biloztu ez dagien» (*PAb*). *Janztea* eta *biluztea*, *soinekoa* eta *soinekotu* hitzen irudiez onduriko errefraua ez dira falta, euskaraz ez ezik, gaztelania eta beste hizkuntza batzuetan ere bai. Gaztelaniaz hainbat ezagunagoa dugu euskarazkoa baina, harako hura dioena: AL QUE DE AJENO SE VISTE, EN LA CALLE LE DESNUDAN; edo beste hitz batzuk erabiliz: QUIEN DE LO AJENO SE VISTE, TEME QUE LO DESVISTAN.

Ingelesez esaten da: TO ROB ONE'S BELLY TO COVER ONE'S BLACK. Alemanez ere kide-kidekoa dugu irudiz eta hitzez, hauxe: WER IN FREMDEN KLEIDERN AUSGEHT, KOMMT NACKT WIEDER HEIM. Berdintsu italieraz dugun honako hau ere: CHI DELL'ALTRUI SI VESTE, BEN GLI STA MA TOSTO ESCE. Eta frantsesez, mezu bertsuarentzat, otorduaren irudia darabil esakuntza batek: CELUI QUI COMPTE SUR LA SOUPE DES AUTRES, VA SOUVENT DORMIR SANS SOUPER.

Baina gatozen atzera *isatsaren* eta *buztanaren* irudietara. Mezu hau berau darabilten esakuntzak ugariak dira, bai Ipar, bai Hego. Agian ugarixeagoak erdi eta sartaldeko hizkeretan, *buztan* sinonimoaz jokutzen dela. Azkuek aspaldi bildu zuen bere errefrautegian, goian ezarri dugun aldaera bera: «Bati isatsa kendu ta besteari erantsi» (EY 2084). Gipuzkera-eremuko dugun batek dio, Aita Zabalak bildu zuen eran: «Buztana bati kendu ta bestiari ezarri» (EZBB 75). Eta nafar inguruneko da Garateren hurrengo hau: «Alde batetik puztena ('buztana') kendu eta bertzean paratu» (*Garate* 510).

Buztana edo isatsa abereren batena izan ohi da, nahiz atsotitzetan ia inoiz aipatzen ez den. Zein abererena? Astoarena behintzat noiz edo noiz aipatua da: «Asto bati buztana atara eta bestieri sartu», esaten da leku batzuetan (*Garate* 1419).

Euliak kentzearen irudia ageri zaigu, abererik izendatu barik, mezu bera-
ren adierazgarriko hainbat errefracutan, Iparraldekoetan eta ekialdeko
hizkeretakoetan batik bat. Azkuek bilduman dakarren gisan: «Bertzeren
buztanez uliak ('euliak') kendu nahi dituen, ardura uliekin gelditzen
duk» (EY 417). Eta nafar hizkeran Garatek bildu zuen gisan: «Bertzen
buztanekin uliyak kendu behar dittuna, maiz uliyikin» (*Garate* 2890).

Eta erranairu andana dugu, aurrekoon aldaeratzat jo daitezkeenak. Batek dio: «Bertzen buztanez uliak kasa» (EF). *Kasatu*, gutxi entzuna den aditza, 'bota', 'uxatu', 'airatu' adierakoa. Hiriart-Urruti kazetari zoliak ere honela utzi zigun: «Baitire halakoak ere; bertzen buztanaz

uli haizatzaile batzu onak» (*MintzAurp*). Luzaideko kantu baten hitzetan ere era bertsuan: «Kontratistek sarri diuzte / garbi beren buriak, / bertzen buztanez aisago / kentzen diuzte uliak» (*LuzaidKant*). Eta gipuzkera-eremuak diren ondoko biotan ere antzera: «Bertzen isatsakin euliek kendu» Etulainen jaso, eta «Besteren buztanarekin euliak kendu nahi» (EZBB 580).

Jende harroxkoari, duen harrokeri horrek gainez egiten dionean ahoratu ohi den atsotitza da hau, A. Zabalak eta G. Garatek antzeko eran bildurik dakarten honetan argiro ispilatzen dena: «Gizon harroak egiten du, besteren isatsarekin euliak bialdu eta besteren lumakin apaindu» (EZBB 1349); eta: «Harroa, inoren isatsarekin euliak kendu eta besteren lumakin apaindu» (*Garate* 6418).

Hizkeren arteko bereizkuntzetan aipatzekoa da, *besteren* edo *bertzeren* izenordain zaharraren lekua, erditik sartalderantz *inoren* izenordainak hartu izan duela gero eta gehiago, eta ordezkapen horri esker garatuak dira *inorenaz janzten dena* tipoko espresioak.

51

JANA ETA LANA*Jan eta lan*

Latinez guztion ezaguna den atsotitz bat bada, latinik ez dakien edozeinek ulertzeko modukoa: PRIMUM VIVERE; DEINDE PHILOSOPHARE. Gaztelania eta Europako beste hizkuntzak ere *bizitzea* eta *gogoeta egitea* aditzen adiera bertsuez baliatzen dira burutapen hori bera aditzera emateko.

Goiko euskarazkoan, aldiz, *jana* eta *lana* kordatzen dira, biak sekuentzia berean. Hor ere *jatea* aurreragokoa da, *lan egitea* baino. Sineste horri darauntsa behinik behin goiko atsotitzak. Edozelan ere, euskaldunon mentalitatean sinesgarritzat jo daiteke, *jana* eta *lana* uztartzen dituen hitz-katea hurragokoa dugula, *bizitzea* gogoetaz eta *gogohausnarraz* lotzen duena baino. Agian, ekintzara hobenduagoa izan delako tradizioz euskal jendea, geldi egonean pentsatzen eta buruari eragiten ibiltzekoa baino? Pio Barojaren Zalakain *Abenturazalea*, edo Cervantesen EN PALABRAS PARCO PERO EN HECHOS LARGO zelako bizkaitarra bezala? Ezin ziurtatu, senak eman bai, ostera.

Hala bada, *jana* eta *lana* elkartzen dituzten errefrauak eta aldaerak ditugu oparoenak gure erreperatorioan. Hitz monosilabo bi eta errima berekoak: «*Jan ta lan*» (EZBB 1492). Laburrean hain irakatsi trinkoa

demaiguten beste gutxi izango dira. Badu, hala ere, iritzi bera luzexeago eta itzul-mitzul eran dioena: «Jan behar badek, lan egin beharko dek» (EZBB 1490).

Ironia-puntu batez, latinezko esaera horri jira-buelta ematen dioten euskal ordainak ere asmatu dira gure euskaldun ikasien aldetik, latina eta euskara nahasiz, euskaldunon herri-filosofiarri umore pitin bat ezarri nahirik. Horietarikoa dugu, inoiz Arantzazuko *tako* famatuan ere irakurri izan dugun bat: «*Filosofia* baino, hoba *oilo-zopea*», Garatek ere jasorik dakarrena (*Garate* 5085).

Jan eta lan euskal taxuko horren bidetik garatua dugu, alfertasunari gorazarre egin gurako beste ezagun hau ere: *jan eta lo*. Lanaz nekatua, edo gogaitua, dagoen bati erraz ematen dio buruak, tokatzen diren ordue-tatik gora lanean jarduteak ez dakarrela atze onik, eta hobe duela loari ematea ordu soberakinok, atsedenean eta bake santuan. Hona hemen A. Iturriaga idazle hernaniarrak dakarren bertso bat, erleei buruz mintzo dela mezu hori gorderik daukana: «Eta, negu gogorra / etortzen danean, / *jan ta lo* hantxen daude / deskansuz eultzean» (*Iturriaga*).

52

JANTXAKURRA

Jantxakurrarena egin: ez jan, ez jaten itxi

Lumoko alaba den andre bati entzun nion aspalditxo, urlia baten inguruan hitzez zeragoiola: «Badakizu; horrek jantxakurrarena: ez berak egin, ez inori egiten itxi». Berez esangura eta ingurune askoz zabalagoan ere ezaguna den esakuntza.

Gaztelaniaz badu senide hurbil bat, hau ere txakurraren irudiaz baliatzen dena, eta hitz berberekin ia. Eta beste hizkuntzetan ere badira mezu horrentzako formulak.

Iparraldean badu kideko esakuntza bat, Azkuek dakarrena, eta *hora*, *zahia* eta *oiloak* mintzagai darabiltzana: «Ez horak zahia jan, ez oiloer utzi» (EY 457); eta Hegoaldean ere hitz berekin josiriko hau: «Zakurrak, ez zahia jan, ez oiloei jaten utzi»

Giza jarduera bat, aizkoran edo egur-txikitzen diharduenarena, ointzat hartu duen beste bat ere bada Bizkai aldean, *egurra* eta *aizkora* izenekin josia: «Ez egurra ebagi, ez aizkorea emon» (*Garate* 3562).

Mezu berorren ingurukoa da, esapide orokorragoz ondua den hurrengo soil-soil hau ere: «Ez niretzat, ez zuretzat» (*Garate* 4835), gaztelaniaz ere ordain zuzena duena.

Jantxakurra, esangurarik oinarritzkoenean, *txakurra* da azken finean. Eta izen horren ardatzean josia da hurrengo esaera hau: «Arimea apartauta, gure jantxakurra baino alperragoa» (*Garate* 1167); jende-modu alferraren nagijarrerera astintzeko *jantxakurra* konparagarritzat darabilena.

Baina, txakur mota bat seinalatzeko barik, gizakion izate-modu bat zehazteko pertsonifikatzen da *jantxakurraren* irudia. Zein pertsona-modu, baina? Inoren lepotik, inoren bizkar bizi den edo bizitzea gustuko duen harengatik. Eibarko hiztegi edo bildumaren batetik jasoa dugu hurrengo esaera hau, ironiaz betea: «Politiko jente hori dana *jantxakurrak* dituk». Eta hala bada, *jantxakurra* dela esaten den horregatik, *non zer koiu edo harrapatu dabiltzan* horietarikoa dela ere esaten da.

Labayru hiztegiak, jantxakurra dela eta, honako esaldiak dakartza: «Jantxakurra lez dabil, mahai batekoa amaitu eta beste batera arin». Eta: «Jantxakurren moduan, bereagaz nahiko ez eta besteai jatekoa kentzen».

Nolanahi ere, gehientsuenetan *jantxakurraren* irudia pertsona batzuen izaera edo bizi-jarrerera zorrotz inarrosteko darabilgu, izakune jakin bateko pertsonak, hartan ere. Hala esan ohi da: «*Jantxakur asko munduan!*» (*Garate* 13615). Azpeiti aldekoa dugu esakune hau: «*Jantxakur franko* badiagu etxe-bueltan!». Eta Eibarkoa dugu, ostera, jantxakurrak direla eta, hurrengo argibide hau: «Gatxa da familia baten ondare haundixa mantentzia, batez be *jantxakur* asko egonda». Eta amaitzeko, Oñatiko berbetaren hiztegi batetik jasoa dugu azken definizio hau: «*Jantxakur, -ra*: Bestien lanetik edo bestien lepotik bizi danari esaten xako. *Horreik jantxakurrak dira*» (*Oñatiko euskeria: ezagutu, aztartu, egin*, 2014).

53

KANDELARIO*Kandelario-lario, hatxari ura darío*

Bata bestearen atzean segitu-segituan datozen lehenagoko jaiegunak ditugu *Kandelario*, *San Blas* eta *Santa Ageda*, geroago *Deun Agate* bihurtu zena, berriro ere lehengora bihurtzeko.

Errefrau bila bagoaz, nekez idoroko dugu halakorik Deun Agate dela eta, eske-kantu eta -koplak hainbat dira, baina. Beste egun bion ingurukoak, *Kandelario* eta *San Blas*, beinke ere ugariak dira, bai bataren, bai bestearen. Urtearen eguraldi-egutegian sendo iltzatuta dauden egun seinalatuak.

Urteko egutegi barruan seinalatuak dira egun biok, ez bakarrik eguraldiaz, baita lurraren edo itsasoaren emaitza-onurez iragarpenak egiteko ere; egun seinalatuak, negu-uden arteko eguraldi-mugarri gisa.

Kandelario eguna aipu denean, *elurraz* mintzo dira errefrau batzuk. Halaxe bildu nion Mendatako semea zen neure osaba Bernardori, holaxe berba-ekarrian: «Kandelaidxoatan edurre, joan da neguen billurre» (Bernardo Arejita, informatzailea). Baina era horretara zein beste era batzuetara entzun, euskal herrietan eta euskararen zabalean sustraiak ondo hartuta ageri zaizkigu *Kandelarioak* eta *elurra*.

Eta puntua, errima jagonda batzuetan: «Kandelario, elurra dario» (NEZ 989), batu zuen D. Intzak Nafarroan. Baina badu formula luzeago bat ere honek beronek: «Kandelario, elurra dario; San Blasek lagunduko dio» (EZBB 1764). Hori ere nafar esakuntza. Eta orobat: «Kandelario, elurra dario; San Josek lagunduko dio» (NEZ 288) dioen hau ere. San Blas, Kandelario egunaren jarraiko eguna dugu eliz liturgiaren egutegian, baina San Jose hainbat atzerago dator, martxoaren 19an hartan ere. Luzaroko eguraldi txarra, beraz.

Baina euskararen sartaldeko errefracuetan sarriroen aipaturik ageri dena beste hau dugu: «Kandelario-lario, hatxari *ura dario*». Horrek esan nahi du, elurrak urtuak direla, edo elurrik egin ezta ere, euria franko bota duela goietan eta haitzetan behera datorrela ibar-haranetako ibai, erreka eta errekaetoetara.

Errefrau hau, eta honen antzeko beste batzuk, errezitatu luzeago bihurtu dira. Hurrengo honek on egiten du dioguna: «Kandelario-lario-lario, hatxari ura dario, makatzari madari: eutsi, Peru, hankeari!» (*Garate* 8250).

Kandelario eguna da neguko egun seinalatuetariko bat, *mugarri antzera egiten duen erreferentziazko eguna*: egun horretan zelako eguraldia, txarra edo ona, aurrerantzean zelakoa egingo duen iragartzen duena. Iparraldeko batek argitzen digu horixe bera: «Kanderailu, sasoinaren berrigailu» (EZBB 1765). Negu-sasoi honetan beroa badakar, hotz, elur eta eguraldi gordinak ekarriko ei ditu ostean; edota bestetara: negua latz eta bisutsaz badator, ondoren denbora ederrak ekarriko dituelakoa.

Orozkon, orain dela hainbat urte, Sinesio Estiballes euskaltzale fina genuenak honela batu zuen: «Kandelario bero, negua gero» (Sinesio Estiballes, informatzailea). Baina euskararen beste bazterrean ere, Zuberoan, errefrau bera dugu: «Kandehalu bero, negua gero» (Allande Sokarros, informatzailea). Edo era poetiko eta politagoan adierazirik:

«Kandelario garbi, negua geldi» (EZBB 1766). Zeberion, Juan Manuel Etxebarria etnografoak ardi-pastoreen irudi honekin azaldurik batu zuen errefrau bat: «Kandelario egunean eguzkia baino, otsoa ardi artean hobe» (Juan Manuel Etxebarria, informatzailea). Eta atzekoz aurrera, kandelarioetan egun hotzak direnekoa, gorago aipatu dugun antz-antzean esan izan da Azkoitian ere: «Kandelariotan elurra, joan da neguan bildurra» (EHHA).

Eguraldiaren aukera biak, hotzarena eta beroarena, errefrau bikoitzean josirik gorde da leku batzuetan. Hala dio Nafarroako batek: «Kandelari ta bero, negua da gero; Kandelaritan hotz, negua motz». Amaiurreko aldaera bat ere hur-hurrekoa dugu: «Kandelario hotz, negua gan ('joan') da motz; Kandelario bero, negua heldu da gero!» (Ainara Maia Urrotz, informatzailea). Antzeko aldaera dugu beste hau ere: «Kandelario bero, elurra dator gero; Kandelario hotza, negua joan da motz» (EZBB 1763).

54

KATUA ETA BUZTANA

*Gure katuak buztana luze;
norbera legez besteak uste*

Manuel Larramendik XVIII. mende erditsuan bere hiztegi hirueledu-
nean (DT) dakarren errefracua da hori, gaztelaniazko bertsio eta guzti.
Gaztelaniaz dakarren esaera, gaur ere berdín esaten dena, katuaz barik
lapurraz ari da: lapurrak beste guztiak ere lapur jotzen dituela, izan ez
arren ere.

J.A. Mogelek, Larramendiren hurrengo belaunaldiko idazlea berau,
errefracu bera dakar, baina «katuaren buztana» barik, *azeriaren
buztanaren irudipean*. Peru Abarkako esakuntza zerrendan hala dakar:
«Azeri zaarrak aillea luze, bera legezkoak besteak uste» (PAb), hau da,
bera legezkoak direla azeriak uste.

Aillea, animalien buztana izendatzeko darabil Mogelek. Esakuntza
horretan, azeriaren buztana. Beste behin, txakurrarena: «... ta bai urten
bidera [txakurrak] pozkariaz, *ailleari* eragin ta parlantzuán neugaz
ibilteko» (PAb).

Aila, *aillea*, gaur ere bizirik dugun hitza dugu, baserri-munduan behinik
behin, hiztun askorentzat ezezaguna eta berez gutxi entzuna izan

arren. Gernikaldean hala entzun izan dut, eta ez jende hain zaharraren ahotik. Ortuari batzuen gorabeheran erabiltzen da *aila* hitza (*allie*). Piperrak kordatzen direnean, atarteko hagan edo balkoian eskegi eta gorritu daitezen, *ailatik josten* direla albainorratz edo albandorratzaz eta hari lodiaz. Baina gerezi, sagar edo beste txortendun edozein frutarenak ere *ailak* dira. Izen hori ezaguna ez dutenek *buztantxo*a ere esaten diote.

Gatozen atzera errefrauaren ardatzera. Mogelen ondotik, beste idazle klasiko batzuen artean ere badugu honen hots eta oihartzuna. Oste-ostetxoan, Pedro A. Añibarro arratiarrak kontestu batean barruturik darabil: «Eztago inor libre euren juzgu ta min zorrotzetik; ez sazerdote beneragarriak, ez fraide ta monja ejenplu onekoak, ez persona bizitza garbikoak. Euren bizitza gaistoaz neurtuten dituez besteen bizitza santuak; eta gure euskaldunak esan daroen legez: *Gure katuak buztana luze, berak legez besteak uste*. Guztian, guztientzat ta guztirako dauke zer esan» (*MisE*). Osterago, Ispasterreko errefrautegitxo batean ere jasorik dakusagu errefrau bera: «Gure katubak buztana luze, nok bera legez bestiak uste» .

Azkuek EY bilduman hainbat lekutan eta aldaerarekin jasorik dakar esakuntza bera. Gipuzkoako Errezilen, esaterako: «Gure katuak buztana luze, bera bezela besteak uste». Otxandioko Eskuizkribuak ere badakar: «484. “Gure katuak buztana luze; norbera legez besteak uste”» (*OtxEsk*), goiburuan ipini dugun bera. Eta Eulogio Gorostiaga euskaltzale finak ere bai, diferente samar: «*Azeri* zarrak buztana luze; bestiek be halakoxie daukela uste» (*Euskal Herriaren Alde* aldizkaria, Eulogio Gorostiaga).

Iparraldeko tradizioan ere bada beronen oihartzunik, *katuaren zein azeriaren* buztana dela irudi-izena: «472. Gathuak buztana luze, bertzeak bera bezelako uste» (*Landerretxe*). Eta: «Axeriak, buztana luze, bera bezala bertzeak uste» (*Almanaka Berria* aldizkaria).

Iparraldeko tradizioan *katuaren buztana* ‘tranpa’ edo ‘mausa’ adieraz erabilirik ere ageri da. Ekialdeko idazle biren paragrafo bana. Arradoi idazleak dio: «Lehenik galdegin zuen bere armaden Nafarran gaindi pasarazteko baimena, baina Nafarroko Erregeak egin zuen bere baitan, *gatu horrek bazukela beste buztanik*. QU’IL DEVAIT Y AVOIR ANGUILE SOUS ROCHE» (*SFran*). Errefrau bera, argibidez lagunduta: «*Gatu horrek bertze buztanik badik*, zioten beihalako eskualdunek. Guk ere jalgi ginezake, baginaki gripak badukeela buztanto izpi bat: Nork daki gripa-harrak *bertze buztanik ez lukeen?*» (*Herria* aldizkaria, Étienne Salaberri).

55

KUKUA*Kukuen kantatzean, euri eta eguzki*

Kukuaren kantua, udaberria heltzearen seinale garbi eta herri-sineste batzuen gordailu dugu, besteak beste. Txori uxoa, zuhurra, bururik nekez erakusten dakiena da kukuia, baina baso ilunetik bere hots-kantu bikoitz errimatu horien bidez ondo garbi iragartzen digu gure artera etorria dela.

Kukuaren soinua, zori eta adu onaren iragarle legez ezagutzen da. Bat, eragin ziurrekoa: kukuia jotzen dantzutenean elkar laztan duten neska-mutil bik, eztegua hurbil den seinale omen da.

Kukuaren etorreran *euri eta eguzki* iragartzea esate bat da, eguraldiak aldizto antzeko traza hartuko duelakoa. Urtean zeharreko beste hiledo santu-izen askorekin gertatzen den antzera. Eguraldiaren ongaitzei hobendua egon da gure tradizio-egutegia, berariaz nekazari-gizartean. Gutxi gorabeherako zehaztasunaz eta badaezpadakotasun handiaz, hala ere.

Kukuia kantuz hastea neguari agur esatea da, era batera edo bestera: «Etorri da kukuia, joan da negua», errefrau baten epaia.

Noiz etorri eta noiz aldendu kukua, hori da gure errefracu-errepertorioan errepikaz entzuten den mezua. *Andra Mari Martiko* ('Martxoko') aipatzen da maiz etorrera-datatzat. Hala ere, kukuak bere agur-soinua aurreratzen eta belutzen ere badaki... *Andra Mari Martiko* martxoaren 25ean zelebratzen da gure eliz egutegian. Etorrera-datan aurreratzea ez da eragozpena, baina bai egun horretarako kukuaren zizirinik ez izana. Azkuek bilduriko esakuntza batek epai zorrotza ematen du horrezaz: «Kukuak esan ei eban, Andra Mari Martikoz ez baetorren, bere ondraz egiteko» (EY 518).

Udaberrian sarturik gaudela ere, negu antza nagusi denean eta udaberri-trazak eskas, udaberriko eguraldi triste ilun horri *kuku-negua* ohi deritzo leku batzuetan: udaberrian aldi laburrez negu-eguraldia egiten duen unada horri.



Natura-irudi ederragoz iragartzen digu beste honek, oster: «Ama Birjina Martxoko egunez kukuak Erromako zubian jotzen du» (*Garate* 666). *Erromako zubia*, ostarkua, euria eta eguzkia batera datozenean begi aurrean dakusagun fenomeno koloretsua. Errefrau honexen ertz berekoa da goian aipatu den errefrau zaharra ere: «Kukuen kantatzean, euri ta eguzki» (RS 70). Udaberriko eguraldiaren ispilu dizdizaria: euria lehenik, eguzkia gero; haziak erne, belarrak hazi eta fruitu-arbolak ernemindu, loratu eta gero garau-potindu daitezten.

Noiz arte ote dirau kukuaren soinuak? Behin mututu denean, uda be-tean sartuak gara. Euskal hizkeraren puntua jagoteko lehiaz jostatzen dira errefrau batzuk: *kuku - mutu*. Hala: «Kukuak egiten du maiatzean kuku, garagarrilean gelditzen da mutu» (EY 517), esaera baten arabera. Baina badira beste batzuk, egun jakin seinalatuarekin lotzen dutenak kukuaren mututasuna. San Pedro eguna da batzuetan seinale, ekainaren 29a: «Erramuetan kuku, sanpedroetan mutu» (*Garate* 11812).

Lau hilabete inguru egiten ditu kukuak gure artean, esaerak argiro zehazten digun bezala: «Kukuaren lau hilabeteak, hotzak eta goseak» (*Garate* 8554). *Hotzak eta goseak* egoteak, 'hilik' egotea esan nahi du: *hotzak hilik eta goseak hilik*. Udaren epel-beroa oraindik ailegatzen ez, eta lurraren fruituak ere zoritzen ez.

Kukuaren etorreraz lurra zerbait berotzen hasi bai, baina adu gaiztoa nagusi oraindino. Itxaropen bide bai, baina Erromako zubiaren antzera, ezaren eta uztaren bitarteko zubi luzea, ia berrogei egunekoa. Hargatik esan ohi da: «Kukua etorri, gosea etorri; kukua joan, gosea joan»; edota Garizuma-aldia ere barruan dela: «Garizuma berandu, udaberria berandu; kukua etorri, gosea etorri; kukua joan, gosea joan» (EY 1686).

Esan ohi denez, kukuaren soinua goizegi izatea ere ez ei da seinale ona: «Martian kukuak jo baino, otsoa ardi artean ikusi hoba da» (*Garate* 9520), epaitzen du horietariko batek.

Kukuaren urtean-urteango soinua bizi-zikloaren mugarritzat ere hartzen da. Esangura astuneko berri-iragarlea, nolana ere. Hala esaten da, norbait heriotzatik hur dagoelako pekoan dagoenean, zaharraren zaharrez dela edo gaitz txarren batez dela: «Hurrengo kukua ez du horrek entzungo» (EY 111).

Kukuak jotzea «oker-soinu» ere bihur daiteke, norbaitek etorkizunean gauzak zuzen joango direlako uste sendoz egon eta ustekabean oker irteten zaizkionean. Hargaitik esan ohi da batzuetan, *kukuak oker jo* duela, zorigaiztoren bat gainera datorrenean. Edo baldintza edo betekizun bat onartzea izanez gero, gauzak artezbidean jarriko liratekeelakoa; hala balitz, *beste kuku batek joko luke* esan ohi da.

Kukua, inork ikusi ez baina, berak dena ikusten omen du, *kukaturik* dagoen ezkutaleku horretatik *kukuka* jardunez. Halaxe ikasten du, dirudienez, txindorrek edo txepetak zein sasiarte edo untzorriarteetan habia egin duen, eta ama —*amea* bizkaieraz—, kanpotik den artean, han bere arrautza nagusia erruten, eta txori txikiaren arrautzak habiatik kanpora bere erpetzarrekin jaurtikitzen.

Zuzen-legea ez da izango, beharbada, txori-ama txiki baten ardurapean uztea arrautza handiago horretatik jaioko den kume hazitxoa, eta harixe jaten ekartzen neke-lorretan bizi beharra amaorde koitaduak. Zuzen-legea ez da izango, baina bai naturaren patua; adu txarra edo ona, bizilegeak esango.

Hargatik hartzen da ahotan sarri kukuaren irudia, *besteren lepotik bizi* den jende malmutz eta askojakinaren jokaera salatzen: «Kukuak besteren ohantzean arroltzeak egiten» (*Garate* 8557) esan ohi da. Baita, horren adiera-kide den beste hau ere: «Kukuak txantxangorria inude» (*Garate* 8550). Inoren emazte edo senar eskuarte onekoa bereganatzen zazpi ahalegin egiten dituztenengatik ere hala esan ohi dute.

Harrigarria da kukuak, hain zuhur eta zolia izanik, ikastun txarraren entzutea izatea. *Kantu-soinuaren gogaikarria* aipatzen da batzuetan, bere kantu txatxarraren etsenplu modura. «Kukuak zazpi urte egin zituan eskolan eta bakarrik ikasi eban “kuku” egiten» (*Garate* 8552): horixe da euskaldun askoren buruan kukuaren desmeritutzat jotzen den ezaugarrietariko bat.

Kukuaren ezaugarri itsusitzat jotzen da era berean, besteen *nonzeberriak jakin nahirik* barruak erretzen dagoen jendea. Beste batzuen nondik norako bide eta urratsei sorosten, *so egozten*, inguruko jende-moduari *kukuka*, auzo eta ingurukoei *kuku eginez* barrua ase eta nasaitzen zaienak. Horrexetarako erabili izan dira lehengo harri-hormazko etxeetan dauden saietera, *kuku-leiho* edo *kuku-bentanak* berariaz.

Eguzkia ere laino artean, irtengo ez irtengo, ageri-estalian denean, *kukuka* dagoela esan ohi da. Hala deritzo, *eguzki-kukua*, erdizka ageri den eguzkiari. Loa dela-eta ere *lo-kuku bat egin* esaten da, erdizka egiten den bekainekoa edo lo-kuluxka, norbere beso kontratan burua botata, egiteari. Norbaiti bisita labur bat egitera goazenean ere, sartu-irten laburra denean hango egotaldia, *kuku bat egin* dugula esan ohi da. Eta berdintsu, norbaitek geuri egin digunean: *kuku bat*.

Amai dezagun gogoratuz, landare-mundura ere aise hedatu dela kukuaren izena. *Kuku-fracak* (‘kuku-prakak’) ohi deritze basalore ezagun batzuei, azpikoz gora dauden praken edo edalontzi baten antzera petalo ederrak dituen loreei. Horrekin zerikusia behar du izan nolabait, «Kukuari prakak egitea» (*Garate* 8555) delako esamoldeak: *alferreko lana egitea* dela eta.

56

LAPIKOTXEA ETA LAPIKOTOA

*Abadearen lapikotxea, txikina baina gozoa;
ikazkinaren lapikotoa, handia baina harroa*

Herri-kopla hau ezaguna da, eta berariaz Arratia aldean kantatu izan dela esango nuke. Hantxe batuak dira ia beti kopla zirikatzaile honen aldaerak.

Aldaerarik gehienetan *lapikotxoa* da kopla honen izendapen bakarra. Hala dator, Aita Iurrek Igorren bildu eta oraintsuago J. Kalzakortak argitaraturiko bilduman: «10. Abadearen lapikotxoa / txikarra baino gozoa; / ikezginena handie, / baie harroa» (*ArratKopl*).

Kantuz ere oraintsuan entzuna dut kopla hau berau, baina *lapiko* izenari bietan *-txo* atzizki txikigarria dautsala: *lapikotxoa*. Eta kopla horren interpreteok ere ez dira ohartu, antza, *abadearen lapikoa* eta *ikazkinaren lapikoa* ez direla neurri berekoak; bata txikia dela eta bestea handia. Eta horrexetan dagoela, biak neurri banangoa izatean, kopla horren gatza eta berakatza.

Kopla honen bertsio ustez zaharragoetan ondo markatzen da *lapiko* bion tamainu-alde nabarmena: abadearena *lapikoTXEa* dela zehazten da eta ikazkinarena *lapikoTOa* dela. Zeanurin aspaldi batu genuen,

unibertsitate-ikasleren baten borondatez, kopla honen aldaera bat, *lapiko* izenaren atzizki graduatzaileak ondo bereizten dituen: Abadearen *lapikotxea* / txikina baia gozua, / ikazginaren *lapikotoa* / handia baina harrua.

Atzizki biok, *-txe* eta *-to*, graduatzaileak dira, baina hurreko erregistroan, *-txe* txikitzailea da eta *-to* hanpatzailea. Lapikoen neurriak, bata txikiagotu eta bestea handiagotu egiten dituzte atzizki graduatzaileok.

Gaur egun hiztunok, izaki baten txikitasuna markatzeko *-txo/-txu* atzizkiaz baliatzen gara gehienbat (*umetxoa*, *etxekoa*, *loratxoa*), eta handitasuna adierazteko era diferenteetara. Badugu, esaterako, *-tzar* atzizkia (*astotzarra*, *gizontzarra*, *burutzarra*), edo *zati* izen-osagaia (*etxe zatia*, *auto zatia*, *gizon zatia*). Eta beste gehiago ere bai.

Lapikotoa esaten den horren antzera, beste izen batzuk ere badira, sartaldeko hizkeretan *-to* atzizki horrekin puzten edo handiagotzen ditugunak.

Pertsona-izenetan, ezagunak ditugu: *gizatoa* edo *gizontoa*, *andratooa* (eta *andratona*), *neskatoa* (eta *neskatona*), *mutiltoa*, *umetooa*, eta halakoak. Modu honetan entzun izan ditut esaten: «Hamen gure neskato galanta!». Edo: «*Gizontoa* zoan Mikel Zarate». Edo Arratiako Arantzazun jasotakoa: «Hemen batu gozak *gizonto* guztiak!» (Jon Etxebarria, informatzailea). Edo: «Zelako *gizatoa* zan bera, ba!» (Bitoriano Gandiaga, informatzailea). Edo baita ere: «Zelango *andratooa* egin dan, gero, zuen alabea!». Eta, oihaleko ume txiki baina mardo bategatik esaten entzuna dut Muxika-Areatzan: «Hori ez da mutiltxue; *mutiltoa* da hori».

Beste esangura-eremu batzuetako hitzekin ere antzera: *eskutoa*, *burutoa*, *mantartoa*... Orozkon entzuna dut: «Zelango *eskutoak* dituzan, gero, zuen umeak!» (Itxi Rotaetxe, informatzailea). Edo Legoadi

itzultzailearena den hau: «Begiratu eban deia etorkion alderdirantza ta bere *buruto* lodi iguingarria uretatik aterata ugaraxu bat ikusi eban» (*Larrakoetxea*). Edota Getxon baturiko azalpena: «*Mantartoa* lonazko zaku bat izaten zan» (EHHA).

Idazle batzuen izkribuetan *-totzar* graduatzaile bikoitza ere ageri da. Hala, M. Zabala idazle misiolariaren idatzietan. Izen-kategoriako hitzen artean, aipagarri dirateke: lapurtotzarra, guzurtotzarra eta pekatutotzarra. Adibideok: «... *lapurtotzar* andiak bideetara urteten dakienak» (*IrunSerm*); «... ikusten dituz lapurretak, bestiai erneriko *guzurtotzarrak*, eta Jangoikoak dakizan osterantzeko pekatu eskergak» (*JerusalSerm*); «... uste izanik eze konfesoreak alango *pekatutotzar* andien barririk eztakiela» (*JerusalSerm*).

Adjektibo-kategoriakoen artean, *handitotzarra* eta *nagitotzarra* darabiltza sermolari bilbotarrak: «Alantxe da bada pekatuakaz bere, eta pekatari *anditotzar* guztiai jazo jake arako Jangoikoaren esana» (*JerusalSerm*). Eta: «Sarri konfesetan direanak *nagitotzar* belurik belura doazanak baino» (*IrunSerm*).

Eta *-xe/-txe* atzizki graduatzailea, aldiz, beti dugu tipitzailea, txikigarria. Erabileraz askoz urriagoa dugu, *-txo* baino. Gramatika-mailako graduatzailea den neurrian, *-xe* eransten da oin-hitza bokalez amaitzen denean eta *-txe* kontsonantez egiten denean. Balio gutxitzzaileaz gainera, afektiboa ere izan ohi du sarritan. Erabileraren aldetik, euskararen erdi eta ekialdean du bizitasun eta indarrrik gehien; sartaldean, aldiz, aspaldi jo zuen atzeraka. Baina *lapikotxea*, koplan aipatzen den izen horretan, lapikoaren txikitasuna markatzen du *-txe* horrek zehazki. Tradizioz ezagutu dugun sukalde-ontzi horretan irauin du lexikalizaturik luzaroago.

Baina hitz-kategoria diferenteeekin ageri zaigu tradizioan: zenbatzaileak direla (*gutxixe*, *gutxixeago*, *gehixeago*), adjektiboak direla (*handixea*,

txikixea), aditz-partizipioak direla (*galduxe*, *bukatuxe*). Eta adberbioetan ere bai. Hara errefrau zahar honen esana, forma pleonastikoa duela: «Oa laster, *baratxexe*» // VETE DE PRESTO, PASITO (RS 173).

Lexikalizaturik dirau beste izen batzuetan ere, atzizki eratorle gisa. Bizkai sartaldeko izenak dira, Arratia, Zeberio eta Orozko aldean batez ere erabiliak. Berbarako: *aitaxea* ('aitaginarreba') eta *amaxea* ('amaginarreba'); *artatxea* ('artatxikia'), *burutxea* ('artaburuaren txorokila'), eta beste gehiago.

57

LARATZA

Etxeko laratzak eta larazpeak ezagutzen du pertsona

Laratzaren irudia, errefracuetan ez ezik, lokuzio, esakune, herri-
ipuinetan, eta etxe-barruan zaharrenek gazteenei bizimoduaren eta
ezagueren berri transmititzeko leku gozatsua izan den beheko su,
sutondo edo supazterraren ezaugarri izan da.

Laratzari, *laratzua*, edo *lagatzua* Bizkai sartaldean, ohi deritza.

Etxeko laratza, etxe-barruko isilpekoen, sekretuen, eta barrutik
kanpora ez jakin beharreko guzti-guztiaren jakitun izan ohi da.
Isilpekotasunaren berme eta gordairu etxeko laratza izan ohi da.
Laratzaren konparantza horrexekin irudikatu izan da herri-jakintzan
mezu hau.

Zornotzan aspaldi baturiko esaera baten berbak dira, laurogeigarreneko
gizon edadeko baten ezpainetan entzunak: «Etxeko laratzuak ezagutuko
jok hori!» (EHHA), esaten ei da lokuzio gisa. Eta Berrizen baturiko
beste testigantza bat ere bada, hau ere urte bertsuetakoa, dioena:
«Gure aitak esaten eban: “Etxeko laratzak eta larazpeak ezagutzen dau
personea; kanpoan ez da ezagututen”» (EHHA). Nafarroako Arakilen
ere era berebean: «Laratzak ezagutuko du nor nolakoa den» (DVEF).

Denboran atzerago eginda, Agirre Asteasuko idazleak ere agindu erretoriko hau egin zuen XIX. mendearen hasieratsu hartan: «Galde sukaldeetako laratzai» (*Erakusaldiak* III), bere sermoietariko batean. Frai Bartolomek zorrotzago xehetu zigun etxeko laratzaren betekizuna: «Etxean jazoten direan [...] ixil-gauzak laatzak ezkutau bear [ditu]» (*Ikasikizunak* I). Eta oraintsuagora etorrita, F. Arrese Beitiaren bertsoetan irakurtzen da: «Etxean ikusiten dalako barrua, / [...] *testigutzat nai leuke artu laratzua*» (*Olerkiak*).

Laratz beltza ere aipatzen da sarritxo goiko esakuntza horretan. Laratzuaren belztasuna ondo ezaguna da, zartaginaren edo lapikoaren ipurdiarena den legetxe. *Belztasun* hori kolore *beltz fisikoarena* da sarritan. «Laratza baino beltzago hago!» (EHHA), esaten ei da Nafarroa aldean, Ikaztegiatan.

Baina belztasun horren atzean, *luzaroko esperientzia* dago beste batzuetan. Laratza, horren iragarle. Hala, Zeberion, ezkontza dela eta: «Nogaz edo hagaz ezkontzea ona ete dan aurretiaz ez da jakiten. Hori *laratza baltzak esango dau*, ezkontza ona egin badau» (Juan Manuel Etxebarria, informatzailea).

Laratza beltza izatearena, beste esakune gehiagotan ere ageri dena, leku guztietan antzeko *arazo, problema eta buru-hausteak* izaten direla gogoratzeko ekarri izan da sarri. Azpeitian bildua da: «Etxe guztiyak labatza ('laratza') beltza» (AEF). Esatea bezala: «Leku guztietan txakurrak ortozik». Iturriaga hernaniar irakasleak alegietariko batean dio: «Dirala laratzak, / errian diran etxe / guztietan beltzak» (*Iturriaga*).

Gauza bakoitza bere lekuan, edo pertsona edo izaki *bakoitzari bere lekua* dagokiola aditzen ematera dator Oihenarten hurrengo hau ere: «Oreina larrean, bertza laratzean» (*ProvBasq* 369). Esatea bezala, zein bere lekuan behar duela.

Eta belztasunera ostera ere etorri amaituko dugu ataltxo hau. *Laratzak*, bere belztasunaren kualitate horrekin, *infernura* eramandu, kristau-dotrina zaharrean sermoi beldurgarriak entzun dituen eliztar zintzoa hainbat euskal parajetan. Hala, dongaro eginen, kalte eginen kontzientzia txarreko testigu iluna izatearen irudi dugu. Ezagun samarra den errefrau bat dugu horren adierazgarri garbia: «Aberatsa, ifernuko *lahatza*» (*Egunaria* aldizkaria). Oñatiko berbetan, G. Anduagaren etsenplu bat: «Aberatsa, ifernuko *legatza*» (*AitUzta*) —«lebatz» edo «legatz» arrainarekin ezertariko zerikusirik ez duena, hoskidetasuna aparte, jakina—.

58

MAIATZA*Urdaiak maiatz luzeak eroango deuskuz*

Dimako Bargondi auzoan bizi izan zen Patxi Bilbao herri-jakintzaren jario aberatsa zuen gizonak, dantza-kopla, herri-ipuina eta herri-kanta mordoa buruan gorde eta herritarron ezagumenera erakarri zituen hark, erabili ohi zuen esakuntzetarikoa dugu horrako *maiatz luzearen* autua darabilena.

Maiatza da hil honen izenik ezagun eta zabalduena, nahiz eta beste izendapen batzuk ere arrakasta onekoak izan diren euskal tradizioan. Batetik *loraila* ohi deritzo leku batzuetan, eta aldi batez zabalago zebilen idatziz ere; gaur ez. *Loreen hiletzat* dagoelako. *Maiatzeko loreak* esaten zitzairen, hil honetan gure elizetan Ama Birjinaren ohoretan egunero-egunero egiten ziren iluntzeko elizkizunei ere. Ama Birjinaren hiletzat ezagutu da kristauen artean maiatzeko hil hau.

Orrilaren izena ere eman zaio hil honi, landareak eta arbolak *orritzen* diren hiletzat, nahiz eta guztion jakina izan, maiatza baino hainbat lehenago orritzen direla ortuari, landare, arbola eta enparatu.

Maiatzaren lehenengo egunari *maiatz lehena* ere baderitzo. Eta neurrieta-ra joz gero, herri-esaera eta -sinesteetan badugu, izen-adjektibo multzo

bihurturik, *maiatz luze* izendapena ere. Janari-kontuarekin estu loturik dagoen esaera dugu *maiatz luzearena*. Negualdian atondu, ondu eta gatzun-askan gorde izan diren txerriki, zezin eta beste jaki guztiak urritzen joan ahala, janari neurria hartu beharra gogorazten digu maiatzak. Lurrak maiatzean jeneroa urri ematen du oraindino; goizegi da baratzean ezer ganorazkorik jadesteko; eta negukorik gehienak, janda honezkero.

Bada gaztelaniaz errefrau ezagun bat, maiatzaren berrogeira arte soineko kapa ez dela kendu behar ohartzen duena. Eguraldi hotzen iraupen luzea aditzera eman nahi du, baina nolana ere, *maiatz luzea* dakarkigu gogora. Eta horren harian, euskal eskuntza diferentek ere kezka eta ardura bera demaigute, mezu bertsua. Ibarrangelun, bertako abade gogoangarri izan zen Domingo Zuluagak honela jaso zuen *maiatz luzearen* sineste edo iritzi hori: «Maiatza luzea izango da. Gero zer jango dogu? Lapatzako aukak» (*IbarrangKant*). Eta aintzinagora atzerantz eginda, XVI. mendean ere jate kontuaren gomuta dakarkigu beste batek: «Txitak, grisolak eta urdaia maiatzeko maira» // POLLITOS, TURMAS Y TOCINO PARA LA MESA DE MAYO (RS 39).

Amodioaz eta poesiaz ere lotura estua du maiatzeko hilak, dama linda gaztea maiatzeko lorearekin berdintzen zaigula. Euskal poeta zaharrenetarikoa dugun Lazarragak, *maiatzeko lora ederrena* deitzen dio dama gazteari: «Udabarri guztiz alegerea, / *maiatzeko lora ederraena*, / ze indazu beti oneinbat ('honenbat') pena» (*Lazarraga*). Eta askoz oraintsuagoko dantza-kopletan ere behin baino sarriago aipatzen da *larrosa maiatzekoa*. Kopla baten hitzak dira: «Maitetxo bihotzekoa, / *trebola maiatzekoa*, / niretzako jaio ez bazinan, / serbidu eizu Jaungoikoa». Eta hainbat ezagunago egiten zaigun beste dantza-kopla batek kantatzen du: «*Larrosa maiatzekoa*, / iminten zaitut kontuan, / batek ezetz esan arren, / beste asko dala munduan».

Eguraldia dugu hirugarren gai sarri nonbratua. Maiatz-ekain edo *maiatz-bagil* hilen artean den aldea nabarian jartzeko atsotitz zahar

batek akordura dakar, *maiatzeko euriak urregorria* bezain baliotsuak direlako: «Maiatz iluna ta bagil argia, urte guztiko ogia» (RS 43). Eta eguraldi on eta txarren gorabehera bizkorra, beste honek: «Maiatza, ire latza, lora asko doala» (RS 269). Maiatz hotzaren mesedegarritasuna hirugarren honek: «Maiatz otzak dakaz pozak» (RS 552).

Naturaren goranzko indarra, martxo-apiriletan hazten gorantz datorren belarra, maiatzean handi eginda dagoela. Eta belar hori ebakitzeko berebiziko sasoia dela hil honetakoa, errefrau zaharrari sinesterik eman nahi bazaio: «Maiatzean berarra ('belarra') luze da eta sendo, egitaiaren ortzak ebagi leidi ondo» (RS 268).

Ereite-sasoia dela ere gogorazten zaigu beste batzuetan. Santikurutze eguna igaro berri delarik, nafar errefrau baten esana da: «Santa Kurutz Maiatzeko, gure soroak laiatzeko; hazia falta baduk, bila ezak ereiteko».

Eta erabateko epaia ematen digu azkenengo honek, maiatza *urtearen ardatz* bihurtzen digula: «Maiatza, urte guztiaren ardatza».

59

MARABEDIA ETA IDIA

Marabedian idia; baina, nork dauka marabedia?

Jendeak dirurik harean ez zeukan aldian eta Espainiako Erreinuan moneta erreferentzia ezaguna eta balioduna *marabedia* zen aldian sortua izango da agian, eta handik aurrera indarra hartua dirudi errefrau honek.

Pedro Aurrekoetxea Erandiokoak bidalia dugu esakuntza hau, ohar hau bide dela: «Gaur, gure amoma zanak asko esaten eban esaldi bat etorri jat burura: “Marabedigaz idi, baia nok deko marabedi?”. Hau, baten batek modu gitxi eukiten ebanean esaten eban; erderaz, *CASTILLOS EN EL AIRE* esaten danean erantzuteko. Ez dakit esaerea izango dan, ala etxeko esaldia izango zan. Gure amomak esaten eban, euren amak be askotan esaten ebala-ta».

Izango ez da, bada, esakuntza zaharra! Sarri ez bada ere, irakurria bai, eta inoiz entzuna ere bai, marabediaren izenaz onduriko atsotitz antzeko hau. Baina tamalez, gaurko euskaldun askori *marabedia* bera bezain urrun eta arrotz egiten zaion esakunea. XIX. mendearen erditsura arte indarrean izan zen Espainiako erreinuetan «marabedia» deritzan txanpona, harik aurrera «zentimoa», «erreal» eta horrelako diru-izenez eta monetez ordeztua izan arte. Ordutik aitzina *marabedi* diru-izenaren

erreferentzia lausoan geratu da, diru-balio legez behintzat. Hala bada, marabedia moneta-izen zaharra dugu, *pezeta* eta *ogerlekoa* erabili izan ditugunok truke-dirutzat ezagutu ez duguna, eta gerraurrean *hamaseiko gorriak* erabiltzen zituztenek ere ezagutu ez zutena.

Baina hara non! Diru-balio jakintzat lehenagotik galdurik zegoen *marabediak* esakuntza, lokuzio eta halako egitura finkoen bidez iraundu, balio figuratiboaz baino ez bada ere. Merkataritzarako indarrean zegoen aldian hain balio zinezkoa eduki zuen ezen, hiztun euskaldunen ezpainetan, erabiliaren puruz laburturik edo aldaturik eutsi izan dio hizkeretan: *marai*, *marabidi* eta antzekoen aldaerapean.

Idia erostearen balioa ere, baserritar izan ez edo lehenagoko baserrimunduan bizi izan ez denarentzat urrun gelditzen da... *Idia*, *idi-parea*, *idi-uztarria*, balio handikotzat zeuden lehenagoko nekazal gizartean, hain zuzen gurdiz garraioa egin beharra tokatzen zen aldian. Edo basotik iratzea, ikatza edo egurra igaro behar bazen etxe ingurura, edo lehenagoko langintzetan, Errioxatik ardoa ekarri, edo zaranak meatzerrietara eroan, han burdin harria ateratzen zen urteetan, eta material astun dorpeen eroan-ekarrirako. Eta lugintzan, batez ere sats-edo simaur-lorrerako: udaberrian *soeroak sastu* —*soloak satsitu* Bizkaiko euskaraz— edo simaurtu behar zirenean, sats-lorra egin eta sats-piloak saka-banan irauli, ereintzarako goldatuta zeuden soro-arloetan.

Marabedi, edo *marai* izena zaharkitu den aldian, diru ‘txiki’ edo ‘apurraren’ espresiotzat gorde izan da. Halaxe iraun dute gaur egunera arte *marai*koa, *seimaraikoa* (edo *seimarai*), *laumaraikoa* (edo *laumarai*) eta euron aldaerak.

Hara *marai* izena Añibarroren lumaz: «Benetan dinot, *marai bat* emongo eneukela euren garbitasun guztiagaitik» (*VocBasc*). Edo *seimaraikoa*, laburduraz *semaikoa* (‘sei marabedikoa’), oraintsuagoko honetan: «Atsegin egiazkoagoa egiten du lanez irabazitako *semaikoak*, zoriak ekarrirako dirutzak baino» (*Euzkel-Egutegiya* aldizkaria).

Bide beretik, *diru-apurreriaren ezaugarri* bihurtu da *zuri* izena ere —*lauzuri* eran gehienetan—: balio gutxikoaren adierazgarri. Hala esan ohi da ezezka: *lauzuri ere ez duela balio zerk edo hark*. Azkuek jasorik dakarren lokuzioa dugu honako hau: «*Lauzuriren pupua ta laumarairen mantarra*» (EY 280).

Diru zaharren balioetara etorrira, xix. mendean *zuri bik marabedia* egiten zuten. Lehenagoko berbazko euskaran *lauzuri* edo *lauziri* esamodua erabili izan da balio gutxiko diruaren adierazgarrirako: «Horrek lauzuri be ez dau balio».

Geure aldiotan, orobat erabili izan dira *txakur*, *txakur handi*, *txakur txiki*, *zentimo* eta halakoak ezerezkiaren balio-adierazgarriztat: *lau txakur*, *txakur handi bi*, *txakur txiki bat* edota *zentimorik ere ez bihurtu diren moduan*.

Hara idatzietan idoro eta hautu ditugun erakusgarri batzuk: «Dirurik teilapean be eztaukat: harakinarenean gelditu zan nere *azkenengo laumaraikoa*» (*Ibaizabal* aldizkaria). «*Seimaraigatik* ezin liteke egon, albistari eder hau hartu gabe... Honen egileak eztute praka berri asko egingo honekin!» (*Ibaizabal* aldizkaria, Gregorio Sasieta). Azkue-ren idatzietatik: «—Zegan dira oihal honeek? (eroslearen itauna). —Ezkerrekoak *lau erreal* kanako; merkeago *lauzuri* bere ez!» (saltzai-learen erantzuna)» (*Txirristadak*). J.M. Etxeita nobelagile mundakarrak *Josetxo* eleberrian dakarren esaldia: «Berak beukan diru apurtxo bat; baina enparauak ez eben eukiko *lauziri* ('lauzuri') be» (*Josetxo*).

Moneta-izen batzuk balio figuratiboaz ere sarri erabili izan dira. Hala, adibidez, *pertsonen balioaren* adierazgarrirako. Andrezkoaren eta gizasemearen balioa neurtzen dituen erretra: «*Marabedien lau gizon, ehun duketea andrea*, hau dok andra merkea!» (*Garate* 9398).

60

MEDIKU ETA BARBERUAK

Besterentzat mediku, norberetzat barberu ere ez

G. Garateren errefrau-bildumatik jasoriko bertsioa dugu goiko hori (*Garate* 2501).

Mediku mailegu-izenari idoro zaizkio euskara «garbian» ordain sendoak: *osagile* eta *sendagile*, batik bat. *Barberu* edo *barberu* izena zaharkituago gelditu zaigu, ofizioa bera bezalaxe. Hala ere horrentzat ere aurkitu zuten gure klasiko bikainek ordain gardenik: *bizargin* eta *bizargile* berariaz, hainbestearainoko segidarik irabazi ez badute ere ondoko belaunaldietan.

Ez da zer zehaztu, gaur egun ofizio bien arteko bereizkuntza galdua dela, osasungintzari dagokien esparruetan behintzat. Lehenagoko mendeetan, aldiz, kategoria bi ziren *medikua* eta *barberua*. Mediku-osagileak goi-mailakoak ziren; barberuak, aldiz, behe-kategoriakoak; erdi-osagile, nolabait esatearren: *petrikilo*, *sasimediku*, edo horrelako izenak ere eman zaizkie bigarren hauei. Batzuen eta besteen ikasketak eta osatze-zereginak ere banangoak zituzten. Zirujauen zereginetatik hurbilago zeuden barberuak: *odol-ateratze* eta halako eskuzko lanak egiten zituzten. *Medikuak*, ostera, eskolaz jantziagoak ziren; ikasketa hobeak eta luzaroagokoak gairatu behar izaten zituzten. J.A. Mogel

idazleak zertzelatzen dizkigu lehia handiz *Peru Abarka* eleberrian bien arteko aldeak zeintzuk ziren. Ondo jakitun zegoen gure idazlea, aita eta anaia mediku egin-eginak zituela, bera, abadea, *kura* jauna izanik ere, zer eskatzen zitzaion eta zein baldintza bete behar zuen mediku ofizioko zenak, gaixoen ardura hartzeko.

Goiburuko errefrau hori berori dugu, «Besterentzat mediku eta norberetzat barberu ere ez» dioen hori, ofizio bata eta bestea herritar xeheen artean zein iritzi diferentez epaituak ziren. Banakuntza garbia zegoen bien artean lehenagoko gizarte tradizionallean.

Errefrauaren mezua garbia da: besteentzat aholku eta onu astun zorrotzak, baina norberarentzat gibel handi zabalak.

Mediku mailegu-izenak Iparraldean *midiku* (edo *miriku*) aldaera du aspaldi zaharretik. Horiexek ditugu, bai idatziz, bai mintzoz, izenik ezagunenak. Dena den, *a(t)xeter* eta *bedezi* (< *medezi*) izenez ere deitu izan zaio alde horretan lanbide horri. Eta Hegoaldeko tradiziara etorrita, *zirujau* ere deitu izan zaio ofizioari modu orokorrean, gaur egun esanahi berezituagoa duen arren.

Euskara-sustraiko ordain-izen zaharrak ere baditu lanbideak; zuzen asmatuak, bistakoa denez. Mogelek berak darabil *osagile* izena, eta *zauri-osagile* ere bai; bigarren hau seguruen «zirujau» gaztelania-maileguaren ordaintzat. Hauxe dio: «Etzenduban urtengo emendi beste *barberu* edo *zauri-osagillaren* baten premina бага» (*PAb*).

Honen aurretik Larramendik eta Kardaberazek ere erabili izan zituzten izenok. XVIII. mende ingurutik ageri dute idazleok *osagile* izena «mediku» izendatzeko: «*Osagilleak* ekarri ta kuratu ta erregalatu zuten», dio Kardaberazek (*SIgn*). Eta ildo berean geroago bizkaitar klasikoek: «Arimako *osagilla* edo *medikua*» (KO), Mogelek; «Abogadu letradun ta *mediku osagilla* onenen atzean banabil» (LS), Añibarrok;

«*Mediku eta edo zirujauak* aginduriko osagei edo medizinak» (UDB II), idatzi zuen Pedro Astarloak. Eta Mateo Zabalak azkenik: «*Osagilla, gaixoa il ezkerro erremedioa esan ebana*» (*Fab*).

Gaztelaniaz *CURANDERO* deritzan hitzean oina hartu ote zuten nago ni, euskaraz *osatu* eta *sendatu* aditzetatik erakarritako izenok. Izan ere, *sendagile* izena ere aldi bertsuko izendapena dugu, idazle batzuek *sendagin* itxurapean ere erabili izan dutena. Iztueta zaldibiarrek dio: «*Sendagin eta osagille* euskaldunetara begira» (GK). Mogelek: «*Sendagille* edo *barberuari* ots egin бага» (*Erakuspena*), eta «*Sendagilleetan* laguntasunik aurkituten bada» (*PAb*). Bizenta Mogelek: «Zu bezelako *sendagillak* dira gaitza irasteko obeak» (IO). Eta Añibarro arratiarrak: «*Mediku sendagilleak* gogor artuten dau gaixoa» (*NekeA*).

Errefrauetan zer oihartzun dute izenok? Sorta murriz bat hautatu dugu, gaika sailkaturik:

— *Medikuaren esana* bete: «Nahi juju, nahi jaja, medikuen esana bete egin behar da; Nahi negar, nahi barre, medikuen esana egin egin biko ('beharko')» (*Garate* 9563). «Medikueñe ('medikuagana') zetan joan ezta, kasurik ez eittekotan ('egitekotan')» (*Garate* 9568).

— *Mediku zaharren jakituria* abonatzen da maiz, zahar izateak dakarren ikasia edo eskola sendo eta ziurragoa delako sinesteaz. Ildo horretakoa da ardo zaharrarekiko konparantza: «Ardo onak eta mirikuak zahartu behar dute» (*Garate* 1112). Apaizaren konparantza beste batzuetan: «Medikua ta abadia, zarrao ('zaharrago') ta hobia» (*Garate* 9565).

— *Osagile zaharren jakituriarik eza* astintzera datorren errefraurik ere bada: «Mediku txarrak eta ardo onak asko hiltzen dituzte» (*Garate* 9561).

— *Lanbide banangoen arteko lehia* ere agerian uzten dira batzuetan: batzuen izen ona eta beste batzuen badaezpadakoa. Eredu bat, mediku, apaiz eta abokatu lanbideen arteko konparantza egiten duen hau: «Gorputze medikuek garbitzen dabe, arimie abadiak, boltzie abogaduek» (*Garate* 6019).

— *Medikua eta abadea* behin baino sarriago ageri dira batera erkiden, bata gorputzaren eta bestea arimaren osagarriko: «Medikuari ta apaizari egia beti» (*Garate* 9567). Botikaria ere sartzten da batzuetan tartean, baina konparagarri eskasago legez: «Egin apaizak esaten duna eta medikuak egiten duna; eta ez egin botikarioak esaten duna, ezta egiten duna ere» (*Garate* 3362).

— Medikuari bere *lana ordaindu beharra* ere buruhauste zen lehenagoko gizartean, eta esturasun horren harira datoz atsotitz batzuk. Mediku zekenaren susmo beldurgarria dugu batetik: «Atxeter zekeneti, abokatu goseti eta partida bien kontseilu deneti, begira adi, nola asaieti (‘eztul handia’))» (*ProvBasq* 488). Eta medikuek gaixoen lepotik bizi direlako lelo zaharra, bestetik: «Sendagileak gaixoen lepotik bizi dira» (*Garate* 12050).

— *Osasuna jagoteko aholkuak* ez dira falta izan lehenago ere, eta era askotakoak. Zahar batek dio: «Haz nezak egunko haragiaz, atzoko ogiaz eta xazko (‘iazko’) arnoaz, eta *atxeterrak* (‘sendagileak’) bihoaz» (*ProvBasq* 213).

— Gaixo txarra, *osatu ezineko gaitza* aipu duten esakuntzak ere ohikoak dira: «Gaixo txarrantzat sendagile onik ez» (*Garate* 12049). Edo: «Azken eritarzünetik sendoerazi düan bedezia (‘sendagilea’) ez da orano sortü» (*Garate* 4089).

61

MORROIA ETA UGAZABA

*Morroiak hanka bat bustitzeko errekan,
ugazabak hanka biak busti behar*

Lan honetan, lantzean-lantzean aipatua dudan gure osaba Bernardori —Mendatako semea bera— ikasi nion, eta behin baino sarriago entzun, erara zetorreanean, atsotitz hau esaten. Berak ere aitita Seberianori eta hargintzan jardun zuen Nabarnizko osaba Ebaristo harginari sarri entzuna, hurrean. «Morroiek hanka bat busteko, uzabak hanka bidxek busti biher dittuzela». Ugazaba-morroien, eta gaurko sisteman nagusi eta beharginaren artean sortzen diren atzera-aurrerak argitan ipini eta konponbidea emateko. Beste berba batzuekin esanda: ugazabak bere morroi edo alogerekoen gain-gainean adi eta zuhur egon behar omen du, haiek bete beharreko zereginak edo hartu beharreko ardurak artez eta sasoiz burutu ditzaten.

Gaztelaniaz ezagunago egiten zaigu, «nagusiaren begiak gizentzen duela zaldia» darabilen konparantza, behar bada. Dena dela, errefrau eta irudiantz gehiago ere badira euskaraz mezu beronen eroale edo igarole direnak, bereziki idiaren irudipean onduriko esakuntzak, *nagusiaren begia* ahotan darabiltenak: «Nagusiaren begiak gizentzen ditu idiak» (*Garate* 9928), dio aldaera batek. Eta ekialdeko hizkeretako beste batek dioena da: «Nagusiaren begia, haren bi eskuak baino baliosago» (*Garate* 9926).

Agintzailea eta agindupekoa, *nagusi-morroiak* dira tradizioko gizarte apalean lan-harremanen ertz biak, jardura beraren inguruan aurkez daudenak, eta irudi moduan ageri diren pertsonaiak: «Nagusiak ondo duelako agindu, morroiak lana egin du» (*Garate* 9924).

Juan Antonio Moglek badu bere alegien bilduman bat, goiko horrekin berdintzeko mezua isurtzen duena, batetik *ugazaba ehun begikoa* eta bestetik *basahuntza eta idia* protagonista dituela. *Basaunz ta idiena* du izenburu alegiak, eta halaxe dio:

Basauntz bat jaso ta atera eben basoko sasiartetati txakur ta eizariak; emon eutsan arinari, ta sartu zan baserri bateko kortan, inok ikusi baga.

An egozan idien arteko batek esan eutsan:

—Zek ekarri zaitu, errukarriori, zeure oinakaz arriskurik andiena daukazun tokira? Ediro bazaiez emen, ediro bear zaituen legez, guri jatekoa botatera etorriko direan etxe-mutillak, galdua zara. Iges egizu, bada, ainbat lasterren; bestelan zureak egin dau”.

—Ez da orrelangorik jazoko, zuek salatuten ez banozue. Zagoze, bada, ixilik ta urtengo dot era on bat jatortanean.

Eldu zan gaua; etorri zan idiai orri kimatua emotera mutil bat, ta urten eban ikusi baga bazterturik ta orbel artean ezkutaurok egoan basauntza. Etorri zirean aldizka beste mutil batzuk, ta inok bere ez eban ikusi.

Urten eban basauntzak pozik, ta parlantzuakaz dirautse idiai:

—Eskerrik asko agertu ez nozuelako; ez nabee ikusi ainbeste mutil otsein, ona bein banan etorri direanak zuei begiratutera.

—Ez zaite beingoan larregi poztu —esaten deutsee idiak—; mutillok arin dabilz euren bearretan, ez dabee begi zoli ta azterlaririk. Baina badator *ugazaba eun begikoa*, bazter guztiak aratu ta aztertuten dituana, ez zara gordeko.

Orra nun dantzuan basaunzak oin otsa; ezkutetan da zokondo baten ta gorputza orbel artean sarturik. Badator kortara eun begiko ugazaba; ta leenaz ikusirik argalak egozala idiak, jakin gurarik zetan egoan ez mardo ta gizenagoak egotea, begiratu eutsan itaskeari, ta ediro eban amaraunez betea legez egoala. Asi zan mormoxetan: «Nire mutillak ez dabee ardurarik eukiten iditokiok ondo garbituteko; orri apur bat bota, ta doaz beste bago».

Asi zan abe artetati amaraun ta autsa erasten. Onetan dabilela korta guztiti, dakusaz basauntzaren adar urtenak orbeltzati. Asi zan deadarrez; etorri zirean etxeko mutillak, katigatu eben, ta guenean emon eutsen eriotzea, zinoala: «Arkitu dot neure eriotzea, / nun gorde uste neban bizitzea».

Ugazabaren begiak iratzarriagoak direala besteenak baino, erakusten deusku ipuin onek.

Nagusi-morroien harremanen inguruko hainbat errefrau dira, gaiari ertz batetik edo bestetik oratzen diotenak.

Batetik, *nagusi txarren* mespretxua darienak ditugu. Sarri aipatua da *nagusi txarraren* gaia. Eta horretan, lehenago morroi izaniko nagusi berriak seinalatzen dira portakizunik gaiztoenekotzat. Batek dio: «Ofiziorik txarrena, morroiaren morroi» (*Garate* 10262). Beste hitz batzuk erabilia: «Nagusirik txarrena, lehenago morroi izana» (*Garate* 9931). Bigarren batek, «Nagusi gaiztoena mutil izana» (*Garate* 9888) dela salatzen du. Iparraldean gehiago ere badira mezu beronen emaille, *mutil* izena darabiltenak. Hala deitu izan baitzaie ekialdeko hizkeretan,

Iparralde zein Nafarroa, erdialde eta sartaldean «morroi» esaten zaionari. Gogoratu besterik ez dago, «Haika *mutil*, jeiki hadi, argia den mira hadi» hasiera duen herri-kantua. Eta errefracuetara etorririk, bada bat, goikoaren mezu bera izen-joko politaz ematen duena: «Mutilaren mutila, debruaren mutila» (*Garate* 9838).

Bestetik, zelakoa den nagusia, morroia ere halakoa izan ohi dela zehaztuzten dutenak ditugu. Bata ona bada, bestea ere bai. «Nagusiak ondo duelako agindu, morroiak lana egin du» (*Garate* 9924), baieztzen du batek. Hitz laburragoz beste batek ere on egiten duen mezua: «Nagusi onak, mutil ona» (*Garate* 9894). Baina onerako zein txarrerako, bata bestearen era edo kerako direla diosku hurrengo honek: «Nolako nausi, halako mutila» (*Garate* 9911).



Nagusi edo morroi izatearen arteko alde handia, bata goian eta bestea behean egotea, eta euren arteko harremanean neurria jagon eta elkarren lagun hurkoegi ez bihurtzea aholkatzen zaigu beste batzuetan. Eta oste txarrik balego, maizenik morroiaren kaltetan izan ohi direla gogoratzen zaigu. Hala dio batek: «Ez sartu nagusiekin auzitan, ez morroiekin adiskidetasunetan» (*Garate* 9905). Morroiaren morrontza izaera berariaz jakinarazten zaigu batzuetan: «Nagusia hoztu eta morroiak eztula» (*Garate* 9919). Nagusi-morroien indar desorekaren eraginez, harreman txarrak gertatzen direlarik, agintepean denaren zoritxarrean izaten direla gehientsuenik erakusten zaigun mezua da: «Nagusiak nahi duna, morroiak ahal duna» (*Garate* 9922) dio batek; eta «Nagusiaren haserrea, morroiak pagatu» (*Garate* 9925), azkenengo honek.

Amaitzeko, morroien kontsolagarri, euren alde edo mesedetan den bat zitatuko dugu: «Etxe txarrean nagusi baino, onean morroi hobe» (*Garate* 4618).

62

MOZKORRA

Mozkorra, beti egarriak

Gure herri-gizarte xume honetan, lehenagoan ere, *mozkorra* eta *mozkortia* hitz aipatu eta birraipatuak izan dira, bai errefracuetan, bai sermoietan, bai etxe-barruko zein ardandegietako jardunetan.

Mozkorra eta *mozkortia* izenak bereizi egiten dira Bizkaiko sartalderengo hizkeretan. Han, *mozkorra*, pertsonari baino gehiago, gehiegi edanaren ondoko giza egoerari esaten zaio batez ere. Eta mozkorrak hartua dagoen eta egoera horretatik askatu ezin den pertsonari *mozkortia*. Baina banakuntza hori, handik kanpora, ez da egiten, edo ez da hain zehatza.

Tradizio idatzian, eta bai gaur egungo hizkerarik gehienetan, *mozkor* hitzak adiera biak hartzen ditu barruan: bai pertsona eta bai egoera. *Hordia* denari ere *mozkorra* esaten zaio.

Nikolas Altzola *Bitaño* Izurtzako semeak aspalditxo bildu zituen errefracuetan, ondo garbi ageri da *mozkorra* pertsonari berari deitzeko usadio zaharra. Hara hemen adigarri on batzuk. Bat: «*Mozkorra* ta kantaridxe, sarrittan miseridxe» (*Bitaño* 16). Bi: «*Satorrak* lurpien lo, ta *mozkorrak* keixpetan» (*Bitaño* 35). Hiru: «*Mozkorra* etxien daukenak,

neikue kurutze» (*Bitaño* 1312). Eta lau: «Lurpien satorra, ta tabernan *mozkorra*» (*Bitaño* 2122).

Itxura osoa du, *mozkorti* eratorria geroagokoa izatea pertsona hordia izendatzeko, *gaixo* eta *gaixoti* hitzen artean ere gertatzen den antzera.

«Mozkorra» eta «hordia» pertsonak izendatzeko darabiltzaten erre-frauak, dena dela, ugariagoak dira egoera fisikoari buruzkoak baino. Berariaz *mozkor* edo *hordiak* diren pertsonak aipu dituztenak, nolako pertsona-moduak diren dioskutenak, eta ez hainbeste mozkor egoera bereziari dagozkionak.

Mozkor hitz horren ildoari jarraiki, hortxe dugu goiburutzat hautatu dugun hori, osoago emanda mezu bi uztartzen dituena: «Alperra beti nekean, mozkorra beti egarriak». Pertsona-modu bi aipatzen ditu, biak txarrerako kualitateen jabe direnak: *alferra* eta *mozkorra*. Gipuzkoako Goierri aldean bildua da atsotitz hori.

Mozkorra eta *alferra*, izan ere, behin baino sarriago ageri zaizkigu loturik. (Ikus gure lanaren zerrendako 5. esaera: «Alperra beti nekean»). Batzuetan «etxe-hondatzaile» gisa salatzeke: «Gizon alperra ta mozkorra, etxeko hondamena» (*Garate* 5738). Beste batzuetan, bien gehiegizko joerak nabarmen ipintzeko —lehentxoago aipatutakoaren antzekoa—: «Mozkorra, beti egarriak; alperra, beti nekatua» (*Garate* 9761).

Pertsona hordia *etxe-hondatzaile*, *etxe-galtzaile* edo *etxekalte* delakoa dugu lelorik entzunena ziur asko. Etxea, edo etxeko altzari eta premiazko diren etxe-ondasunak ezerezean saltzeak dakarren hondamendia aipatzen da batzuetan. Gipuzkerazko batek dio: «Zurrutagatikan oheko maindireak ere salduko lituke mozkorrak» (*Garate* 14440). Ez da izango lehenengo bider halakorik lehenengo gizartean gertatu izan dena...

Giro berorretakoa dugu, puntua jagonez, *mozkorra* eta *zorra* josten dituen hurrengo hau: «Mozkorra, etxean nahiko zorra» (*Garate* 9763).

Izenen arteko puntua zaindurik onduak dira beste batzuk ere. Hala *zorrarekin txekorra* ilbantzen duen Gipuzkoa aldeko hura: «Ez zidan eman *zekorra*, deitu niolako “mozkorra”!» (*Garate* 13912).

Umeeekiko konparantza ere egin ohi da mozkorren kontuan: egia diren gaiak, baina isilik gorde beharrekoak, galga barik eralki ohi dituztela batzuek eta besteek ohartarazteko. Nafar errefrau baten esana da: «Egia mozkorrak eta haurrak erraten dute» (*Garate* 3322); eta sartaldeko beste honek ere antzera: «Mozkorrak eta umeak egiarik haundienak» (*Garate* 9764). Mezu berau, euskarazkoetan ez ezik, beste hizkuntzetan ere maiz errepikatua da.

Ehiztariekiko konparantza egiten duenik ere bada, zeinen ezaugarriak diren txarrago eta kalteginagoak epaitzeko. Hala diosku Eibar aldeko batek: «Basarrirako, mozkorra baiño ehiztarixa txarra» (*Garate* 3638).

Animalia ezagunen irudiaz ere baliatu ohi dira mozkorren gaineko errefrauak. *Txoria*, *otsoa* eta *artza* erkatzen dira horietariko batean, bakoitzaren dohai nagusiak agerian ipiniz: «Mozkorrak hiru antz: bat txorixena, kantari; bigarrena otsoena, burrukari; hirugarrena hartzarena, lo» (*Garate* 9765).

Aipatu dugun kaltegin fama horren erakusle dira beste konparantza gehiago ere: *keaz* eta *ituxuraz* —*itaxuraz*, euskara batuan— edo itoginaz egiten den hau, barbarako: «Kia, itxixura ta andra mozkorra, etxegaltzailleak» (*Garate* 8422), baten sententzia.

Biharamona, mozkorren hurrengo eguna, *oste* eguna darabil mintzagai hurrengo honek: «Mozkorren biharamona, txarra» (*Garate* 9768).

Mozkor izena adjektibo bihurturik ere maiz azaltzen da. Izenarekin batera, kalitate-adierazle den adjektibo legez, *gizon* edo *andre* izenen atzean azaltzen da batzuetan: *gizon mozkorra* edo *andre mozkorra*. Eta adjektibo kategoriako izatea salatzen duen ezaugarri garbia, atzizki graduatzailea hartzeko duen gaitasuna: «beste inor baino *mozkorragoa* izan, edozertarako *mozkorregi* etorri, eta denetan *mozkorrena* urlia izan».

Adjektibo modura *hordi* hitza ere bizirik dugu oraindino, gero eta mehatzago azaltzen bada ere. Emakumeak mozkortzea jaiegun seinalatuekin lotzen duenik ere bada. Lehenagoko gizartean ondo nabarmen aipatzen zena, emakumeen eskandalugarri. Hala: «Santixa, gizonak baiño andrak *hordixa*» (*Garate* 11884), dio Markinaldeko batek. Era landuan: «Santiago, gizonak baino andreak *hordiago*».

Gogorarazi dugu gorago, *mozkor egoera gorputz-egoera* adieran askoz urriagoa dela erretrauetan, pertsonen euren adieran baino.

Egoerari buruzko topikorik errepikatuenak, agian, *urarekikoa* dugu. Hala dio esakuntza batek: «Ardoaren mozkorra baino urarena txarrago» (*Garate* 1143). Eta berorren antzekoa beste aldaera hau ere: «Mozkorrik txarrena, udaana (‘urarena’)» (*Garate* 9769).

Beste banda batekoa dugu, mozkorrik txarrentzat *edan bakoa*, *edan eza* edo *ez edatea* predikatzen duen bat. Hala dio: «Mozkorrik txarrena, edan gabekoa» (*Garate* 9770). Beste era honetara Bizkai partean entzuten dena: «Edan bako mozkorra, txarrena» (*Garate* 3201).

Bukaeratzat, jo dezagun pobre-aberatsen artean horditzea neurri diferentziaz epaitzen dela salatzen duen honetara: «Pobrean (‘pobrearen’) edana “mozkorra”, aberatsan (‘aberatsaren’) edana “zelebrea”» (*Garate* 11366).

63

NEURRIAZ NEURTU

Zuk neurtzen duzun neurri beraz neurtuko zara

Norberak besteak neurtzen dituen neurri berberaz neurtuko dutela norbera besteek ere. Hori esatera dator atalburuko erretrua. Mezu honen adierazgarri diren hainbat ditugu erretrautegian. Eta are gehiago *neurri* eta *neurtu* hitzen ardatzean bilbatuak.

Biblian, Testamentu Berrian ageri den esakuntza bera dugu. Latinez: *IN QUA MENSURA MENSURI FUERITIS, REMETIETUR VOBIS* (Mateo 7, 2 eta Markos 4, 24). Lardizabalen euskal bertsioan *kana* dugu neurri-izena: «Besterik neurtzen dezuten kanarekin zuek ere neurtuak izango zerate» (Mateo 7, 2).

Badira erretrua gehiago ere, *neurri* izenaren ordeztu *kana* darabiltenak. Horietariko batek *kanaren* neurri zaharra aipatzen du. Zerbaiten —oihalaren, ganaduaren...— edo dena delakoaren luzera edo zabalera neurtzeko erabili izan den neurri zaharra. «Zuk neurtzen dozun kanaz neurtuko zaitue zeu be» (*Garate* 8243), dio Garateren bildumako batek. Neurtzeko *kana* hori, makila luzenga antzeko bat izan da lehenagoan.

Erretrua esanahia gomendio-aholkua da: har itzazu besteak, besteek zeu hartzea nahiko zenukeen bezalaxe.

Lehenago etxez etxe oihalak saltzen-eta etortzen ziren *kinkilleroek* edo *kinkaileruek*, eta berebat dendariak, neurri jakineko *kana* hori erabil-tzen zuten erosleekin tratua egiteko.

Neurrien inguruan badira hariari polito agindurik, lokuzio edo errefrau bidez mezu-emaile joriak gertatu direnak. Hara batzuk:

— *Nork bere burua neurtu*, nork bere buruari neurria hartzea da maiz aipatzen den mezuetariko bat: «“Lemizik (‘lehenbizirik’) zure burue neur zazu, zein luze ta zein mehar den”. (Inortaz gaizki esaten hasi gabe, zere buruari begira)» (NEZ 2311), Oihenartek ere aintzinago aipatua. Beti ere, norbere buruari ezarri gabeko neurririk inori ez ezartzeko gomendatzen da biziro. Nafar erara: «Lehenbiziko zere burua laur (‘neurtu’) izazu, beste laurriak (‘neurriak’) hartu baino lehen» (*Garate* 8972). Eta Bizkaiko erara: «Lelengo noberan burue neurtu, gero bestiena ikusi» (*Garate* 8960).

— Aldean daramagun soinekoa, edo soinean daramagun jantzia irudikatzen da batzuetan neurritzat. *Galtzak*, edo *prakak*, esaterako: «Hartuko dituzu zeure neurriko galtzak» (*Garate* 5299).

— Oinetakoak ohi dira hainbat errefracutan neurritzat hartzen direnak. Eta oinetakoen artean *neurriko zapata* izan ohi da neurgarri nagusia. «Bere neurriko zapatarik gabe ez da inor» (NEZ 1003). «“Hago, hago! Hire leurriko (‘neurriko’) zapata opatuko (‘topatuko’) duk hik ere”. (Norbaitez parra egiten duenari esana)» (NEZ 1). «“Hik ere errapatuko duk leurriko (‘neurriko’) zapata”. (Bere indarrez edo harroxko dabilenari esana)» (NEZ 435). «Lebriko (‘neurriko’) zapatak egingo zaizkin» (EY 846).

Errefrauetariko batzuek zeharreko mezua eransten diote lehengoari. Harro eta irtento dabilena mantsotzeko, edo kaltegina izan denari zuzendua: «Ailegatu zaio medidako zapata» (*Garate* 10152).

Beste batzuetan, aldiz, norberetzako moduko bizilaguna topatzeari buruz da mezua. Hona hemen Meñakan jaso: “Horrek topauko dau medidako zapatea” (Libe Agirre, informatzailea).

Ibildunaren neurria bidea izan ohi da, beste honen arabera: «Habile, habile, habilen bideak lertuko (‘neurtuko’) hau» (EY 1849).

— Bizitzako arlo diferenteetan *denari neurria hartzea*, gauza guztietan neurria jagon behar dela adierazten dute batzuek. *Neurri* izenaz, eta *bere* posesibo bihurkariak lagundurik batez ere daukagun esapide ezaguna: *bere neurrian*. Hori adieraztera datoz: «Gauza guztietan neurri bat bada» (EY 2417). «“Erreguak erregu t’erdi ez du kabitzen”. (Zein bere neurrian behar dire gauzak)» (NEZ 1552). «Txikiak txikitxo, ta haundiak haunditxo; ezin izan, nahi litzaken neurriko» (NEZ 1505). Natura-fenomeno indartsuen aipamena dakar ondoko honek: «Haizea, ura ta sua, danak onak medidean» (OE).

Janari, jaki eta elikadura kontuan ere bada neurriaren oihartzuna, batez ere urtea luzeegi egiten dela eta, behar adina janari egon ezaz. Hori gogoratzera dator errefrau hau: «“Urteak, adarra luzea du. (Neurritz ibili gauzekin, iraurarazi)”» (NEZ 777). «“Garia, salduko ez bada ere, leurtu deillela (‘neurtu dedilla’)”. (Oiloak esan omen zuen hori, hartatik zerbait jateagatik)» (NEZ 44).

Beste batzuetan, *neurritz jan* behar dela gogoratzeko: «Jendea, jan eta gelditu behar omen da: “Jain lauke, jain lauke” (‘jango luke’). Oraindik jateko gogoarekin; alegia, neurritz jan behar dela» (NEZ 170). *Jana eta lana* aipu direla: «“Bokadu haundie nahi dunai, eztarrin gelditzen zaio”. (Lana ta jana neurrian)» (NEZ 361).

— *Neurririk eza, gehiegia, larregia* txarra delakoa gogoraraztera datozkigu beste batzuk. Gehiegia eta neurria aurrez aurre: «Gehiegia baino, bere laurrian (‘neurrian’) hobe» (*Garate* 5573). Gizaki banakoaren

mailara ekarrita: «Bere neurritik atera ezkeru, persona galdu egiten da» (*Garate* 10153). Eta familia mintzagai dela, seme-alaba gabeko gurasoez honela dihardu beste honek: «“Haurrik ez dunak etxea jan; haurrik ez dunak mundua jan”. (Haurrik ez duenak neurritik ere ez askotan; duena ta ez duena jateko arriskuan)» (NEZ 790). Eta itsasoko bizimodua eta legerik eza, deslegea, aipatzen digu hurrengoak: «Itsasoko legeak, onak on, eta gaiztoak neurri bageak» (EY 2554).

— Bakoitzari ezin omen zaio eskatu, *eman ahal duen baino gehiago*. Neurria dela-eta harira datozen errefrau antz handiko bi: «Bakotxak al daben gainoan (‘neurrian’)» (*Garate* 261); «gainoan» ahozko aldaeraren era landu zuzena *gino, ginoan* dugu, gaur gutxixe erabilia. Eta bigarrena: «Bakotxak al dauen neurrien» (*Garate* 1865).

— Gizakiaren *neurri benetakoa zentzua*, burua, adimena dela ohartzera datozkigu beste batzuetan. Lazkao Txiki bertsolariak (txikia zen bera...) bertotan behin baino sarriago erabili ohi zuen leloa: «Handi-txikian ez da neurtzen gizona». Beste era honetara ere esana: «Gizona lepotik gora neurtzen da» (*Garate* 5836).

— Neurriaren beste ikuspuntu batek gomendatzen du, edozein auzi, arazo edo korapilo lehenengo ondo neurtu behar dela, erabakia hartu baino lehen; zuzen eta zehatz ebatzia hartu ahal izateko. Horretara datoz dira hurrengo biok: «Zazpi bidar neurtu ta baten ebagi» (*Garate* 10162), dio batak. *Zazpi bider* neurtzea ‘asko eta ondo’ neurtzearen adierazgarri da. Beste batek, *bi bider* edo *bi aldiz* neurtzea aholkatzen du, ebatzia hartu aurretik: «Egurra bi aldiz neurtu eta behin ebaki» (*Garate* 3579).

Hemen aipatu direnez gainera, beste asko dira *neurriaren* gorabeheran euskal hiztunek ondu eta garatu dituztenak, baina maiztasuna eta edukia aintzat hartuta, ispilu garden antzekoa eskaini dugulakoan gaude.

64

ODOLKIAK EDO ODOLOSTEAK

Odolkiak ordainetan

Luis Baraiazarra idazleari irakurria diot, *Odolkiak ordainetan* izenburu duen idatzi laburra. Berean dio: «“Odolkiak ordainetan” esaten da gure artean, gipuzkoarren artean batez ere. Honen harian, Markina-Xemeinen, neuri jazorikoa da. Horren zertzeladak ez ditut gogoan, baina kasurako bardin da. Nik aurrez zeozer emongo neutsan hari (libururen bat-edo), eta handik egun batzuetara bera etorri jatan, erregalu bat eskuan, eta esanez: “hartu-emona” behar da gure artean, ez “hartu-eroana” (ez *hartu-eruna*)».

Hari-harira datorkidan errefrau ezaguna da hori, «odolkiak ordainetan» emateak burura dakarkiguna. Giputz hizkeran entzuten da maizenik era horretan. Bizkai aldean ezagunagoak dira horren berorren antzeko formula batzuk. Berariaz bat: *odolosteak ordeaz* (berbaz, «odolostiek ordiez») Urdaibai aldean; *buzkantzak ordeaz* («buzkantzak ordiez») Mungialdean; *mortzillak ordeaz* («murtzillek ordiez») Morgan; *gabonetan odolosteak* Arratia aldean, orde kitagarria noiz emango den zehaztuta, eta antzeko esamoduak beste herri eta berbeta batzuetan.

Baserri-giroko ohikune zahar batek dirau gorderik esapide horren azpian. Adin batetik gorakook ondo dakigu, *odolosteak emotea, odolkiak ematea*, txerri-hiltzearen usadio zaharretik sortu eta irudikatu dela. Orain galerazirik badago ere txerria etxean hiltzea, ez hain aspaldira arte usu eta lege izan da baserri-munduan urtean behin txerria hiltzea. Gurean eta beste herrialdeetan.

Herri txikietan, batez ere auzoen artean, eta hainbat gehiago etxekonekoen edo hurreneko auzoen artean, usu eta lege izan da *odolosteak ordeaz* ematea txerria hil duten etxekoen aldetik, esaera ondo sustraitu horrek darakusen legetxe. Esaera zaharrak dioen lez. A. Zabalak dakarren esaera honek ilustratzen du ederki erritu moduko hau: «Zenbat auzotan, odolkiak ordekotan!» (EZBB 3029).

Auzokoei ez ezik, nori gehiago ematen zitzaizkion odolosteak ordeaz? Herri txikietan behintzat, herriko apaizari, abadeari, maisuari, medikurik bazegoen hari ere bai, eta aginpide handikorik bazegoen herrian, eskribau, legegizon edo beste lagun itzaltsuren bat, harixe ere bai agian... Horrelakoetan ia beti, badaezpada ere. Lagunak, zeruan ez ezik, infernuan ere behar ei dira eta. Aginpidea edo eraginpidea duenak beti egin baitezake mesede edo kalte, fabore edota kontra, egoerak txarrerara joz gero. Odoloste-txortatxoa, mihimenaz lotuta eta aza-orrietan polito batu-batu eginda, borondate oneko esku-erakutsi gisa.

A. Zabalak bilduriko errefrautegian bada bat, antiklerikal-sunda apurra dariona, *odolkiak ordainetan* emate-tratua norekin ez egin argi seinalatzen duena: «Odolkiak ordainetan, baina apaizaren etxetik ez» (EZBB 2292). Apaizaren etxean ez zegoen, antza, txerri-hiltzerik, eta hain gutxi odolkirik ordainetan ematerik.

Tradiziozko auzoen arteko harreman onaren erakusgarri izan den odoloste-tratu horrek, esakune bihurtu denean, herri-berbetan bigarren adiera bat bereganatu du, esangura figuratiboa, eta ez onespenezkoa,

ironia gaitzesgarriagoz gantzutua baino. Hala erabili ohi da, urliaren batek kalte edo ezbeharren bat egiten badio norberari, ordeaz beste hainbesteko ordaina berari ematea aditzen emateko. Kaltezko zamaz entzun ohi da gehiago, eta aldiz nekezago, mesedea mesede-truke egitearen adieraz.

Odolki edo *odolosteak* beste errefrau batzuetan ere irudi ezagun bihurtu dira. Hara hurrengo lerroetan batzuk-batzuk.

Pertsona baten *izaeraren adigarritzat* ere erabilia da. Emakumearen, etxeakoandre baten irudi gisa batzuetan: «*Maria* zelako, *odolkia* halako» (EY 217). Apaizaren, irudiaz ere konparagarri bera dugu: zelakoa den apaiza, *odolkia* ere halakoa irteten ei da. Errefrau baten esanean: «*Apaiza ta odolkia*, egiten diran bezelakoak izaten dira» (EY 128); beste batenean: «Apaizak eta odolkiak, egiten diran modukoak» (OE). Eta hirugarren batek ere antzera: «Apaizak eta odolkiak, nolakoak ateratzen diran» (OE).

Gizakiei buruz orokorrean ere erabilia da beste batzuetan: gizakiotarikoa bakoitzean ei dago zer edo hura ondo edo gaizki egitearen giltza. Errefrau honen esanean: «Odolkiak, egiten diran bezelakoak izaten dira» (EZBB 2291).

Erakutsia, sakonean: gauzak ondo edo txarto egitea norberegana dagoelakoa. Odolostea ondo egitea, fintasunaren, ahaleginaren eta esku onaren erakusgarri izan ohi da, etxeakoandre ona edo herriko apaiz ona izatea den bezalaxe.

Txakurkiaz, ahunzkiaz edo katukiaz ere, animalion haragiaz, euren hesteez baliatuz egin daitezke odolosteak berez, baina ez dio inori buruak ematen horiekin odolkiak egiterik. Alegiazko odolosteak edo hura balitz legezkoak aipatzen dira batzuetan, huskeriaren, ezerezaren edo ezer balio ez izatearen irudi modura.

Inozente Egunez erabili izan den esapidea, *txakurraren odolestea*, da, kontestu librean erabilia, ondoko esaera honetan aipatzen dena, *bestea* hitzaz puntua jagoten duela: «Hau ta hori ta bestea, *txakurraren odolestea*» (EY 716). Ahuntzaren irudiaz beste hainbeste hurrengo honetan; hemen ere *bestea* hitzarekin jostatuz: «Bestea, *ahuntzaren odolestea*» (EY 735). Eta katuaren odolostea ere ezaguna da hutsaren edo ezinezkoaren iruditatzat: «Neure begiz ikusia, *katuan ondoren odolkia*» (EZBB 2207).

Odolostea neguko janaria dugu, jakina denez; artisau-esku finen langintza eskatzen duen janaria. Ondo egitean dago *odolostearen* sekretua, eta txarto egitean desmeritua eta izen txarra. Odolaren eta odolostearen artean sakoneko lokarria dago nonbaiten ere; izan ere, odol txarrarekin ez ei dago odoloste onik egiterik: «Odol txarragaz *odoloste txarra*» (EY 2720) epaitzen digu errefrauak.

65

OFIZIO GEHIEGI

Hamalau ofizio, hamabortz miseria

Ofizio izena, mailegu-hitza den arren, beste edozein baino erabiliagoa da gure tradizioan zein mintzairan. Zergatik edo hargatik indarrrik gehien irabazi duena hiztunen ezpainetan, nahiz hizkera jasoan, garbitasunaren mesedetan, beste izen «puruago» batzuk hautetsi ditugun idazle, esatari eta enparatuok. Hala: *lanbidea*, *bizibidea*, *ogibidea*, edo klasikotasun lilura handiagoko diren *langintza* eta *behargintza*. Nolanahi ere, herri-berbetan *ofizio* indar handiko hitza dugu; endemas errefrautegian.

Errefrau hori ezaguna da herri-hizkeran. Oraintsurengo Paskual Rekalde Amaiurko semea den euskaltzainari entzun izan diot: «Hamalau ofizio, hamabortz mixeri» (Paskual Rekalde, informatzailea).

Goiko errefrau horrek, «Hamalau ofizio, hamabost miseria» delakoak, elkarren segituko zenbakiak izendatzen ditu lerroz lerro, hamalau-hamabost, baina gorengo zenbakia dagokio beti ere okerrenari, txarrestekoenari: *miseriari*. Beheragoko zenbakiekin ere erabilia da errefrau berau: «Hamabi ofizio, hamairu miseria» (*Garate* 10252), *Garatek* dakarren gisan.

Ofizioak direla eta, osterantzeko aburu eta iritziak ere isurtzen dira esakuntza bidez. Batzuk-batzuk gogorako ditugu:

— *Ofizio berekoen arteko lehia*: «Zein da nere kontrarioa? Nere ofiziokoa» (*Garate* 8480), dio batek. Esatari berak, galde eta erantzuna berak emanda josiriko errefraua. Beste era honetara ere, egitura banatzailearen bidez formulatzen dena: «Nor nere ofizioko, hure nere etsai» (*Garate* 10259).

— *Alfer-nagiak eta ofiziodunak bereizten dituztenak ere badira*: «Kentzeko bizioa, onena ofizioa» (*Garate* 10255), baten esana.

— Bizimoduan aurrera egiteko *balio ez duten ofizioak* astintzera eta baztertu beharrekotzat jotzera datoz esakuntza batzuk. Batek dio: «Afizioa, mantentzen ez zaituen ofizioa» (*Garate* 196). Mezu bera beste era batera esanda: «Mantentzen ez zaituen ofizioari, ostikadia» (*Garate* 10256).

— *Ofiziorik txarrentzat* edo txarrenetarikotzat jotzen direnak, eta maiz aipatzen direnak, lapurreta eta eskean ibili beharra: «Munduan azken ofizioa, ohointza; azkenaren aintzinekoa, eske ibiltzea» (*Garate* 10257). Latz eta gordin astintzen den lanbidea, morroiaren morroi denarena. Huraxe omen da besteentzako kalteginena: «Ofiziorik txarrena, morroiaren morroi» (*Garate* 10262).

— *Bakoitzak berean jardutea* tokatzen dela dakarte gogora beste batzuek. Hari horretakoa dugu hurrengo hau: «Nor bere ofizioan» (*Garate* 10258). Baina esakuntza zaharrak ere badira mezu beronen harikoak. Gaurko hizkeratik ulertzen zail ere zail den bat: «Haur ol<h>a, zirola!», Oihenartek dakarren hura, eta Alfonso Irigoien hizkuntza-ikertzaileak determinatzaileen inguruko ikerketa-lan batean izenburutzat hautatu zuena. Gaurko eraz esanda: «Hona hemen mahaia (‘lantokia’), zapataria!». Eta irakatsia, gaztelaniazko ZAPATERO,

A TUS ZAPATOS errefrau ezagunaren irakatsi bera: «Aurrean duzu ohola, zapataria, oinetakoak konpontzeari heldu»; esan nahi da, dakigunaz hitz egin dezagun, nork bere arloan, inorenean sartu gabe.

Eta zapatariaren irudiaz ondua eta antzeko muina duen beste zahar bat ere ezaguna da. Alegia, lanbide kontuan, norberarena utzi eta bes-terenari heltzen dionean, emaitzak bestelakoak izan ohi direla dioskuna: «Arotz dinean zirola, oski ('zapata') gitxi urratu doa» (RS 275).

66

OGIA ETA HAGINA*Ogi gogorrari, hagin zorrotza*

Esakuntza honen euskarri biak, irudi garbiko sintagma bi dira: *ogi gogorra* eta *hagin zorrotza*. Esan dezagun, nolnahi ere, euskaraz baino inguruko erromantze-hizkuntzetan, jateaz eta janariaz zerikusia duten irudiok ezagunagoak eta zabalago dabiltzanak direla. Ezagunak, gaztelaniaz ez ezik, beste erromantzeetan ere. Gailegoz badugu bat, *ogi gogorraren* irudipean konparantza hau egiten duena: *VALE MÁIS PAN DURO QUE PEDRAS MOLES*. Hau da: «Hobe da *ogi gogorra*, harri biguna baino».

Euskaraz idoro ditugunen artean, badira goiko irudi bera, *hagin zorrotzarena*, pluralez ematen dutenak: *hagin zorrotzak*, hartan ere. Batek dio: «*Ogi gogorrari, hagin zorrotzak*» (*Garate* 10276). Gipuzkerazkoetan, sartaldeko *hagin* izenaren lekuan *hortza* aipatzen da gehiago: «*Ogi gogorrari, hortzak zorrotz*» (*EY* 1095). Baditugu mezua ezezka ematen duten aldaerak ere, nahiz mezua bat eta bera izan. Sartaldeko baten esana: «*Goseak dagonantzat, ogi gogorrik ez*» (*Garate* 6099). Eta ekialdeko beste baten hitzak: «*Gose denaren ezta ogi gogorrik*» (*EY* 2451). Ekialdeko hizkeretako gramatika-ezaugarri bitxi bat gorderik du *gose denaren* itxuraz genitiboa den horrek. Ez baita izenlaguna, adizlaguna baino, esanguraz benefaktiboa: «zerentzat», Hegoaldekoon «*gose danarentzat*» eraren esangura berekoa.

Klasikoen artera joz geroz, Mogel idazle berdingabearen aldaera dotore hau aurrera ekarri behar dut, ezinbestean. Hala dio *Peru Abarkan*: «Gose onarentzat ez dago jaki dongarik».

Mezuaren harian urruntxoago joko bagenu, *gosea* aipu duten errefracuen hotsak ere ez dira falta. Bat, guztiz ezaguna: «Txakur goseak, ogia ames». Mogel idazle eta maisu handiak laburtxoago darabil atsotitz berau, baina irakatsi-azalpen baten barruan txertaturik. Hauxe dio: «Esan oi da, *txakur gosea ogi ames*. Daramate eguna bizitza lasai ta aragi-gosean, ematen diela bidea pensamentu loi askori, esaten dituztela izketa zatarrak, egin akzio lotsagarriak, jira ta bira bekatu loien inguruan dabiltzala. Oek, zer ames egin bear dute beti gogoan darabiltena baino!» (EE).

Baina tradizioan badira, mezu beraren adierazle diren beste gehiago ere, irudi diferenteez onduak. Hala, Oihenart zuberotarrak bere bilduman dakarren hau: «Urde goseak, ezkur amets» (*ProvBasq* 456).

Azkuek dio, Markinan ezaguna dela errefracu hori, baina *ogia*ren lekuan *artoa* konparagarritzat darabiltena. Jabier Kalzakorta irakasleak errefracu honen harian bildua da, Markinan hala esaten dela eta, Azkuek dakarren aldaera hau berau: «Txakur gosiek, artue ames». (Ikus gure lanaren zerrendako 44. esaera: «Urde goseak, ezkur amets»).



67

ON BILA*On bila, on bila, bonbila!*

Gernikaldean oraindik ere entzuten den esakuntza dugu berau, baina aldaera bat edo besterekin hor-hemen bizirik dirauena. Hitzez entzuten den baino urriago erabilia dirudi errefrautegietan. Ez da ondo dokumentaturik dagoen horietarikoa. Azkuek bere bilduman jasorik dakarren aldaera honek, edozelan ere, ezaina dirudi esapidez: «On billa, on billa, kaka-pilla» (EY 872).

Esanahia: ahaleginak ahalegin, borondaterik onenaz egindako beharraldiak *huts ematea*. Eta sekulako ahalegina egin bada, lehen ondo zegoena *hobetu beharrez*, eta horretarako asti gehiegi eralki izan bada, eta emaitzetan, ondorioetan *huts egin bada*, orduantxe jotzen da errefrau hau erabiltzera.

On bila edo *onaren bila* beste esakuntza gehiagotan ere azaltzen da. Baina hurrengo honen mezua, esaterako, ez da aurreko horien berdina, zeozertan antza eduki arren. Bertso-tankeran ondua da: «Onaren bila, gaizkiaren igesi; horrela bizitzea, ez du merezi» (*Garate* 10665). *Ona* eta *gaizkia* aurkakotzen dira berean. Eta hurrengo beste honek ere halatsu, *ona* eta *txarra*, sintaxi berezi eta bitxi honekin: «Onaren hoa bila ta txarrari makila» (*Garate* 10667).

Gaztelaniaz bada esakuntza guztiz ezagun bat, goiko errefrauaren mezu bertsuaren iragole: onena onaren arerio bihurtu ohi dela. Euskaraz badu ordain hurreko bat, *ona* eta *etsaia* aurrez aurre dituenak: «Onena, onaren etsai» (*Garate* 10737). Eta berba bertsuak darabiltza beste aldaera honek ere: «Hobea, maiz onaren etsai» (*Garate* 6926).

Eta onik onenaren bila, perfekturik perfektuenaren txutxuan dabil-tzanen kontura, jokaera horren on-gaitzak gogoraraztera datozen atsotitz berdintsu birekin amaituko dugu jarduna. Bataren esana: «Norbera da bere buruaren etsairik haundiena» (*Garate* 10203). Eta bestearena: «Guk dugun etsairik handiena, geure burua dugu» (*Garate* 4574).

68

ONUUA EDO KONTSEILUA*Onurik ez dau inork beretzat, eta bai besterentzat*

Gaztelaniaz ere gaur egun pil-pil entzuten den esakuntza da, *eduki-ez eduki* edo *izan-ez izan* aditzen ordeztu, aholkuak besteri saldu eta norberetzat predikatzen duena eduki ez.

Garbi dago zer aditzen emateko. Norbere buruarentzat aintzat hartzen ez edo norbere arazoak konpontzen jakin ez, eta besteri sakatu nahi, edota norbere arazoak konpontzeko gauza izan ez, eta inorenak konpondu guran lehiatzen denegatik esan ohi da.

Euskal errefrau-bildumetan urri azaleratzen den esakuntza da berez, eta erdarazkoetan orobat. Baina lekukotasun zaharra du zinez euskal errefrautegian; goiburuan ezarri den hori bera. XVI. mende akabuko *Refranes y sentencias* bilduman ageri da bat, egin-eginean ere gaztelaniaz entzuten denaren edu-edukoa. Euskaraz dio: «*Honuarik ez dau inok beretzat, ta bai bestentzat*» // CONSEJO NO TIENE NADIE PARA SÍ, Y SÍ PARA OTRO (RS 153).

Onuarik dio errefrau zaharrak, *-rik* atzizki partitiboaren aurreko izenari *-a* bokala datxekala; hitzaren bokal itsatsia nonbaiten ere, eta ez mugatzailea. Adieraz, 'kontseilu, aholku' esangurakoa. Harrezkero berba hori lozorroan edo behaturik egon da mendeetan, harik eta XX. mendeko giro

garbizalearen olatuaren indarrak bizi berria hartu zuen arte. J.M.^a Dornaku eta I. López Mendizabalen artean osatutako 1916ko euskal-erdal hiztegi garbizalea ezkerre, idazle batzuk *onu* izena erabiltzen hasi ziren, «kontseju» mailegua saihestu nahirik. Tamalez, ez berbaz, ez aurreko mendeetako tradizio idatzian ez dugu *onu(a)* izenaren arrastorik idoro.

Gudu aurreko administrazio-idatzietan hartu zuen hats berria *onu* hitzak. *Euzkadiko Agintaritzaren* agerkarian erabiltzen hasi ziren sasoi horretan, bai *onu* eta bai *onulari*, gartzelaniaz CONSEJO eta CONSEJERO kontzeptuen ordain gisa. Gerratearen etenaren ostean, *onu* hitz hori baztertuxe geratu zen. Eta horren txanda, batez ere euskara batua finkatu zenez gero, *kontseilu* eta *aholku* izenek hartu dute; biak ekialdeko tradiziotik jareginak.

Sartaldeko idazleek eutsi diote batik bat hats emanez *onu(a)* zaharkituari. Bat aipatzekotan, Otxolua mundakarra egingo nuke: «Bakandereak, agur esatean, Bertoldineri *onu batzuk emotea* eretxi eutsan zuhur» (*Bertolda*). Bigarren bat, Kirikiño mañariarra: «Hau ezeze, gero, gurasoakandik hartzen ebezan *onu* deungak, amorruez emonak» (*Abarrak I*). Hirugarren bat, Lizardi idazle zolia: «Eskutartean darabilgun ikasketa hontan horixe nai degu, askoen *iritzi ta onuak*, ahal danik egiena izan dedin» (IL). Eta gerra ostean, Eusebio Erkiaga lekeitiarrak ere sinonimoen katebegi gisa: «Zenbat *onu, aholku, esan* (...), osasuna zaindutearren» (*Arranegi*). Sinonimoen kate barruan, *onu, aholku, esan* darabiltza.

Herri-berbetan, ostera, *kontseju* hegoaldean eta *kontseilu* iparralde-ekialdean dira bizirik dirauten mailegu-izen nagusiak. Eta bada hirugarren bat, *aholku*, behinola zuberotarrez eta behe-nafarreraz apurren bat erabiltzen zena, azken mendean euskara osora hedatu izan dena; gehienik ere aurreko bien mailegu-sunda hori uxatzeko ahaleginean.

Errefrauetan zer beste izen ageri zaigu «kontseilu» horren adieraz? Hurreko berbak, *erakutsi ona* eta *irakatsi ona* beharbada herri-hizkeran. Eta berbeta modernoan berariaz: *kontsejua*.

Goiko errefrauaren esangura berekoak ez badira ere, hurreko adierak jagoten dituzte hurrengo hauek ere. Labur esanda:

— Ekialdeko errefrau bat, aholku-emaileak ugari izan ohi direla, baina hartzaileak urriak ohi direla gogorarazten diguna, goiburuko horren ildo beretik: «Kontseilu, hainitzek emaiten, guttik hartzen» (*Garate* 8483).

— Gaiztotasuna darion lagun baten aholkuari ez ei zaio fede handirik eman behar. Hala, Zeanurin eta Lezaman baturiko honek dio: «Gizon txarrak konseju onik ez» (Aitor Olivares, informatzailea). Eta urrunago joanda, Agustin Iturriagaren alegietan mezu bera: «Bein ere konsejuak ez dute indarrik, / irteten badirade gaiztoen aotik» (*Iturriaga*).

— Okerreko aholkuen emailea gordin eta zorrotz astintzera dator hurrengo esakuntza hau: «Traidore da bere buruaren, kontseiluari gordatzen ari dena egiaren» (*Garate* 12416).

Gotzon Garatek *Atsotitzak* bilduman dakartzan beste batzuek ere *kontseilua* dute euren autugai:

— Aholku onaren berebiziko balioa: «Kontseilu ona, urre ona» (*Garate* 318).

— Aholku onak abagadune egokian, era ona denean, erabili behar izaten dira beranduegi gerta baino lehen inolaz ere. Hala dio batek: «Berant debila nehor kontseilu bilha, eskukara jinez gero etsaiekila» (*Garate* 2366).

— Eta azkenengo bat, derrigorrak edo estukurak eraginda penaz dabilenari kontseilu ematea alferrekoa dela gogora ekartzeko: «Tripa hutsari ez zaio kontseilurik emaiten» (*Garate* 12443).

69

ORPOA ETA ARANTZA

Ez dago etxerik, orpoan arantza barik

Orpoan arantza bat edukitzea edozeini edo edozein etxetan gertatzen delako esaera, problema, arazo, buruhauste edo nahigaberen bat edozein familian gertatu ohi dela bistaratzera dator. Orpoko arantza horrek, oinez gabiltzanean eta oinekin behea zapaldu, min ematen duen modu-moduan, halaxe etxekoren bati nahibako txarren bat gertatzen zaionean ere, etxe-barruko edo hurreko direnei min eragiten diela ezbehar horrek.

Orpoko arantzaren irudi bizia, gardena eta fina. Galdakaoko Erletxeta auzoko andrezko bati entzuna da: «Eztago etxerik, orpoan arantza barik» (Rosa Maria Basterretxea, informatzailea).

Orpoan arantza edukitzea irudia guztiz ezaguna dugu euskaraz, ezagunagoa agian sartaldeko euskal hiztunen artean. Eragozgarri, behaztopo, ataza edo arazo bihurtu zaigun dena delakoaren metafora gisa erabilia. Beste herri eta euskal komunitate txikietan ere era batera edo bestera esaten dena. Mendatan entzuna dugu honako

konparazio-esapidea ere: «*Orpoan arantzea baino hobea da hori, ez zaitez kexau!*».

Orpoetan harra eduki ala ez edukitzearen formulaz baliatzen dira beste hiztun batzuk. Era honetara jasorik dakar Garatek bere bilduman: «Gura danerako *orpoetan harrik ez*» (*Garate* 6124). Esapide honen mezua bestelakoa da: zeozertarako beti prest agertzea, inolako arazorik ez aitzakia barik gertu eta borondatetsu azaltzea bat, arin eta agudo, behar den horretan laguntzeko. Beste egitura batez, baina hitz berekin taxutua dugu beste lokuzio hau ere: *orpoetan har barik*.

Orpoetan *harra* edo *arantza* eduki, sinonimo birekin gauza bera esatea da. Esapide biotan, bestalde, ezezka emana dugu adierazpena: ‘arin baten’, ‘bizkor’, ‘agudo’ aditzera emateko. Zeberrioko herritarren berbaera-ekandutik jalgia da hurrengo pasarte hau: «Jaten joateko konbitea egin eutsiengan, *orpoetan har barik* urten eban etxetik» (Juan Manu Etxebarria, informatzailea).

Gure idazleen artean ere behin baino sarriago irakurtzen da *orpoetan arantza* edukitzearen irudia. Ebaristo Bustintza *Kirikiñok*, orain mendebete, irudi gisa idatzia da: «*Orpoan arantzea sartzen* danean, bertan handitua egiten dau» (*Aberria*).

Euskal lokuzio eta errefrautegietan, badira *arantza edukitzearen* irudi-formulak, berariaz pobre izatearekin zerikusia dutenak. Etsenplu bi ekarriko ditugu. «*Pobrearen oinean beti arantzea*» (OE) dio horietako batek, Justo M. Mokoroak aspaldi bildua; eta ezezka formulaturik, horren berdina: «*Pobrearen oinian egundo arantzaren paltarik ez*» (*Garate* 11371), dakarkigu Garatek bere sorta oparoan.

D. Inza nafarrak *zahia* eta *errena* (‘arantza’) irudiez ehoriko honako errefrauak bildu zuen: «Etzaio faltako horri zahian erren bat» (NEZ 158). Eta azalpen argigarri honez lagundu zuen: «Zahian ez da izaten

arantzarik; baina gizon horri bai, *zahian* ere aterako zaio *arantzaren bat*, non-nahi agertuko zaio behaztoporen bat».

Arantzaren irudia larrosei loturik ere maiz aipatu izan da, gurean bezala beste hizkuntza batzuetan ere, eta ia beti mezu bertsuaren adierazgarri: «Ez dago larrosarik, arantza bakorik da gure artean ezagunenetarikoa. Baina aldaera ugariak ditu esakuntza horrek, erabilia den eremu zabalean barrena. Erdialdeko hizkeran honela jaso zuen Aita Zabalak: «Ez dek larrosarik arantza gaberik» (EZBB 1097) batetik; eta «Larrosa arantz gaberik ez» (EZBB 1911), bestetik. Nafarroako bertsoetan beste sinonimo-hitzez ere azaltzen da: Ziztenik ez duen arrosik ez da» (NEZ 1350). *Ziztena* eta *arantza* bat dira.

Lorearen izen generikoa ere ageri zaigu, larrosa ez ezik, arantzak direla eta. Azkenengo garandu nahi dugun errefrau honek, darakusen irudi poetikoagatik baino ez bada ere, merezi du aipamentxo. Lore eta arantzen artean dagoen aldea bizitzako *on-gaitzak*, *gozo-mingotsak* aurkez ipinirik azaleratzen dizkigu: «Loreak arantzea, ta gozoak be mingotsa» (EZBB 1961).

70

OTSAILA EDO ZEZEILA

Otsailean aldiz eguzkitan, aldiz sutantzean

Otsaila dela eta, hasteko gogoeta labur bat izen honen jatorriaz.

Otsail hitzaren jatorria, *hotz* hitzarekin duen hots-kidetasunari benetako iturburutzat iritzirik, izan dira gure artean, hainbeste etimologia-zale sortu duen lurralde honetan, hil honen sorburua *hotz* hitzean aurkitu uste izan dutenak: «hotzaren hila» delakoa hartan ere, negu gorriko eguraldia ointzat harturik, *otsaila hotzarekin* birbataiatu nahi izan dutenak. Sasikotzat jo beharreko jatorri-iritzia, bere zelebretasun eta guzti.

xvi. mende hasieratik ageri zaigu gutxienez hil-izen hau horrela idatzirik: «Febrero. *Oçall(e)a*. Februarius» (Iruñea 1501). Hil-izen honen oinean *hotza* dagoelako iritzi zahar hori, hitz biok hots bereko edo ia berdineko izatean datza, jakina. Baina (*h*)*otz* eta *ots-* ez dira berez hots berberak, sartaldeko eta erdialdeko hizkeretan berdintzera egin badute ere, eta neutralizaturik agertu arren gaur egungo hiztunon ahoskeran.

Baina berez, *otsail* izenak *otso* piztia-izenean du oina, euskararen hitz-elkarketa lege zaharrear *-o > -a* bihurtzearen ondorioz. *Otsail* izenaren *otsa-* lehen oinak *otso* izena du atzean, *artaburu* hitzak *arto* izenean edo *astakirten* hitzak *asto* izenean duen bezalaxe.

Beste hil-izen bakan batzuetan ere ageri-agerikoa da piztia edo abere izenen presentzia. Urrun joan barik, sartaldeko *zezeil* izenaren azpian *zezen-hila* datza, eta *katuil* izenarenean, *katuen hila*.

Zein den animalia ugaztunen izenak izatearen arrazoia? Otsail inguru horretan, natura berritzen hasten den ber, animaliak, ar eta eme, berotzen hasten dira, eta berotasun horren epelean ar-emetzen.

Sartaldeko hizkeretan gaur egun, *febreroa* maileguaz ostean, *zezeil* —edo *zezil* ere bai— izena bihurtu da nagusi, baina ez dezagun ahantz lehenagoan *otsail* izena ere ondo sustraiturik egon dela, ordezkapen hori gorabehera. Gure errefrau zaharretan dugu diogunaren lekukotzarik garbiena: «*Otsailean* aldiz eguzkitan, aldiz sutantzean» // EN FEBRERO, A TIEMPOS AL SOL, A TIEMPOS AL AMOR DEL FUEGO (RS 323) dio horietarik batek. Eta: «*Otsailgo* euriak eraiten dituz onzoeriak (gatzelaniaz ONZONERO; euskaraz ‘lukuraria’)» // LLUVIAS DE FEBRERO, MATA A LOS LOGREROS (RS 89), beste batek.

Idazle zaharretan ere badugu, *otsaila* eta *otsoa* kidetzen dituen esaldi adieratsu bat, Etxeberri Ziburukoaren obretariko batean, hain zuzen: «Nola *otsailean* oihanetan *otsoak* [...] habarrotsak banantzen baititu» (MD).

Hotz izena ointzat hartu izan balu, *hotzila* zatekeen, eta ez *otsaila*. Harrigarri egiten zaigu irakurtzea Satrustegiren arrazoibidea hitz honen etorkiaz: «FEBRERO. *Oçalla* (1501), MES DEL FRÍO. ESTE DATO DESCARTA LA ETIMOLOGÍA POPULAR ‘MES DE LOS LOBOS’, *otso*, Y PLANTEA LA DUDA ORTOGRÁFICA *otsail/otzail*».

Barantaila dugu hil honen beste izen zahar gutxi ezagun bat, zuberotarrez iraun duena. Latineko PARENTALIA batetik ote letorkeen aurreratu zuen Eulogio Gorostiaga ikertzaileak. Oihenarten errefrautegian ageri den izena, edozelan ere, xvii. mende goiztiarrean: «Loila, ez hadila oila. Ondotik darraik *barandaila*» (*ProvBasq* 303). Azkuek Zuberoako lekukotasun hau utzi zigun jasorik, balio etnografiko osoagokoa: «*Barantaila*, emazteen eta gatuen ilhebetia da. Martxoa gizonena» (EY I 66).

Otsaileko errefrauetara hurbiltzen bagara, berbaz ezagun samarrak diren bi gogora ekarriko ditugu. Lehenengoak *katua* izendatzen digu, *katuil* izenaren sorburua, eta herri-sineste eta erranetan maiz azaleratzen dena: «*Zezeila*, katuen hila». Bigarrenak eguraldia du mintzagai: «*Zezeila euritsu*, bedartzak ederto gizendu».

71

OTSOA

Otsoa non aipa, han gerta!

Otsoaren izena eta izana gure errefracuetan maiz ageri da. Eta ez dira gai edo joera batekoak aipu guztiak. Askotarikoak eta bana-banakoak daude horien artean.

Otsoaren agerrera iragartzen duten esakuntzak unibertsalak dira, Txanogorritxo edo *Rotkäppchenen* herri-ipuinak ondo islatzen duenaren gerizakoak.

Eta zein izan ohi da agerraldi beldurgarrion mezulari? Esakuntza bartzuen arabera, otsoa bera ei da mezularirik onena; agertuz batera jakiten ei du mundu guztiak. «Otsoakez du bera bezalako mandataririk» (EY 592), dio aldaera batek; eta «Otsoak ez du bera iduri mezurik», beste batek.

Otsoa beldurraren seinale dugu esakuntzarik gehienetan. Otsoaren aipua, izuari eta laborriari atxikirik ageri zaigu. Izenaren aipua sarra-kioa dakarkio edonoren gorputzari: «Nahi ez duenak dei dezaten *otso*, ez dezala jantz *otso-narrurik*» (EY 552). Beste era batez: «Behin “otsoa” esan ezker, otsoa beti» (EY 586). Eta hirugarren batek berretsi: «Billur danak sasi guztixek otso» (*Garate* 2313); hau da, beldurtiegi denak edozein izu-itxuratan dakusa beldurra.

Goiburuko errefraua girotzen duena da, ustebakoren bat jazotzen denean, edo nobedade txarren bat gertatzen, otsoaren izena ahotan hartzea: izena entzutea bera asko dela, berbertan ager dadin: «Otsoa aitatu ta otsoa atetan» (EY 586), Azkueren bertsio baten arabera. Baina gaur dugun formarik ezagunena, literatura idatzian ere oihartzun zabala irabazi duena: «Otsoa non aipa, han gerta!» (EY 589).

Kaltegina den pertsonaren gorabeheran, gaitz horri zabalerarik handiena ematea jarri ohi da argudiotzat: bazter guztietan daudela kalteginak, kalterako gertu dagoen jende-modua. Hori akordura ekartzera dator, *oihana* eta *basoa* berbagai dituen errefrau zahar bat, Isasti historiagileak xvii. mendean bildurik utzi ziguna, eta gero Azkuek errepikatu: «Oian orotan otso bana» (*Isasti* 69). Esatea legez, noranahi joanda ere, edozein lekutan gertatzen dela inguruan jende-modu dongea.

Alegietan edo fabula tipoko ipuinetan ere pertsonaia ugaria da otsoa. Batzuetan *otsoa eta ardiak*, edota *otsoa eta bildotsa*, ageri zaizkigu behin baino sarriago kontrajarrian. Errefrau laburren atzean, alegi-fabulak edo herri-ipuin luze eta osoagoak izan ohi dira. Otsoak ardiak jatearen errua, euren jagole direnen elkar konpondu ezinetik ohi datoze-lako mezua demaigu batek: «Horak aharren direlarik, otsoak ardia jaten» (EY 577). Eta otso gosezto salobrea beti adi eta zuhur egon ohi dela, ihizia nondik zelan atzipetuko, dirauskute beste batzuek: «Otsoa ardien zai» (EY 587), edo «Otsoa ardi zai» (EY 587).

Sen bereko edo hurrekoak ditugu hurrengo hauek ere. Arrisku larria dagoenean, handik ihes egin beharra abertitzen digu batek: «Zer da mira, ardiak otsoari ihes ari badira?» (*Garate* 1085). Arriskua dakarkigun horretatik urrun hobe, onezean eta lausenguz bera mantsotzen denbora alferrik galdu barik: «Artzaia otsoa laztantzen, ardiak gaizki ateratzen» (*Garate* 1340).

Otsoa eta bildotsa protagonista dituzten beste errefrau batzuen inguruko zertzelada bereizgarri gutxi batzuk ekarriko ditugu. Lehenik, bere burua kikiltzen duenari etorkizun zorigabeak itxarongo diola diosku batek: «Bildots egiten dena, laster otsoek jan» (*Garate* 2623). Eta bigarrenik, otsoa ardi-larruz edo bildots-larruz janztearen topiko ezagunera jotzen duenik ere bada: «Otsoa ezin bildots bilhaka» (*Garate* 2624).

Ugazaba edo *nagusi asko* dituenaren patu zorigaiztokoaren eskarmen-tuaz baliatzen dira beste batzuk. Zahar-tankerako batek dio: «Ororen ardia otsoak jan» (EY 584); eta oraintsuagoko itxura duen beste batek: «Askoren ardiek, otsoak jan» (*Garate* 1384).

Otsoa eta azeria, zein baino zein kalteginagoak, baina biak mendu bereko direla gogorarazten digu honek: «Azeria eta otsoa, auzo batekoak» (*Garate* 1758).

Otsoen eta txakurren arteko areriotasunak ahulago baten lepotik baretzen direlako sinestea, biak elkarrekin batzan erkin edo kikilago baten kontra, errefrau zahar honen esanean: «Otsoak eta horak ahuntzaren bururean bake» (EY 591).

Eta ondorio-irakatsi gisa, otsoekin etxekotasunik, ez lagun izaterik ez hartzera aholkatzen zaigu behin eta berriro. Fidagarri eta sinesgarri ez den pertsonaren irudi betea islatzen du otsoak. Errepikaz erabili ohi den konparantza dugu, otsoa eta atzerriaren arrotasuna berdintzen duten errefrauetakoa. Zaharrena, agian, Oihenartek eskaintzen digun eta guztiok beraren jakin garen hura: «Atzerri, otserri» (*ProvBasq* 49).

72

PITXERRAZ ITURRIRA

*Beti iturrira dabilen pitxerra,
behin edo behin hautsi egiten da*

Errefrau hau, euskaraz, Mateo Zabala idazle sermolariak idatzirik utzi zigun sermoietariko batetik hartu dugu (*IrunSerm*).

Antz osoa du, uretan iturrira joan eta pitxerra haustearen irudia, gaztelaniazko ezagunago den hartatik irauli izan duela. Baina, egia esanda, hainbat hizkuntza nagusitan irakur daiteke errefrau bera irudi berarekin edo bertsuaz. Bai mezua, bai irudiak, unibertsalak dira.

Euskaraz, irudi berberak edo hurrekoak erabilirik, beste era batzuetara ere aditzera eman izan da mezu berau. Sartaldeko aldaera bat bada, berbaz honela entzun izan dena: «Sarri iturrira doien pitxerra, lentxuago ezpada gerotxuago, apurtu» (*Garate* 11320). Eta ekialde bazterrekoa hurrengo hau, B. Etxepareren *Linguae vasconum primitiaek* lehenengoz ekarri eta G. Garateren bilduman ere baturik dagoena: «Pitxer ebilia hautsi diohazu» (*Garate* 1131).

Pitxerrarenaz barik, *txarroaren* izenaz adierazia da erdialdeko aldaera bat, A. Zabalak bere bilduman jaso: «Iturrira maiz dabilen txarroa, hautsi egiten da» (EZBB 25). Eta eri berekoa dugu beste

hau ere: «Iturbidean dabilen pitxarra [edo txarroa] bidean hautsi» (Garate 7521).

Euskal literatura landuan ere izan du oihartzunik *iturrira sarri doan pitxarraren* irudiak, idazleak bere kontaearen harira berariaz erakarrik. Hori da F. Arrese Beitiaren kasua: «A! Lorentzo! Lorentzo! Zu horren kokorik / egongo zineala eneukan usterik. / *Pitxarrak badabiltza sarri iturrira*, / *noz edo noz hausiten* guztiak ez dira? / Hirurogei urtean harri labanetan / dabillana jausteak zau ikaraketan? / Ez dakizu txoria zirrika zepoan / badabil, jausten dala nozbait lakioan?» (AmaE). Beste behin ere, idazle beronek bertso barruan honela idatzirik utzi zigun: «Abo itxitik ez da eulirikan sartzen, / mutuak ez du inoiz hizketan erratzen; / *iturrira dabillan txarroa bada hausten*, / ni ere bertsoetan laster naiz erortzen» (AmaE).



J.B. Eguzkitza idazle lemoarrak, gerraurretxoko bere dotrina-saio ezagunean, irudi beroni oratu zion: «*Iturrira sarri doan pitxarrarena* jazo jakon bigarren enderritarteko honi be: harria jo ta apurtu. Jo eban harria, 1914garren urteko gudua» (*GizartAuz*). «Enderritarteko» darabil, aldi hartako garbizaletasunaren giro epelean, gaur «nazioarteko» darabilgunaren kontzeptuarentzat.

Errefrau honen mezua, edo hurrekoa, iragartzeko, beste izen eta irudi batzuk ere usu erabili izan dira, *pitxerra* eta *txarroa* ez ezik. *Murkoa* eta *murkotu*, besteak beste: «Sarri iturrira doan pitxarra, edo hausi edo *murkotu*», dio horietariko batek.

Pegarra dugu Iparraldeko ontzi-izen ezagunena. Errefrau berarentzat: «Ardüra ureala dabilan *pegarrak*, lanjera badü hausteko» (*Garate* 1146). Eta: «Urean dabilan *pegarra* (‘suila’, ‘urrontzia’), hauskor» (*Garate* 13036).

Iturrira ur bila joateko erabili izan diren ontzietan era diferenteetakoak daude, eta hitz diferentez izendatu izan dira, goian aipatuez gainera. *Pitxerra* deritzo leku batzuetan, *txarroa* edo *jarroa*, beste batzuetan. Badugu *edarra* deritzan ontzia ere, gaztelaniazko HERRADA delakoaren mailegua. Durangoko zidarginen bertsoetariko batean esaten da: «*Edarria* arturik / iturrira barre-karkar / osasunagaitik» (*DurPl*). Izen hau ezaguna dugu gure klasikoen artean ere, berariaz Mogelek jasorik dakarren errefrau bati eskerrak: «Otsein barriak galbaheaz ura; zaharrari *edarreaz* bere lekurik emon ez gura» (*PAb*). Gipuzkera-eremuan badugu bertsio berriago bat, *suilaren* izenaz: «Mirabe berriak galbaiaz ura; zarrari *suilaz* ere lekurik eman ez gura» (EZBB 62).

Suilaren izena erdialdetik ekialderantz esaten zaio gehiago, sartaldean baino, urarentzako ontziari. Ekialdeko testigantza bat: «[Iturrira] egunero bere *suila* betetzera ohitua dago Yolanda» (*Yolanda*). Erdialdeko beste bat: «Ara: zoaz arin *suilla*, edo *erradara*, ta laster *txarrotik* aoa bete ur garbi ar ezazu» (*Ejertzioak* III).

Iturrira edo «urera» joatea (sartaldean ‘uretan joateari’ ohi deritzan legez), neska-mutil gazteen amodio-harremanaz estu loturik dagoen jarduera izan da. Eta Kardaberazen errefrau horrek ere ostendian *sexu-harremanen irudia* ezkututzen du. Guztion ezaguna den *Maritxu nora noaz, eder galantori* kantuak erakusten du garbi irudi bidez mezu hori bera: «Biok edango dogu / nahi dogun guztia».

Eta ekialdean, Nafarroan eta Iparraldean kantatzen den koplata-txortak ere antzera: «Goizian goiz jeikirik, argia gaberik / *urera joan ninduzun, pegarra harturik*».

Azkenez, *potiz* izenari aipamentxoa. Gure txikitari *potiza* generitzan, ura freskorik gordetzen zuen lurrezko ontzi biribil modukoari. Luis Baraiazarrak bere Meñakako gomuta-liburuan hara zer dioen: «Udako beroetan egunero joan behar izaten genduan *potiza* hartuta Golbarroko iturrira» (*UmetMeñ*).

73

POBREAREN ARRAZOIA*Pobrearen errazoia eta urruneko
basoko egur igarra, bardinak*

Atsotitz diferenteetan aipatzen dira, bai *basoko egur iharra* eta bai *pobrearen arrazoia*, baina ez beti batera, banan baino.

Egur iharraren irudia, errefrau barruan ez ezik, arlo zabalagoetan ere erabilia da. Tradizio-gizartean ohikoena, sugarritzat. Baina sua isiotzeko duen erraztasun hori gizakion portakizun eta gogoetetara ere eraman dute gure literatoek. Hala Etxeita eleberrigileak: «*Egur igarrak* batuten zabiltze zeuen asmoak kiskilduteko» (*Josetxo*).

«Pobre» hitza, mailegua izanik ere, sinonimoz ugaria da. Batez ere *txiro* eta *lander* bezalako zaharrekin, edo *ezeduki* edo *ezeuki*, zaharra izanik gaur ere hiztunen ezpainetan txairo erabilia. «Pobre» maileguak berak ere aldaera sendoak ditu hor-hemen, agian tradiziotsuena *praube* dugula Iparraldean.

Txiro hitza, guztiz zaharra izanik —*Refranes y sentenciasen*, xvi. mendean dokumentaturik dago—, hiztunok bidean galdu genuen aspaldi, baina zorionez xx. mendean hizkera landuak atzera bizi berria eman zion arte.

Lander ere pobrearen izendapenerako idatzi zaharrenetarik datorki-gun hitza dugu. Harako Iparraldeko atsotitza seinale: «Gaztaro alferra, zahartze *landerra*», baina gaur egungo idatzietan ez du berpizte sendorik ezagutu.

Ezedukia, *edukitsu* izatearen antonimoa, herri-berbetatik, «eduki» aditzetik jalgi den hitz elkartu adierazkortasun betekoa, eta esanguraz gardena, errefrau zaharretan iltzaturik ageri zaigu. «*Ezeugia, gorde uts*», dio E. Garibairen bildumako batek, honako argibideaz: POR LOS POBRES QUE GUARDAN CON MUCHO CUIDADO LO POCO QUE TIENEN (*Garibai A 35*). Egitura simple baina argiaren jabe: *ezer ez edukitzetik* hiztunok *ezeduki (ezeuki)* izatera erakarri duguna.

Hainbat errefrau ditugu euskaraz, eta ertz diferenteetatik oratzen diotenak batzuek eta besteek pobre denaren zoriari.

Jende euskaldunaren gogoetan ondo josirik dakusagun errefrau dugu berau. Urrunago joan barik, aita zenari ikasi nion aspaldi. Hark ere Mendatako Zarrabenta auzoan ikasiko zuen gaztetxotan, ziuurrik gurasoei entzunda. Honakoxe hitzekin esan zidan: «Pobrien errezoie ta urruneko basoko egur igerra, bardiñek» (Seberiano Arejita, informatzailea). Familiako hagak sendo eutsi dio atsotitz honi, zeren ia berdintsu entzun nion oraintsuago, Kortezubira ezkondu zen neure osaba gazteenetariko izan zen Bernardori; horrek ere Mendatan gaztetxotan ikasia seguruenik: «Pobrien errezoia ta urrineko egur igerra, bata lakoxiek» (Bernardo Arejita, informatzailea).

Euskararen eremuan zabal dabilen antz osoa du, zeren gipuzkeraz ere ezaguna da. J.M. Mokoroak Maria Olaetxea zeritzan andreari konparantza berbera batu zion: «Bi gauza dira ederrak, batere balio eztuenak: mendian egur igarra eta pobrearen arrazoia»; eta gaztelaniaz argibide hau erantsi: SE DICE HABLANDO DE QUIEN SE QUEJA DE QUE NO SE LE HACE CASO (OE). Eta Nafarroan, bide beretik D. Intzak: «Mundun hiru

gauza galtzen dire alperrik: pobrearen arrazorea ('arrazoia'), mendiko egur igarra ta alperren indarra» (NEZ 472). Nafar bilduma berorretan hurrengo hau ere ageri da: «Pobreen arrazoa beti sobra. (Jende beharraren esana askotan ez da ezertan idukitzen)» (NEZ 291).

Formulazio antzekoekin, gehigarri edo aldagarriekin, mezu beraren eroale dugu, pobrearen arrazoiari, alferraren indarra eta ahularen ahalegina gehitzen dizkion hurrengo hau ere, alferrekotzat hiru fenomeno batera jotzen direla: «Alperren indarrak, ahulen enpeñoak eta pobrearen arrazoiak, beharreneko garaian kale» (EZBB 105).

Arrazoiak gainera, beste zein kualitate dira errefrautegian, maiztasunez edo indarrez aipatzen direnak? Horra hor batzuk:

— *Pobrearen harrokeriaren* argumentua dugu horietariko bat. Ibarrangelun, bertako seme eta bertan abade izan zen Domingo Zuluaga euskarazale finak esakuntza hau bildu zuen: «Pobrearen harrokeriak eta txorokilen suak gitxi irauten dabe» (*IbarrangKant*). *Txorokila, burutxea* edo *txokorra* bat dira, batean batera esanda, bestean bestera. Nolanahi ere, artaburuaren erdiko zutardatz horrek etxeetan sugarriztat balio izan du, ez beste ezertarako. Ildo berean ereindakoa da, epai zorrotza ematen duen beste hau ere: «Pobre harroa baino txarragorik ez da» (EZBB 2512).

Pobre izatea beste zerzaz kidegurik ageri zaigu gehiago? *Zorri hilpiztua* edo *hilibiztua* delakoaz erkaturik batzuetan. Esaera da sartaldeko berbeta batzuetan: «Zorri hilibiztua baino txarragorik ez dago» (Meñaka, Morga). Halaxe da baita Nafarroan ere: «Pobre erresuzitatu baino okerragorik ez dago» (NEZ 688).

Oihenartek, elkarrizketa-eran josiriko atsotitz batez aditzera eman zigun pobre harroaren zoria, esanez: «Jaunetan zein da latzena? Ezdeuseti jauntzera heldu dena» (*ProvBasq* 259). Eta badugu beste

bat, nafar girokoa, dioena: «*Zorria baino pobreago*, ta zorria baino lotsagabeago» (NEZ 1095). Pobre lotsa txarrekoaren irudiaren erakusle.

— *Satsarekin, simaurrarekin* ere berdintzen da batzuetan pobrearen izaera eta egoera konparantza bidez. Lurrak simaurra behar du, satsitu beharra dago, fruitua emango badu. Baina *satsik egiten ez bada, sats bako lurra* ez ohi da ekarkorra izaten; uzta laburra ohi dakar. Irudi horrexen harian, *sats bako* lurrarekin berdintzen da *pobrearen ezkontza* batzuetan. Lezamako berriemaile baten esana, baina Zeanurin jatorria duenarena, hauxe: «*Sats bako ereitea ta pobrean* (‘pobrearen’) *ezkontzea, bardinek*» (Aitor Olivares, informatzailea).

— *Pobrearen zoritxarra* edo *zorrigaiztoa* ere, errefraurik zaharrentarik oihartzuna duen leloa da. Hari horri tenk eginez, era honetako iritziak ageri dira errefrauetan:

- *Pobrea* higuin izaten duela jendeak, eta aurrean erabili ere bai noiz edo behin, esakuntza zahar honek dioenez: «*Txiroak dirudi insausti, guztiok arrika beti*» (RS 467). Intxaur-arbolari harrika, ea intxaurrik jausten denetz...
- *Pobre-aberatsen arteko etena*, edo orain esan ohi den modura, goiko eta behekoen arteko *arrakala* adierazten duten errefrauk ere hainbat dira.
- Gure bilduma zaharretariko batean, *pobre* eta *aberatsak* aurrez aurre ispilaturik ageri dira: «*Aberatsok jaia daude, txiro gaxook beti neke*. Auzook bere igui daude / beti dabilena eske» (RS 3).
- *Pobrearen nekea* ere berbagai ohi da batzuetan. Goiko errefrauhar zahar horretan aipatzen den «*txiro gaixook beti neke*» horren bertsio moderno batek dio: «*Jente pobreak, neke doblea*» (EY 2495).

- *Pobre-aberatsen* arteko eten horren adierazgarri diren kristau-ikuspegiko ezagunak ere ez dira falta. Hala, Eliza katolikoaren pentsaera tradiziozkoaren erakutsi gardena dirudien batek dio: «Aberatsa, inpernuko lebatza; *pobrea*, *zeruko lorea*» (EY 1844).

- Ildo bertsuan doa, *pobreari lagundu beharra* aholkatzen duen beste zahar bat ere: «Ondo egiok landerrari, Jainkoak dikek donari ('emango dik saria')» (RS 265).

- Topiko ezaguna dugu, bestalde, *pobre-aberatsen berdintzea heriotzak* dakarrelako iritzi unibertsala. Herri-esakuntza batek ondo gogorarazten digu: «Behartsu bizi bahaiz, aberats hilko haiz» (EZBB 498). Eta beste bat, De Treville pastoralerako P. Bordazarre *Etxahun Irurik* atonduriko hau: «Hori bera da denen ixtoria / Heriuak bardintzen handi-txiptiak. Zeren ilüsiõne bat bera da / Lürren gaineko gure pasajia».

— *Pobrearen premia gorrian* bizi beharra hartzen du itu-itudan beste errefrau batek, *oparin* hitz zaharraren bidez. Bada, hauxe dio: «Tamal eukok txiroari, ta sorotsi aen opa<ri>nari» // LASTIMA TEN AL POBRE Y A SU NECESIDAD ATIENDE. (RS 78).

— *Pobrearen bakardadea* eta *lagunik eza* ere gai ezaguna dugu. Beste berbaz esanda, *pobreari jendeak atzea eman ohi* dioela. Azkuek jasoriko baten esana: «Norte haizeak leku gorderik ez, *pobreak adiskiderik ez*» (EY 1215). Eta beste batena: «Guziak aberatsaren ahaide, *pobreak ez*tu bat ere» (EY 2468).

— *Pobrearen nahigabea*, *oinazea*, *sufritu beharra*, arantzaren irudiaz azaltzen digun hurrengo honek ere irmo dirau euskal hiztunetan: «Beti dago *arantzea pobreen oinean*» (EY 2133).

— *Pobrea ametsetan* bizi delako iritzia ere ondo ezaguna da. *Pobre-
-aberatsen* artean izaeraz, pentsaeraz edo jokabidez sekulako aldea
esaten zaigu Azkuek baturiko honetan: «Aberatsa, tranpa hutsa;
pobrea, ames hutsa» (EY 1845).

— Guztiok *txiro izatea* ere gomendatzen digu beste batek, eta
hartara zuzentzen, *duguna janda*, eta ez gehiegikerian ibilita. Hala dio:
«Doguna jan ta txiro izan» (RS 314).

«Dagoenean bon-bon, ez dagoenean egon» gaurko esakuntza
ezagunaren mezu bera ematen digu, mendeak lehenago sustraiak
harturik dagoen beste zahar honek: «Doguna jan dogu, ta arlot gara
biortu» (RS 329).

Azken iritzi modura, *pobreak pobreari gorroto ohi diolako* baieztatzen
duen bat dakargu hona; hau da, pobreak pobreari izaten diola, inori
eta gorrotorik handiena. Hala diosku esakuntza zahar honek: «Txiroak
arrotea iguin» (RS 493).

74

PUPUA ETA MANTARRA

Lauzuriren pupua eta laumarairen mantarra

Gure ikertzaile eta biltzaile nagusi izan den Azkuek EY bildumako errefracategian dakar hau ere, beste aldaera biokin batera. Beronen hurrengo: «Lauzuriren pupua ta laumarairen trapua» (EY 2624). Eta atzerago: «Zuri baten pupua eta lauziriren trapua» (EY 2930).

Errefrau honezaz gogoeta egiteko oina, Biosne Zarandona Labayru Fundazioko teknikariak Larrabetzuko Goikoelexalden bere amamari entzun eta baturiko errefrau aldaera honek eman dit. Hala esaten ei zuen haren amamak: «Pupuen pupu, *zortzi mari trapu*» (Biosne Zarandona, informatzailea). Istripu ziztrin ezerezkeria bategatik aika hasten den umeari esaten ei zaio. Erdi ilun ageri da mezua, baina atsotitza ezagutzen duena berehala ohartzen da, esaleak esakuntzaren bigarren parte horretan darabilen *zortzi mari trapu*, ez dela besterik *marai*, *marabedi* diru-izen zaharraren arrasto ilundua baino. Izen gardenagoz erabil dezakeen hiztunarentzat berarentzat ere urruneko eta ezezagun bihurtua den diru-izena. Ume txikiaren min hartua aditzera emateko *pupua* esateko, oraindik ere hitz ezaguna dugu hiztunok, haur-berbetan

behintzat. Baina are zoragarriagoa da minaren handia adierazteko erabili duen, lehen parteko errepika-esapidea: «pupuen pupu»; hau da, *pupuaren pupu*.

Beste bilduma batzuetan ere idoro daitezke errefrau beronen aldaera politak. Garaterenean, kasurako, aurreko hiruron hari-harikoak diren hauexek: «*Laumeixen* pupua ta sei *meixen* trapua» (*Garate* 9572); eta «*Hiru ziriren* ('zuriren') pupua eta *laumairen* trapua» (*Garate* 6854). *Meixe* berba hori ere, *marai*, *marabediren* era desitxuratu eta ilundua besterik ez da.

Oraintsuagokoak dirudite hurrengook, izendatzen diren diru-moneten arabera. Batak dio: «*Ardit* baten pupua ta *txanpon* baten trapua» (*Garate* 1101). Eta besteak: «*Bi sosen* pupua eta *ontzako* baten trapua» (*Garate* 11479).

Oraintsuko diru-moneten izenak erabiliz biziberritu eta eguneratu dituzte hiztunek errefrauok, eta iraunarazi euron mezuari. Garatek dakartzanen artean: «*Errial biren* pupua ta *pezetan* ('pezetaren') trapua» (*Garate* 4284); «*Erreal baten* pupua eta *pezeta biren* trapua» (*Erdarakadak*); «*Hamar zentimon* ('zentimoren') pupua eta *errial biren* trapua» (*Garate* 6288); «*Txakurraundi* baten pupua ta *errial biren* trapua» (*Garate* 11481); eta «*Txakurraundi* baten pupua ta *hamar pezetako* trapua» (*Garate* 12495). *Txakur handia* pezetaren hamar zentimokoari zeritzan.

Pupu hitza ume-berbetan gorde da berariaz, 'mina' esateko. Sartaldeko euskaran guztiz ugaria, baina erdialdean eta Nafarroa aldean ere ezaguna eta erabilia.

Bizkai partean mugatzaile barik entzuten da gaur batez ere: «Zer daukazu? *Pupu?*»; «Zer egin deutsu katuak? Erpeka? *Pupu* egin deutsu?».

Nolanahi ere, goiko errefrau horretan izen arrunt zehearen gramatika gorde da: *pupua*, mugatzaile eta guzti. Izan ere, hainbat lekutan gaur ere izen arrunt modura dirau. Urola ibarrean normala da *pupua*, mugatzaile eta guztikoa: «Umiak *pupua* hartu al du?» (*ZestErret*). Nafarroako (Bortzirietan) errefrauetan ere horrelaxe dirau: «Bi sosen *pupua* ta hamar sosen trapua» (NEZ 1603).

Literatura idatzian ere *pupu* hitza indarrean da, minaren aldaera adierazkor eta errukior antzo: «Jesus —nion negarrez—, / nork egin dizu *pupua*?» (*Biozkadak*); «Negarrez? Ixo, ixo, maite! Zeinek egin zuri, gure eder orri? Akabo, akabo. *Pupua*? Nun? Hementxe?» (*EuskAntz*); «Amaitu da *pupua*» (*Harripilatan*).

Baina Azkuek hiztegi nagusiaren eranskinean (*Apéndice del Diccionario vasco-español-francés*) jasorik dakarren honetan adiera neutroaz erabilia dirudi: «AJES. “*Pupu guztiak* daukadaz piztuta, eguraldi txarra danean” (V-usu)» (DVEF).

Deigarri egin zait geminatu semantiko deritzan izen-elkarketa barruan irakurri izana, Bolibar inguruko berbetan: *aiene-pupu* delakoan: «Honek beste batzuei be *aiena-pupue* emoten eutsen» (*ArantzLar*).

Errefrauaren ardatzera bihurturik, mezu horren berarentzat *min* izen generikoa ere erabili izan dute hiztunek. Hala: «*Min gutxi* eta trapu asko» (*Garate* 9689). Edo: «*Bi sosen mina* ta lau sosen trapua» (*Garate* 9700).

Trapu izen maileguzkoa azaltzen da Hegoaldeko errefrauetan nagusiki, eta ez *zapi*, ostera. *Mantarra* ere ageri da behin edo behin, goiko aldaera horretan, Azkuek baturiko horretan, ikusi den bezala. Mehatzago agertu izan arren errefrau honen emarietan, ezaguna, dotorea eta adierazkortasunez betea dugu *mantar* hitza ere, ‘benda’ edo delakoaren adieraz, zauri baten inguruan. Adiera neutro finagoa gorde

du hor *mantar* hitzak, eta ez gaur sartalde-hizkeretan hartu ohi duen oihal latzarena, amantal modura gerrian edo abarkak bernetan lotzeko erabiltzen direnena, eta are gutxiago pertsona batzuk era gaitzesgarriz kalifikatzeko hartu duen balio figuratua ere (*ume mantarra*, *atso* edo *agure mantarra* eta abar).

Esakuntza honen mezua garden eta garbia da: kalte edo egoera txar baten aurrean, den baino askoz gehiago dela erakusten duenari zuzendua.

75

SABELA, URA ETA SUA

*Sabelak, urak eta suak
emoten jaken guztia eroaten dabe*

Naturaren osagai irudiz josiriko atsotitza, *ura* eta *sua* konparagarritzat harturik, gizakiok geure bizibiderako behin-behineko dugun *janaria*, eta *sabela beterik* edo aserik egotea gaitzat darabilena. Horietariko konparagarriak ugariak dira hiztunon artean, areago errefrauen sorkuntzan. Zaharra dirudi edozelan ere errefrau-irudi honek.

Azkue bera dugu hauetariko errefrau-moduen biltzaile oparoenetarikoa. *Sabelaz* mintzo direnen artean, goiburuko hori dugu ezagunen antzekoa: «Sabelak, urak eta suak emoten jaken guztia eroaten dabe» (EY 2781). Indar handiko eragingarriak ohi direla, bata giza biologiari eta besteak natura-fenomenoei dagozkienak. Aldaera gehiago ere badira, horratio. J. Mokoroak bildurik dakarren baten hitzak: «Sabelak eta suak, zenbat eman, hainbeste eraman» (OE).

Sabela beterik izatea edo *sabela bete beharra* aipu duten atsotitzak mordoa dira. Batek, *dirua* eta *sabel ase*a kidetzen ditu: «Sakela ta sabela, bete» (EY 2783). Sabela zerez bete diharduen hurrengo hau, *Mikolas* giza izenaz eta *okelaz* izenaz errima eginez jostatzen da: «Mikolas, bete sabela okelaz!» (EY 225).

Alferraren irudiaren ispilu da batzuetan sabela betetzeko lehia: «Alferraren gogoetak eta solhasak jan-edanaz eta sabelaz dira» (*Garate* 602). Sabela *hitz gozoz* edo *sasiarrazoiez* ezin engaina litekeela dakarkigute akordura besteok: «Esperantzak ez du sabela betetzen» (*Garate* 7534); «Ahoa bero eta sabela huts» (EZBB 157). Mezua era gordinagoan dio Iparraldeko honek: «Sabela ez da elez asetzen» (EZBB 2533). Itsasgintzako irudi batez, untzia uhin gaineko mugimendua eta sabelarena irudikatzen ditu beste honek: «Untzia higiarazten du belak, gorputza sabelak» (*Garate* 10804). Eta azkenik, beterik eduki beharreko hiru tegi lerroan izendatzen dituen beste bat ere bada: sakela, sabela eta ganbara: «Sakela, sabela eta ganbela beteak!» (*Garate* 11603).

Sabela hutsik edukitzearen alde txarrak dakarzkigute gogora hurrengo biek. Lehenengoak, *ezer ez hizketa*-formula ointzat harturik sorturiko erantzun umorezkoa dirudi: «Ezer ez, begirako ona da; sabelerako ez» (EY 1040). Eta bigarrenak, onomatopeiaz baliaturik, sabel hutsak *gurgur* egiten duela gogorarazten digu: «Sabelak egitean gurgur, bardako afariak agur» (*Garate* 11537), Txanton Piperriren herri-kantu ezagunean ere antzera jasorik azaltzen den esakuntza.

Sabel betearen eta *hutsaren* arteko diferentzia gorabehera-aldetzat darabiltenak ere ez dira falta erreperitorioan. Bat, hauxe: «Sabel beteak atsegin, sabel hutsak gosea» (EZBB 2523).

Sabela bere neurrian, *sabela zelai*, *sabela ordoki* edukitzearen irudia ageri dute errefrau batzuek: leun eta handitu barik, puztu barik eduki behararen komenentzia. Aholku modura esanak dirudite honako batzuek, zeinda medikuarenak balira bezala. Bat: «Nere sabelak, nere belauna» (EY 1088). Eta poetikoago diruditen Iparraldeko honen hitzak: «Zintzurra patar, sabela ordoki» (EY 1120).

Gaztetasunaren ezaugarri gisa aipatu ohi da *sabela zelai* izatearena: «Gaztetan zintzurra aldapa eta sabela zelai» (*Garate* 5562), Nafarroan

beste aldaera hau ere duena: «Zintzurra aldapa eta sabela zelai ditu horrek» (*Erdarakadak*).

Sabelaren alde txar eta arriskugarrien artean, sabelak gizakia menderatzen askatu beharra ohartarazten duten errefracuak ere badira. Baten esana: «Gizonaren etsaia bere sabela» (EY 1403). Eta Oihenartek dakarren beste batena: «Gure sabelak, gure jabeak» (*ProvBasq* 508).

Kristau-dotrinaren irakatsietan ere sabelaren mende bizitzea bekatutzat jo izan da; ‘gula’ deritzan hoben larrizat jo izan da norbait gosezto salobrea izatea. Ildo horretakoak dira gure klasiko biren pasarte bi: «Sabelak emoten deus ardu geiago arimako gauzak baiño» (*PAb*), ohartzen du zorrotz Mogelek. Eta: «Bekatari tristeak! Sabela ta gorputza Jaungoikotzat artuta» (*Ikasikizunak* I), Frai Bartolomek.

Egotearen eta *ibiltzearen* arteko aldea sabelaz irudikatzen dutenen artean, honako hau hautu dugu: «Dabilenak, *sabela handi*; dagoenak, oina handi» eta «Dagoena, buru-handi; dabilena, sabel-handi» (EY 1023).

Eta akabutzat, zerekin edo harekin, baina sabela bete beharraren aldarri larria egiten duen atsotitz zaharrenetarikoa dakargun aurrera: «Daminda<n> (‘ipin dezadan’) sabela betez-betez, naiz batsez (‘pattarrez’) naiz satsez» // PONGA EL VIENTRE DE LLENO EN LLENO, SI QUIERA DE ORUJO O DE BASURA (RS 99).

76

SAGUA ETA KATUA

*Hobe saguaren burua izan,
katuaren buztana baino*

Gaztelaniaz are ezagunagoa da, sagu txikiaren, saguñoaren buru tipiaren eta lehoi nagusiaren buztanaren arteko konparantza, beste batzuetan elefante are nagusiagoaren neurri eskergaz ordezkatua. Baina euskaraz ere badira, irudi bataz edo besteaz mezu berberau ematera datozenak.

Norbera txikia izanagatik, *txikitasun* horretan ere *norbere buruaren jabe* izatea askoz hobe duela bakoitzak, ugazaba edo *nagusi* goragoko baten esanetara makurrik egon beharra baino. Ez dela mesede izaten inorentzat, *besteren agintepean* hutsaren hurrengo bihurtzeraino iraun beharra.

Halakoxe erantzuna eman zidan behinola Aita Zabala herri-jakintza ikertzaileak, bere Auspoa bilduma kutuna, bere eskuetan egon ordez, erakunde nagusiago baten ardurapean uzteko proposamena egin ziotenean. Baietza ez emateko arrazoia, nahiago zukeela berak, herri-literatura bilduma oparo horren ardura zuzenari berberak eutsi, atzean berekin zeukan artxibo-altxor eta guzti, beste esku batzuetan laga baino, beste erakunde horrek ahalmen eta baliabide sendo-ugariagoak edukiagatik. Gaztelaniazko errefrauaz eman zidan erantzuna.

Mezu berbera aditzera emateko animalia bikoteen eredu diferenteak erabili izan dira euskaraz. Errefrau batzuk *sagu-katuen* irudiaz baliatzen dira, beti ere konparantza bidez. Hurrengo hau lekuko: «Hobe xaguarren burua izan, katuaren buztana baino» (*Garate* 11566).

Animalia bi edo gehiago, asko edo gutxi izatearen neurria aditzera emateko ere erabili izan dira, berariaz gizakion ingurukoak, irudi gisa. Badugu bat, sagu, katu eta txakurren konparantza bidez erakusten duena, den-dena ez duela indarrak askatzen: «Katuak atzaparrak, zakurrak hortzak, eta saguaren zulutik ezin sartu». Mokoroa biltzaileak ematen dion interpretazioa, indarrez eskerga izateak ere bere neurriak ohi dituela (OE).

Goiburuko errefraura itzul eginik, mezu berorren eroale diren beste irudi batzuk ere badira. Gogora ditzagun bat edo beste:



— *Arbolaren gerizpea* dugu bat. Arbola bat beste arbolen gerizpean ezin egon daitekeela, baldin gora egin dezan nahi bada: «Arboliek, bestien azpidxen ('azpian') ezteu balidxo ('balio')» (*Garate* 1060).

— *Txori handi eta txikien* konparagarri gisa ontza darabilen hau ere ezaguna da: «Ontza txoriyen artean nagusi» (*Garate* 6946). Alegietan ere ontza eta beste txorien arteko auzia islatzen duen ezagun bat dugu euskaraz, Mogelek *Peru Abarkako* berba-jardunetan darabilena, inoren lumaz janzten dena lotsagarri uztera datorren irakatsia emateko.

— *Harro-jendearen* izakunea astintzera datorren beste hau ere goiko horren mezutik ez dabil urrun: «Harroa beti aurrena» (*Garate* 6717).

Akabukoz, goiko esakuntza horren mezuak beste hizkuntza batzuetan dituen kideak ere aipatzekoak dira; funtsean ideia unibertsalen inguruan ilbanduak baitira hango eta hemengo errefrauoak. Ingelesezko batzuetara mugatuko naiz. Bada bat, gaztelaniazkoaren ordain zuzena, baina, sagua barik, txakurra aipu duena: BETTER BE HEAD OF A DOG, THAN THE TAIL OF A LION (*Garate* 1651). Ingelesezkoa dugu hurrengo hau ere, bestelako irudiaz ondua bada ere: BETTER TO REIGN IN HELL THAN SERVE IN HEAVEN (*Garate* 3119). Geure eran esanda: «Hobe da inpernuan nagusi izan, zeruetan morroi baino». Eta hirugarren honek ere, beste irudi baten bidez, mezu bertsua dakar: BETTER TO RULE THAN BE RULED BY THE RUT (*Garate* 3182). Hau da: «Hobe da norberak gobernatu errepidea, errepideak norbera goberna dezan baino».

77

SAN BIZENTI*San Bizenti hotza, neguaren bihotza*

Urtarrilaren 22an San Bizenti eguna. Eliza eta ermita, San Bizentiren adbokazioko direnak ez dira gutxi euskal eremuan eta hemendik kanpora ere. Elizetan ezagunak ditugu Abandokoa, Gasteizkoa, Donostiakoa, Barakaldokoa, Gueñeskoa... Hainbat herri eta auzotako ermitak ere badira santu honi eskainiak. Esaera bat ere bada elizok direla eta, Abandokoa eta Barakaldokoa tiran ipini edo behintzat bion arteko tirabira zaharra agerian uzten duena, bata bedeinkatuz eta besteari erdeinua erakutsiz: «San Bizente Abandokoa, lejitimoa; San Bizente Barakaldokoa, bastardo» (EY 67).

Giza izenetan ere maiz erabili izan da. Erarik ezagunenak gure artean, *Bizenti* —eta *Bixenti*— gizonezkoetan eta *Bizenta* —eta *Bixenta*— andrezkoetan izan dira. Herri batzuetan atzizki hipokoristikoaz irau du, berariaz gizasemeetan: *Bizentitxu* izenekoak oraindik ere badira gure herrietan. *Bizente* era modernoagoa da, nahiz aspalditik datorren hau ere, erromantzearen eraginez egokitua.

Badu izen honek era zaharrago bat, gaurdaino deitura legez hobeto irau duena, giza izen moduan baino: *Bikandi* edo *Bikendi* eran; eta toponimo moduan ere bai. Latinezko itxura gorde du bete-betean,

genitibo kasu eta guzti: *Vicentii* (< *Vicentius*). *Mikeldi* izen-aldaera zaharrak ere hala irau du Durangon.

Errefrauetan, eguraldiaren gorabeheran eutsi dio indartsuen santu-izen honek, negu gordinenaz lotzen delarik San Bizenti eguna: «San Bizenti hotza, neguaren biotza» errepikatu izan da Bizkai zabalean lehenagoko belaualdietan. Hiru lekukotasun ezagun aipatuko ditugu, hirurok antz-antzekoak: «San Bizente hotza, neguaren bidxotza» (Iurreta); «San Bixenti hotza, neguen bidxotza» (Morga); eta «San Bizente hotza, neguaren bihotza (*IbarrangKant*).

Nafarroa aldean ere ezaguna dugu errefrau hau, baina izenak mugatzailerik gabe aipatzen direla: «San Bizente hotz, neguaren bihotz» (NEZ 771).

Iparraldean *Bixintxo* ohi deritze Hegoaldean «Bizenti» edo «Bizente» direlakoei. Ohartzekoa da izen horretan ere *-txo* (*-txu*) atzizki txikigarriaren presentzia, *Bizentitxu* sartaldekoan dugunaren kidea. Eta aldaera horrexekin izendatzen da eguraldi-errefrau bera, hotz-beroak aipatzen dituen: «San Bixintxo hotz, negua hotz; San Bixintxo bero, negua gero» (EZBB 11691).

Bada errefrau bat, Inozente Egunaz edo inozenteekin loturik aipatzen duena San Bizente. Hala ere, bada Inozente Egunaren (abenduaren 28a) eta San Bizente egunaren (urtarrilak 22) hilabete luzeko aldi-diferentzia. Errezitatu moduko honek dio: «Iñuzente potente, bixar (‘bihar’) San Bizente» (EZBB 1621). Hots-kidetasunak elkar-ganatu ditu *inozente* eta *Bizente*, errezitatuan *potente* adjektiboa lagun dutela.

Eta errima edo puntuaren hariari jarraituz, ditxo antzeko errefrauak ere sortu izan dira izen honen inguruan. Itsas giroko hau, esaterako: «Bizente, txapela tente; popan doia almirante» (EY 154).

Eta amaiera gisa, Garibai kronikagileak bere *Memorias* izeneko obran dakarren esaera zahar bat, Vicent Ferrer domingotar santuari aipu egiten diona: «Frai Bizentek esala, / fedea zina lizala (FRAY VICENTE HABÍA DICHO SER JURAMENTO LA FE [PALABRA DADA])».

78

SAN ESTEBANTXE

*Gabon bon-bon, Natibitate ase eta bete,
San Estebantxe bestetan lantxe*

San Esteban, Gabon-gau eta Natibitate osteko eguna, egunerokotasunaren irudi bezala gorde da gure errefrau ezagun honetan eta beste gehiagotan. Arrasto xume hori utzi digu, baina bai hizkeraren, bai usadioen aldetik bere baitan gorde dituen bitxitasunak direla eta, merezi du aipamentxo.

Errefrau mordoa dira, Gabon, Natibitate eta San Esteban bata bestearekin kateaturik ageri dituztenak. Txikitan horrela entzuten zen gure inguruetan ere: «Gabon bon-bon, Natibitate ase ta bete, San Estebantxe bestetan lantxe». Eta beronen aldaera ezagunetan azterri eginez, Bizkai erdialdean horixe da nagusi. Nerbioi aldean, Ugaon, beste era hau bildu da: «Gabon bon-bon, Natibitate, tripea bete-bete, ta San Esteban beti letxe» (Maidar Gaztaka Gandarias, informatzailea).

San Esteban egunez bizimodua atzera lehengora, egunerokora bihurtzen dela gogoraraztera datozen errefrauak dira oin-oinean.

Arratian San Esteban eguna bakarrean aipatzen duen esakuntza laburrago hau ere bildu da: «San Estebanez, bestetan lez» (Maria Jesus

López, informatzailea). Ez da aurrekoak bezain entzuna, baina interes apartekoa du hizkuntza-egituraren aldetik behintzat: aipagarria da *San Estebanez* adizlaguna denbora-balioaz erabili izana.

Zer jaten den, zer jan izan den egun horretan ere badarabilte aldaera batzuek. Ez edozer, hala ere: txokolatea izendatzen da. Harako honetan esaterako: «Natibitate *bete-bete*, San Esteban *txokolate*» (*Garate* 9981). Gabon-jaietako asebeteak igaro ostean, bide leunera bihurtzeko janari gozoa.

Baina egunerokora atzera etortze hori era orokorragoan deskribatzen da gehienetan, formula bertsuaz: *bestetan lantxe*, *bestetan letxe*, *bestetan lez*, *bezalatsu* eta gehiago. Baten esana: «San Esteban su, lehen bezalatsu» (*Garate* 11701). Azkuek bilduriko aldaera bi ere aipagarri dira, azalpena emateko moduagatik: «Natibitate ase ta bete, San Estebantxe, *handik aurrera lehen letxe*» (EY 54) dio behin; eta «San Estebantxu, *lehenerantsu*» (EY 70), beste behin.

Natibitate hurrengo eguna, *San Esteban*, edo aitzinago *Done Estebe* edo *Jaundone Estebe*, atzizki berezi batez lagundua dugu, *-txe* atzizki txikigarriaz, baina baita *-txu* graduatzaile orokorragoaz ere beste batzuetan. Atzizkiok adierazkizun handikoak dira, santu-egun horretan eguneroko apaltasun edo xumetasunera bihurtzea iragartzen dutelako, gaztelaniaz ESTEBANCITO esango bagenu bezala.

Santu-izenekin *-txu* atzizkia, santu-egun nagusiaren hurrengo egunarentzat erabili izan da normalean: *Santanatxu*, *Sanroketxu*, *Sanpedrotxu* eta beste gehiago. Baina San Estebanen kasuan ez: santu-egun hori egun zehea, ohikoa dela aditzen emateko ohi darabilte hiztunek, eta ez San Esteban hurrengo egunarentzat.

San Estebantxe izen-aldaera horrek ageri duen bitxitasun bana-banakoa *-txe* atzizki txikigarri horretan datza, hizkeraren aldetik. Izan ere, *-txe*

atzizki hori giza izenekin batera guztiz zaharra dugu, eta nolabait, *Estebantxe* izen-itxura horren zahartasuna salatzen da. Beste izen zahar gehiagotan ere ageri den atzizki txikigarria dugu *-xe* edo *-txe*. Horiatarikoak dira gure izendegi zaharretako *Perutxe*, *Joantxe*, *Errotxe*, *Semerotxe* bezalako *-txedunak*, edota *-xe* aldaerako diren *Abendañoxe*, *Totaxe*, *Joankoxe*, *Amorexe* eta beste gehiago. Garbi esanda: izendapen zahar-zaharra dugu inolaz ere *Estebantxe* hori.

Jakingarria da, eta seinalagarria, bestalde, *Estebantxe* horrekin puntua jagoten duen *lantxe* atze-hitz modala. *Lantxe*, «bezalaxe, legetxe/letxe» postposizio ezagunagoen sinonimoa dugu, *-lan* atzizki modalaren gainean eraikia; sartalde hizkeretako *honelan*, *halan* adberbioetan dugun *-lan* atzizki berbera dugu, *-txe* atzizkiaz indarturik: *lantxe*.

79

SAN JURGI ETA SAN MARKOS

*San Jurgi, artoak ereiteko goizegi;
San Markos, artoak ereinda balegoz*

San Jurgi eguna, apirilaren 23an eta San Markos egun bi geroago, 25ean. *Artoen ereintzarekin lotura* estua duten egunak gure nekazarien herri-egutegian, eta goiko errefrau horrek gomutara dakartzanak. Errefrau horren esanean, santu-egun bion arteko denbora-tarte labur horrexetakoa ei da arorik onena, arto-ereintza egiteko. Bide batez gehitu dezagun, indaba-ereiteko ere egun onak direla; izan ere, gure hurreko lurgintzan lehenago *artoa eta indaba batera* erein izan dira leku askotan. Eta hala dihardute oraindik ere hainbatek euren laborantza-usadioan.

Egun-bitarte hori, edo aste hori jagon behar delako onua demaigu beste honek ere: «San Markos astea, artoa ereiteko astea» (*Garate* 11776). Eta ereite-tartearen epe labur hori zaindu beharra gogoratzen digu beste honek ere: «San Marko, artoak eraiteko goiz asko; eta ha pasau ezkeru, berandu asko» (*EZBB* 2584).

Apirila, beti ere, eguraldiaren aldetik gorabeheratsua izan ohi da, herri-jakintzaren jardurioari jaramoten badiogu, behintzat. Oraintxe eguzki, oraintxe euri, edo oraintxe trumoi-oinaztuak, edo sikatea, edota are txarrago dena, txingorra edo inatazia. Esaeretariko batek agintzen duenez: «San Markosek kazkabarra agoan du» (EY 87).

Euri asko egiteak gerezia ugari izango dela iragartzen digu: «San Markek uri, gereziak ihaurre» (EZBB 2582), dio batek; «San Markez uri bizi, bazterra dena gerezi» (EZBB 2583), beste batek; eta: «San Markos euri bizi, urte dena gerezi» (EZBB 2588), hirugarren honek.

Intxaur eta hurren uzta ugaria edo urria izatea ere San Markos egunaren pentzudan ei dago: «San Markos eguna txarra danean, intxaurrik eta urrik ezta izaten» (EZBB 2587).

Guztion jakineko kontua da, bestetik, eguraldi-gorabehera horren baldintzapean egon ohi dela noiz erein, uzta hobearen esperantzan. Errefrau horren azpian datzan mezua nekazarien kezka biziaren iragarle ere bada: behin apirila joanez gero, ereite-sasoia igaroa dela; maiatza ereintzarako beranduegi dela.

Izan ere, behin San Markos ezkerro, beranduegi ez ote gabiltzan dio artoa ereiteko. Halaxe dakar Azkuek bilduriko batek: «Sanmarkosetan ereiten badozue artoa, hartuko dozue artoaren lastoa» (EY 88). Hau da, arto-landareak gora egin bai, baina bururik nekez egingo duela, ez dela burutuko. Arto-lastoak garatuko direla, lastagainak loratu ere bai, baina artaburu ederrik kapaxaren barruan ez. Ondo burutzeko beranduegi dela. Antzeko epai zorrotza ematen du beste honek ere: «—San Markos noz da? —Artue ereitteko goz da. —Baina San Markosen ereiten dabenak hartuko dau artue edo maiestue» (*Garate* 11779).

San Markos aurretik ereitea gomendatzen da errefraurik gehienetan. Zorrotz ematen du esaera honek: «San Markos astea, atzea baino

aurea hobia» (*Garate* 11777). Santu-egun horretarako arloak ereinda egotea mila bider hobe dela darakus beste honek ere: «San Markos, artoak ereinik balegoz!» (NEZ 1342). (Beste lekuetan ere, holatsu).

San Markos inguruko errefracuon esanak ere, urteko beste egun seinalatuenak diren ber, malguak ohi dira, eta batetik bestera alde nabariak gertatzen dira aholku horien esanetan.

Alegi antzeko kontraeratzu bat bada, San Markos egunari egotzen zaiona, eta hauxe dio: «San Markos eguna arteraino, txintzarria bete lasto gordetzeko berarentzat, eskatu omen zuen larrabehiak» (NEZ 2586). Horixe berori dioskute Durangaldean ere, *arran bete bedar siku* edo *arran bete lasto gordetzea* eskatuta (Anton Mari Aldekoaotalora, informatzailea).

San Markos aurretik belarra oraindik ere txiki eta urri egoten ei da; hazten kostatzen. Eta negurako gordetako belar ondu edo sikua edo lastoa ordurera arte eduki behar ei da sabaian, badaezpada ere. Ez da dena gezurra izango, ezen beste batzuek ere gomendio bera egiten dute. Hala dio batek: “Sanmarkosetarako narra bat ostoz gorde behar da. Elurraren beldurrez» (NEZ 959). Bada kontraera labur errefracuon bat, dioena: «“Ama Birjina Martxoko lora, larrabehia mendian gora”, esaten zuen nagusiak. Larrabehiak, ordea, eskarmentu izaki, honela erantzun omen zion: “San Markos noiz da? Artean ere goiz da!”» (EZBB 116).

80

SAN MARTIN

San Martin, negua aurretik edo atzetik

Azaroaren 11a, San Martin eguna.

Goiko errefrau hori, santu-egun honen inguruko gehienak legez, eguraldiarekikoa da, bai Pirinioez beheitian, bai mendi-kateaz goitian. Mezu bertsuaren ekarle, gainera.

Santu-egunaren izena ere guztiok ez dugu berdin esaten. Hegoaldean *San Martin* esaten zaiona Iparraldean *Done Martine* izenaz ezagutu izan da. Hurrengo errefrau honek on egiten du dioguna: «Jondoni Martine eder, berrogoi egunez busti». Sanmartinetako uda txiki laburraren ostean, eurite eta truxuak ez direla faltako.

Bada errefrau bat, lehenago baserrietan-eta *morroi edo neskame* lane-ra joanak zirenak, urtea egin ondoren etxera itzultzen ziren eguna zehazten duena. Nafarroaren iparraldeko etxaldeetan San Martin egunari atxikirik zegoen ohitura hori. Hala Luzaiden, Lapurdirekin muga egiten duen herrian, ohiz erabilia zen zuhur-hitz hau: «Jondoni Marti, prest dena parti!». Honako azalpen gehigarria erantsi zion D. Intzak errefrau honi: «“Sanmartinetan prest dagoena bijoa!”».

(Esaera hau Luzaideko ohitura bati zor zaio: egun hortan (azaroaren 11n) egiten zuten mutil edo morroien aldaketa)» (NEZ 2461).

Lehengo nekazari-gizartean ohitura hala zen. Egun horrexetan egiten zen baserri-etxeetan *mutilen*, gure *morroien*, aldaketa. Morroi eta neskameen beharraldi-epea urtea garrenera amaitzen zen, beti ere gabon aurretxoan.

Juan Antonio Mogelek *Peru Abarkan* pasarte polit bat dakar gai horren gainean. Peru eta Maisu Juan herriko bentara doazenean bazkaltzera, Madalena ugazabandreaki laguntzen dabilen Fraiska zerbitzariari diotso Peruk: «Ardao-etxeetan sartuten dira agura baldresak, mutil gaizto lotsabagak, ta ez dozu entzungo emen berba garbi ta zuzenik, ta bai birao ta zantarkeriak. Ule-trentza ori ain maite badozu, iges egizu garbitasunaren lapurren arteti». Baita ondo arin erantzuten dio Fraiskak: «Ondo dinozu, gizon ona. Emen barailea, deadarra, auzkea ta nasaitasuna baino besterik ez dago. Nik ez deusat urik ezarten ardaoari; baina bai atso arimabagako txar onek; ta ixilik badaroat, lagunduten deusat lapurretan. Edatarea datozan gizonak esesten deustee, neuk errua baneuka legez: ardaoa makala dagoala, neurri laburra emoten jakeela, lapurrak gareala, ta zer ez? [...]. Beintzat *urtea egin daidanean*, artuko dot igesa».

Urtea egin daidanean irtengo dela ardandegi hartatik, hartan ere. Izan ere, urterako, urtebeterako berbatzen ziren morrontza- edo neskametz-beharretarako: urtearekin hasi eta urtea amaitu aurretxoan, gabon aurretxoan, amaitu.

Goian abiatu dugun errefrauen sailera itzul gaitezen, San Martinen goruan bilbatu diren horietara.

Eguraldiari buruzkoak direla hainbat aurreratu dugu goian. Goiburutzat hautatu dugunaren ildo berekoa dugu D. Intzak Nafarroan

bilduriko hau: «San Martin, negue atzetik edo aurretik, gehienez bietatik» (NEZ 510).

Berez *negu betean sartuak* gara behin San Martin eguna helduz gero. Eta halaxe, benetako negu gogorraren hasieratzat jotzen dutenak ere badira: «Egiazko negua San Martinezh hasten» (EZBB 772), dio horietariko batek. Baina negua zelakoa egingo duen, leuna ala gordina ekarriko duen jakiteko, sanmartinetako eguraldia hartzen da igargarritzat errefrau hauetariko batzuetan. Iparraldeko honek, esaterako: «Jondoni Martinezh iguzki, kasu gero otsailari» (EZBB 1649). Elurra ere, gaur egun baino lodiago botatzen zuen lehenago, eta elurraren etorrera unetzat ere aipatua da San Martin. Bertso-puntua zaindurik bertsio batzuetan: «San Martin, elurra gertu din» (EZBB 2589).

Ereintzari loturik dauden atsotitzak ere baditu San Martin egun inguruak. *Azaro* eta *zemendi* hil-izen biek argiro gogoratzen dute ereite-sasoian garela. Hori dela eta, eraz dator hizketa modura atunduriko biren arteko solasa. Azkueren bertsioan: «—Zegaitik geratu haz horren ziztrin? —itandu eutsen berakatzari behin—. —San Martin aurretik enenduelako erein» —erantzun eban berakatzak—». Gaztelaniaz ere erantzun borobila du, berakatzak garaiz ez ereite horrek: —¿POR QUÉ FUISTE RUIN? —PORQUE NO ME SEMBRASTE POR SAN MARTÍN. Berakatzak San Martinezh erein behar ei dira, hurrean.

Ereinzaro adiutuak ei dira santu-egun honen inguruak. Galereiterako ere bai, erranairuak dioenez: «Jondoni Martine eder, ogia (‘garia’) bota lurrer» (EZBB 1148).

Txerri-hiltzeak azaroko aldi horretantxe egiten direlakoa ere gai ezaguna da. Aldi desiratua nekazari-herri txikietako jendearentzat. Etxeren batean txerria hilko bazen, auzoentzat eta urrunagotik zetozen senide eta konbidatuentzat egun handia izaten zelako. Egund desiratua izate

horren adierazle dugu Nafarroako esaera hau: «—Martin, bihar duk San Martin. —*Hobe genduke gaur balitz!*» (NEZ 2468).

Gaztelaniaz are ezagunago bihurtu da txerri-hiltze egun hau, zabal darabilgun mehatxu usaineko esaera bati esker, baina euskaraz ere kideko ordaina ezagutzen zaiona: «Ailegatuko zaio bere San Martin» (EZBB 98). Mezu hori beste irudi batez bikainago entzuten da oraindik ere Bizkai aldean: «atzeko martitzena etorri». Honela idatzi zuen urlia batek behin gudu aurreko astekari batean: «Honeik bizkaitarristok aspalditxoan uraren ganeko bitsetan ederto dabiltzazak... Baina halakoren baten “*atzeko martitxena*” etorriko *jakeek!* Horrenbeste ezin leikioe parkatu-ta...!» (*Ekin* astekaria).

Santu-izenaren akaberaz puntua jagonda ondua dugu beste bat ere: «San Martin, txarria beti fin» dioena. Eta aipagarri deritzagu gaztelaniazko hirugarren bati ere, Arabako nekazari-gizartean ezaguna dena, eta *San Martin* eta CORTÍN izenez errima eginez, txerriari erreguka legez eskatzen diona txerri-kortatik lehenbailehen irteteko, CORTÍN deritzon tegi horretatik, urte luzean mardotzen eta guritzen, zer gura eta huraxe jan eta jan egon ondoren: POR SAN MARTÍN, SAL DEL CORTÍN.

Beste hari bateko errefrauak ere ezagunak dira San Martinez. Azkuek dakarren batek dio: «San Martin, beharrak behar eragin»; bestela esanda, premiak, beharrianak, derrigorak lan eragin.

Eta akabukoz, santu-egutegiaren bitxikeria bat erantsiko diogu ataltxoari: «San Martin zerekin, Sandroman (‘San Erroman’) harekin, eta Santa Katalina berarekin» (NEZ 2399). Hara D. Intzak honezaz demaigun azalpentxoak: «Hirur santu hoiek asteko egun berean dire: azaroan, San Martin 11n, San Roman 18an, Santa Katalina 25ean».

81

SEINA EZKARATZEAN

*Seinak dantzuana ezkaratzean,
esan daroa atarteian*

Gaur egun ere era batera edo bestera sarri dantzugun esakuntza, baina ohartzekoa da zaharra dugula euskaraz ere, xvi. mende amaierako RS bilduman honelaxe idatzirik ageri dena: «Seiak dantzuana ezkaratzean, esan daroa atarteian». Umeak etxean entzuten duen edozer, kanpoan ere mihinpeko barik esaten dakiela eta, aholku gisako aberentzia: umeen aurrean ezin dela edozein kontu esan.

Errefrau guztiz ezaguna, gurean eta erbestean, euskaraz eta beste zein ere hizkuntzatan. Dena dela, euskaraz bertzio eta esate-egitura diferenteez hornitua ageri zaigu mezu hau berau.

Haurren esanak eta ikasiak, aurreko horrezaz gainera, hurreko edo urrunagoko beste adierazkizun batzuen eroale ere izaten dira. Bat edo batzuk ekarriko ditugu hona.

Oinarrian, umeek entzun-ikasiak direla eta, oinarritzko mezu bat dugu beti ere: dantzuten guzti-guztia buruan josten dutela, hartan ere. Ibarrangeluko berbetan, beste leku askotan legetxe, honela esaten da: «Umeak, zer ikusi, ha ikasi» (*IbarrangKant*).

Azkuek bere EYn aldaera bi dakartza, guztiz antzekoak, bata *ikasi* eta *ikusi* aditez eta bestea *zentzuna* eta *entzuna* izen-bikoteaz josia: «Umearen ikasia, etxean ikusia» (EY 1479), dio batak; eta: «Umearen zentzuna, etxean entzuna», (EY 1480) besteak. Bigarren hau, gainera, berban-berban eremu zabaletan entzuten da. Bizkai erdialdeko hizkeran honela batez ere: «Umien zentzune, etzien entzune».

Ikasi eta *ikusi* aditz-pareagazko esakuntza, umeei ez eze, edozein gizakiri egotzi ohi zaio, ume zein nagusi, gizarte-esperientzia zabalagoan: *Zer ikusi, hura ikasi*.

Eta euskararen ekialdean era bertsuari. Nafarroako Unanuan bildu zuen D. Intzak: «“Ze ikusi, hura ikasi”. (Hori egiten dute haurrak eta gazteak; zaharragoak, bai etxean ta bai kalean, gogoan idukitzeko esaera)» (NEZ 97).



Goiburuko errefrau-aldaera zahar horretan gogoan izan eta gogoz ikastekoak dira euskal egitura zaharraren zidurri batzuk. *Seia* edo *seina* izena dugu batetik: ‘haurra, ume txikia’. *Dantzuana* adizki trinkoa bestetik: ‘entzuten duena’. *Esan daroa* ohiturazko aditz perifrastikoa bestetik, non *eroan* aditzaren adizkiak laguntzaile betekizuna duen «ohiko» aspektuaren balioaz. Eta jatorrizko testuko *ataartean*, gaurko hiztunek *etartean* ere ahoskatzen dutena. *Etartea*, edo *atartea*, baserrietxeek aurreko partean duten barrugune irekiari deritzo batez ere. Egia da, hala ere, baserrietxeek leku askotan ez dutela halako barrugunerik, sarrerako ate nagusia edo *ateta* deritzon portalea baino. Eta beste era bateko izenak erabiltzen dira, ezagunago edo ezezagunagoak: *portalea*, *ataria*, *atetea*, *ategia*, eta baita *bebarrua* (< *behebarrua*), *korralea* edo osterantzekoak ere. Iparralde zabalean *larraina* ere bai, *bortaitzinarekin* batera.

Sein izena esangura diferente samarrekin erabiltzen da gaur, baina edozelan ere gutxi entzuna da gaurko hiztunen artean. *Ume jaioberria* (eta *jaiotzeko dagoena* ere) izendatzeko erabili izan da batetik. «Silla onetan baegoan / *sei* eder bat jarririk» idatzi zuen Lazarragak. Eta xvi. mende barreneko errefrau-bilduma ezagunean ere beste behin ageri dena: «*Seiakaz* etxun dina, ukuzka jaigi doa» (RS 560), aditzera emateko, ‘umeein etzaten dena, zikindurik edo kakazturik jaikitzen dela’ hurrengo goizean.

Gure dotrina edo kristau-ikasbide zaharretan ere *sein* izenaz egiten da behin baino sarriago «Jesus Umearen» aipamena. Hala esan zuen Nikolas Zubiak, 1691. urtean, Ama Birginak «*Seiña* Iesu Kristo / dauko sabelean» (*Zubia*). Orobat Pedro Barrutia eskribauak, bere *Gabonetako antzerkian*, kopletariko batean dio: «Ni orain indar baga, ni orain loturik, / *sein* bat bazter baten jaiogaitik» (*Acto*).

«Umea bateiatu» erlijio-esapide ondo sustraitua ere, behin eta berriro ageri da gure dotrinetan *sein* izenaz: «Ondo batiatuko da *seiña*?» (KO).

Eta «bateiatu gabeko» haurrak izendatzeko, *sein bateatzakak* errepikatzen da sarritxo. Pedro Astarloa durangoarrak behin darabil: «Bardin dinot guraso eta inude *seiña azten* dagozanakgaitik» (UDB II).

Jaioberria baino hazitxoago dagoen ume txikia izendatzeko ere erabili izan da *sein* izena. Landucciorenen hiztegian, Gasteizko berbeta zaharretik baturik daukagu hauxe: «NIÑA O NIÑO: *segi neskatoa, segi mutila*» (*Landuccio*). Eta: «NIÑERÍAS: *segian gauzak*» (*Landuccio*). Eta dotrina irakasten zaien ume hazitxoagoei ere *seinak* esan izan zaie: «Lenengo irekasteen jateena *seiñai*» (V); edo askoz oraintsuago: «*Seiñak* zerurako azi dagiezan» (*Iturzaeta*).

Gaur egun ere oraindik bizirik dugun hitza da, berariaz etxeko ume txikiena izendatzeko. Seme-alaben artean, *seme zaharrena* edo *alaba zaharrena* esaten den jerarkia horretan, seme-alabetan gazteena denari *etxeko sein*a esan izan zaio. Mungialdean, bertan inguruko hitzun bati hala entzuna diot ez aspaldi, bere biografia kontaeran: «Gurean neu nintzan *etxeko sein*a».

82

SUARI PUTZ

Bakoitzak bere suari putz

Sukaldaritzaz edo jateko-prestatzeaz lotua den errefraua, bere sorreran behintzat. *Suari putz egitea*, surtan erretzen edo egosten dagoen jatekoa ondo berotu edo erre dadin, egitarin gerta ez dadin, azpiko suari —behekoari edo txapakoari— putz egitearen irudi tradizionalaz eraikia da.

Gaztelaniaz ere ondo ezaguna da sukaldatzeko irudi bat, sardina erretzen diharduenarena, surtako txingarra norbere sardina erretzen dagoen aldera erakartzearen antzirudiaz jostatzen dena.

Sua dugu autugai goiburuko atsotitz horretan, baina, sua barik, *opila* ematen da iruditatzat sarriago beste errefrau batzuetan. *Opilaren* irudiaz jatordua bera irudikatzen dugu oro har. Esapiderik ezagunena, beharbada: *nork bere opilari putz egitea* esatera dakarrena.

Azkuek era bat baino gehiagotara batu zuen errefrau berau. Batean, *opila* eta *ikatza* josten dira: «Nork bere opilari ikatza» (EY 1450). Beste batean, *opila* eta *sua*: «Bakotxak bere opilari su» (EY 2042). Hirugarren batean, «Bakotxak bere opilari ziri». Eta hurrengo batean, «Bakotxak bere opilari ikatz». Eta irudi bikoitzaz jokatzten duen beste osatuago

bat ere badakar: «Bakotxak bere opilari su ta bere santuari erregutu», eliz giro sendoagokoa.

Errefrauak aditz jokatzuz urriak izaten dira, baina esakuntzok kontaera edo testu barruan txertatzen direnean, hartara egokitzen dira genero finkotzat ditugun hauek ere: «Bakotxak ordu onean *bere opilari su egin beio*» (*BGuzur*).

Ikatza, suaren pizgarri modura esakuntza gehiagotan ere ageri da. K. Mitxelenak honela testuratu zuen behin: «Zilegi dela dirudi, gezur biribilik bota gabe *nor bere opilari ikatza arrimatzen saiatzea*». Baina errefrau-aldiera honen lekukotasun zaharragoa dugu, Tolosako 1923ko egutegian ageri den harako hura: «Inoren begirapenik gabe, beren on huts-zale diranetzaz, diote: “nork bere opilari, ikatza”» (*EgutTo*).

Suari putz egin irudi horrekin bestelako errefrauak eta esaerak ere badira. Bada bat, dioena: «Suari putz, txinpartak begitara, Marikrutz» (*Garate* 12249). *Putz* eta *Marikruz* andre-izenaz puntu-jokoa eginez josia.

Suari putz egitea, ezkaratzari edo sutondoari iluntzean edo gauean argi egiteko ere izaten zen lehenago, argindarrik ez zegoen aldiari: behe-suari putz egin, egurra bota ostean, hauspoa hartuta; hala, inguruan epeletan zeudenak ere argitan egon zitezten. Graziano Anduaga oñatiarrak koadro polit hau utzi zigun oroimenaren zorrotik aterata: «Gabea andrak goruetan egiteko, bat jartzen zan *suari argi eragiten zotzak emanaz*» (*AitUzta*).

Putz egitea beroegi dagoen janari, edari edo, ahora eramanda ezpain eta aho-barruak erre litzakeen jeneroari, usadio zaharrekoa da gure gizartean. Irudi horrezaz ehoa dugu hurrengo esakuntza hau: «Zuku beroaz inoiz galdostu danak, *hotzari be putz*», Bernardo Garro *Otxolua* idazle mundakarrak gudu aurrean idatzia. *Galdostu* edo *gardostu*, ur irakinetan

erretzea da. Bizenta Mogel idazleak ardo gorituaren gorabeheran darabil: «Urbildu zuenean ezpainera, erre ziozkan ardo irakiten zegoanak, ta *txut* esanik, asi zan ardo gorituari *putz egiten*» (IO).

Putz hitza dela eta, dakargun gogora, errefracuetan ere hitz honek ‘ezereza, *huskeria*’ adiera gorde ohi duela beste ezekin baino gehiago. Badugu esakuntza bat, zinez polita, «putz» hitzaren inguruan bilbatua, eta gaztelaniaz ere ordain ezaguna duena. Manuel Larramendik XVIII. mendean bere hiztegian era honetara jaso zuen: «Nere poza putz» (MI GOZO EN EL POZO). Eta are zaharragoa den beste atsotitz bat ere bada, erditzearen, sein egitearen irudipean dioena: «Haizez izarra zedina, putzez erdi zedin» (*ProvBasq* 542). Gaur egunean ere erraz entzun daitekeen mezua, baina gure ohikunetik hurragoko erregistroaz formulaturik: «Usteak erdia hutsa, beste erdia putza» (*Garate* 13311).

Haizearen edo *haize-bolararen* esanguraz ere aipatua da *putza*. Hego-haizea dela eta, adi errefracu honen esanari: «Hego-haize *putz erre*, berak busti ta berak lehortu» (*Garate* 6627).

Suari putz ez ezik, *suari ura egitearen* irudia ere ondo ezaguna da, gizakion haserrealdiak baretze aldera erabilia berariaz: «*Ura suari*, eztitasuna kolerari» (*Gure Herria* aldizkaria, J. Martin Hiribarren).

Amai dezagun jardun hau errezitatu batekin, *putzaren* gaiaz kordatua. Umeentzako errezitatua da, aspaldion kulturgintzaren, kantugintzaren edo hedabideen bidez ezagunago bihurtu dena, luzaroetan ahanzturaren hauts artean estalirik egon ondoren. Hala dio: «Txirin-txanketan akerra dantzan, astoa bibolina jotan, azegaria *suari puzka*, erbia urun-eralten» (EY IV 373). Azkuek Arratian bildua da, hurrean, bertsio hau, eta gaur egun ere Bizkaiko paraje horretan bizirik dirauena.

83

TXAHAL BILA*Txahala lepoan eta txahalaren bila!*

Gorane Intxaurreaga Labayru Fundazioko teknikaria da esakuntza moduko hau bideratu didana, Rosa Maria Basterretxea bere amari entzunda. Galdakaoko Erletxeta auzoko alaba bera.

«Txahala lepoan eta txahalaren bila!» errefracuat jotzekoa dela esango nuke, lokuzio soiltzat baino gehiago. Irakatsi garbia dario beroni: zeozer aldean edo esku artean eduki norberak, baina konturatzan ez, edo buruak eman ez une horretan, eta horrexen bila lehian diharduenari zuzendua den esakuntza.

Ganadua egon den baserriko irudiaz ondurikoa da, edozelan ere. *Txahala lepoan* edo sorbaldan hartuta joatea ez du zentzuak agintzen duena. Bere oinen gainean ibili behar duen aberea norberak aldean lepoz eroatea ez dio inori buruak ematen, ez orain ez lehen. Berdin dio katakume bat izan, zein beste etxe-abereren bat: txakurkumea, antxumea edo bildotsa. Txahal bat, jaioberritan ere astun samarra izaten da, eta tamainuz ere ez makala.

Gehiegikeriazko irudi batez baliatu da hiztuna, konparantza hau asmatu orduan. Begien aurre-aurrean daukazuna ikusi ez, edo aurrean

duzulakoaz ohartu ez. Aurrean daukanaz konturatu ez denari arpegira
braust botatzeko ateraldia.

Mezu berorren adierazle diren beste esaera gehiago ere badira. Bat:
«Otsoa balitz, haginka!», Mungialdean entzunda.

84

UDABERRIA*Udabarria, odol barria*

Euskaraz ez da hain entzuna, baina gaztelaniaz berehala datorkigu burura harako bat, udaberriak odolak bizitzen dituela gogoratzen diguna. Goiko esamolde hori bera Bizkai erdialdean esaten den eran jasoa da, Zornotzan, kasu honetan. Hitzez hitz aldaera bera erdialdean ere: «Udaberria, odol berria» (*Garate* 12733). Eta euskararen bizi-eremuan ekialderantz ere antzeko edo hurreko formulak idoro daitezke, odolaren berritzea gogoeta dela: «Udaberrik odola aldatzen dik» (*Garate* 12734).

Gizakiotan ez ezik, abereetan ere erraz igartzen da udaberrian odolek dakarten bizitze hori. Iztueta zaldibiarrek umorez beteriko astoen udaberriaren antzirudi hau dakar: «Astoak udaberrian zaldalea iragazten oi dabiltzan bezala» (GD); garagarraka dabiltzala esateko. Ez da denbora asko, Urdaibai aldean, etxeko zaldiak urruntxoko behor baten irrintziari erreparaturik, barrutian zegoen larretik aldendu eta behorraren deira joan zenean, eta ugazaba gazteak sokaz trailan bueltara ekarri, esplikazio hau eman zidan: «Honeek zaldixek udabarridxen zatartu egiten dire».

Udaberriaren etorrera lurraren eta naturaren biziberritzeaz estu loturik dago. Eta hala, lurraren ziklo berriaren iragarle modura aipatzen da mezua errefrau bidez ere. Hilaren eta biziaren kontrastearen ezaugarri

dugu, lurraren zikloaren alde biak batera biltzen dituen esakuntza hau: «Lurra neguan pausatzen da, udaberrian atzartzeko» (EZBB 1980).

Udaberriaren etorrera ez da nahitaez, egutegian iragartzen den martxoaren 21arekin finkatzen. Batzuetan goizago, beste batzuetan beranduxeago, urtearen arabera. Sineste zaharra da, udaberria hasirik ere negua oraindik luzatzen dela dioen hura. J. Mokoroak bere bilduman jasotakoak dira hurrengo esaera antzeko biok. Batak dio: «Badaki udaberriak neguaren mugetan sartzen; baina lapurtzen dizkion egunak gainezka gero ordaintzen» (Joakin Aldabe, informatzailea). Eta bigarren batek, otsaila dela eta, hauxe dio: «Badaki ederki bitara jotzen: udaberri, nahiz ta negu...: aukera eskutan; taranta nora, halako moduan jotzen du» (Joakin Aldabe, informatzailea).

Liturgia-egutegiaren erreferentzia ere aipatzen da batzuetan udaberriaren etorrera gisa: «Garizuma berandu, udaberria berandu» (EY 1686).

Landare edo arbola goiztiarrak loretan jartzea da beste batzuetan seinale. *Elorri zuria* aipatzen da udaberria ailegatzearen seinale; eta belarrak ere gorantz datozen igargarri: «Elorri beltzak lora, behiak lau hankaz gora; elorri zuriak lora, behiak larrean gora» (EZBB 863). Argibide etnografiko interesgarria, errefrauaeren argigarri: «Elorri beltza otsailean loratzen da, behiak ukuiluan hobeto daudela. Elorri zuria loratu orduko udaberria bete-betean dago». *Sanjose-loreak* ere udaberriaren igargarri gisa aipatuak dira. Esaera da: «Sanjose-lorak agiri dira... Badator udaberria» (OE).

Fruituen oihartzuna ere badugu, urtaroen gurpilean. Kukuaren etorrera goseteaz lotu izan da tradizioz eta kukuaren joanera, janari berrien heltze gisa: «Kukua etorri, gosea etorri; kukua juun, gosea juun» (EY 1686). Eta fruituetan aipatzen dira behin makatza eta mahatsa ere: «Udabarrien makatza, udagoien mahatsa» (*Garate* 12727).

Eguraldiaren gorabehera da behin eta berriro urtaroekin estekaturik dugun gaia. Batzuetan, euri edo aterri izatea da auzia: «Kandelarioz euria, laster da udaberria; Kandelarioz aterri, negua dator atzeti» (EY 1734). Beranduxeago ere iragarpen bera, udaberria eta pazkoak aldi seinalatu direla: «Udebarri ona, pazkoatan denporalie» (*Garate* 12730). Ildo berekoa dugu Iparraldeko bat ere, *berant* izatea eta udaberriz pazko izatea kidetzen dituen: «Berant bada berant, udaberrien bazko» (*Garate* 12731). Inguru-hizkuntzetan ere maiz entzuten den leloa, eguraldia errefracu-gai dela.

Euririk ezaren eta lehorteen zemai garratza gogoratzera datorrenik ere bada: «Udebarriko legortie, urte guztiko gosie» (*Garate* 12736), aldaera baten arabera; eta antzeko moduz beste hau ere: «Udaberriko legortea, urte guztiko gosetea» (EZBB 2791).

Udaberria *emakumeen umoreaz* lotzen dutenak ere badira. Hurrengo hau lekuko: «Udabarriko haizea, erranendako baino amaginarrebarendako hobea» (EY 1474).

Txori migratzaileen joan-etorria ere udaberriaren iragarle gertatzen da behin baino sarriago. Kukua eta elaiia, enara, dira ezagunenak gure tradizioan: «Kukua, udaberriko soldadua; txantxangorria, neguko soldadua» (EZBB 1846). Elaien, enaren etorrera ere udaberriari lotua dago, nahiz eta esakuntza batzuetan ertz biko adiera ematen den: «Enara batek ez du udaberria egiten» (EZBB 908).

Lizardiren pasarte berdingabe hau eraz dator udaberriaz ari garela: «Bekik iretzat oi u alai au, / sagasti, iretzat; bereizki bai au / yaiez yantzi zorna berriak! / Bizitza duk agiri garretan... / Bizitza, ler-berri, adarretan... / Igan dik sort-ogea Udaberriak!».

85

UGAZABA BI

Bi ugazabako etxea, kaltea

Esakuntza hau Sabin Barruetabeña fraide euskaltzaleak hartu ohi zuen ahotan behin baino sarriago. Bolibarko seme hau, Eibar eta Ermua inguru horretan luzaroan bizi izana zen, Deba ibarreko herri nagusi biok ondo ere ondo ezagutzen zituena.

Izen biren uztarduraz ehoriko errefraua. *Etxea* batetik eta *bi ugazaba* izatea etxe horretan, bestetik. Eta etxe-ugazaben elkarkuntza horren ondoriozko mezua: *kaltea*.

Mezu bera bestelako irudi eta esakuntza egituren bidez ere maiz ematen da. Ebanjelioko parabola batean ere aipatua den iritzi unibertsal baten lorratzean ernea da euskarazko *bi ugazaba* darabiltzan hau ere.

Beste esakuntza batzuetan, *etxea* barik, *txakurra* da protagonista. Sartaldeko bertsio batek honela adierazten du: «Ugazaba biko txakurra, goseak hil».

Erdialdetik ekialderantz, *ugazaba* baino gehiago *nagusia* esaten da, eta hala entzuten da errefrauan ere: «Bi nagusiren txakurra, goseak hil» (*Garate* 9900). D. Intzak azalpen eta guzti eskaintzen diguna: «Bi etxetako zakurra, goseak hil. Ez batean ez bestean jatera ez ematen» (NEZ 1543).

Azkuek EY bilduma urrezko horretan, batzuetan *txakurra*, besteetan *hora* irudi-izentzat hartuta, honako hauek dakartza bata bestearen jarreraian; bi-biak elkarren aldaera garbiak: «Bi etxetako zakurra goseak jan» eta «Bi etxetako xakhurra goseak hil» (EY 421).

Baditugu *zarea* eta *hora* aipatzen dituzten atsotitzak ere, *etxea* eta *jabea* protagonista direla: «Bi etxetako horak, zarea gora» dio bata; eta «Bi jaberren horak, zarea gora», besteak. *Hora*, gaztelaniaz MASTÍN deritzon txakurtoari esan izan zaio, eta *zarea*, Iparraldean, ‘jateko askaria’ da. Baina ganaduaren jateko aska horri *ganbela* ere ohi deritzo hizkera batzuetan, eta izenok erabiliz ehoa da hurrengo hau: «Bi jaberren zakurrak ganbela urruti» (EZBB 617).

Arrantza-langintzari dautsaten errefracuak ere badira, mezu beraren adierazle. Ontzian edo txalupan patroï edo nagusi bat baino gehiago izatearen kaltegarria adierazten da horietan ere. Azkuek dakarren batek dio: «Txalupan nagusi asko dagozanean, arrantza gutxi» (EY 262). Eta A. Zabalak dakarren hurrengo honek, edukiz hornituago, dio: «Txalupan nagusi asko, arrain gitxi ta zorra asko» (EZBB 2741) dio batean, eta «Nausi asko dan ontzijan, arrain gitxi», bestean (EZBB 2182).

Beste irudi-izen batzuek baliatzen direnak ere badira. Oraintsuagoan bilduak ditugu bi. *Ate biko etxea* aipatzen du bata: «Ate biko etxea, kaltea» (Manuel Reguero del Oxinalde, informatzailea). Eta *andre biren etxea* besteak: «Andre biren etxea gaitzez betea». Adierazkortasun bikoak bi-biak.

Amai dezagun, Jabier Kalzakorta ikertzaileak artikulua batean ezarri zuen paremia batekin. Markina inguruko iturriren batetik batua, aurki. Halantxe dio: «Ate biko etxea ez da erraz zaintzen»; gaztelaniaz ere ia hitzez hitzeko ordaina duena: CASA CON DOS PUERTAS, MALA ES DE GUARDAR.

86

URARI PRESA

Joandako urari ezin presarik egin leio

Joan denari, igaroa denari atzera eragiterik ez dago. Etsi eta hartakotzat hartu besterik ezin da egin. Horra atsotitzaren mezua, gaur egunean ere irudi hauekin edota bestelakoetan aho-mihian darabilguna. Izan ere hainbat dira euskal errefraueta mezu beronen adierazle.

Euskal esaera zaharrenetan *aldi joana* eta *aldi igaroa* aipatzen dira, literatura unibertsalean ere topiko ezagun bihurtua den kontzeptua. «*Aldi joana* biorretan gasta ('gatx da', 'zail da')» (RS 118), dio horietariko batek. Eta bilduma berorretan bada antzeko beste bat ere, beste hitz batzuekin oratua: «Ostenduko zara, / ta *aldi igaroa* / oraetan gaxta ('gatx da', 'zail da')» (RS 144). Baina *oratu* aditza, atsotitz honetan, ez da 'orea egitea', ezpada 'heldu, atxiki' adierakoa.

Itxuraz hitz bakarra dirudien «gasta», errefrau bietan ageri dena, ez da besterik «gatx da» aditz-multzoa baino; *gatx izan* —euskara batuan, *gaitz izan*—, aditz-multzoaren oraineko aditz jokatu.

Lehen errefrauak *aldi joana* izen-sintagma darabilen lekuan, *aldi igaroa* azaleratzen du bigarrenak. *Oratu* aditzaren adiera eta erabilgunea, biak dira harrigarriak: *aldia oratu*, egitura bitxia, nolnahi ere. Aditz

horren erregimena ere ohartzekoa da: «zer oratu: aldia oratu» egitura dugu hor, eta ez gaur egun nagusi den datibodun argumentu-egitura: «zeri oratu» delakoa.

Mezu beronen edo bertsuaren adierazgarriako, *errota* eta *ura* mintzagai darabilten hainbat esakuntza dira gurean. Eta eurotan ezezka esaldiak dira nagusi, esan nahi da, ezezka ematen dela maizenik mezua. «Igaroriko urak errotarik eztarabil» (*Garate* 7087) dio batek: *igaroriko ura*, ‘joandako, pasatua den ura’. Izan ere, urak, andapara edo antaparara datorren urak ibilarazten du errotarria, errotaren harrizko gurpila, eiherari berari izena ematen dion *rota* zaharra.

Badugu berbazko aldaera bat ere, dioena: «Presan eskapeniko (‘eskapatu-rik’) urek ezteu errotarik erabilko» (*Garate* 11458). Hala, errotara doan urak indarra izan dezan, ubidera heldu baino lehen uherka horrek beterik, urez handiturik egon behar du. Presan batzen da ura: presako ura. Presak ur-aringarriak izaten ditu alboetan, gehiegi



hazi ez dadin eta gainez egin. Baina multzoturiko ur horrek igartzeke ihes egiten badu desbideren batetik, halabeharrez indarra galduko du ur gutxiendu horrek. Eta hala, ur mehetu horrek ezin diezaioke errotari, boluari, eta zuzenki errotarriari, behar adina indar eman.

Badira aldaera batzuk, *ur joana* aipatzen dutenak, goiko errefrau zaharrek *aldi joana* horren ildo berari darraizkionak: «Ur joanak ez du errotarik erabiltzen» (EZBB 2848).

Urik ezaren irudia darabilten esakuntzak ere badira. Urik ezak sorrarazten duen ezintasuna are handiagoa, errotarriari jira eragiteko: «Urik barik errotarik eztabil» (*Garate* 13048).

Ur geldiaren irudiaz ere jokutzen du errefraueteriko batek: *ur geldiaren* hutsa, *ibili dabilen uraren* indarraren aurrez aurre: «Ura geldirik, errota geldirik» (*Garate* 12974).

Errotaren orde, *ola*, burdinola irudi dela, antzeko mezua adieraztera dator hurrengo esakuntza zahar hau. E. Garibaik esanahia ere argitu zigun: «POR LOS QUE OFRECEN QUE HARÁN Y ACONTECERÁN CON FUNDAMENTOS FLACOS, DICEN: *Balizko oleak burniarik egin eztaoa* (LA HERRERÍA DE ‘SI SERÍA’ NO SUELE LABRAR HIERRO)» (*Garibai* A 36). «Egin ez daroa» aditz-perifrasiak ekanduzko, ohiko prozesua markatzen du.

Errotek eta uraren indarrak energia sortzeko gure gizartean izan duten pisu handiaren eta eragin sakonaren lekuko mutu bihurtu dira errefrauon bidez, gaur gure ibai- eta erreka-ondoetatik ia aldendurik diren aldiotan.

87

URDAIA ETA SAGUA

Urdaia saguaren atzetik

Lokuzioa da berez, *urdaia saguaren atzetik* ibiltzeaz esaten den hau. Errefrau modura taxutzeko, sententzia batez osatu beharko genuke: urdaiak saguaren atzetik, ez duela ibili behar, edo urdaia saguaren atzetik ibiltzea itsusia edo arriskutsua dela, eta nahi den baieztapena.

Animalia txiki bat, *sagua*, eta jaki gozoa, txerriki ondo estimatua, *urdaia*, dira irudizat errefrau osatugabe honek, mezua aditzen emateko biziarratzen dizkigunak.

Irudiaren sekuentzian, *sagua* edo *katua*, edo *txakurra*, *urdaiaren* txutxuan ibiltzea berezkoa da. Jaki on bila zuhur eta erne ibiltzea berez doakie animalioi. Baina kontrakoa da logikari ez dagokiona, eta errefrauak iruleztara ematen digu sekuentzia hori; atzekoz aurrera, usadioaren, usu-legearen kontra: *urdaia saguaren atzetik*, «mundua aldrebes» egotea irudikatzen du irudia dugu.

Gaztelaniaz ezaguna da nekazaritza-giroko bat, ganaderitza inguruko beste kontrajarren irudi bat, otsoa eta ardiak artean direla, *ardiak otsoaren atzetik* irudi gisa harturik.

Giza harremanetara ekarrita, gure aurreko belaunaldietan, nekazari-giroko herri-pentsaeran loratu den irudia neska-mutilen harremanen gorabeheran. Sexu bien arteko tradiziozko hurrerapen bidea, mutila neskatilaren atzean ibiltzea izan da lege, eta susmo txarrekoztat epaitu izan da tradizio-gizartean neskatila bat azarri agertzea mutil baten atzean. Portakizun hori ontzat ez emateko irakatsi gisa garatu den esapidea da *urdaia saguaren atzetik* ibiltzea. Modu ageriagoz esanda: premia duena norberaren bila etorri beharrean, norberak aurea hartzea, gustuko duen horren jarraian joateko. Edozelan ere, lokuzioak berak ez du ematen jokabide horrezazko iritzirik. Kateatu gabe, airean, gelditzen da ondorioa.

Meñakako herrian aspaldi ikasi nuen esakuntza hau, hitz hauekin: «Gure amak esaten deu, urdeidxek ezteuela ibilli bihar saguen atzetik» (Rosa Mari Arano, informatzailea).

Urdaiaren irudia txerri-hiltzeari loturik dago. Txerrikoa izan da nekazari-gizartean negu eta udaberria,aldi luze hori igarotzeko, etxeak, etxeokok eduki duten janari sendoa, *sendaria*, *jakia*. Balio handiko irudia, beraz, *urdaiarena*. Txerrikiaren jale den bizidunaren iruditzat animalietara jo izan da: *sagua* ez ezik, *txakurra* edo *katua* ere berdin izan daitezke.

Edozelan ere, formulatze diferenteak ezagutu izan zaizkio errefrau honi. Ezagunena beharbada, *katuaren* irudiaz ondurikoa, goiburuan ipini dugun erara: «Urdaia katuen atzean» (*Garate* 13013). Sartaldeko hizkeretan sustraitua dirudi batez ere lokuzio honek. Eta hurreko edo antzeko irudiz ehoak dira hurrengo besteok ere, etxe-animalia biren arteko auzia darabiltenak. Bat, soila eta laburra: «Katue txakurren atzien» (*Garate* 8387). Beste bat, zuzen eta gordinagoa, mezuaren intentzioa ageriago ematen duena: «Sague katuen atzien, neskatillie mutillen atzien» (*Garate* 11580).

Sagu-urdaien goiko irudi bertsua darabil beste honek ere, esanguraz bestelakoa den arren: «Katalin, Katalin, katuak urdaia jan din» (*Garate* 8336).

Edozelan ere, ez dira horren ugariak euskaraz, neska-mutilen harreman-moduak bideratzera zuzentzen diren errefrauak.

88

URRIA*Urria, hilabete eztea, ihiztarien loria*

Urria urtearen hamargarren hilaren izentzat dazaugu gaur egun, baina inguru hurreko hizkera batzuetan pluralez erabilia da izen hori: *urriak*. Izan ere, bi hilabete osoak barru hartzen izan ditu *urri* izenak, ez *irail* edo beste izenik ezagutu ez zaion bederatzigarren hila ere *urri* izenaren estalpean geratu delarik.

Izan ere, gaur nagusi ditugun *irail* eta *urria* izenak erdi edo anitz nahasirik ageri zaizkigu herri-hizkera tradizionalan. Bederatzigarren hilari *urria* deritzo Nafarroako hainbat hizkeratan, eta berdin Bizkai erdialdeko eta Arratia inguruko leku batzuetan. Nahaskorapilo hori askatzeko, adjektibo batez hornitzera jo da bederatzigarren hila hizkera batzuetan: *urri lelenkoa* (euskara batuan, *urri lehenengoa*), «iraila» izendatzeko. *Agorra* eta *buruila* izenak ere zabal erabiliak dira gipuzkeran eta Iparralde-hizkeretan.


Baina hamargarren hilaren izena *urria* da euskara biziaren eremurik zabalenetan. Eta *irailik* ezagutzen ez den edo galdua den sartaldeko aldaera batzuetan, *urri bigarrena* izenaz birbataiatu da. Eta Uribe hegoaldeko ibarretan *urriak* eta *urrietan* darabilte ahotan sarri-sarri, udagoieneko hilok batera hartzeko.

Lehenagoko egutegi eta «takoetan», hil-izenen era arautuak adostu aurrekoetan berariaz, sarri irakurtzen zen *urrila* ere, *urri hila* elkaturik, izen biak bat eginda. Gipuzkeraren lurraldean egon da sustraituen *urril* izen hori. Iztueta zaldibiarrek bere *Gipuzcoaco provinciaren condaira edo historia* paregabeen, hara nola hasiera eman zion bere kondaira horietariko bati: «Milla seieun ta amalaugarren urtean *urri-illaren amabian*» (GK).

Iraizean aipatu nahi genituzke, gure idazle batzuen lerroetan *urria* nola ispilutu izan den. Beranduko uzta garaiko zereginen batzuk. Halakoak dira:

— Mahats-batzea: «Urrian mahatsa dator» utzi zuen idatzirik Eusebio M.^a Azkuek *Parnasorako bidea* olerki-bilduman.

— Arto-batzearen erreferentziak ere ez dira falta urriari buruz, nahiz orokorrean lehenxeago egiten izan den. XIX. mende hasiera horretan honako hau idatzi zuen Mogelek zorren



gorabeherez ziharduela: «Ze balioko dau esateak: Biurtuko dot gero al daidanean, naiz garia salduta edo *urrian artoa batuta?*» (KO).

— Ehiza izan da aldi honetako hobby gogozkoetarikoa. Goian aipatu dugun Zuberoako esaera hau lekuko: «Urria, ilabete ezta, ihiztarien loria» (*Zubiri*). «Agorra eta urria / *eper eizerakoak* dira» (*IztOlerk*), diosku J.I. Iztuetak bere poesia batean. *Agorra* dioenean irailaz ari da, ez abuztuaz. Eta hara, Goierri aldean esaten den beste atsotitz bat: “Aurten ere joan da / amilka *urri*la, / eiztarion hila” (*GoierLor*), Inozentzio Olearen *Goierriko lorak* liburutik.

— Perretxiko sasotizat ere ondo ezagutua da urriko hila. *Zuzak* edo *zizak* batzen basora joateko adinon. Hortixe dator *urri-ziza* izena bera ere. Udazkeneko perretxiko ezagun bati ere *urri-ziza* deritzote Nafarroako alde batzuetan. Eta *urri-zizen* artean badira *urri-ziza beltzak* eta *urri-ziza zuriak*.

Eta, urria nolako begiz ikusi izan dute gure idazleek? Xalbador bertsolaria urriko eguraldiaren gozotasunaz mintzo da bere bertsoetariko batean: «Beti laket izan zaut / urriko aroa» (*OdolMintz*). Eta berdintsu Jon Etxaide antzerkigilea *Alos Torrean*: «Urril-buruko eguzki epela hartzera» (*AlosT*).

Lehenengo elurren agerrera ere gogorarazten zaigu beste batzuetan: «*Urrilburuan lenengo elurtea* jaurti zizun Kaillatieta ta Sustarriko mendietan» (JJ).

Gatozen akabukoz errefracuetara. Ugariak izan ezta ere, dakartzagun gogora ezagun diren horietariko batzuk.

Eguraldia dela eta, *egun-argia gero eta laburrago* izatea dakarkigu burutara Nafarroako atsotitz-aldaera batek: «Urriko eguna, argiko illuna». Errefrau horren egitura berberaz ehorik, urriaren hurrengo

hilagatik ere antz-antzeko hitzez onduriko beste hau dugu, Bizkai erdialdean oraindik ere bizi-bizi dirauena: «Seirak eta iluna, txarria hiltzeko eguna».

Eguraldiaz, *iragarle-seinaleak* gogoratu ohi dira batzuetan. Hala: «Urriko tenporetan zer haize, urte guzian halaxe», Nafarroako Sakanan J.M. Satrustegik bildu zuenez. Eta askoz atzerago jota, euskara idatziaren historian zahartzat jo genezakeen beste hau daukagu: «Eguzkia eta euria, *urri-eguraldia*» (*Garibai* B 46), nahiz errefracu berau erabili izan den *marti-eguraldia* osagarriaz. Eta urriko eguraldia aipatzen duen beste hau ere bikaina da: «*Urriak* buztanaz, zezeilak bularraz» (*Garibai* B 47). Eguraldi txarren iragarle azaltzen zaigu urria errefracu horretan.

Janari-jeneroaren urritzea gogoratzen zaigu beste batzuetan, *urri* hitzaren esangura-bitasunaz, edo homonimiaz, joko egiten duela: «Urrila urri, illunabarretan igarri» (EZBB 127).

Urre eta *urri* hitzen hoskidetasuna eta hitz-jokoa ere azaltzen zaigu errefracuren batean: «Urrea esan eta urria eman», dio batek. Aditzen ematen duena da, gauza ona agindu, *urrea*, eta hutsa eskaini, ezereza eman, *urria*. Bitara uler daiteke berez *urri* hitza: edo hilaren izenagatik edo hutsa edo ezereza ematea.

Urriko lan eta zereginen oihartzuna ere bada hauetariko batzuetan. Batek dio: «Urriko lanetan, aguro zopetan» (*EgutAr*).

Atal honi amaia emateko, urriko jaiegun seinalatuen izenen artean gogora ditzagun *Andra Mari Urrikoa*, edo *Andra Mari Urrietakoa*, Uribe hegoaldean ohi deritzan legez. Urriaren hamaikan zelebratzen da Andra Mari Begoñakoaren eguna ere. Kantu-kopla batzuetan ere goratzen den jaieguna dugu, lehenago behintzat: Hona hemen, S. Mitxelenak bildutako herri-tradiziozko bat: «Harri-mailetan altuan dago / *Birjiña Begoñakoa*. / Hala-ta bere altuagoan, / *Birjiña Arratekoa*» (*Arantzazu*).

89

URTEBERRI*Urtebarri, itsuak be igarri*

Ez dira horren ugariak errefrau-sorkuntzan *Gabon zahar* eta *Urteberri* egunak, eta orokorrean ugariagoak dira euskararen ekialdekoak, Nafarroa eta Iparraldekoak, sartaldekoak baino, eskura ditugun datuen arabera.

Bat, goiko horixe, *igarri* aditzaz ehundua. Sartaldean *Urtebarri* izenaz, eta erdialdean *Eguberri* izenaz puntua hornitzen duena. Egun seinalatu hori, jaiegun hori, nolakoa den *itsuak be igarri*, edo, *eroak ere igarri* egiten omen du. Badugu nafar errefrau bat, dioena: «Santa Luzia egunerako, eguna oiloa(re)n atzaparra hazitzen; Eguberri (edo Urteberri) eruak ere igarri» (NEZ 182). Santa Luzia, abenduaren 13an da.

Gipuzkoa erdialdetik ekialderantz *Urtezahar* esaten da. Errefrau ezagunenetarikoa dugu geure corpusetan *Urtezahar* eta *Urteberri* aurkez aurke ematen dituena. Batzuetan, urte-aldatzea gorabehera denak berdin segituko duela aditzen emateko: «Urteberri nahiz Urtezahar, Martzelino beti “galtzazahar”» (EY 921), Azkuek bildu zuen eran. Zorigaiztoan bizi denak sekula ez du jairik.

Baina Azkuek bildurik dakarren hurrengo honetan, *urte akaberako zori tristea*, *urte berriaren zorionaz* edo *zorion-izpiaz* orekatzen

da: «Urtezahar, Martzelino “prakazahar”; Urteberri, Martzelino “prakaberri”» (EY 922).

Eguraldiaren iragarpena mintzagai duten errefrau gutxi batzuk ere badira. Haizearekiko konparantza egiten du Intzak dakarren honek: «Eguberri bezperako gauerdin zer haize, hurrengo tenporeta(r)aino haize hure» (NEZ 379). Hurrengo honek, gabon inguruko eguraldi onak pazko inguruan hotza dakarkeela iragartzen du: «Olenzaroz leihoan, Pazkokoz sua»; hau da, pazkoetan sutondoan egon beharra.

Jatordu oparoak ez dira oraindik guztiz agortu. Eta otordu gaia du berbagai beste honek: «Eguberri zerekin, Urteberri harekin; asteko zein egunetan Eguberri, asteko egun berean Urteberri» (OE). Eta igarkizun antzo, janari kontuan, honako hau ere esan ohi da: «Urteberri zerekin, hilabeteko lehen egunak harekin» (*Garate* 13208).

Iragarpen gisa ageri zaigu, nolana ere, maiz urtearen lehen eguna. Nolako hasiera duen urtearen lehen egun horrek, handik aitzina ere patu beraren mende izango garelako sinestea, batzuetan on, beste batzuetan txar. Nolanahi ere, onerako asmoak ohi dira nagusi gizartean, euskaraz gurean, beste edozein ere hizkuntzetan gainerako lurraldeetan: «Urteberri, asmo berri» (*Garate* 13205).

90

USOA ETA OTSOA

Kanpoan uso, etxean otso

Errefrau ezaguna, Azkuek bere bilduman baturik dakarrena, aditzik ere gabe, labur-labur, elipsi bidez josia, baina adierazkortasun handikoa: «Kanpoan uso, etxean otso» (EY 509). Kontrajartze bi egiten ditu bere soilean: *kanpoa* eta *barrua*, gizartea eta etxe-barrua batetik, eta animalia bi aurrez aurre: *otsoa*, gaiztotasunaren irudi, eta *usoa*, apal, umil izatearen ispilu.

Baina goiko esakuntzako «kanpoan uso, etxean otso» horren mezu bera adierazten duen alagalako adjektibo bat bada euskaraz, pertsonen, batez ere gizonezkoen, izaera zertzelatzen duena: *kanpoederra*. Eta esakuntza bat edo beste honen harira, *kanpoeder* adjektiboaz ilbandurik: «*Kanpo eder, etxe otso*» (Garate 3232), Garatek bere bilduman hartu duena. Berba hau, «kanpoederra», guztiz ezagun-erabilia eta adierazkorra, oso, dugu eguneroko jardunean ere, lagun mota batzuen izaera deskribatu nahi dugunean.

«Kanpoederra» eta «gerra» hitzen bidez puntua jagoten duten errefrauk ere badira. Sarri entzuten den bat: «*Kanpoederra, etxean gerra*», Azkuek dakarren eran. Baina arterago F. Arrese Beitia idazleari ere irakurri izan dioguna: «Gizon kanpoederra, etxean gerra» (*AmaE*).

Harrezkeroko sartaldeko literaturan ere ez da falta esakuntza honen oihartzunik. Otxolua mundakarrarena, bat izendatzeko.

Berbaz, gaur behintzat, mugagabez entzuten da gehiago Urdaibai aldean: «Kanpoeder, etxegerra». Horrelaxe, zuhur eta labur.

Azkuek *Batxi Guzur* izeneko kontaeran beren-beregi aipatzen ditu izakune horretako pertsonak, erakusmeneko pasarte eder batean: «Eurontzat eginak dira batera datozen esakune onek: “Kanpoederra, etxean *gerra*”, “Kanpoederra, etxean *bela*”, “Kanpoan eder, *etxekalte*”, “Kanpoan uso, etxean *otso*”» (*BGuzur*). Esakuntzaren bigarren osagarritzat, batean *gerra*, bestean *bela*, hurrengoan *etxekalte* eta akaburengoan *otso* zerrendatzen ditu, hurrengorik hurrengo.

Bide batez gogora dezagun, gure literaturan askoz aitzinagotik ageri dela idatziz *kanpoeder* hitza. Mateo Zabalaren alegietan, barbarako: «*Kanpoederra* / biotzbaga / da, bitzuentzat / gauz ustela» (*Fab*).

J. Goikoetxea aspalditxoko jesulagunak, bera Zeraingoa izanik baina Loiolako santutegian bizi zena, Urola inguruko hiztegitxoan ondu zuenean ederkiro ziurtatu zigun horko hizkeran *kanpoeder* adjektiboak duen balioa, argibide polit honen bidez: «Kanpoeder: QUE TODO LO GASTA EN VESTIR, EN PRESENTARSE. *Kanpoeder bat da hori, gaurko egunean beste asko bezela*» (*Loiola*).

Markina, Eibar eta Deba ibarrean guztiz ezaguna da honen kide-kideko beste hitz elkartu bat, *eder* adjektiboaren ordez *larrosa* lore-izena iruditzat darabilena: *kanpolarrosa*. Jabier Kalzakorta irakasle-ikertzaileari zor diogu zehaztasun hau. *Labayru hiztegiak* jasorik dakarren hitza, bestalde, eta esakuntza eder batez horniturik, seguruenik lekuko berorri zor zaizkionak: «Etxeko laratzak daki *kanpolarrosen* barri». Beronen mezua ere, aurreko guztien hur-hurrekoa. Eta Eibarren ere ezaguna den frogarik ziurrena, Juan San

Martin euskaltzainak behinolako kontu-bilduman idatzi zuen esakuntza hau: «Oingo gazteak, *kanpolarrosa* ta etxekardo» (*Zirikadak*). Osagarritzat daukan bigarren adjektiboa ere gogoan hartzekoa: *etxekardo*, kardulatzaren kidekoa.

D. Intza biltzaile nafarrak ere, esakuntzetariko baten jatorik dakar kanpolarrosen irudi berau, esangura bertsuaz: «*Kanpoan larrosak*, etxean arantzak eta zorrotzak» (OE), Mokoroaren bildumatik hartua.

91

ZAHAGIAK*San Migel, zaragiak atzetik edo aurretik*

San Migelen inguruko irrati-jardun baten ondoren, entzule euskaltzale bati akordura etorri zitzaion goian ezarri dugun esakuntza zahar-usaineko hori. Pedro Aurrekoetxea erandiotarrak dioenez, era horretan esaten ikasi ei zuen berak, zein eguraldi ohi zetorren, errefrau bidez. Erandioko berbetan: «San Migel, *zagik* atzetik edo aurretik».

Ipar Uribe aldean «zagik» direnak, beste berbakera batzuetan «zagidxek», eta hizkera jasoan *zaragiak*, eta euskara batuan, *zahagiak*. Sartaldeko herri-hizkeran, dena dela, *zagi* era laburra, *zaragi* era osoa baino esanago eta entzunagoa izan da, ez Bizkai aldean bakarrik, baita Gipuzkoa eta Nafarroako eremu zabaletan ere.

Zahagiak, *zaragi* edo *zagiak*, larru onduaz eginiko zorro luzanga handiak dira, lehenagoko aldian (gure herri txikietan sarri, berriz!) tabernetan ikusten zirenak, barruan ardoa gordetzeko, eta handik bezeroei banatzeko botiletara atera, eta etxera eramateko edo tabernan bertan saltzeko.

Baina errefrauaren irudian, zahagiak (*zaragi* edo *zagiak*), *euriarenak* dira, ez ardoarenak. *Zagiak*, horrelaxe pluralez esan izan da, *euritzak*

irudi bidez aditzera emateko. Metafora zoragarria, nolana ere, gure herritar euskaldunen irudimenak garatu duena!

Uste baino zabalago erabili izan den irudia. Esangura berberaz ia errefrau berbera erabiltzen da Oñati aldean, baina: *hordi-zaragiak* izen elkartuaren bidez. Graziano Anduagak aspaldi batu zuen, luzaroko euritzak esateko, errefrau eta guzti. «Lehengoan esaera da: “San Migelek botauko ditu bai *hordi-zaragiak*”» (*AitUzta*). Irudi bizi-bizia, *euritza handiak* adierazteko, *zaragiaren* eta *hordia*ren (‘mozkorraren’) izenen bidez gehiegi edateaz konparatzen dituena. *Zaragia*, hutsik, nahikoa ez bada adierazi nahi dena garbi egiteko, *hordi-zaragiak bota* esapidea erabiliz; esan nahi da, *hordi bat horditze*ko adina ardo. Hau da, sekulako euritzak edo euri-truxuak goitik behera.

Horregatik zehaztu zidan Pedro Erandioko berriemaileak: «San Migel egunaren inguruan euria egingo dauela adierazoteko erabilten dogu». «Egunaren inguruan», esan nahi da: *San Migel egunaren aurretik zein ostetik*. Iaz behintzat, erdiz erdi aparatu zuen itu-ituan esaera horrek: aurretik eta atzetik euria franko bota zuen, gerora, urte berriak aurrera egin ahala euriak urritu eta mehaztu baziren ere.

Zaragiaren arlora bihurturik, *zaragiaren* gaineko errefrauak beste gehiago ere badira. Bat, zinez polita, Azkuek Gernikaldean batu zuen hau: «*Zagia osorik, ginarrabea hordirik*» (DVEF). Ematen duen argibidea, hauxe: senargai-etxagunaren etxera ezkontzen den andregai gazteak, bere etxetik daraman diru-poltsa edo arrea entregatu ez, eta aita ere bizitetxe berrian mantentzea nahi duenagatik esaten da. Gaztelaniaz jan-edan kontuan esan ohi dena, *zopak (jan)* eta *zurrut egin*, biak batera ezin egin.

Larramendi itzal handiko euskarazaleak bere *Corografía de Guipúzcoa* obra bikainean *haize-zagi* hitza darabil jende-modu batzuen izaera kalfikatzeke. Euskaldun etxagun-familiako gurasoei aholku hau ematen

die, euren alaba gazte galanta norekin ezkondu buru-hausterik erabil ez dezaten: «Obe dezute alaba txukun ori ezkondu emengo tratalari aberats batekin, ezen ez Gaztelako eta besteetako *aize-zagi* galbardun askorekin». *Galbarduna* —edo *kalparduna*—, gandordunari, handius-teari deritzo. Eta *haize-zagia*? Ardoz beteta barik, haizez puzturik dagoen zaragia: *putza eta harroa* den pertsona-modua, *harroputza*.

Zaragiak, sarriro pluralez izendatzen den gaia. Izan ere, lehenagoko benta eta ardandegietan *zaragi* bakarra barik, batzuk eduki ohi zituzten lerroan, zeintzuetan kalitate diferenteetako ardoak gordetzen zituzten. J.A. Mogelek, bazkaltzera joan ziren bentako ardoa, ardo garbia baino gehiago *ur-ardaoa* zela oharturik, hara zelan dioskun Maisu Juan barberuaren ahoz: «Ez dot uste beste *zaragietako* ardaoa egongo dala puruagoa» (*PAb*).

Eta zaragiak ere, neurri berekoak ez ziren guztiak. Batzuk handiak, bai, baina izaten ziren *zaragitxoak* ere, neurri txikikoak eta kontsumo laburrakorako pentsatuak.

Zaragi bat ardo, lehenago apostu edo postura egiteko jeneroa ere izaten zen: idi-proba eta antzeko desafioak egiten zirenean (*zeinek gehiago*). Aipatu dugun Mogel idazleak, bere sermoietariko batean etsenplu hau eskaini zigun: «Oraingo probariak konbitagaitik etorten dira probara; etorten dira ardaoz asetera, ta joaten dira gaberutz euren etxeetara nekez ikusten diran gisan, bildur baten daukezala etxeoak, ez dakiela noz ta zelan joango diran. Ikusten doguna da askotan etorten dirala probara, ez idiak erostearren, ezpada zaragi bat ardao apostauta, diranak garbituten. O ze kontu estua emongo daben erriko agintariak, baldin al dagien legez eragozten ez baditue proba apostedun ta sarrikoak!» (*MogSerm*).

92

ZAHAGIKO ARDOA

Norbere zaragiko ardaoaz be horditu leiteke

Mateo Zabala sermolari idazle ezagunak darabiltzan irudizko hitzak dira errefrau honetakoak, Seigarren Agindu-mandamentua azpian datzala onduak. Kontu jakina da, ezkondu aurretik sexu-harremana izatea zorrotz eragotzirik egon dela luzaroko aldietan, —ez hainbeste gaur, lehen askoz gehiago— Eliza katolikoaren aldetik. Sermoi-dotrinetan *haragizko bekatua* iritzi izan zaio horri.

Baina ezkondurik zeuden senar-emazteen arteko sexu-harremanak ere baldintza batzuen azpian ziratekeen zilegi, lehenago eliz doktrina zaharrean. Umeak egiteko zen zilegi eta lege sexu-harremana, baina horretarako ez bazen, bekatuaren geriza iluna zebilen hurrean haragizko harremanaren ingurumenean. Alferrik egon ezkondurik, alferrik izan senar-emazteak, haragizkoari gehiegi ekiteaz legea hausten ziharduten andre-gizon ezkonduok ere. Hori ez da hain aspaldiko kontua; geure aldiaren ere sarri entzunak eta irakurriak gara horietarikoak. Eta bestetik, esaera ezaguna izan da, Jainkoak «ematen» dituen ume guztiak onartu behar direla.

Horretara zetorren errefrau honen mezua, hain zuzen, harremanen gehiegizkoari hesia ipintzera: *Norbere zaragiko ardaoaz be horditu leiteke.*

Aurreko atalean aipatu ditugu errefrautegietan *zahagiaz* ditugun batzuk. Baina inolaz ere, konnotazio eta adierazpen ugariko izena da *zahagia*. Eta gure literatura idatzietara edo herri-literaturakoetara jotzen badugu, esamolde eta pasarte bikainik idoroko dugu zahagien inguruan. Hara bakan batzuk:

— Ardoa etxean gorderik edukitzeko erabili izan da zahagia edo zaragia, tabernetan ez ezik.

— *Zahagia, ardaoa* eta *horditzea* elkarrekin sokan ageri dira errefrau eta esaera zaharretan. Eta jakina, esaera diferenteak dira, *zahagi* izena aditz jakin batekin lagunduta:

- *Zahagiari ekin*, edanean jardutea edo eragotea aditzen emateko: «Dinoe: “Ei, gazteak, / gaur bai dirua, / zorionez joagu / ziur artua! / Gaur *zaiari* / ekin bear jeutsagu!”» (*Fab*).
- *Zahagiari tiratu*, Bermeoko esaera: «Noixik’peinien *zagidxeri* be ti(r)etuko’tsoie-ta (‘Noizik behinean *zagiari* be tiratuko deutsie’») (*Oroigarriak*).
- *Zahagi egin* edo *zahagi egina egon* lokuzioa esaten zen lehenago, bat mozkor-mozkor eginda dagoela aditzen emateko. «Berandu etxeratzen bada, eta bearbada *zagi egina*» (*Erakusal-diak* I), eta: «Asitzen dira edaten, eta geratzen da, bata erdi-ukitua, eta bestea *zagi egina*» (*Erakusal-diak* II). Beste bat Urruzunorena: «Orra *zagi eginak* / mami ta ezurrez» (*UrzIpuin*).

Arrantzaleen lanbidean *mozkorrik egotearen* iruditzat ere ezaguna da: «Mozkorraren batelean, sare ordez *zaragiak*» (EZBB 2139).

Zahagia eta *edana* elkarrekin datoz: «Dantzan eginda zaragi-ondora / ardaoa doaz edaten» (PB).

— Ospakuntza, zelebrazio edo sariren baterako ere sarri erabili izan da *zahagi ardoa*. Ekandu zaharrekoa, gure herri-ohituren artean. «Herriak *zaragi bat ardao* emongo eutsiela ta» (*Kresala*). «Sanjuanetan *zagi-ardoa* ipintzen dute arkupetan» (*Munita*). «Han, ermita ostean, pago baten azpian *zaragia* mardo-mardorik ikusten zan, bere astotxoan polito ipinita» (*Abarrak II*).

— Harri-jasotzearen antzeko *apustuak* egiten ziren zahagi ardoa lepora altzatu baietz eta ezetz: «Lengo igandean *zaragia* esku bakarrez jaso baietz ta ezetz hasi gaituk Moxolo ta ni; ta galdu egin nian. Ezertako ez nauk!» (*Garoa*).

— *Edan ezina*, aberats triste askoren kasua, zahagiak beterik edukita ere. Lastima gorria. Iturriagaren alegietariko batek errefrau barruan hartzen du zahagiaren irudia: «Aberats izatea / zertako ote da, / gogoa izan eta / jan bear ez bada? / *Zagia etxean* ta / eperra espensan, / eta ezin au jan eta / ezin andik edan!» (*Iturriaga*).

— Zahagia *abere-larruz* egiten zen. Iturriagaren alegi honetan astoaren larruz: «Jauna, larru-zaleak / zamatzen nau erruz / egun oro idi-, bei- / eta zaldi-larruz. / Nere uste guztian / dauka deseoa, / zamaz lerturik illa / ni ikustekoa. / Nola nere larrua / dan aski andia, / nerekin egin nai du / segurki *zagia*» (*Iturriaga*).

— Zahagia pertsonen lodiera gehiegiaren iruditzat ere sarri erabili izan da. «—Bata papera baino meheagoa da; bestea *zagia baino lodiagoa*... —Eta, zer zeukeagu horrekin?» (*Ibaizabal* aldizkaria, Pedro Migel Urruzuno). «Hil artegino *putzitu* eben / *zaragi* baten antzian» (*Urretxindorra*). «An izango ukan istillua *zagia* ala kristaua lehertu ote zan jakitea» (*Usauri*). «Hirugarrena, berriz, lodi bat ta baldar jantzia, *zaragi puztua* zirudien» (*EuskalE*).

— Sabelaren edo *tripontzi edo silbotaren* irudi gisa ere ageri da zahagia, berariaz topa egiteko herri-formula honetan: «Zure osagarriari eta ene *zaragiari*» (*Garate* 10928).

— *Nagiaren* konparagarritzat ere erabili izan da zahagiaren irudia: «Nagian nagia, arraskan *zaragia*» (EZBB 2157).

— Zahagi hutsaren eta *egarri* izatearen irudiaz, ez dagoen lekutik ezin etekinik atera daitekeela gogorarazten digu hurrengo honek: «*Zaragi* hutsak ez du *egarria* kentzen» (*Garate* 13831).

93

ZAHIA ETA IRINA

Zahietan ziogi, urunetan ero

Goiburuan ageri den eredu hori J.A. Mogelek *Peru Abarkaren* berba-jardunetan dakarren berbera dugu: «*Zaijetan ziogi, urunetan ero*».

Zahia, laborearen azalari deritzo euskaraz. Balio gutxikotzat egon den janari mota, elikatze-indar ahulekotzat. Alabaina, ganaduari urdaila lehortu dakion, zirina dariola dagoenean, mesedegarri izan ohi da, baserritarren esanean.

Uruna, euskara batuan *irina*, aldiz, estimazio handikoa beti ere; gizakiok, geure kulturaren batez ere, janari behinena dugun ogia egiteko materia, gaia, irina delako.

Ziogi, edo *zoigi*, gaur galdu samar dugun hitz bakana, hiztegiaren *zogi* sarrerapean ageri dena, agi denez, *soegi* gardenagoaren sartaldeko aldaera zaharra. Eta esanguraz, 'begiratuergia', 'zuhurregia'. Mogelek bere dotrina luzeetariko batean honela argitu zigun, beti ere dotrina-gaietara egokiturik, errefrau honen mamia: «Oek dira fariseo gaiztoak bezela, *zaijetan ziogi irinetan ero*, obligaziorik ez duten gauzeetan txit begiratuak, beldurtiegiak, pakerik ez, debozio batzuek esan gabe eguna igaro bazaie; eta urratu ardura gabe Jangoikoaren legea, ta larga estuko

gauzak. Ematen die mamia deabruari ta azala Jangoikoari; garbitzen dituzte onziak gaiñetik, ta barrunbea uzten dute garbitu gabe» (EE).

Eroa denak, zoroak jota dagoenak, ez du behar putz handirik, duen guztia eralgitzeko.

Errefrauaren esangura, balio gutxiko gauzetan, zahiaren kasua, gehiegizko ardura hartzea batetik, eta balio handikoetan ostera, arduragabea izatea. Mogelek, bere berba-jardunetan errefrauak behin banan eralgitzen hasten denean, aparteko jaramona hartzen dio honi, eta Peru eta Maisu Juanen arteko berbaldi horretan, hara zelako hitzak gurutzatzen dituzten batak eta besteak: «MAISU JUAN.— Eztot aituten euskera ori: ez zer dan ‘ziogi’, ez zer ‘ero’. PERU.— Esan gura dau, zai apur bat galdu eztedin bildur ta ikara, ta uruna ondatubagaiti ardurarik ez. MAISU JUAN.— Badakit orain zetara doian esaera ori».

Lurrak, lurgintzak ematen duen uztaren irudi zaharrak dira *zahia* eta *irina*. Eta Bizkai-Gipuzkoetako errefrau zaharretarik azaleratzen dira irudiok errefrau honen ardatzean, behin eta berriro.

Lope Isastikoren errefrau-bildumatxoan emana ageri zaigu euskara-erdaran, baina ez *ziogi* hitz bitxiar, baizik eta *zuhur* ezagunagoaz: «*Zaietan zur eta irinetan ero*» // EN LOS SALVADOS CUERDO Y EN LAS HARINAS LOCO (*Isasti* 19). Larramendik bere hiztegi hirueledunean jaso digun euskarazko bertsioa orpoz orpo darraio Isastirenari, baina gatzelaniaz libreago jokutzen du, eta zahiaren lekuan errautsaren irudia hartzen du: «*Zaietan zur ta irinetan ero*» // ALLEGADORES DE LA CENIZA Y DERRAMADORES DE HARINA (DT).

Mogelenera berriz etorrita, *Peru Abarkan* ez ezik, bere dotrina-liburuetan ere behin baino sarriago aipatzen duen errefraua dugu, eta maiteena ere berau duela dudatzeko arrazoirik ez dago. Hala, bizkaierazko *Konfesino ona* kristau-ikasbide laburrean honela girotu

zuen beronen ulerbidea: «... oneegaiti esan lei euskaldunen esakera ederra: *Zaietan ziogi, urunetan ero*; zai apur bat galdu ez dedin bildurrez, ta urun ederra galdu arren ardurarik ez» (KO). Eta liburu berorren atzenean, hitz berezi samarren zerrenda laburra eskaintzen digularik «Berba batzuben adibidia» izenburuaz, hitz-zerrenda horren azken hitz modura errefrau osoa eransten digu, aldamenean gaztelaniazko bertsio hau dakarrela: MEZQUINO EN SALVADO, PRÓDIGO EN HARINA.

Pablo Astarloak ere bere apologia lan nagusian errefrau beronen oihartzuna dugu: DE AQUÍ TAMBIÉN EL ADAGIO BASCONGADO *zaietan ziogi eta urunetan ero*, MUY MIRADO EN LO QUE NO ES MENESTER Y DESCUIDADO EN LO NECESARIO (*Discursos*).

Belaunaldi bat osterago, Mateo Zabala sermolari eta idazle bilbotarrak, bere sermoi idatzietariko batean berriro atsotitz honen testuingura eman zigun, baina *ziogi* hitzarekin batera *soin* ere darabilela: «Eurentzat egina legez jatorke onei geure antxinako esakera ederra: “Zaietan soin [ziogi]: urunetan ero”» (*IrunSerm*).

Azkuek, bere errefrau-bilduman, errefrau honetako *ziogi* hitza dela eta, argibide jakingarri hau gehitu zion: EN B-A DICEN *zoin*, CUIDADOSO (SEGÚN EL MANUSCRITO DE OTXANDIANO), EN VEZ DEL LINDO VOCABLO *ziogi*. EN VARIOS OTROS PUEBLOS, EN VEZ DE *ziogi*, DICEN UNOS *zur*, PRUDENTE; OTROS, *zintzo*, FIEL, JUSTO.

Atsotitzaren mezura bihurturik, bide batez gogorarazteko puntua da, kide-kideko beste bat darabilela Oihenartek, baina irudi diferentz ondua, *ardita* eta *dukata* moneta zaharrak bitarteko harturik; balio gutxikoa lehena eta askokoa bigarrena: «Zuhur arditaren, erho dugataren» (*ProvBasq* 534).

94

ZAKUTOA ETA KORDELA

Zelango zakutoa, halango kordela

Jesus A. Etxezarraga kazetari eta idazleari esker jaso dugun atsotitza. Gutxi entzuna eta idatziz ere bakan ageri dena, irudi horiekin behintzat. Zeanuriko semea izanik, handikoa ote den nago beronen iturria.

Konparazio-banatzaileen egituraz eraikitako esakuntza eta esae-rak ugariak dira, euskaraz ez ezik, beste hizkuntzetan ere. Batzuetan konparatze kualitatiboa garatzen da, beste batzuetan kuantitatiboa. Eta osagai bien arteko lotura-markak era diferenteetakoak izan ohi dira. Kualitatearen arloan, *zelangoa/halangoa* edo *zelakoa/halakoa* edo *nolakoa/halakoa*. Kantitatearen eremuan, *zenbat/hainbat*, *zenbateko(a)/hainbateko(a)* edota *zenbateraino/hainbesteraino*.

Goiko atsotitz horretan mezuak, pertsona, izaki edo elementu biren arteko kideasun, antzekotasun edo hurkotasuna alderatzen du. Pertsonen artekoa gehien bat. Eta andre-gizon, neska-mutil edo bata bestearen osagarri direnen artekoa batez ere.

Ondoren kordatu ditugunetan, goiko horren taxuko kualitate-arlokoetara mugatuko gara soilik.

Zeanuritik urrun barik, Arratian bertan, Arantzazuko herrian, izenak apurren bat aldaturik, irudi bera darabilen beste hau batu dugu: «Zelango zakua, halango amarrea» (Jon Etxebarria, informatzailea).

Pertsona biren arteko harreman hurrekoen irudi ditugu *zakuto-kordelak* edo *zaku-amarreak*. Neska-mutil, andre-gizon edo enparatuko.

Beste hainbat ditugu, ondo ezagun edo entzunak batzuk, taxu honetako irudiak. Batzuk, gainera, aspaldi zaharrekoak. Horietarikoa dugu E. Garibaik jasorik dakarren bat. Kronikari horrek ohi duenez, gaztelaniazko argibide batez sarrera egiten dio errefrauari. Hala bada, dio: PORQUE ORDINARIAMENTE HAY TAL GOBIERNO Y RECADO EN LOS PUEBLOS, CUALES ELLOS SON, DICEN: *Nolaango lekua, alaango kobrua*» (Garibai B 42). *Kobrua*, ‘antolakuntza, erakuntza’ adieraz. Gaia guztiz bestelakoa dela ere, *nobia* eta *kabia* (‘habia’) kidetzen dituen beste hau ere zaharra dugu; Isastiren bildumakoa: «Nolako nobia, alako kabia» (Isasti 61).

Ugazaba edo nagusia batetik eta haren mendeko morroia, txakurra edo delakoa bestetik jardungai dutenak ere badira: «*Nagusia* nolako, *txakurra* halako» (EZBB 65).

Denboraren joanak berekin darkartzan aldaketak eta giro-berritzeak islatzeko ondua dirudi, Azkuek dakarren ondoko honek: «Zelako *aldiak*, halako *hazi-orraziak*» (EY 1842).

Eliz giroko irudiaz baliatzen da Juan San Martin idazlea, *plaentxiarrak* direla eta, bere pasadizo-kontaeretariko batean, mezuaren guna edertotxo islatzen duela, hartan ere: «Baekian berak [abadiak] nola berba ein. “Zelako *lapiko*, halako *tapa*”. Bai aukeratu be plaentxiatarrerri euren dako moduko abadia» (*Zirikadak*).

Eliza eta elizaldea darabil autugai hurrengo zahar honek ere, Isastiren bildumatxoan agiri den honek: «Nolako *elizalde*, halako *abade*» (Isasti 60).


Erljio-girokoa dugu, santuak konparagarritzat hartzen dituen hau ere: «Nolako *santo* guziak, halako egoarriak» (*EgutTo*).

Itsas arrainen irudiaz ondua da hurrengo hau: «“Zelako *zakatza*, halako *lebatza*” (V-m)» (DVEF).

Belaunaldien arteko transmisio edo oinordetza darabilte mintzagai atsotitz zahar batzuek. Nafarroako atsotitz batek, aintzinekoak eta gaur egungoak berdintzen ditu: «“*Antziñekuak* nolako, *gibeleguak* halako” (AN-5vill)» (NEZ 1618).

Familia bereko jarraiko belaunaldiak hartzen ditu jardungai beste honek: «Nolako *gurasoak*, halako *umiak*» (NEZ 73).

Etxeko tresnak, ezkaratz eta sukalde ingurukoak ardatz hartzen dituztenak ere badira.



Sukaldaritzako lanabesetan, ohikoak dira *eltzea*, *lapikoa*, *marmita* batetik, eta *tapa* edo *burruntzalia* bestetik. Adibidez: «Nolako *eltzea*, halako *burruntzalia*» (EZBB 70). Edo: «“Nolako *marmita*, halako *tapa*”, behin ere ezta *palta*» (EZBB 71).

Iruditzat *jabea* eta *tresnea* darabiltzaten esaerak ere zaharrak dira. Halakoa da: «Tresneak *jabea* dirudi» (Garibai B 19), E. Garibaik jasoriko errefrau bat; eta egitura banakariaz formulaturik ere ezaguna dena: «Nolako *jabea*, alako *tresnea*» (DT).

Naturako gaiez baliatzen den bat guztiz ezaguna da gaztelaniaz. Euskaraz ere, irudi berekin jokatzeko duenaren kidea, *zura* eta *ezpala*. Hala dio: «Nolako zura, halako ezpala» (*Platon*).

Lan-munduari atxikiriko atsotitzak ere ugariak dira: lanbide, ofizio eta jarduerak irudi dituztela onduak.

Gehienez, gizasemei buruzkoa dugu hurrengo hau: «“Nolako *langillia*, halako *erramienta*” (AN-gip)» (EZBB 70).

Eta emakumeen tradizio-lanbide bat, joskintza, darabil irudizat bestea honek: «*Haria* nolako, *harila* (‘mataza’) halako» (EZBB 40).

Horiatarikoa dugu *soinularia* eta *dantzaria* berdintzen dituen eta D. Intzak bildu zuen hau ere: «“Nolako *soinularia*, halako *dantzaria*” (AN-gip)» (*EsZah* I).

Giza sentipenak, umore-aldarteak ointzat hartzen ditu hurrengo honek: «*Gogoa nolako, hizkera halako*. Euskeldunen gogo-bihotzetan dago galde-buru horren koropiloa» (*Gure Herria* aldizkaria, Fermin Irigarai).

Amaitzeko, gogora dezagun literaturan ere sarri jo izan dutela idazleek banakaritza-egitura honetara, berdintze- edo neurtze-irudiez baliatzeko. Halaxe Gregorio Mujikak *Pernando Amezketarra* herri-kontaeren bildumatxoan: «Neskameak, *nolako* itxura atera deitzen dutenak, *halako* arpegia jarri izan ohi dute» (*Amezketarra*).

95

ZEMENDIAN GARIA*Zemendian erein garia, idien apatxartera be!*

Zemendia deritzon hilak beste izen bi ere guztiz ezagunak ditu. Bata, ezagun-zabalduea, *azaroa*, eredu batuan maizenik dakusaguna. Baina baita *hazila* ere, lehenago Gipuzkoa eta Iparraldeko eremu zabalean entzunena zena, eta aldi bateko *tako* eta egutegietan maiz irakurtzen genuena.

Kardaberaz idazle hernaniarrak, xviii. mendearen erdiruntz, *Euskeraren berri onak* saio-liburutxoan, hiru izenok ematen ditu lerroan hil honentzat: «11. Azaroa, Azilla, Zemendilla» (EBO). Aipagarri da, gaur egungo *zemendi* ordez, *zemendil* elkartua darabilela, *azil* izenaren egitura berekoa, biek bigarren osagaitzat *-il* dutela, *hil* denbora-unitate izena.

Aipatzekoa da ere, duen balio etnografikoagatik *gorotzil* izen ez hain ezaguna ere, Arantzazuko egutegiak ederki deskribatzen diguna: «*Gorotzilla*: hitzak berak dio garbi asko, gorotza barrutieri banatzeko hilla, alegia» (*EgutAr*).

Izendapen guztiok dakarkigute gogora, urtearen azken aurreko hil hori *ereite-sasoia* dela, edo soroa simaurtzekoa. Sartaldean nagusi den *zemendi* izenak latin-hizkuntza du sustraian: *SEMENTIS*, ‘ereitea’, sasoia

edo jarduera adierazten duen izenetik euskarak bereganatu izan duen mailegu-izen zaharra.

Beste biak, *azaroa* eta *hazila*, *hazi* hitzean dute oina: *haziaren aroa* batak eta *haziaren hila* besteak. Esaera da euskaldunen artean, hil hau aipatzen denean: «*Zemendian* gagoz, *hazia* ereiteko sasoian..., geroan batuko bada!».

Goiko esakuntza horren harian, zemendian garia idien apatxartera ere ereiteko gomendioa jaso zuen Azkuek Arratian xx. mendearen lehen urteetan. Gari-hazia idien apatxartean ere ereitea, garia franko erein behar dela esateko irudizko modu bat da. Eta zeharka gogoratzen digu aldi berean, soroa edo alorra goldatu eta aratu idi-uztarriaz egiten zela —edo idirik ez zuenak behi-uztarriaz—, goldea edo area tiran, tenka, idi-uztarriak zeramala. Huts-unadarik gerta ez zedin, idiak goldan zebiltzan gune horretara ere *hazia* sendo bota behar zela ohartarazten zitzaien esaera horren bidez nekazariei.

Euskaltzaindiaren EHHA atlasean honako esate-moduak batu ziran 1980ko hamarkadan, zemendiko hilaren gorabeheran. Kortezubin: «Lenau semendixen *garixek erein*. Labrantzie *erdixe garixe* ta *erdixe artue ixete san*». Oñatin, hil honi *zemendia* deritzola zioen lekukoak: «Bai, semendixa dok... ereiten dan denporakoa dalako». Mendaron, honako hau bildu zen: «Replana dauka orrek —zioen lekukoak—; gure semendixa, abenduan, ta ilbeltzian ere bagenduan». Esan nahi zuena da: «Garixa re eitxe san ba, nobienbrian, ta geixenian, allau esinda», abenduan eta urtarrilean ere erein beharra suertatzen zela. Nafarroako Berueten esaera ei zen: «*Azaroak eiñ* al'ttuzu?» esaten dute, «*Garik eraiñ* al'ttuzu?» aditzera emateko. Eta Abaurregainan, bi abenduak aipatu zituen lekukoak: «NOVIEMBRE, *lemixiko abendua* da». Herri-jakintza zehaztasun aipagarria, eta gutxitan lekukotu izan dena: *lehenbiziko abendua* deritzo azaroari, hurrengoari seguruenik *bigarren abendua* zeritzolako.

Ereiteaz diharduten esakuntzen artean, bada bat dioena: «Azaro, azaro, egin (‘erein’) eta itxaro» (*Garate* 1727). Eta beste bat, harako aholkua ematen duena: «Ereiteko, abenduko hautsak baino azaroko lohiak hobe» (*Garate* 4060).

Egunen *argiaren laburra* eta *ilunaren luzeari* ohartzen zaizkio esaera batzuk. Hala: «Azaroko eguna, argiko iluna», dio ezagunen antzekoa den honek; eta antz-antzean hurrengo beste honek ere: «Abenduko eguna, argiko iluna» (EY 1664). Eta zemendiko hilargiaren argitasunaz daragoio beste honek ere: «Zemendiko idergia (‘itargia’, ‘ilargia’) da argiena» (*Garate* 1736).

Hotz-beroen gorabehera hori zemendian nola izaten den azaltzera datozenak ere badira, ondoko hiletako eguraldian ere ostea, ondorena, ekarriko duelakoa: «Azaroa hotz, negua motz» (*Garate* 1737), ageri da batean. Baina bigarren batek osatu egiten du hotz-beroen zertzelada hori: «Hazila hotz, negua motz; hazila bero, negua gero» (EY 1665).

Euritsua edo *lohitsua* denean azaro-zemendia, hurrengo urtea garitsua izango ei da. «Azaro euritsu, urte garitsu» (*Garate* 1728), dio batek. «Azaro lohizu, urtea garizu» (*Garate* 1729), beste batek. Eta hirugarren bat ere bada, urri-azaroak aurrez aurre ipinirik, lohia eta garia aiputzat harturik, dioena: «Lasteilla (‘lasto-hila’), lastozu; azaroko lohiei gariya bota’zoozu (‘bota iezaiozu’)» (*Garate* 8890). Lasto-hila, urriari esaten zaio.

Aparteko interesa erakusten du hurrengo esakuntza honen mezuak: orrien ernetzea, orri-ernetzea, eta orrien jaustea, orri-jaustea edo orri-erortzea, iragarle-seinaletzat ematen dituen, batean artoa ereiteko eta bestean garia ereiteko. Hala dio: «Ostua ateratzin, artua ereiten; ostua erortzin, garia (babarekin batera) ereiten»; eta informatzaileak erreferentzia-datatzat sanmartinak seinalatzen ditu: «San Martin aldian, azaroan».

Hego-haizearen aipamena dakarten esakuntzarik ere bada: «Urrian eta azaroan hegoaize» (*Garate* 13107). Eta eguraldi onaren lehia darakusenik ere ez da falta: «Gure azaroa abenduan, eguraldi onaren beharra bagenduan» (EY 1714).

Eta azkenez, janariaren aipua dakarren bat: «Larki eta baxaki, azaroko jaki» (EY 1741).

96

ZERU SEGURUAK

*Han zerua eta hemen zerua,
ez da gauza segurua*

Ditxo taxuz ehoriko esaera hau hainbat lekutan entzun daiteke gaur egun ere. Mendatako euskal hiztun adinekoei entzunda ikasi nuen era honetan. Berbaz esanda: «Han zerue ta hemen zerue, ezta geuze segurue». Beste era batez esanda: agindu edo promesa ederregiei ez zaiela sinisterik eman behar. *Zerua* eta *segurua* hitzekin josia da esaldia, eta hitz biok elkarrekin jagoten duten errima-puntuak ederto gantzutua.

Goiko horren hurrekoa da izen bion erabilera eta mezuaren hariari dagokionez, hurrengo hau ere, Azkuek jaso: «Hemen bizi gerala zerua, ta hildakoan zerua, ezta gauza segurua» (EY 2275). *Zeru bi* aurkakotzen dira berean: bizi garenon «zerua», zoriona, eta hildakoen «zerua», ez hain segurua, itxura denez.

Zerua eta lurra, edota *zerua eta mundua* aurkezten dizkigute aurrez aurre hainbat errefracuk. Larrabetzun gudu aurrean baturiko errefracuaren berbek (EF) harean diferente ematen digute baieztapena: «Goien zerue ta bean lurre, bere burue ikusten dau». Babes barik, ezertxo gabe burua ikusten duenaren egoera gorria. Mezuaren aldetik hurbila da hurrengo

hau ere, ondoriotzat *adarra* aipatzen duena; ‘adarjotze’ adieraz, seguruenik: «Hemen zerua ta gero zerua, adarra» (EZBB 903).

Gaur egun ere egunerokoan berban-berban darabilgun esaera da, zorigaitzo edo adu gaiztoren batek jota, «goian zerua eta behean lurra» egotera heldu garela esatea. Azkuek honela dakar: «Hauxe da lorra! Goian zerua ta beian lurra» (EY 2007). D. Intzak ere Nafarroan, Uitzin, antzera batu zuen: «Goian zerue ta beian lurre. (Deus ere ez duenaz, hori besterik)» (NEZ 420).

Ohartzeko puntua da, gramatika-estiloaren aldetik, esaera honen aldaera batzuek ezezka formulatzen dutela adierazpena: «Oraintxe gelditu naiz ez zeru ta ez lur. Guzi-guzia galdurik» (EY 910).

Pobre-aberatsak, edota kristau onak eta lotsa gaiztokoak aurkakotzen dituzten esakuntzak ere ezagunak dira. Horietariko batek dio: «Lotsabageentzat mundua, irabazten dabenentzat zerua» (EY 2633). Zerua pobre izateaz loturik ageri zaigu hainbat errefracutan, beti ere kristau-biziera zintzoaren eredu gisa. Ildo horretakoak dira hurrengook ere, guztiz ezagunak gure tradizioan. Batak, soil, pobre izatea gorestendu: «Pobrea, zeruko lorea». Bigarren batek, ostera, zorrotzago epaitzen ditu aberats eta aberaskiak: «Pobrea, zeruko lorea; aberatsa, infernuko laratza» (EY 2778). Nafarroan D. Intzak horien hur-hurreko aldaera bat utzi zigun bildurik: «Pobreza, zeruko lorea; aberatsa, infernuko suatsa». Eta biltzaileak ohartxo hau erantsi zion atzetik: «Aldika bai, baina ez beti» (NEZ 769).

Zeru-infernuak kontrajartzea, pertsona batzuen izaera berezia argitzeko ere erabiltzen da. «Zerurako izan ez, ta infernurako balio ez», esaten zen lehenago Sopelako berbetan, bertako lekuko abonatu baten esanean. Baina eremu askoz zabalagoan, adierazpen berau beste era batzuetara ere entzuna da: «Ez zerurako eta ez lurrerako» (EZBB 1181), dakar bere bilduman A. Zabalak.

Eta aurreko horien katean doazen katebegiak dirudite hurrengo biek ere. Bata, Iparraldekoa: «Bere izateaz kontent ez dena, zeruan goregi, lurrean aphalegi» (*Gure Herria* aldizkaria). Bestea sartaldekoa, *lana munduarekin* eta *zerua sariarekin* kordatzen dituena: «Lana munduko ilunbean, saria zeruko argian» (EZBB 1871).

Eta amaitzeko, zerua *zoriontasunaren* irudi gisa ageri du D. Intzak jasorik dakarkigun honek: «Hori joatearekin, nere etxean zerue sartu zen». Biltzailearen gehigarria: «Etxea nahasten zuen nonbait!» (NEZ 766).

97

ZIROLA ETA OHOLA

Haur ola, zirola!

Lehen begiratuan ulertzen erraza ez, baina atsotitz zaharra dugu Oihe-nartek bere bilduman dakarren hau: «*Haur ola, zirola!*» (*ProvBasq* 217). Baina behin hizkeraren zailtasunak gaindituz gero, ohartuko gara mezu ezaguna duela, eta beste hainbat ditugula euskaraz ere baieztapen berorren adierazle. Eta gaztelaniaz ere, zapatariari egiten zaion oharpena: oinetako-konpontzera mugatzeko bere zeregina, hartan ere.

Adierazi nahi diguna, zuzen eta argia da: zein bere arloan. Bakoitzak jardun beza berak dakien edo berari doakion zeregin horretan, besterenetan muturra sartu barik.

Zapatariaren lanbidea, mezua irudikatzeko era bat baino besterik ez da. Eta euskarazko atsotitz zahar horrek, tradizioko lanbide-irudi berori dabil: *Haur ola, zirola*. «Ola», zapatariaren mahaia dateke. Baina «zirola» berba gutxi ezaguna gaur egungo hiztunontzat, 'zapataria' izendatzeko.

Berba zaharra da izatez *zirola*, zaharra ere zaharra. xvi. mendetik bertatik dokumentatua; bai Nafarroan, bai Bizkaian. 1599ko kronika batean irakurtzen da: «EL DICHO LOPE LE RESPONDIÓ: OH, ZAPATERO *zirol*» (*ReinEusk*). Artaxoako 1655eko kronika batean ere jasoa da: «Dijeron que el dicho

García de Zaro, que era un menguado, *zirol*, pícaro» (*ReinEusk*). Aldi hartako zapatarien izen onik ez, dirudienez...

Bizkaiko errefrau zaharretan birritan ageri da, eta biotan goiko errefrau horren mezu bertsuaz edo hurbilaz. Batak dio: «Zitel *zirola*, nok gudura aroa?» (RS 21). Esatea bezala: zapatari beldurti edo koldarra gudura eroatea alferrekoa da. Eta beste errefrauak dio: «Arotz dinean *zirola*, oski gitxi urratu doa» (RS 275). Beste hitzez esanda: zapataria zurgin bihurtzen denean, oinetako zoru sendodunak egingo dituela, oholezko zorudunak; hau da, egundo sekula urratu ezinekoak.

Harrezkero galdua dugu nonbait *zirol* hitza. Tradizio idatzian nekez azalduko da berriz, harik eta xx. mendean Azkuek eta Otxoluak berpiztera jo zuten arte. «Zirol (*zapatari*) baten dendara joan ohi zan» (*Latsibi*). Eta: «Izten dautsodaz Bertolda *jaun ziorlari*, neure lau zoruko oski lodiak» (*Bertolda*). Hitzunen mintzoan ere ez du iraun, dakigunez, hitz honek. Maileguzkoak dira bizirik ezagutu ditugun hitzunen ezpainetan ofizio honentzat heldu zaizkigun hitzak: *zapateru* edo *zapateroa*, *zapatagina*, *zapatagilea*...

Oskigile izen bitxia dugu herri-jakintzatik heldu zaigun izen eratorri zahar-sundako bakarra, *oski* zaharretik erakarria. Hala ere, nork jakin norainoko antzinatasunaz... Errefrauren batean badugu, horratio, beronen lekukotasuna: «Oskigilea mintza bedi oskiz» (*Garate* 10948). Nolanahi ere, *oski* hitza dugu, 'oinetakoa' izendatzeko, zahartzat ezagutzen dugun izen bakarra: «*Oski* osoa naiz etena, eskuan baiño oiñean ohea» (RS 288), dio bilduma zaharreko batek.

Bide batez gogora dezagun, beste ofizio batzuen izenak ere ezagunak direla goiko mezu horren adierazgarriako. Behin banan labur esanda:

— Arotza aipatuz, batek dio: «Arotza, ferratzera» (*Garate* 1192). Ekialdean *arotza* sartaldeko 'errementariari' ohi deritzo.

— Jostunaren eta okinaren lanbideak ahotan harturik: «Jostuna jos-tera, okina labera» (*Garate* 8179), dio beste batek.

— Ola zaharrak, burdinolak, eta itsasontziak irudi direla ehorikoa da beste hau: «Olea, olagizonentzat, eta barka, barka-maisuarentzat» (*Garate* 10560). Eta arrantzale girokoa dugu, arrantza txalupak go-goan direla bilbatutako beste hau: «Orekariak, orekan; arrantzaleak, arrantzan» (*Garate* 10856).

— Zurgintza eta hargintza hartzen ditu mintzagai beste honek: «Zurgina, zurgintzan; hargina, hargintzan» (*Garate* 14424).

Badira azkenez, nor zertan den baldarra edo ezjakina adieraztera datozenak ere. Hala, soinulari-dantzarien gaineko hau: «Soinularia, dantzari gaixtoa» (*Garate* 12123). Edo soinu-joleen inguruko beste hau: «Den organistarik haundiena, xixtulari txar izaiten ahal» (*Garate* 10870).

Ofizioez aparte, abere-izenak ere aipatzen dira mezu beronen inguruan: txakurrak, txoriak, zaldia eta beste. Txakurrak direla-eta dio batek: «Zakur bakoitza bere hezurrakin» (*Garate* 13525). Txoria eta zaldia okerreko edo itzulitako zereginetan jarduteaz diharduena: «Ez galda erresiñolari karreun (‘garraioan’) aritzea, ez eta zaldiari kantatzea» (*Garate* 4275).

Eta azkenik, badira errefrauak, goiko mezu hori bera era orokorragoz adierazten dakitenak, gizakia bera protagonista dela. Hala: «Nor bere ofizioan» (*Garate* 10258), epaitzen du batek. «Nere ta Ana, nork bere lana» (*Garate* 10076), bertso-tankerako beste batek. Eta: «Ardurie daukenak ein deixala» (*Garate* 1145), erantzukizuna duenari agindu zorrotza ematen duena.

Gehigarri gisa erants diezaiogun *nork bere prakak* zutabetzat harturik ematen den agindua duen bat, Bizkaiko Meñakako berbetatik ekarria: «Zu zeure fraketan!» (Libe Agirre, informatzailea). Esatea legez: «zu zeure arloan, zu zeure lekuan».

98

ZOROAK BIZI*Bakotxa bere zoroak bizi dau*

J.A. Mogel idazle handiak bere idatzietan behin baino sarriago darrabilen esakuntza. Zoroen aipamena gaztelaniaz ere asko entzuna da esakuntzetan: zoro bakoitzak bere jarduna besterik ez duela bere mintzoan.

Peru Abarka berba-jardunetan, mediku eta barberuen izen on edo fama txarraren gorabeheran, honako argibidea eman zigun idazleak, Maisu Juan barberuaren ahoz:

MAISU JUAN.— Orra nik dinodana: orrelango barberu perdulario moldebagak galduten deutseela pama guztia barberutzeari. Eta ze kulpaa dauke beste gure opiziokoak, zure erriko barberua baldresa, ardaora emona ta astaki bat bada? Aztuko jakon gaztetan ikasi eban apurra.

PERU.— Ez dau berak orrelangorik uste, ta ori esango bazeunskio berari, entzungo zendukez entzuteko onak! Ez dozu inos entzun, *bakotxa bere zoroak bizi dabela?* Ak uste dau ez dagoala bera legezko barberurik Bizkai guztian. Bein banan aterako deusuz egin dituan osakintza, mirariraino jo eragitekoak. Zuk

barriz dinozu, astaki bat izango dala, dongaro jazten dalako, nekezaleakaz bat egiten dalako, ta liburu zaarrak austu ta baztertuta ditualako. Ak esango leuskezu, soinoko bitxidunak ta jan-zbarriak ez dakarrela jakiturariak, eta bai liburuetarako nagitasuna.

Entzun neutsan egun baten esaten nekezale askoren aurrean eta bere euskera txarrean: «Jangoikoak librau zagizala barberu modako, dotore txar, apaindu eta barritsuetati. Kortejante batzuk dituzu; igaroten jakee denporea, zertzuk moda direan kontetan. Figureria guztiak gura ditue, jauntxo egin gura dabe, eta andikiak baino apainduago ibiltzen jatzuz. Ze kurazino egingo dabe barberu delikau oneek? Ibiliko dira gaixoen artean odolak mantxau ez dagizan bildurrez, sangria bat egin bear danean». Alan zinoan, eta ikusi bazinduz orrelan jantzita, esango eutsuzan entzun gurako ez zenduzanak. *A bizi dau bere zoroak eta zu zeureak*. Eta guk nori sinistu? Ari edo zuri? (PAb)

Bizi izan aditzaz jositako esakuntza dugu berau, baina *bizi du*, *bizi nau*, *bizi ditu*, *bizi gaitu* laguntzaile iragankordunekin josia, eta ez *bizi da* iragangaitzaz. Azkuek berrito txertatu zigun bere herri-jakintza bilduman, dudarik gabe Mogelen arrastoari jarraiki: «Bakotxa bere zoroak bizi» (EY 2041).

Koldo Mitxelena ikertzaile eta idazleak ere pasarte batean dio: «Horrelako egiazko asmatzaile gutxietsien ondoan, ordea, *zenbat ez dabilta gure artean bere zoroak bizi dituen horietakoak*; piren balio zehatza arkitu dutenak, geldituko ez den mugimentuaren bila dabiltzanak eta beste hainbeste» (MEIG I).

Zoroak erabili norbera ere esaten da. Halan bildu zigun Justo Mokoroak bere fraseologia-bilduma eskergan: «Bakotxa *bere zoroak darabil*» (OE). Eta Jon Etxaide idazle donostiarrak ere egitura berau hobetsi

zuen testuetariko batean: «Bakoitza *bere zoroak darabil*. Zurea bezain ahantzi ezina da nirea» (JJ).

Zoroak agindu norberari ere ezaguna dugu tradizioan. Agirre Asteasuko idazle klasikoak aspaldi idatzia da: «Zaldi ezi gabe, *bere zoroak agintzen dion eran* dabillen baten pare ipintzen du onelakoa San Ambrosiok. [...]. Zergatik bait esan zuan Jesu-Kristok, “etorri nai badu norbaitek nere ondoren, uka beza bere burua”» (*Erakusaldiak* III).

Errefrau malgua dugu edozelan ere hau, eta geure buruaren alde egiteko ere berdin erabil genezake: «Geure zoroak bizi gaitu».

Zoroen hariaz ez gaitezen luza, berdin gaurko mundu honetan zororik asko baitugu bazterretan. Baina gogora dezagun, bide batez, zoroen aipamenak beste esakuntza gehiagotan ere ageri zaizkigula. Horietariko batekin burutuko dugu jarduna: «*Zoroa* bere hartarik ez da behin ere kantitzen (‘biguntzen’, ‘mantsotzen’)» (EZBB 144).

99

ZORRIA ETA TXERRIA

*Bertzeren buruko zorria dakusa
eta ez bere lepoko txerria*

Oihenart zuberotarrak *Atsotitzak* bilduman xvii. mendean jasorik dakarren errefrau: «Berzeren buruko zorria dakusa eta ez bere lepoko txerria» (*ProvBasq* 96). Ebanjelioetan euretan du mezu-adierazle beraren aurretikorik ezagunena, gaztelaniaz eta beste edozein hizkuntza nagusitan oihartzun sendoa erakarri duena: hurko lagunaren begiko samar txikia eta norbere begiko habea.

Geure hurragoko eran edozenbat idazlek eskaini digute pasarte bera, era batera edo bestera. J.A. Mogelek honela jasorik dakar berba-jardunetan: «Inoren begian badakusku edozein samar; geuretan abe andi bat bere ez» (*PAb*).

Frai Bartolome idazle sermolariak bere zolitasun apartaz beste jas honetara du idatzia: «Inoren begiko lasto txikia bere entero zur anditzat daukagu» (*Ikasikizunak* II). *Zura* aipatzen digu, eta ez habea. Izan ere *zurez* eginak izan dira etxeetako habeak; egurrezko material zindo eta sendoa.

Askoz oraintsuago, P. Ormaetxea zornotzarrak, Frai Bartolomeren bide beretik, *galtzutxo*a eta *zura* ardatz hartuta, honela bereganatu zuen

bere ipuinetariko batean: «Galtzutzua dakusku inoren begian, ta zurik be eztakusgu, gehienez, geurian» (*Ipuintxuak*).

Juan San Martin eibartarrak bere ipuin-pasadizo bilduman zeharretan aipatzen digu *inoren begiko samarra*: «Mundu honetako gehienak inoren begiko samarra hobeto ikusten dabien letxe» (*Zirikadak*).

Eta aldi horretan Koldo Mitxelenak ere, «Inoren begiko lastoaren bila ez bagabiltza» (MEIG II), gogorarazi zigun zeharbidez.

Antero Apaolazak, *inoren begiko negarrak minik ez duela ematen esan* zigun aspaldi, A. Truebaren ipuin baten euskarazko bertsioan: «Inoren begiko negarrak ez dit neri ere minikan ematen» (*PatxikoTx*). Aldaera eta mezu berorren igarole diren esakuntzak ugariak dira, nolahi ere, euskaraz.

Baina gatozen atzera *zorrien* eta *bartz edo bazpien* irudipean heldu zaizkigun esakuntzetara, gainerako guztiak bazter lagata.

Azkuek badakarkigu bat, Oihenartenaren antz-antzekoa: «Bertzen bartzak ikusten ta bere zorriak ez» (EY 418). Eta mezu eta irudi bertsuaz ehoa da Nafarroan baturiko hau ere: «Bertzen buruko bartzak ikusten, baino bere buruko zorririk ez» (NEZ 1837), gaztelaniazko azalpentxo honekin: LA MOTA EN EL OJO AJENO, Y LA VIGA EN EL PROPIO.

Aita Zabalak bilduman dakarren batek, *kukusoak* eta *zorriak* alderatzen ditu: «Bertzen kukusoeri ohartzen eta gure zorriak ez ikusten» (EZBB 570). Eta Garaterenean ere *bartza* eta *zorria* ageri dira aurrez aurre: «Ikusten duzu bartza bertzearen zurtzuilean ('kokotean') eta ikusten ez zorria zeure kopetan» (*Garate* 1950).

Osterantzeko mezu batzuetarako ere erabilia da zorriaren irudia, beste hizkuntzetan bezala. Hara batzuk labur:

— *Pobrezia eta miseria gorriaren* irudi izan ohi zorria. Bitaña idazleak Izurtza inguruko hiztunengandik aspaldi bilduak diren batzuk. Etxe pobreen irudi batzuetan: «Zorridxe ugeri Bartolon etxien» (*Bitaña* 59), dio behin, eta «Zorri-etxeko urriñengo hori!» (*Bitaña* 61b). Gosearen irudi beste batzuetan, *tripa-zorri* hitz finkatuak ere salatzen duen bide beretik: «Gosie, zorridxe» (*Bitaña* 59b).

— *Lotsagabetasunaren* adierazle gisa ere erabilia da zorriaren konparantza: «Oraingo umeak zorriak baino lotsagabeaguk datoz» (*Garate* 12815).

— *Pobre izateaz eta lotsagabe handi* izatearen irudi bihurtzen dute zorria errefrau batzuek: «Zorria baino pobreago, ta zorria baino lotsagabeago» (NEZ 1095), dio Ultzamako batek.

— *Txiki* izatearen, *ezerez* izatearen irudi ere ohi da zorria. Pertsonen izaerari buruz, ‘koitadua’ esangurarekin. Esaera ezaguna dugu Azkuek dakarren hau: «Koitadua! Zorriaren koinatua!» (EY 835), geuk ere behin baino sarriago Lekeition entzuna. Izan ere sarritan, itxuraz apal eta mantso izateak, ostean beste izaera bat ezkuta dezakeela darakuste errefrau batzuek. Horretatik datoz *zorri piztua* edo *biztua*, *zorri hilpiztua* edo *hilibiztua*, *zorri berpiztua*, *zorri arrapiztua* legezko lokuzio ezagunak.

Errefrau barruan ere, *zorri hilpiztua* izatearen kalitatea ekarkor gertatu da euskaraz. Batek dio: «Ez dago txarragorik, zorri hilibiztua baino». Gehiago ere badira. Bigarren baten esana: «Zorri hilibiztua baino, pizti txarragorik ez dago» (EY 668). Eta hirugarren batena: «Zorri hila piztua, maiz gaiztua» (*Garate* 14266). *Zorri piztua* ere erabili ohi da irudi gisa. Halakoa da gipuzkera-eremuko aldaera hau: «Zorri piztua, okerrrena» (EZBB 3103). Eta mezu bertua adierazten da *zorri aberastua* izen-adjektibo kateaz ere. Baten esana: «Txarrena, *zorri aberastue*» (*Garate* 12563). Eta bigarren honena, are gordinagoa: «Zorri aberastue, ñori ostue (‘lapurretan egin’, ‘ebatsi’)» (*Garate* 14264).

— Zorriak *jatun handia, irensle amorratua* delako ospea ere badu. Errefrau baten arabera: «Diruaren korritua beti jaten, zorria bezela» (EZBB 732).

— *Zorria bartzarekin* loturik ere sarri ageri da errefrauetan. Baina bada bat, elkarrizketa modura ehoten duena bere mezua, zeinda nagusi-umeen artean, edo maisu eta eskola-umeen arteko solasa balitz legez. Nafarroa aldekoa, berau: «—Zorriak nor du laguna? —Partza, jauna!» (EY 669).

— *Ugaritasunaren* irudi gisa ere ageri dira zorri-bartzak behin edo behin: «Partzatic zorria» (*Garate* 1951). Ugaritasun honen lekuko dugu beste hau ere: «Orratzean ediren zezan zorriak *zorkaidea*» (*Garate* 10901).

— Nork bere sekretuak isilpean, baina *besteenak haizeratzen* dituela iragartzen da batzuetan. Hala: «Bakoitzak bere zorriak hiltzen ditu» (*Garate* 14268), diosku batek; eta «Besten zorriak ateratzen, baino bererik ez» (*Garate* 14269), beste batek.

— Zorriak *nola kendu* edo ezin diren aldendu iragartzen dute beste batzuek: «Ez dira zorriak mailuz akabatzen» (*Garate* 14270), dio batek. Eta: «Ez ohi du zorri batentzat eskua golkorat ematen» (*Garate* 14271), beste batek.

Kontaketa errezitatu zahar baten barruan, *zortzi* zenbakiaz puntua jagonik ere izendatzen da *zorria*: «Zortzi, otzara bete zorri»; «Zortzi, plater bete zorri»; «Zortzi, itxea bete zorri» (EY 949). Eta zenbakien kontaduria luzeago hartuta: «Bat, Patxi Parrat; bi, Patxi Ipurdi; hiru, Patxik badu diru; lau, atsoak agurea nahi du; bost, klask eta klosk; sei, etxea bete behi; zazpi, etxea bete zapi; *zortzi, etxea bete zorri*; bederatzi, etxea bete baratxuri; hamar, txakurrak marmar; hamaika, txakur zaharrak lukainka; hamabi, bota itzak platerera begi bi» (EY 727).

Literaturan ere ondo ilustraturik azaltzen da *zorri hilpiztuaren* irudia. Halaxe Eusebio Erkiagarenean: «Diru preskuaren jabe egin dan zorri hil-biztuak, lehenengo egitekoa, soineko dotoreak erostea izan ohi dau» (*BatB*).

Norbaiti buruan zorriak bilatzearen irudia ere ezaguna da hizkera batzuetan, norbaiti gerra egin gura, haserre-bidea bilatu gura ibiltzea. Hala zehaztu du Harriet lexikografoak: «Norbaiti buruan zorriak bilhatzea; CHERCHER DES POUX À LA TÊTE À QUELQU'UN, LUI FAIRE UNE MÉCHANTE QUERELLE, L'INQUIÉTER, LE METTRE EN COLÈRE. *Ezta on holakoari buruan zorriak bilhatzea*» (*Harriet*).

Zorriketa, *zorriketan* jardutea, 'zorriak hiltzen' aditzera emateko, adizlagun eratorri ezaguna da. Eta horren harira sortua: «Zorriketa ari denarentzat kukusoa ere ihizi on» (EZBB 3101).

Burlazar modura ere pertsoneri irain egiteko erabilia da zorriaren izena, edo honen eratorriren bat. Hala: *zorritztoa*; edo: *zorritzto luma orraztubakoa*.

Lezamarrak direnei egotzi izan zaien destainazko izendapena da *zorriak* edo *zorritztoak* izatearena. Lezaman eta Zeanurin baturikoa da hauxe: «Lezama, zorrien herrie» (Aitor Olivares, informatzailea). Baina Txorierrri zabalago hartzen duen *zorri* izendapena ere ernetzen da errefrau batzuetan: «Lezama, Zamudidxo, Sondike, Deridxo, frakatu zarratatik *zorridxe* daridxo. (Larrabetzuarrek lezamarrengatik esaten ei dute)» (Morgako Moises Abauntza eta Larrabetzuko Agustin Olazabalaga eta Josefina Oregi, informatzaileak).

Orozkon batua dugu *zorriketan* aipatzen duen hurrengo errefrau hau: «Oilloak zorriketan ('zorriketan'), euria atetan» (Sinesio Estiballes, informatzailea).

Umeen errezitatu barruan ere ageri da *zorriaren* izena: «Kakalardoa laietan, ta astoa danbolina jotzen; haien bien erdian *zorria parrez itotzen*» (EZBB 1754).

Eta amaitzeko, *zorri* izenaz elkarkuntzan darabiltzagun hitz ezagun bi. Batetik, *potrozorria* edo *potozorria*: «Potozorri banaz ni, handiago zeorri» (EZBB 2519). Eta bestetik, *sabel-zorri* eta *tripa-zorri* hitzekin onduriko beste hau: «Sabel hutsa, zorri-toki; sabel betea, simaurtegi» (EZBB 2536).

100

ZULOA ETA LARAKOA

Zulo bakotxari, larakoa

Juan Antonio Mogel idazleak *Peru Abarkako* zerrenda luzean dakarren errefrauetariko bat dugu berau: «Zulo bakotxari, laakua» (PAb). Azkuek mende bat geroago berriz biziberritu zigun bere lanetariko batzuetan.

Euskalzale aldizkarian (1899), kontakizun batekin horniturik, honela argitu zuen beronen esangura: «Bakoitzak badu bere kidea, bakoitzari bere neurrikoa dagokio». Eta J. Mokoroak geroago *Ortik eta emendik* bilduman berriro batu zuen: «Zulo bakotxari, larakoa (‘ziria’» (OE). A. Zabalak *Esaera zaarren bilduma berrian*, *larakoa* edo *ziria* erabili ordez, *petatxua* darabilen aldaeraz ehoriko errefraua dakar: «Zulo bakoitzari, petatxua» (EZBB 3119).

Zer den *larakoa*? Zurezko zotza. *Ziria*, hitz ezagunago batez adierazita. *Kabila* ere baderitzo hizkera batzuetan. Eta gurdiarena denean larako hori, *gurdi-zotza*, *gurzotza* edo *burzotza* ere bai.

Sartu beharreko zuloan bere neurri-neurrian sartzen dena, eta normalean gogorra, hauskaitza izaten dena. Hala, uztarrarian *gurtaga* —edo *burtaga* bizkaieraz— sartzen denean, uztarriaren aurreko eta atzeko

partetik, zulo bietatik sartzen da larakoa, aurrera ez atzera egin ez dezan gurdiak; uztarriari sendo atxikirik gera dadin.

Larakoa zurezkoa izaten zen, zur gogorrekoa: elorri, gorosti edo artearen zura izan ohi zen. Gerora burdinazkoak ere erabili izan dira.

Zulo bakotxari, larakoa esaten denean, beren-beregi aditzen eman nahi da, bere neurri-neurrikoa den zotz, ziri edo larakoa; ez lodiagoa, ez meheagoa; zuloaren neurri berekoa.

Gipuzkerazko glosario batean *lerakoa*, edo ahoz «leakoa», izendatzen da, *larako* hitzaren aldaera, eta honelan deskribatu: «*Leako*, gurpertikeak gurteretik iges egin ez dezan sartzen dan ziria» (*Euskal Esnalea* aldizkaria).



Bada esaera bat, Arrazolako Jesus Eguskitzak jakitera eman diguna: «*Burteuna* (‘gurpertika’) egiten hasi eta *larakoak urten*» (Jesus Eguskitza, informatzailea), zelanbait irudikatzeke, gauza handi bat egiteko asmoaz lanean abiatu eta gauza ziztrin txatxar bat ateratzea.

Maila figuratiboan sartzan bagara, bada esapide bat: *larakoa sartu*, gaurko hiztunontzat ezagunagoa den *ziria sartu* lokuzioaren esangura berekoa: ‘engainatu’, ‘iruzur egin’. Bergarako berbetan J. Martin Elexpuruk baturiko esaldi bat: «Ziria sartu, gezurra sinistarazi: “Datorren illian ezkondu bia dala? Neri fraille zoiala esan jostan da. Orrek *sartu jostan neri larakua!*”» (*Berg*). Eta bigarren karlistaldiko bertso batzuetan kantatzen ziren berbak, liberalen kontrakoak; hala zioten: «Ez deuskuk, Prim, *sartuko* / guri *larakua*, / emonaz erregetzat / eure mozolua» (*KarlBB*).

Irudi bidez erabileran, bada beste esapide bat, *larakoa jo*, ‘kiebra egin’ adierazteko; Urretxu eta Antzuolako berbetatik ekarria da esamodu hori, *lerakoa* hitz-aldaera erabilita: «*Jo zuan atzeko lerakua*».

Eta amaiera gisa, sexu-kontuan ere, asmatzen erraza den bezala, *larakoa* polito erabilia izan da hizkera batzuetan. «*Larako nagusia* eukan gure gizonak», da emakume alargun bati Euban entzuniko esaldia, baina Durangalde osoan ere indar handiko irudia izan omen da *larakoa* gizonezkoen sexuarentzat.

BIBLIOGRAFIA

AGIRRE, Domingo de «Txomin Agirre» (1898). *Auñemendiko lorea*. Bilbo. → [AL].

— (1906). *Kresala*. Durango. → [Kresala].

— (1912). *Garoa*. Durango. → [Garoa].

AGIRRE, Joseba Mirena «Lizardi» (1934). *Itz-lauz*. Donostia. → [IL].

AGIRRE, Juan Bautista «Agirre Asteasukoa» (1850). *Eracusaldia*. I, II eta III liburukiak. Tolosa. → [Erakusaldiak].

AIERBE, Felipe (1916). «Erasa tajutubak», *Euskal-Esnalea* 1916: 143-146. → [Aierbe].

AIRE, Fernando «Xalbador» (1976). *Odolaren mintzoa*. Tolosa. → [OdolMintz].

ALKAIN, Juan Jose «Udarregi» (1966). *Udarregi bertsolaria*. Tolosa. (A. Zabalaren edizioa). → [Udarregi].

ANABITARTE, Agustin (1931). *Usauri (irakurgaia)*. Bilbo. → [Usauri].

ANDUAGA, Graziano (1961). *Aitonaren uzta. Gezaltzako aitonaren kontakizun eta bertsoekin*. Zarautz. (Fr. L. Villasanteren edizioa). → [AitUzta].

— (1963). «Egunsentiko txoria» eta beste bertso asko. Tolosa. → [EgunTx].

ANUARIO DE EUSKO FOLKLORE (1921-...). → [AEF].

AÑIBARRO, Pedro Antonio (1803). *Lora sorta espirituala, ta propositu santuac vicitza barri bat eguiteco*. Tolosa. → [LS].

— (c. 1808). *Misionari euscalduna*. (Argitaragabea). → [MisE].

— (c. 1820). *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipúzcoa y Navarra*. Bilbo. (Fr. L. Villasanteren edizioa). → [VocBasc].

— (c. 1808-1821). *Nequea arinduric*. → [NekeA].

APAOLAZA, Antero (1890). *Patxiko Txerren*. Bergara. → [PatxikoTx].

ARAKISTAIN, Jose (1881). *Suplementos al Diccionario trilingüe del P. Larramendi*. Bartzelona. → [SuplementosDL].

ARANA, Juan Ignazio (1872). *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua euskaraz eta gaztelaniaz*. Bilbo. → [SIgn].

ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN EGUTEGIA (1947-...). Oñati. → [EgutAr].

AREJITA, Adolfo (1983). «Domigo Egikori gorazarre kantua», *Litterae Vasconicae: Euskeraren Iker Atalak 2*, 1983: 137-181. → [DEgiko].

— eta ALBERDI, Miren (1985). «Amilletaren dotrinea», *Litterae Vasconicae: Euskeraren Iker Atalak 3*, 1985: 7-68. → [Amilleta].

ARRESE, Emeterio (1913). *Nere bidean*. Tolosa. → [NereB].

ARRESE BEITIA, Felipe (1900). *Ama Euskeriaren liburu kantaria*. Bilbo. → [AmaE].

— (1957). *Olerkiak*. Bilbo. → [Olerkiak].

ARRUE, Gregorio (itzle.) (1882). *Santa Genovevaren vicitza. Antziñaco denboretaco condairan ederrenetaco bat*. Tolosa. → [Genoveva].

— (1897). *Bearguillearen argia*. Tolosa. → [BArgia].

ARESTI, Gabriel (1960). «Maldan behera», *Euskera* 1960: 189-234. → [MaldanB].

— (1961). «Mugaldeko herrian eginikako Tobera», *Egan* 1961: 262-289. → [Tobera].

- ASTARLOA, Pablo (1883). *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*. Bilbo. → [Discursos].
- ASTARLOA, Pedro (1816-1818). *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac*. I (1816) eta II (1818). Bilbo. → [UDB].
- AXULAR, Pedro de (1643). *Guero*. Bordele. → [Gero].
- AZPEITIA, Agurtzane (2003). *Zestoarren erretolika*. Zestoa. → [ZestErret].
- AZKUE, Eusebio M.^a de (1896). *Parnasorako bidea*. Bilbo. → [PB].
- AZKUE, Resurrección M.^a de (1893). *Behin da betiko*. Bilbo. → [BehinB].
- (1897). «Batxi Guzur», *Euskalzale* (apirila, I-II; maiatza, III-IV-V; ekaina, VI; uztaila, VII). (Atalka argitaratua). → [BGuzur].
- (1898). *Txirristadak*. Bilbo. → [Txirristadak].
- (1905-1906). *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbo. → [DVEF].
- (1918). *Ardi galdua*. Bilbo. → [AGald].
- (1919). *Cancionero popular vasco*. Bartzelona. → [CPV].
- (1935-1947). *Euskalerraren yakintza*. I, II, III eta IV. Madril. → [EY].
- (1989). *Latsibi*. Bilbo. (M. Alberdiren edizioa). → [Latsibi].
- BARAIAZARRA, Luis (2005). *Nire umetako Meñaka*. Bilbo. → [UmetMeñ].
- BARRUTIA, Pedro Ignazio de (c. 1715). *Acto para la Nochebuena*. (Edizio facsimilea: Tolosa, 1983). → [Acto].
- BELAPEIRE, Athanase (1696). *Catechima laburra*. Paue. → [Belapeire].
- BERRONDO, Pedro (1977). *Don Kijote Mantxako*. Zarautz. → [Kixote].
- BETOLAZA, Juan Pérez de (1596). *Doctrina christiana en romance y basquence*. (Edizio facsimilea: *Euskera* XXXI, 1986, 2: 511-526.) → [Betolaza].
- BILBAO, Felix (1959). *Ipuin-barreka*. Bilbo. → [IpuinB].
- BOVEDA GARAI, Xabier (2021). «Bitañoren Durangaldeko esaerak», *Litterae Vasconicae: Euskeraren Iker Atalak* 18, 2021: 155-174. → [Bitaño].

BUSTINTZA, Ebaristo «Kirikiño» (1918). *Abarrak*. I. Abando. → [Abarrak I].

— (1930). *Abarrak*. II. Zornotza. → [Abarrak II].

CUADERNOS DE ETNOLOGÍA Y ETNOGRAFÍA DE NAVARRA (1969-...). → [CEEN].

DE LA FUENTE, Juan Kruz eta Antonio «Durangoko Zidarginak» (1984). *Durangoko Plateroak*. Durango. (A.M.^a Aldekootaloraren edizioa). → [DurPI].

DORRONSORO, Joakin (1957). *Aprende el vasco*. Zarautz. → [AprVas].

DUVOISIN, Jean (1856). *Liburu ederra aita Cardaveraz jesuistac egina, Lapurdico escarara itzulia*. Baiona. → [LibEd].

EGUZKITZA, Juan Bautista (1919). *Andra Mariaren loretako illa*. Zornotza. → [LorIlla].

— (1935). *Gizarte-auzia. Ugazaba ta langille arteko gora-berak*. Zornotza. → [GizartAuz].

EIZMENDI, Ignazio «Basarri» (1960). *Kantari nator*. Zarautz. → [Basarri].

ELEXPURU, Juan Martin (1985). *Bergara aldeko lexikoa*. (Argitaragabea). → [Berg].

ELIZALDE, Francisco (1735). *Apezendaco dotrina christiana uscaras*. Iruñea. → [Elizalde].

ELIZALDE, Jean «Zerbitzari» (1936). *Atsotitz, zuhur-hitz eta erran-zahar*. Baiona. → [Zerbitzari].

ENBEITA, Balendin (1974). *Nere apurra*. Tolosa. → [NApur].

ENBEITA RENTERIA, Kepa «Urretxindorra» (1971). *Gure Urretxindorra. Enbeitatar Keparen bertso-lanak osorik. Aita Onaindiak bilduma eta itzaurrea*. Buenos Aires. → [Urretxindorra].

ERKIAGA, Eusebio (1962). *Batetik bestera*. Zarautz. → [BatB].

— (1994). *Arranegi*. Bilbo. → [Arranegi].

ETXAIDE, Jon (1950). *Alos Torrea. Elezar berritua*. Zarautz. → [AlosT].

— (1955). *Joanak joan. Piarres Topet «Etxahun» barkoxtar koblariari buruz egin eleberria*. Zarautz. → [JJ].

ETXANIZ, Nemesio (1958). *Euskal antzerkiak. Kontu-kontari*. Zarautz. → [EuskAntz].

ETXEBARRIA, Faustino (1990). *Nor garan azaldu*. Auspoa Liburutegia bilduma, CCVIII. Tolosa. → [NGaran].

ETXEBARRIA, Toribio (1966). *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. Bilbo. → [LexicEibar].

— (1967). *Ibiltarixanak*. Zarautz: Itxaropena. → [Ibiltarixanak].

ETXEBERRI, Joanes «Etxeberri Sarakoa» (1712). *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri*. (J. Urkijoren edizioa: Paris, 1907). → [ES].

ETXEBERRI, Joanes «Etxeberri Ziburukoa» (1627). *Manual devotioñezcoa*. (P. Altunaren edizioa: Bilbo, 1981). → [MD].

ETXEGARAI, Jose Bizente (1964). *Festara. Bere bertso guzien bilduma*. Tolosa. (A. Zabalaren edizioa). → [Festara].

ETXEITA, Jose Manuel (1909). *Josetxo*. Durango. → [Josetxo].

EUSKALTZAINDIA (1987-2005). *Orotariko euskal hiztegia*. [<https://www.euskaltzaindia.eus/>]. → [OEH].

— (2009-2019). *Euskararen herri hizkeren atlasa*. Bilbo: Euskaltzaindia. → [EHHA].

EUSKO FOLKLORE. MATERIALES Y CUESTIONARIOS (1921-...). → [EF].

EUZKEL-EGUTEGIYA (1910-1934). Tolosa. → [EgutTo].

GAMIZ, Juan Bautista (c. 1770). «Juan Bautista Gamiz arabarrak idatzitako euskal testuak eta J. Goikoetxea-Maizak argitaratuak». *Euskera* XIX, 1974: 203-206. → [Gamiz].

GARATE, Gotzon (1988). *Erdarakadak*. Bilbo. → [Erdarakadak].

— (1998). *Atsotizak. Refranes. Proverbs. Proverbia*. Bilbo. → [Garate].

GARRO, Bernardo «Otxolua» (1932). *Bertoldaren maltzurkeri zurrak eta Bertoldinen txaldankeri barregarriak*. Bilbo. → [Bertolda].

GAZTELUZAR, Bernard (1686). *Eguia catholicac*. Paue. (L. Akesoloren edizioa: Bilbo, 1983). → [Gazteluzar].

GERRIKAGOITIA, Tomas (2000). *Arantza eta larrosa*. Oiartzun. → [ArantzLar].

GOIKOETXEA, Juan (1967). «Loyola inguruan osatutako iztegitxoa», *Euskera* XII, 1967: 25-53. → [Loiola].

HARANEDER, Joannes (c. 1740). *Iesu-Christo gure Iaunaren Testament Berria*. → [Haraneder].

HARRIET, Maurice (c. XIX. mendearen amaieran). «Euskara-frantsesa» eskuizkribu-hiztegia. → [Harriet].

HIRIART-URRUTI, Jean (1971). *Mintzaira, aurpegia: gizon!* Donostia. → [MintzAurp].

HIRIBARREN, Jean Martin (1853). *Eskaldunac. Iberia, Cantabria, Eskal-Herriac, Eskal-Herri bakhotcha eta hari darraicona*. Baiona. → [Eskaldunak].

INSAUSTI, Jose (2002). *Beti bertsoa buruan*. Auspoa Liburutegia bilduma, CCLXXVI. Oiartzun. → [BetiB].

INTZA, Damaso (1928). «Esaera zurrak», *Euskera* IV, 1928: 259-280. → [EsZah I].

— (1963-1964). «Esaera zurrak», *Euskera* VIII-IX, 1963-1964: 143-178. → [EsZah II].

— (1974). *Naparroako euskal esaera zurrak*. Iruñea. → [NEZ].

IRAZUSTA, Juan Antonio (1946). *Joañixio*. Buenos Aires. → [Joañixio].

ITURRIAGA, Agustin Pascual de (1842). *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado*. Donostia. → [Iturriaga].

ITURZAETA, Andres (1899). *Aita Gaspar Asteteren icasbide cristinaucorraren azalduera laburrac*. Durango. → [Iturzaeta].

IZTUETA, Juan Ignazio (1824). *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia beren soñu zar, eta itz neurtu edo versoakin*. Donostia. → [GD].

– (1847). *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*. Donostia. → [GK].

– (1978). *Iztuetaren olerkiak*. Tolosa. (J. Garmendiaren edizioa). → [IztOlerk].

JAUREGI, Luis «Jautarkol» (1929). *Biozkadak*. Iruñea. → [Biozkadak].

KALZAKORTA, Jabier (2007). *Dantza-kopla zaharrak*. Laratz Ahozko Literatura bilduma, III. Bilbo. → [KoplZah].

– (2017). *Arratiako dantza-koplak*. Bilbo: Labayru Fundazioa. → [ArratKopl].

KAPANAGA, Martin Otxoa de (1656). *Exposición breve de la doctrina christiana*. Bilbo. → [Kapanaga].

KARDABERAZ, Agustin (1744). *Cristauaren vicitza*. → [KristBiz].

– (c. 1760-1761). *Aita S. Ignacio Loyolacoaren egercicioac*. I, II, III eta IV. Iruñea. → [Ejerzizioak].

– (1761). *Eusqueraren berri onac*. Iruñea. → [EBO].

LABAIEN, Antonio (1931). *Euskal-Eguna*. Tolosa. → [Euskale].

LANDERRETXE (1925). «Erran zuhurrak», *Euskera* IV, 1925: 37-56. → [Landerretxe].

LANDUCCIO, Nicolao (1562). *Dictionarium Linguae Cantabrigae*. → [Landuccio].

LARDIZABAL, Francisco Ignazio de (1855). *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*. Tolosa. → [Lardizabal].

LARRAKOETXEA, Hipolito «Legoaldi» (itzle.) (2009). *Grimm anaien berrogeita hamar ume ipuin*. Sutondoan bilduma, XXI. Bilbo. → [Larraoetxea].

LARRAMENDI, Manuel de (1745). *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*. Donostia. → [DT].

— (1756). *Corografía o descripción general de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*. → [CG].

LAZARRAGA (Pérez de), Juan (c. 1564). Eskuizkribua. (G. Bilbao Telletxea, R. Gómez López, J.A. Lakarra Andrinua, J. Manterola Agirre, C. Mounole eta B. Urgell Lázaroren edizioa: *Lazarragaren eskuizkribua. Edizioa eta azterketa*. Filologia eta Hizkuntzalaritza Saila bilduma, XXIII. UPV/EHU). → [Lazarraga].

LHANDE, Pierre (1921). *Yolanda. Irakurgaia*. Donostia. → [Yolanda].

Lujanbio, Jose Manuel «Txirrita» (1971). *Txirritaren bertsoak*. I. Tolosa. (A. Zabalaren edizioa) → [Txirrita I].

MADARIAGA, Bartolome «Fray Bartolome» (1816-1819). *Icasiqizunac*. I, II eta III. Iruñea. → [Ikasikizunak].

MAIORA, Fernando (2018). *Reino de Navarra. Euskera, lengua inteligible. Causas del retroceso*. → [ReinEusk].

MENDIBURU, Sebastian (c. 1750tik aurrera). *Mendibururen idazlan argitaragabeak*. I eta II liburukiak. (P. Altunaren edizioa: Bilbo, 1982). → [Mendiburu].

MIRANDE, Jon (1976). *Orhoituz*. Donostia. → [Orhoituz].

MITXELENA, Koldo (1954). «Textos vascos antiguos: un catecismo vizcaíno del siglo XVII», BAP X (1), 1954: 85-95. → [VJ].

— (1964). «Refranes de Isasti» (§ 3.3.3), *Textos arcaicos vascos*. Colección Biblioteca Vasca, VIII. Madril. → [Isasti].

— (1972). *Mitxelenaren idazlan hautatuak*. Bilbo. → [MIH].

— (1988). *Mitxelenaren euskal idazlan guztiak*. I-IX. Donostia. → [MEIG].

MITXELENA, Salvatore (1949). *Arantzazu. Euskal sinismenaren poema*. Oñati. → [Arantzazu].

MOGEL, Bizenta (1804). *Ipui onac*. Donostia. → [IO].

MOGEL, Juan Antonio (1800). *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac*. Iruñea. → [KK].

- (1803). *Confesino ona*. Gasteiz. → [KO].
- (1881). *Peru Abarka*. Durango. → [PAb].
- (c. 1791). *Christinaubaren eracuspena edo doctrina christiania*. (Derioko eskuizkribua). → [Erakuspena]. Oharra: *Cristaubaren icasbidea edo doctrina cristiania* izenburuaz ere ezagutua. (Arantzazuko eskuizkribua, L. Villasanteren edizioa: Bilbo, 1987).
- (1991). *Juan Antonio Mogelen sermoiak*. Donostia. (A. Arejitaren edizioa). → [MogSerm].
- (c. 1800). *El catequista bascongado. Cristau eracastle euscalduna*. (A. Arejitaren edizioa: Bilbo, 1994). → [EE].
- MOGEL, Juan Jose (1816). *Baseerritar nequezaleentzaco escolia edo icasbidia, guraso justu, ta jaquitun familia ondo azi ebeeneen exemplan ta eracutsijetan*. Bilbo. → [Eskolia].
- (1820). *Egunoroco lan-on ta erregubac meza santuba ondo entzuteco, confesino eta comunioya biar dan leguez eguiteco prestaera eta zucenbidia*. Bilbo. → [Egunoroko].
- MOKOROA, Justo Maria (1990). *Ortik eta emendik. Repertorio de locuciones vascas*. Bilbo. → [OE].
- MOULIER, Jules «Oxobi» (1966). *Oxobiren lan orhoitgarri zonbait*. 1966. → [Ox].
- MUGERZA, Eusebio «Mendaro Txirristaka» (1974). «Mendaro Txirristaka» bertsolaria. Auspoa Liburutegia bilduma, CXX, CXI eta CXXII. Tolosa. → [MendTx].
- MUJICA, Gregorio (1927). *Pernando Amezketarra. Bere ateraldi eta gertaerak*. Donostia. → [Amezketarra].
- MUNIBE, Xabier M.^a (1764). *El borracho burlado*. Gasteiz. → [BorrBurl].
- MUNITA, Inozenzio (1952). *Zuaitzi berriak antolatu, ta lengoak zaintzeko zuzenbide batzuek*. Tolosa. → [Munita].
- NARBAITZ, Pierre «Arradoi» (1966). *San Frantses Jatsukoa*. Donostia. → [SFran].

OIHENART, Arnould (1657). *Proverbes basques, recueillis par le Sr. d'Oihenart, plus les poésies basques du mesme auteur*. Paris. (Edizio facsimilea: RIEV 1935: 201-264 eta 665-728). → [ProvBasq].

OLEA, Inozenzio (1970). *Goierriko lorak*. Auspoa Liburutegia bilduma, XCVIII eta XCIX. Tolosa. → [GoierLor].

ORMAETXEA, Nikolas «Orixe» (1950). *Euskaldunak*. Donostia. → [Euskaldunak].

— (1950-1954). *Kiton arrebarekin*. (I. Seguirolaren edizioa: Donostia, 1987). → [KArreb].

ORMAETXEA ALDANA, Pedro «Lontzi Aba» (1947). *Ipuintxuak*. Santiago (Txile). → [Ipuintxuak].

ORTUZAR, Errobusten (1925). *Oroigarriak. Bermeoko arrantzaleen bizikeraz eraturiko antzerkiak*. Bermeo. → [Oroigarriak].

OTXANDIOKO ESKUIZKRIKUBA (c. XIX. mendearen hasiera) → [OtxEsk].

PERURENA, Patziku (1990). *Harripilatan ezkututzen zeneko apo tipiaren burutazioak*. Donostia. → [Harripilatan].

PETRIARENA, Juan Francisco «Xenpelar» (1969). *Xenpelar bertsolaria*. Tolosa. (A. Zabalaren edizioa). → [XenpBerts].

PRADERE, Blas (1915). «Edaleentzat gogoangarriyak», *Euskal-Esnalea* 1915: 108-109. → [Pradere].

SAN MARTIN, Juan (1960). *Zirikadak. Ipuin barregarriak liburua*. Zarautz. → [Zirikadak].

SATRUSTEGI, Jose Maria (1967). *Luzaideko kantiak*. Auspoa Liburutegia bilduma, LXV. Tolosa. → [LuzaidKant].

SAUGUIS, Bertrand de (c.1627). *Euskaldunen erran zaharrak*. (J. Urkijoren edizioa: RIEV 1908, VI: 706-724). → [Saug].

SOROA, Martzelino (1886). *Baratzan*. (A. Zabalaren edizioa: Tolosa, 1962). → [Baratzan].

TARTAS, Jean de (1666). *Onsa hilceco bidia*. Ortheze. → [Onsa].

- UBILLOS, Juan Antonio (1785). *Cristau doctriñ berri-ecarlea*. Tolosa. → [Ubillos].
- URKIJO, Julio (1911-1933). «Los refranes y sentencias de 1596: estudio comparativo», RIEV 1911-1933. (*Refranes y sentencias comunes en bascuence, declarados en romance*). (J.A. Lakarraren edizioa: Bilbo, 1996). → [RS].
- URKIZU, Diego Lorenzo (1737). *Liburu Virginia Santissimien Errosario Santuena*. Iruñea. → [Urkizu].
- URRUZUNO, Pedro Migel (1965). *Ur-zale baten ipuiak*. Tolosa. (A. Zabalaren edizioa). → [UrzIpuin].
- ZABALA, Juan Mateo (c. 1820). «Fábulas en dialecto vizcaíno», RIEV 1907: 87-98 eta 529-543; eta 1909: 27-40. → [Fab].
- (1822-1823). *Irungo sermoitegia*. → [IrunSerm].
- (1826 eta osteko urteak). *Jerusalemgo sermoitegia*. → [JerusalSerm].
- ZABALA ETXEBERRIA, Antonio «Aita Zabala» (1963). *Aizkolariak eta beste ipui asko*. Auspoa Liburutegia bilduma, XXIII. Tolosa. → [Aizkolariak].
- (1977). *Afrikako gerra (1859-1860)*. Auspoa Liburutegia bilduma, CXXIX. Tolosa. → [Afrika].
- (1982 eta 1985). *Jan-edanaren bertsoak*. I eta II. Auspoa Liburutegia bilduma, CLIV eta CLV. Tolosa. → [JanEd].
- (1984 eta 1985). *Euskal jokoak bertsoan*. I (1984) eta II (1985). Auspoa Liburutegia bilduma, CLXXX eta CLXXXIII. Tolosa. → [EJB].
- (1985). *Esaera zaarren bilduma berria*. I eta II. Auspoa Liburutegia bilduma, CLXXXIV eta CLXXXV. Tolosa. → [EZBB].
- (1997). *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*. Oiartzun. → [KarlBB].
- ZAITEGI, Jokin (1962). *Platoneneko atarian*. Donostia. → [Platon].
- ZAMARRIPA, Paulo (1913). *Manual del vascófilo*. Bilbo. → [ManVascf].
- (1926). *Zaparradak*. Bilbo. → [Zaparradak].

ZUBIA, Nikolas (1691). *Doctrina christiana*. Donostia. → [Zubia].

ZUBIAUR, Jose Ramon eta ARZAMENDI, Jesus (1976). «Él léxico vasco de los refranes de Garibay», *ASJU* 10, 1976: 47-144. → [Garibai].

ZUBIRI, Enrike (1958). *xx. mendeko Nafarroako euskal idazlariak. Selección de narraciones, crónicas y artículos de Enrique Zubiri*. Iruñea. (A. Irigaraireren edizioa). → [Zubiri].

ZULUAGA, Domingo (2009). *Ibarrangelu kantu eta kontu*. Laratz Ahozko Literatura bilduma, VIII. Bilbo. → [IbarrangKant].

LABURDURAK

[Abarrak I] → *Abarrak*. (1918).

[Abarrak II] → *Abarrak*. (1930).

[Acto] → *Acto para la Nochebuena*.

[AEF] → *Anuario de Eusko Folklore*.

[Afrika] → *Afrikako gerra (1859-1860)*.

[AGald] → *Ardi galdua*.

[Aierbe] → *Erasa tajutubak*.

[AitUzta] → *Aitonaren uzta. Gezaltzako aitonaren kontakizun eta bertsoekin*.

[Aizkolariak] → *Aizkolariak eta beste ipui asko*.

[AL] → *Auñemendiko lorea*.

[AlosT] → *Alos Torrea. Elezar berritua*.

[AmaE] → *Ama Euskeriaren liburu kantaria*.

[Amezketarra] → *Pernando Amezketarra. Bere ateraldi eta gertaerak*.

[Amilleta] → *Antzuolako J.B. Amilletaren dotrina*.

[AprVas] → *Aprende el vasco*.

[Arantzazu] → *Arantzazu. Euskal sinismenaren poema.*

[ArantzLar] → *Arantza eta larrosa.*

[Arranegi] → *Arranegi.*

[ArratKopl] → *Arratiako dantza-koplak.*

[Baratzan] → *Baratzan.*

[BArgia] → *Bearguillearen argia.*

[Basarri] → *Kantari nator.*

[BatB] → *Batetik bestera.*

[BehinB] → *Behin da betiko.*

[Belapeire] → *Catechima laburra.*

[Berg] → *Bergara aldeko lexikoa.*

[Bertolda] → *Bertoldaren maltzurkeri zurrak eta Bertoldinen txaldankeri barregarriak.*

[BetiB] → *Beti bertsoa buruan.*

[Betolaza] → *Doctrina christiana en romance y basquence.*

[Biozkadak] → *Biozkadak.*

[Bitaño] → *Bitañoren Durangaldeko esaerak.*

[BGuzur] → *Batxi Guzur.*

[BorrBurl] → *El borracho burlado.*

[CEEN] → *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra.*

[CG] → *Corografía o descripción general de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa.*

[CPV] → *Cancionero popular vasco.*

[DEgiko] → *Domingo Egikori gorazarre kantua.*

- [Discursos] → *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva.*
- [DT] → *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín.*
- [DurPl] → *Durangoko Plateroak.*
- [DVEF] → *Diccionario vasco-español-francés.*
- [EBO] → *Eusqueraren berri onac.*
- [EE] → *Cristau eracasle euscalduna.*
- [EF] → *Eusko Folklore. Materiales y Cuestionarios.*
- [Egunoroko] → *Egunoroco lan-on ta erregubac meza santuba ondo entzuteco, confesino eta comuninoya biar dan leguez eguiteco prestaera eta zucenbidiaic.*
- [EgunTx] → «Egusentiko txoria» eta beste bertso asko.
- [EgutAr] → *Arantzazuko Andre Mariaren egutegia.*
- [EgutTo] → *Euzkel-egutegiya.* (Tolosa).
- [EHHA] → *Euskararen herri hizkeren atlasa.*
- [EJB] → *Euskal jokoak bertsoan.*
- [Ejerzizioak] → *Aita S. Ignacio Loyolacoaren egercicioac.* (Ostean datorren zenbakia, liburukiari dagokio).
- [Elizalde] → *Apezendaco dotrina christiana uscaras.*
- [Erakusaldiak] → *Eracusaldiaic.* (Ostean datorren zenbakia, liburukiari dagokio).
- [Erakuspena] → *Christinaubaren eracuspenna edo doctrina christiania.*
- [Erdarakadak] → *Erdarakadak.*
- [ES] → *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri.*
- [Eskaldunak] → *Eskaldunac. Iberia, Cantabria, Eskal-Herriac, Eskal-Herri bakhotchta eta hari darraicona.*
- [Eskolia] → *Baseerritaar nequezaleentzaco escolia edo icasbidiaic, guraso justu, ta jaquitun familia ondo azi ebeeneen exemplu ta eracutsijetan.*

[EsZah I] → *Esaera zarrak*. (1928).

[EsZah II] → *Esaera zarrak*. (1963-1964).

[Euskaldunak] → *Euskaldunak*.

[EuskalE] → *Euskal-Eguna*.

[EuskAntz] → *Euskal antzerkiak. Kontu-kontari*.

[EY] → *Euskalerrriaren yakintza*. (Liburukia aipatzen ez denean, III. liburukiari dagokio, eta zenbakia, erretrauari).

[EZBB] → *Esaera zaarren bilduma berria*.

[Fab] → *Fábulas en dialecto vizcaíno*.

[Festara] → *Festara*.

[Gamiz] → Juan Bautista Gamiz arabarrak idatzitako euskal testuak.

[Garate] → *Atsotizak. Refranes. Proverbs. Proverbia*.

[Garibai] → E. Garibairen erretrau-bilduma. (Ostean datozen A eta B letrek, kodexei erreferentzia egiten diete, eta horien alboan datorren zenbakiak, erretrauari).

[Garoa] → *Garoa*.

[Gazteluzar] → *Eguia catholicac*.

[GD] → *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia beren soñu zar, eta itz neurtu edo versoquin*.

[Genoveva] → *Santa Genovevaren vicitza. Antziñaco demboretaco condairen ederrenetaco bat*.

[Gero] → *Guero*.

[GizartAuz] → *Gizarte-auzia. Ugazaba ta langille arteko gora-berak*.

[GK] → *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*.

[GoierLor] → *Goierriko lorak*.

[Haraneder] → *Iesu-Christo gure Iaunaren Testament Berria.*

[Harriet] → «Euskara-frantsesa» eskuizkribu-hiztegia.

[Harripilatan] → *Harripilatan ezkututzen zeneko apo tipiaren burutazioak.*

[IbarrangKant] → *Ibarrangelu kantu eta kontu.*

[Ibiltarixanak] → *Ibiltarixanak.*

[Ikasikizunak] → *Icasiquizunac.*

[IL] → *Itz-lauz.*

[IO] → *Ipui onac.*

[IpuinB] → *Ipuin-barreka.*

[Ipuintxuak] → *Ipuintxuak.*

[IrunSerm] → *Irungo sermoitegia.*

[Isasti] → *Isastiren errefrau-bilduma.*

[Iturriaga] → *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado.*

[Iturzaeta] → *Aita Gaspar Asteteren icasbide cristinaucorraren azalduera laburrac.*

[IztOlerk] → *Iztuetaren olerkiak.*

[JanEd] → *Jan-edanaren bertsoak.*

[JerusalSerm] → *Jerusalemgo sermoitegia.*

[JJ] → *Joanak joan. Piarres Topet «Etxahun» barkoxtar koblariari buruz egin eleberria.*

[Joañixio] → *Joañixio.*

[Josetxo] → *Josetxo.*

[Kapanaga] → *Exposición breve de la doctrina christiana.*

[KarlBB] → *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak.*

[KArreb] → *Kiton arrebarekin.*

[Kixote] → *Don Kijote Mantxako.*

[KK] → *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac.*

[KO] → *Confesino ona.*

[KoplZah] → *Dantza-kopla zaharrak.*

[Kresala] → *Kresala.*

[KristBiz] → *Cristauaren vicitza.*

[Landerretxe] → *Erran zuhurak.*

[Landuccio] → *Dictionarium Linguae Cantabrigiae.*

[Lardizabal] → *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira.*

[Larrakoetxea] → *H. Larrakoetxeak itzultitako Grimm anaien ipuinak.*

[Latsibi] → *Latsibi.*

[Lazarraga] → *Lazarragaren eskuizkribua.*

[LexicEibar] → *Lexicón del euskera dialectal de Eibar.*

[LibEd] → *Liburu ederra aita Cardaveraz jesuistac egina, Lapurdico escarara itzulia.*

[Loiola] → *Loyola inguruan osatutako iztegitxo.*

[LorIlla] → *Andra Mariaren loretako illa.*

[LS] → *Lora sorta espiritual, ta propositu santuac vicitza barri bat eguiteco.*

[LuzaidKant] → *Luzaideko kantiak.*

[MaldanB] → *Maldan behera.*

[ManVascf] → *Manual del vascófilo.*

[MEIG] → *Mitxelenaren euskal idazlan guztiak.*

- [Mendiburu] → *Mendibururen idazlan argitaragabeak*. (Liburukia aipatzen ez denean, I. liburukiari dagokio, eta zenbakia, errefracuari).
- [MendTx] → «Mendaro *Txirristaka*» bertsolaria.
- [MD] → *Manual devotioezcoa*.
- [MIH] → *Mitxelenaren idazlan hautatuak*.
- [MintzAurp] → *Mintzaira, aurpegia: gizon!*
- [MisE] → *Misionari euscalduna*.
- [MogSerm] → *Juan Antonio Mogelen sermoiak*.
- [Munita] → *Zuaizti berriak antolatu, ta lengoak zaintzeko zuzenbide batzuek*.
- [NApur] → *Nere apurra*.
- [NekeA] → *Nequea arinduric*.
- [NereB] → *Nere bidean*.
- [NEZ] → *Naparroako euskal esaera zarrak*.
- [NGaran] → *Nor garan azaldu*.
- [OdolMintz] → *Odolaren mintzoa*.
- [OE] → *Ortik eta emendik. Repertorio de locuciones vascas*.
- [OEH] → *Orotariko euskal hiztegia*.
- [Olerkiak] → *Olerkiak*.
- [Onsa] → *Onsa hilceco bidia*.
- [Orhoituz] → *Orhoituz*.
- [Oroigarriak] → *Oroigarriak. Bermeoko arrantzaleen bizikeraz eraturiko antzerkiak*.
- [OtxEsk] → *Otxandioko Eskuizkribua*.
- [Ox] → *Oxobiren lan orhoitgarri zombait*.

[PAb] → *Peru Abarka.*

[PatxikoTx] → *Patxiko Txerren.*

[PB] → *Parnasorako bidea.*

[Platon] → *Platoneneko atarian.*

[Pradere] → *Edaleentzat gogoangarriyak.*

[ProvBasq] → *Proverbes basques, recueillis par le Sr. d'Oihenart, plus les poésies basques du mesme auteur.*

[ReinEusk] → *Reino de Navarra. Euskera, lengua inteligible. Causas del retroceso.*

[RS] → *Refranes y sentencias comunes en bascuence, declarados en romance.*

[Saug] → *Euscaldunen erran zaharrac.*

[SFran] → *San Frantses Jatsukoa.*

[Sign] → *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua euskaraz eta gaztelaniaz.*

[SuplementosDL] → *Suplementos al Diccionario trilingüe del P. Larramendi.*

[Tobera] → *Mugaldeko herrian eginikako «Tobera».*

[Txirristadak] → *Txirristadak.*

[Txirrita I] → *Txirritaren bertsoak.*

[Ubillos] → *Cristau doctriñ berri-ecarlea.*

[Udarregi] → *Udarregi bertsolaria.*

[UDB] → *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac.*

[UmetMeñ] → *Nire umetako Meñaka.*

[Urkizu] → *Liburu Virgina Santissimien Errosario Santuena.*

[Urretxindorra] → *Gure Urretxindorra. Enbeitatar Keparen bertso-lanak osorik.*

[UrzIpuin] → *Ur-zale baten ipuiak.*

[Usauri] → *Usauri (irakurgaia).*

[VocBasc] → *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipúzcoa y Navarra.*

[VJ] → *Viva Jesus dotrina.*

[XenpBerts] → *Xenpelar bertsolaria.*

[Yolanda] → *Yolanda. Irakurgaia.*

[Zaparradak] → *Zaparradak.*

[Zerbitzari] → *Atsotitz, zuhur-hitz eta erran-zahar.*

[ZestErret] → *Zestoarren erretolika.*

[Zirikadak] → *Zirikadak. Ipuin barregarridun liburua.*

[Zubia] → *Doctrina christiana.*

[Zubiri] → *xx. mendeko Nafarroako euskal idazlariak. Selección de narraciones, crónicas y artículos de Enrique Zubiri.*

